E U S K A L

D I A L E K T O L O G I A R E N

H A S T A P E N A K

Egileak: J. Abaitua
J. A. Aduriz
E. Agirre
M. A. Alberdi
M. J. Angulo
A. Aurrekoetxea
G. Aurrekoetxea
K. Bereziartua
L. Egia
A. Esnaola
M. Etxebeste
M. Fernandez
J. Gabilondo
A. Guijarro
I. Kamino
E. Lezamiz
A. Miner
B. Nabaridas
J. L. Ormaetxea
A. Otsoa
I. Plazaola
J. L. Ugarte
I. Uria
I. Usabiaga
X. Zubizarreta

Zuzentzailea
Txillardegi.

Kudeatzailea
G. Aurrekoetxea.

Jabegoa: U.E.U.ko LINGUISTICA Saila
Lege-gordailua: BI-1638-83
I S B N : 84-398-0491-1
Inprimategia: I. BOAN, S.A. - Plar de Costa, 12 - BILBAO-10

AZALPEN BATZU HITZAURRE GISA

0.0 - Gero eta euskaltzale gehiagok, barne-joeraz nahiz ikaskizunez, Euskal Dialektologia ikastuden gaur egun; eta euskaraz ikasten gainera. Honelako testu-liburu baten beharra, beraz, agiri-agirian zegoen.

Iruñean 1982.ko Uztailean lanean ari ginelarik, euskalkiei buruzko liburu bat prestatzea erabaki genuen. Eta talde-lanean egitea.

Urte t'erdiz lan egin ondoko fruitua duzu Euskal Dialektologia apal hau.

0.1. - Lehenengo arazoa bikoitza izan zen:

a) zein euskalki aztertuko?
b) zein azterbideren arauera?

Liburuaren tamaina finkatu genuen aurrenik: 300 / 350 orrialde. Luzeago ez.

Luzera horretan Bonaparte-ren 25 azpi-euskalkiak aztertzeko modurik ez ikusiz, Azkue-ren zazpi nagusiak hautatzea erabaki genuen: azpi-euskalkien arteko ñabardurak xeheki ikertu gabe utziz. Eta zazpi euskalki ezagunak hartu genituen ikergaitzat:

1 - Bizkaiera
2 - Gipuzkera
3 - Nafarrera garaia (= goi-nafarrera)
4 - Lapurtera
5 - Nafarrera beherea (= baxenabarrera)
6 - Zuberera
7 - Erronkariera.

Eta euskalki horietako bakoitzari 50 bat folio eskaintzea erabaki genuen. Mugatu-behar horrek, jakina, lanak eman dizkigu; euskalki batzuren iker-lanak askoz ere orrialde gehiago hartua baitzuen, eta laburtu beharra gertatu baita.

Nolanahi ere, jarraipide bakarra eman zitzaien denei:

1 - Geografia: euskalkiaren eskualdea.
2 - Egoera soziolinguistikoa.
3 - Fonologia.
4 - Morfo-sintaxia.
5 - Hiztegia
6 - Transkribaketa fonetikoa (ahal izan denean).
7 - Bibliografia.

Euskalkien banaketa egin zen, beraz, eta lanean hasi ginen.

0.2 - Gorago esan dugun bezala, talde-lanez burutu da liburu hau.

Zenbait kasotan pertsona bakar batek ikertu du bere euskalkia. Erronkariera, adibidez, Joseba Gabilondok landu du, berak bakarrik. Gauza bera Gipuzkera, Jose Luis Ugarte-ren eskuetan utzia; edo-ta Nafarrera garaia, Iñaki Kamino-renetan.

Beste zenbait kasotan, berriz, benetako talde-lana egin da bospasei lankideren artean; nafarrera behereaz, zubereraz eta bizkaieraz bereziki. Lapurtera, azkenik, talde txikiago batek aztertu du.

Nahiz izkribuen azterketa, are zuzenketa batzu ere, Biltzaileak eginak izan, talde-lanaren asmoari eutsi nahiz, egileek berek idatzitakoa bere hartan utzi da ahalean bederen.

0.3 - Posible izan den kasoetan, ere berean, bildu diren "corpus"en arauera egin dira deskribapenak; delako "corpus" horien barruan, orain arteko bibliografian irakur zitekeenetik oso urrun geratzen ez ziren fenomenoak ez ziren ber.

Zenbait aldiz, halere, eta Erronkarierari buruz bereziki, jadanik argitaratutako ikerlanen arauera idatzi da kapitulua.

0.4 - Ideia horiei eutsiz, horretara, ikertzaileek entzun uste izan zu tenen arauera egin dira transkribaketa fonetikoak. Beroietan aurki daitekeen polimorfismoa, beraz, ez da, nahi-ta-ez, zehaztasunik ezaren ondorio, edozein hizkeratan gertatu ohi den polimorfismoaren froga baizik. Fonologiaren mailan, esate baterako, bere horretan utzi dugu [ö] / [ü] balio fonetikoen arteko bitasuna; nahiz morfema beretan gertatu.

Eta, inprimaketaren zailtasunak kontutan hartuz, Alfabeto Filologikoa erabili dugu azkenean; nahi izango genukeen I.P.A. delakoa erabili beharrean. Bion arteko kidetzak ezagunak izanik, aisa egin dezake sinboloen trukea ira kurleak berak.

0.5. - Nahiz batzutan Sánchez Carrión edo Irigarai-ren datuak baliatuak izan, Pedro de Yrizar-en "Contribución a la Dialectología Vasca" liburu bikoitza erabili dugu demografi-oinarri nagusitzat.

Era berean, izendapenak euskaraturik ere, euskalkien mapen oinarria Pedro de Yrizar-en liburuetan aurkitu dugu. Eta argi-eta-garbi aitortzen diogu zor hau gipuzkoar euskalkilari saiatuari.

0.6. - Lexiko teknikoari buruz, pentsa daitekeenez, UZEI-ren Hiztegiak izan ditugu gidari. Eta puntu batean edo bestean pittin bat aldendu baldin bagara ere, oro har UZEI-ren jarraitzaile izan gara.

Euskalkiak letra bakar batez ematerakoan, berriz, bazegoen besterik. Bonaparte-ren eta Azkue-ren lanei jarraituz gero, eta jakina denez, letra hauetxek genituen jarraigarri:

Bizkaiera : B
Gipuzkera : G
Lapurtera : L
Zuberera : S
Erronkariera : R
Nafarrera : HN edo AN
Baxenabarrera : BN

Ezaguna denez, erdal izendapenak dira (frantsesezkoak eta gaztelaniazkoak) letra horien funtsa.

Puntu horretan ere, ordea, tradizioa euskalduntzeko garaia heldua dela iruditu zaigu; eta honela bataiatu ditugu zazpi euskalki nagusiak:

Bizkaiera	: B
Gipuzkera	: G
Lapurtera	: L
Zuberera	: Z
Erronkariera	: E
Nafarrera garaia	: NG (Ipar- , Hego-) (= goi-nafarrera)
Nafarrera beherea	: NB (Ek., Mend.) (= baxenabarrera)

Bidezko iruditu zaigu Estatuen arteko mugaz bi alderdietako nafarrera mota guztietan N letra agertzea. Aspaldidanik hartu zuen bide bera bere Hiz tegian Aita Lhandek; baxenabarrera N huts bataiatuz.

Lan-tresna bat eskaini nahi izan die U.E.U.-k euskaraz Euskal Filologia ikasten diharduten guztiei; baita gure euskalkiak zer diren erdaratik igaro gabe jakin nahi duten guztiei ere.

Osoagorik eta zehatzagorik eskatzen duen lan-tresna bat da hau, noski. Baina epe batez bederen Euskal Herrian baliagarri gertatzea izango litzateke liburua prestatu dugun guztion pozik eta ohorerik handiena.

Geroak erranen.

Txillardegi

Donostian, 1983 - XI - 16

TRANSKRIBAKETA FONETIKOEI BURUZ

Transkribaketa fonetikorako darabilgun sistemaz zertxobait bederen esatea komeni dela uste dugu.

Badago gure artean alfabeto fonetikoez hala nolako eztabaida.

Guk, hemen, guzti hori kontutan hartuz eta arrazoi pedagogikoei lehentasuna eman nahian Alfabeto Filologikoan (Fil.) oinarritzen den eta euskararen munduan (gehien) erabiltzen den sistema aukeratu dugu.

Erabilgarritzat jotzen ditugu, hala ere, API (Alphabet Phonetique International) eta Ethn. (Alphabet de l'Institut d'Etnologie), delakoak.

Hiru alfabeto fonetiko hauen arteko kidetzak parekatzea nahi duenak Txillardegiren "Euskal Fonologia" liburuan (401-418 or.) aurki ditzake.

A U R K I B I D E A

SARRERA V

BIZKAIERA 5

GIPUZKERA 117

NAFARRERA GARAIA 199

LAPURTERA 229

NAFARRERA BEHEREA 277

ZUBERERA 299

ERRONKARIERA 335



0.1. Mapa

Euskalki-mugak

Azpi-euskalki mugak

Probintzi-mugak

Bonaparte-ren sailkapena (1869, IV)



0.2. Mapa: Azkue-ren sailkapena.

B I Z K A I E R A

M. J. Angulo
A. Aurrekoetxea
G. Aurrekoetxea
A. Guijarro
E. Lezamiz
B. Nabaridas

I. SARRERA SOZIOLINGUISTIKOA

Sarrera - Historia

Caro Barojaren ustez Bizkaierazko euskalkia, eta baita euskalki guztiak ere, historia aldetik sartu eta landu da, Tribuaren eragin handiagatik.

Bizkaian, Arabako alderdi batetan eta Gipuzkoako alderdi bateraino -Debako arroraino- ipin ditzakegu mugak; edo, hobeto esanda, Debaraino heltzen ziren, CARISTIOAK: tribu bat beste tribu batzuren artean. Autrigoiak ere aipa ditzakegu: leinu hau Bizkai barruan aurkitzen dugu, Santander aldetik hobe esanda. Kastro Urdializ-tik Enkarterri guztiak, Nerbioiraino. Haiek dira Autrigoiak, Caristioak, ostera, hemendik Debako arroraino, baina bizkaiera Caristioaren leinuan hitz egiten da bakarrik, herri hauetan Debako arroan aurrera, Gipuzkoako hitz barnetik hasten da jadanik Barduloen leinua eta, noski,Gipuzkera euskalkia.

Dena dela, Bizkaiera eta Gipuzkeraren arteko mugak Debarroan (Elgoibarren), eta itxasertzean (Lekeitio, Ondarroa, Mutriku, Deba, Itziar) ditugu. Elgoibar, Mutriku eta Debaren artean dugu "Encrucijada" linguistikoa.

Deba arroa ikusi ondoren, ez daukagu inolako zalantzarik. Hegoalde aldetik, Plaentxia (Soraluze) hartuta ere, noski (eta baita Oñati ere), Bizkaieraz hitz egiten dela. Dialektologia mailan, Bizkaiera ez dela Bizkai osoan bakarrik mintzatzen esan dezakegu; Gipuzkoa erdian eta Araban ere mintzatzen baita. Honetan, hain zuzen ere, Bizkaieraz hitz egiten zen; nahiz eta gaur egun dena galduta egon, Aramaionan izan ezik.

I.2. BIZKAIERAREN AZPIEUSKALKIAK (ikus 1 mapa)

Euskalkiak sailkatzen saiatu zen lehen hizkuntzalaria Bonaparte printzea dugu. Honi zor diogu bizkaierari dagokion lehen sailkapena; edo "lehenak", bi sailkapen ezberdin egin batzituen.

BONAPARTEK LAU SAILKAPEN EGIN DITU

-1) 1861 - 1863

A) Ekialdekoa - Markina
- Bergara

B) Mendebaldekoa - Bermeo
- Gatzaga
- Arratia

C) Erdialdekoa - Gernika
- Arrigorriaga
- Plentzia - Laukiz
- Otxandio

-2) Bonaparteren bigarren sailkapena: 1866 - 1868

A) Ekialdea - Markina
- Elorrio
- Bergara

B) Mendebaldekoak - Bermeo
- Arratia
- Orozko
- Plentzia
- Arrigorriaga
- Gernika / Durango / Mungia
- Otxandio

C) Gatzaga - Gipuzkoakoa

-3) Bonaparteren hirugarren sailkapena: 1868 - 1869

A) Ekialdekoa - Markina
- Elorrio

B) Mendebaldekoa - Gernika: Zornotza, Lumo, Urbina, Mungia, Durango.
- Bermeo: Mundaka, Busturia, Murueta.
- Arratia: Zeanuri, Dima, Igorre, Bedia, Arantzazu, Lemoa, Areatza.
- Orozko: Baranbio (Ergoien hizkera bat)
- Plentzia.
- Arrigorriaga: Galdakao, Basauri, Barakaldo, Ugao (Miravalles) (Laudion daukagu beste mota txiki bat).

C) Gipuzkoakoa: - Bergara, Plaentxia-Soraluze, Elgoibar, Eibar, Antzuola (Oñati).
- Gatzaga (Elgean bertan ikusten dugu beste mota bat).

-4) Bonaparteren laugarren sailkapena; 1869

A) Ekialdekoak: - Markina.

B) Mendebaldea: - Gernika: Zornotza, Lumo, Urbina, Mungia, Durango.
- Bermeo: Mundaka, Busturia, Murueta.
- Arratia: Zeanuri, Areatza, Igorre, Dima, Arantzazu, Lemoa, Bedia.
- Orozko: Baranbio.
- Plentzia: Bakio, Plentzia, Gorliz, Urduliz, Gatika, Berango.
- Arrigorriaga: Galdakao, Basauri, Ugao, Barakaldo.
- Otxandio: Olaeta, (Aramaiona), Ubidea.

C) Gipuzkoa: - Bergara: Eibar, Elgoibar, Oñati, Antzuola.
- Gatzaga.

* Ikus 2 mapa.

Ondorengo ikerketa guztietan sailkapen hau hartu da oinarritzat. Hala nola Azkuek eta beste askok. ZABALAK adibidez, Bizkaiera lau azpieuskalkitan banatu zuen:

1 - Markinaldekoa.
2 - Arratialdekoa.
3 - Erdialdekoa.
4 - Orozkoaldekoak.

Badaude oraindik gehiago ere.

Hala ere hizkuntzalari gehienek bizkaierari dagokionez, Bonaparteren sailkapena erabiltzen dute.

I.3. Zenbait datu soziolinguistiko

Puntu honetara iritsita, hau galde genezake: zenbat euskal dun dago bizkaieraz mintzatzen denik?

Honetaz ere, ikerketa bat baino gehiago izan da gure artean. Hau dela-ta idazle bat baino gehiago agertzen zaizkigu.

1 - Odon de **Apraiz**.
2 - Ladislao de Velasco.
3 - Kanpion; Bonaparteren datuak fidagarri zaizkio idazle honi.
4 - Lafon.

Baina goazen Irizar-ek 1970-ko erroldako datuen arauera egindako lana ikustera: IRIZARREK beste ikerketa berri bat egin du, Bonaparteren zatiketa jarraituz.

1 - EKIALDEKO AZPIEUSKALKIA.

A) Markina aldeko hizkera - mota: Mota hau herritxo hauek

osatzen dute: Markina-Jemein, Amoroto, Arbazegi, Berriatua, Ea, Etxebarria, Elorrio, Ermua, Gizaburuaga, Izpaster, Lekeitio, Mallabia, Mendexa, Murelaga, Ondarroa eta Zaldibar.

* Biztanleak orokorki: 55.071
* Euskal hiztunak: 32.071 - 58% euskaldunak.

2 - MENDEBALDEKO AZPIEUSKALKIA

A) Gernikaldeko hizkera-mota: Herri hauek sartzen ditugu hizkera honetan:

- Gernika eta Lumo, Abadiño, Zornotza, Etxano.
- Arrieta, Berriz, Durango, Fruiz, Garai, Mañaria.
- Maruri, Morga, Mungia, Errigoiti.
- Araban; Zigoitia - Akosta
  - Murua
  - Ondategi
  Legutio - Elosu
  - Urbina
  - Urrunaga

* Biztanleak orokorki: 74.816
* Euskal hiztunak: 44.634 - 69% euskaldunak.
* Ikus mapa Arabakoa; 3 mapa.

B) Bermeo aldeko hizkera: Hizkera-mota hau Bermeo ondoko herri hauek osatzen dute: Bermeo, Busturia, Mundaka, Olzurreta, Elantxobe, Ereño, Ibarrangelu, Arteaga, Sukarrieta, Natxitua, Ea eta Murueta.

* Biztanleak orokorki: 24.688
* Euskal hiztunak: 18.943 - 77% euskaldunak.

C) Plentziako barietatea: Hizkera hau, herri hauek betetzen dute: Plentzia, Bakio, Berango, Gatika, Gorliz, Getxo, Laukiz, Lemoiz, Leioa, Sopela, Urduliz, Derio, Loiu, Sondika, Zamudio.

* Biztanleak orokorki: 85.469
* Euskal hiztunak: 23.432 - 27% euskaldunak.

D) Arratiako hizkera: Hizkera hau herri hauek osatzen dute: Arantzazu, Arteaga , Zeanuri, Dima, Larrabetzu, Lemoa, Bedia, Areatza, Igorre.
Euskaraz gitxien hitz egiten duen herria Areatza da. Izugarrizko erdalzaletasuna nabari da herri honetan.
* Biztanleak orokorki: 14.927
* Euskal hiztunak: 11.220 - 89% euskaldunak.

E) Orozkoko hizkera: Herri hauek: Orozko, Baranbio (Lezama).
* Biztanleak: 2.688
* Euskaldunak: 2.012 - % 74 euskaldunak.

F) Arrigorriagako hizkera: Arrigorriaga, Arakaldo, Arrankudiaga, Basauri, Zeberio, Etxebarri, Galdakao, Ugao eta Laudio. Herri honetan (Laudion) ia inork ez du gaur euskaraz hitz egiten, euskaldun familiaren bat bakarrik geratzen delarik, Laudioko jatorrikoak.
* Biztanleak: 98.761
* Euskal hiztunak: 7.230

G) Otxandioko hizkera: Otxandio, Olaeta (Aramaio), Ubidea, Elosu (Legutio).
* Biztanleak: 2.611
* Euskal hiztunak: 1.299

Ubidean ez da ia euskara entzuten umeen eta gazteen artean.
Olaeta (Aramaion Aramaioko udal honetako beste herritxo guztiak, Gatzagako hizkeran sartuko ditugu.

3 - GIPUZKOAKO AZPI-EUSKALKIAK.

A) Bergarako hizkera. Honetan herri hauek sar daitezke: Bergara, Eibar, Elgoibar, Elgeta, Oñati, Plaentxia-Soraluze.
* Biztanleak orokorki: 84.980
* Euskal hiztunak: 43.582 - 52% euskaldunak.

B) Gatzagako hizkera. Hemen Gatzaga, Aretxabaleta, Eskoria

tza eta Arrasate sartzen dira.

* Aramaion (Araban) hauek sartzen dira: Arexola, Azkoaga, Etxaguen, Gantzaga, Ibarra, Untzella eta Uribarri.

* Barrundian (Araban): Elgea, Maneta-Larrintzar, Uzaeta.

* Biztanleak: 33.641 dira.

* Euskal hiztunak: 16.111 (=%)

LABURPENA

EUSKALKIA	AZPIEUSKALKIA	HIZKERA
	1 - Ekialdekoa 32.100	- Markina - 32.071
Bizkaieraz 200.400	2 - Mendebaldekoa 108.700	- Otxandio - 1.300 - Gernika - 44.600 - Bermeo - 19.000 - Plentzia - 23.400 - Arratia - 11.200 - Orozko - 2.000 - Arrigorriaga - 7.200
	3 - Gipuzkokoa 59.600	- Bergara - 43.500 - Gatzaga - 16.100

Hori ikusita hau esan dezakegu: 200.400 euskaldun daudela Bizkaieraz mintzatzen direnak. Oro har, 533.500 euskaldun gara euskal lurraldeetan, (dena dela badago gehiago kanpoan). Bizkaierari dagokionez Elgoibar Gipuzkeran sartzen da.

Beraz, bizkaieraz 193.400 euskaldun daude. Hau da 7.000 gutxiago (zuzenketak AZKUEk egindakoak dira.)

Orain arteko datuetan ez dira, ez Bilbo, ez Gasteiz, ez Iruñea, ez Donostia sartzen.

Bilbon eta Barakaldon bertan, bizkaieraz mintzatzen dira.

Sestao, Portugalete eta Santurtzin, 5.700-ek hitz egiten dute bizkaieraz.

Portzentaiak ateraz gero, bizkaieraz hitz egiten dutenak %33 dira, gutxi gora behera.

Aurreko datuak 1970.eko erroldatik hartuak ditugu. Ikus ditzagun orain 1980.ekotik hartuak.

EUSKARAREN EZAGUPEN MAILA

UDALERRIA:	Hitzegin		Idatzi		Biztanleak
	Nekez	Ondo	Nekez	Ondo	
Abadiano	847	2.725	1.147	1.932	6.511
Abando-Zierbana	543	110	463	99	9.490
Zornotza	2.194	6.696	3.550	3.265	15.575
Amoroto	9	405	247	115	412
Arakaldo	9	46	25	6	123
Arantzazu	15	225	48	16	282
Munitibar	6	501	336	109	495
Artzentales	7	5	9	3	714
Arrankudiaga	152	370	235	103	837
Arrieta	5	441	20	9	449
Arrigorriaga	1.227	899	994	434	8.912
Bakio	81	821	170	170	1.175
Barakaldo	7.618	1.591	6.629	1.577	118.908
Barrika	133	303	183	48	774
Basauri	6.601	3.335	5.855	2.077	51.996
Berango	667	949	692	385	4.136
Bermeo	1.405	12.986	4.646	3.428	17.778
Berriz	112	2.057	686	758	4.127
Bilbao	52.598	31.079	47.714	18.899	431.328
Busturia	125	1.251	415	713	1.832
Karrantza	38	24	32	21	3.392
Arteaga	26	536	134	175	650

	Hitzegin		Idatzi		Biztanleak
	Nekez	Ondo	Nekez	Ondo	
Zeanuri	27	1.221	455	491	1.298
Zeberio	26	932	330	221	1.067
Dima	35	1.011	227	228	1.093
Durango	3.659	8.959	4.685	4.342	26.101
Ea	23	776	231	480	845
Etxebarri (Uribe)	524	310	404	123	6.323
Etxebarri (Markina)	20	666	104	469	717
Elantxobe	9	537	71	405	578
Elorrio	391	3.686	1.125	2.331	7.857
Ereño	7	287	179	87	310
Ermua	1.531	2.217	1.710	1.270	18.705
Fruiz	0	285	119	114	286
Galdakao	3.240	6.440	3.475	2.947	26.545
Galdames	23	4	24	2	812
Gamiz-Fika	10	825	140	151	879
Garai	4	206	185	13	235
Gatika	25	796	286	242	897
Arteaga (Gautegi)	45	643	463	146	759
Gordoxola	76	21	66	20	1.701
Gorliz	467	658	387	197	3.205
Getxo	12.544	6.594	11.354	4.312	67.321
Guenes	535	89	513	121	6.483
Gernika-Luno	2.158	11.382	6.213	4.433	17.836
Gizaburuaga	1	150	89	31	139
Ibarrangelu	26	478	149	52	499
Ipazter	13	566	362	191	628
Izurtza	19	230	59	153	311

	Hitzegin		Idatzi		Bistan-leak
	Nekez	Ondo	Nekez	Ondo	
Larrabetzu	161	1.140	543	306	1.608
Laukiz	128	535	175	316	1.050
Leioa	3.270	2.238	2.911	1.154	22.382
Lemoa	298	1.795	813	582	3.033
Lemoiz	111	562	280	83	943
Lekeitio	349	5.585	2.480	1.761	6.874
Mallabia	83	852	149	654	1.147
Markina-Xemein	321	4.146	1.638	2.056	4.781
Jatabe	19	423	185	87	493
Mendata	5	385	73	25	392
Mendexa	10	314	131	141	337
Meñaka	11	369	78	30	393
Ugao	336	1.073	492	304	4.270
Morga	10	364	163	79	378
Muxika	53	1.463	914	316	1.588
Mundaka	228	1.179	436	450	1.301
Mungia	1.350	6.116	3.041	2.187	11.345
Aulesti	7	680	402	170	685
Muskiz	461	123	420	99	6.010
Otxandio	127	816	288	171	1.290
Ondarroa	833	9.299	2.994	3.456	12.150
Urduña	366	89	352	70	4.396
Orozko	254	1.301	423	369	2.092
Samikoia=Pedernales	27	202	97	65	265
Plentzia=Gaminiz	484	558	491	217	3.040
Portugalete	5.297	1.285	4.712	1.202	57.534

	Hitzegin		Idatzi		Bistan-leak
	Nekez	Ondo	Nekez	Ondo	
Errigoiti	2	506	2	8	518
Trapaga	889	221	772	195	13.582
Lezama(Txoriherri)	112	1.292	712	268	1.786
Santurtzi	4.112	993	3.619	970	53.329
Ortuella	437	59	396	63	8.918
Sestao	3.110	636	2.720	717	39.933
Sopela	1.100	1.508	1.050	623	6.259
Sopuerta	164	22	134	40	2.165
Truzioz	21	3	23	1	554
Ubide	12	123	54	33	149
Urduliz	232	1.130	391	321	2.658
Balmaseda	504	100	423	110	7.853
Atxondo	49	804	683	56	1.340
Bedia	108	687	394	225	1.201
Areatza	145	558	119	66	1.226
Igorre	150	2.140	992	102	3.426
Zaldibar	277	1.114	631	467	3.222
Zalla	330	56	318	59	7.827
Zaratamo	241	558	241	510	1.750
GUZTITARA	126.457	173.180	146.107	79.272	1.731.333



1. Mapa

BIZKAIERA

II. EZAUGARRI FONOLOGIKO-FONETIKOAK

1. Bokalak:

Bokaleetan euskararen euskalki gehienetan ematen den sistema hau daukagu; hots, bost bokale: a, e, o, i, u.



Beraz, hiru irekidura maila:

a irekiena
e, o erdikoak
i, u itxiak

Halere bokale doble edo bikoitzak ere ematen dira sarri askotan bizkaieran Villasante(1) eta K. Rotaetxe- (2)ren ustez. Holmer-ek (3), ordea, ez dela bokale luze eta laburren arteko ezberdintasunik ematen esaten du. Fenomenoa Gipuzkoan ere galtzen ari denez gero, bizkaieraz lehen maizago gertatzen zela esan daiteke; Markinako hizkera-multzoan bereziki.

(1) K. IZAGIRRE, El vocabulario vasco de Aranzazu-Oñate y zonas colindantes liburuaren hitzaurrean.
(2) K. ROTAETXE, Estudio estructural del euskara de Ondarroa. 686. orr.
(3) HOLMER - A. HOLMER, "Apuntes vizcaínos".

2. Diptongo eta hiatoak

Diptongoez ari garenean, gehienbat diptongo beheranzkoez dihardugu, mota hau baita ere zaharra eta hedatuena, bai euskara osoan, eta baita bizkaierak dituen azpieuskalkien baitan ere.

Diptongook ondoko hauek ditugu:

au: Normalki "au" gorde egiten da, hots ez da galtzen: aurre, gaur.... Dena den zenbait aldaketa jasan dezake. Ebakeran diptongo honek behin baino gehiagotan jotzen du eu-rantz bizkaiera osoan ez bada ere (4); gehienetan "a" eta "e"ren arteko doinu batez ebakiz: topau [topɛʊ]
gaur [gɛʊr]

Galdu ere egin daiteke, eta au / a alternantziak sortuz:

andi	aundi
itandu	itaundu
arpegi	aurpegi
jabe	jaube

"au", azkenik, "o" edo "u"n bilaka daiteke. Moutard-ek mendebaldeko azpieuskalkian honelakoak aurkitu zituen (5):

gose	(gauza)
intxurre	(intxaurra)

Azken silaban ere aurki daiteke: garun (garaun)

eu: Ugaria Moutard-en ustez: euri,euli, neu, euskera, neurri,..
Sarritan eu> au daukagu: auri, auli, nau (neu)
Baita beste hau ere: eu> e: deko, deku,

Ai, ei, oi: Diptongo hauek, hots, bigarren elementutzat i dutenak, bizkaieran hurrengo kontsonantea bustiz desagertu egiten

(4) HOLMER- A. HOLMER, "Apuntes vizcaínos"
(5) MOUTARD, "Etude phonologique sur les dialectes basques", 22 orr.

dira. Hor adibide batzu:

naiz > nax
noiz > nox
aize > axe
zaila > salla
laño, bakotx, elexa, aretxa, goxean.....

Bustidura eman ondoren, bigarren fasean, berriz, despalatalizа daiteke:

nax > nas
nox > nos

"ai"k bestalde, "ei" egiterako joera bizia dauka bizkaieran Holmer-en eritziz (Ap. vizc.): egitai > egitei.... Halere hor ditugu: gaztai, nasai, mai...

Baina ez da hemen amaitzen bizkaieran eman daitezkeen diptongo guztien zerrenda. Badauzkagu ou... (6) eta horrelako gehiago ere.

Bestalde, bizkaiera berean ere, eta osoan ez bada, bai zenbait eskualde eta herritan, baditugu goranzko diptongoak ere. Hor adibidez Rotaetxek Ondarroako euskaran aurkitu dituenak (7): bjarra edo bi-arra, arrjeta, gwasen. Eta egwerdi, Urkjola... Gehienak [kw-] eta [gw-]a belareekin azaldu ohi dira (gipuzkeraz bezala, bestalde).

Hiatoak

Kanpion-en eritziz (8) bizkaiera hiatoen aldekoa da, beste euskalkietan ematen ez den bitartean.

Hiato hauek gehienetan bokalarteko kontsonante ozenen errortzearen ondorio ditugu: zaar, eon (<egon), leatz (legatz, Ondarroako hizkeran).

(6) K. ROTAETXE, Estudio ..... 64. orr
(7) Idem
(8) Gramática de los cuatro dialectos vascos.

3. Bokale-harmonia

Bokale-harmonia "asimilazio bokalikoaren fenomeno bati esaten zaio" (9). Fenomeno fonetiko hau Bizkaiko bizkaieran ematen da, hots, Mendebalde eta Ekialdeko bizkaieran, ez ordea, Gipuzkoakoan.

Fenomenoa honetan datza: i eta u-ren eraginez hurrengo silabako a>e bihurtzen da. Bai mugatzailea (-a) denean, bai hitz barruan, bai sandhietan (zenbait lekutan bederen):

i denean:	mendi - a	mendie, mendixe....
	indar	inder
	etorri da	etorri de
	idi bat	idi bet
u denean:	negu - a	negue
	gauza bat	gauze bat
	buru bat	buru bet

Honek, fenomeno honek, geroago ikusiko dugunez, deklinabidean izugarrizko aldaketa fonetikoak eragingo ditu.

4. Bokale-elkarketak (10)

Hitz amaierako bokale eta -a mugatzaileak sortzen dituzten aldaketa fonetikoak aztertuko ditugu hemen.

Aldaketa fonetiko hauek joera fonetikoek eraginik ematen dira. Joerok historian zehar aldakorrak dira, edo izan daitezke bederen. Kasu bat aipatzearren (11) Markinan eman den aldaketa

(9) UZEI, Hizkuntzalaritza hiztegia I, 62 or.
(10) ikus, "Erizkizundi irukoitzari Bizkaiak erantzun diona." Euskera, 10, (1925), 16-36. orr.; A. M. Etxaide, "ordenación cartográfica de algunos datos del "Erizkizundi irukoitza". B. J. Urquijo (1974), 113-174 orr.; IRIZAR, Contribución a la dialectología vasca, T. I, 248-49 orr.; RIJK (Rudolf P. G.) "Vowel interaction in Bizcayan Basque"
MOUTARD, N., "Etude phonologique sur les dialectes Basques" AMURIZAK ba du buruturik eta eskematizaturik bizkaierari buruzko aldaketa fonetikoez orrialde bat.
(11) RIJK, lehen aipat. 11. orr.

dugu adibide: Bonaparteren denboretan alabia, semia, mendiya, buruba... esaten zen. Rollo-k (12), ordea, alabie, semie, mendixe, astue, buru(b)e dakarkigu. Azkuek ere azken forma hauek jaso zituen bere "Erizkizundi irukoitzean".

Beraz, ikus ditzagun bost bokale horiek -a mugatzailearekin topo egiten dutenean zer ematen duten bizkaieraren eremuan:

1. -a + a: 5 eratara gutxienez ebakitzen da. Ikus dezagun:

   - ea : Arratia osoan, Orozko, Galdakao, Lezama, Zamudio, Derio, Sondika, Loiu, Berango, Laukiz.
   - ia : Meñaka, Ugao, Arrankudiaga, Lekeitio, Gizaburuaga, Aulestia, Garai, Ermua, Eibar, Elgeta, Bergara, Antzuola, Arrasate, Galdakao, Aretxabaleta, Gatzaga, Larrabetzu, Oñati, Durango, Mundaka, Mendexa, Mungia... (Erizkizundi Irukoitza).
   - -ie : Plentzia, Bakio, Zaratamo, Errigoiti, Ibarrangelua, Ea, Arteaga, Lekeitio, Arbazegi, Berriatua, Izurtza, Iorreta, Mañaria, Aspe, Apatamonasterio, Abadiño, Arrasate, Otxandio, Ubidea, Gopegi, Mallabia, Bermeo, Muxika, Fika, Ondarroa ("Erizkizundi Irukoitza"). Dena den Ondarroa eta Markiñaldean gaur egun -i egiten dute.
   - e(e): Maruri, Erandio, Getxo, Laukiz, Loiu, Gorliz, Lemoiz eta Gatikan (Erizk. Iruk., 18-19 orr.) (ikus mapa).



A. ETXAIDE, "alaba" hitza "ordenación cartográfica de algunos datos del Erizkizondi irukoitzá "triple cuestionario" lanean oinarritutako mapa.

(12) RIJK-ek aipatzen du 11. orrialdean.

Mapa honetan ikusten denez, hiru bariante nagusi ditugu bizkaieran:

- ea: Mendebaldean dugu nagusi.
- ie: Erdialdean eta Bizkai Ekialdean.
- ia: Gipuzkoaldean

2. -e + a: Beste bost aldagai ematen digu honek; hots: -ea, -ia, -ie, -e (e), -i. Eta -a + a bokale-elkarketaren barianteak ematen diren lekuetan ematen dira hauek ere. Hori dela eta, bizkaieraren eremuan -a + a eta -e + a amaierak erratu egiten dira.

3. -i + a: "Erizkizundi Irukoitzari Bizkaiak erantzun diona" (13) lanean 7 bariante dakartza. Ondoko hauek ditugu:

- ie: 25 herritan eta Txorierrin maizenik ematen dela dio Erizk. Irukoitzean. Rijk-ek Uribe, Arratia eta Orozkon ematen dela. Galdakao eta Zeberion ere ematen da Amurizaren ustez.
- idxe: 47 herritan (Erizk. Iruk.). Gernika, Bermeo, Zornotza, Arrigorriaga, Otxandio eta Markina Rijk-en ustez. Gernikalde, Durangalde, Lea Ibarra, Deba Garaia eta Aramaion Amurizaren ustez.
- idxa: Lau herritan bakarrik (Erizk. Iruk.). Durango, ekialde eta Gipuzkaldean Rijk-en ustez. Eibarralde, Soraluze eta Lekeitio Amurizak dioenez
- ixa: Aretxabaleta, Arrasate eta Ermua (Eriz. Iruk.)
- ixe: 8 herritan (Erizk. Iruk.). Ondarroa eta Markiñaldean (Amuriza).
- ii: Maruri, Gorliz, Berango, Leioa (Erizk. Iruk.). Amurizak -i jartzen du Txorierri behe partean, Mungialde eta Uriben.
- iye: 15 herritan.

---

(13) Ikus Op. cit. 23. orr.

4. -o + a: Sei bat bariante ditugu hemen ere:

- oa: (47 herritan) Txorierri, Arratia, Orozko, Zigoitia (Erizk. Iruk.). Gernika, Mungia, Uribe, Arratia, Arrigorriaga, Laudio (Rijk).
- ue: eta -ua 48 herritan (Erizk. Iruk.). Rijk-en ustez -ue Bermeo, Busturia, Otxandio, Durango, Markina. Eta -ua Ekialdean eta Gipuzkaldean.
- oo: Berango, Getxo, Leioa, Barrika, Gorliz, Urduliz, Maruri eta Lemoizen (Erizk. Iruk.). Amurizak -o jartzen du Txorierriko behe alderako, Mungialde eta Uriberako.
- uu: Elentxu (Erizk. Iruk.). Ondarroa eta Markinaldea (Amur.)
- oba: Orozko-Zubiaur (Erizk. Iruk.)

5. -u + a: Beste sei bariante gutxienez:

- ua: 11 herritan, Gipuzkoa aldekoak gehienak (Erizk. Iruk.). Lekeitio, Gipuzkoaldea, Ekialdea, Bermeo (Rijk). Eta Eibar aldea, Soraluze eta Lekeitio, Amurizak.
- uba: Galdakao (Erizk. Iruk.). Lekeitio, Elgeta eta Ekialdea (Rijk).
- ube: Orozko-Zubiaur (Erizk. Iruk.). Orozko, Otxandio eta Markina (Rijk)
- uu: Gatika, Berango, Urduliz, Laukiz, Maruri, Gorliz, Leioa, Elentxu, Erandio, Getxo (Erizk. Iruk.). Amurizak -u jartzen du Txorierri behe aldean, Mungialde, Uribe, Ondarroa eta Markinaldean.
- -uã: Izurtza, Ea, Prux. (Erizk. Iruk.).
- -ue: Gainerako herri guztietan (Erizk. Iruk.). Gernikalde, Uribe, Arratia eta Arrigorriaga (Rijk). Arratia, Galdakao, Zeberio, Orozko, Txorierri goialdea, Gernikaldea, Durangaldea, Deba Garaia, Aramaio, Lea Ibarra, eta Bermeotik Elantxobe bitartean Amurizaren ustez.

II.1. Beste fenomeno fonetiko batzu

Badugu oraindik bokaleen artéan zenbait fenomeno fonetiko; batzu bizkaiera osoan ematen dira eta beste euskalkietarik bereiztu egiten dutenak, beste batzu, ordea, euskara osoan, hau da, euskalki guztietan ematen diren fenomenoak.

Dialektologia egiterakoan lehen haiek ditugu garrantzitsuagoak dudarik gabe. Hauetarik bi aipatuko genituzke:

1. e / a alternantzia. Bizkaieran "a" daukagu, beste euskalkietan "e" daukagun bitartean. Txandaketa hau textuinguru foniko hauetan ematen da (14):

   a) Dardarkari gogorraren aurrean:

   barri (B) / berri
   txarri / zerri, txerri
   garri / gerri
   bardin / berdin

   b) "l" + kontsonantearen aurrean:

   baltz / beltz

2. i / u alternantzia daukagu bigarrenik. Bizkaieran "u" ematen du hasierako "i"k:

   uger (igeri)
   ule, ulle (ille, ilhe)
   untze, ultze (iltze..)
   urten (irten, erten)
   uri ((h)iri)
   urun (irin)

   Baina kontrakoa ere ematen da: gitxi - gutxi

---

(14) Ikus sakonago, Mitxelena, F.H.V., "vocales" saila

3. Hala ere baditugu bizkaieraren eremuan beste fenomeno fonetiko batzu ere: hala nola asimilazioa, disimilazioa, metatesiak, sinkopak...

Hona hemen asimilazio kasu batzu:

azkenengo	askanengo (Holmer, Ap. vizc.)
atera	atara (Azkue, Morf., 258)
eskuetan	eskuutan (Azkue, Morf., 665)
badoa	baduu
ukitu	ukutu
zenbat	zenbet-zemet

Sinkopak, adibidez: andra, -e

II.2. Kontsonanteak

II.2.1. Sistema kontsonantikoa

Bizkaieraren bereiztasunak aipatzerakoan jende arruntari datorkion puntuetarik bat euskalki honetan zenbait kontsonanteri ematen zaion ebakera da.

Ebakera ezberdin hau txistukarietan ematen da batez ere. Nork ez daki gaur egun "s" eta "z" ez direla beste euskalkietan bezala bereizten, euskaraz ez badaki ere, Bizkaian? Berdin "ts" eta "tz"ri buruz, kasu aipagarrien biak aipatzearren. Eta herri uste edo eritzi hau ez dago guztiz erraturik.

Beraz, "s" /ś/ txistukari frikari apiko-albeolare gorra eta "z" /s/, mingain-albeolarea erratu egiten dira ebakeran. Navarro Tomasek dioenez: "Mis sujetos no hicieron distinción entre la s y la z" (15). Burutzapena [ś] da ("z", "s" = [ś]):

zuzena [śuśena]
gizon [giśon]

Dena den, burutzapen hau ez da bakarra ez orokorra, hedatuena bada ere, lan sakonagorik eza nabaria delarik.

Berdintsu daukagu afrikatuetan. Hemen ere apiko-albeolare eta mingain-albeolareak, hots, "tz" /c/, eta "ts" /ć/ erraturik dauzkagu. Burutzapena, apikala da /c/, hots, "tz":

atso [aco]
atzo [aco]

Halere frikarien kasuan esana, esan beharko litzateke kasu honetan ere.

---

(15) "Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Gernika", 3. Congreso de Estudios Vascos, 1923, 49-56, aipamena 52. orr. Ikus baita MOUTARD, "Etude..." 18. orr.: ekialdean bada /s/rik, maileguetan (/sapatue/, /kansautenaś/), baita bestelakoetan: /es/, /isan/

Beraz, txistukari eta txetxekarietan hau izango litzateke bizkaieran ematen den egoera:

Bizkaieran	apikoalbeolarea	mingain albeolarea	sabai aurrekoa
frikariak		ś	š
Afrikatuak	c		č

Euskaran	apiko-albeolarea	mingain albeolarea	sabai-aurrekoa
frikariak	s	ś	š
Afrikatu	c	ć	č

apiko-albeolare eta mingain-albeolarearen arteko oposizioa galduz; burutzapena frikarietan mingain-albeolarea ("s") den bitartean, afikatuetan apiko-albeolare ("tz"), sistema sinplifikatuz.

Gainerako kontsonanteetan ez da bereiztasun nabarmenik aurkitzen bizkaiera eta beste euskalkien artean. Ez goaz, beraz, sistema osoaren irudirik jartzen. Halabaina, eman dezagun bizkaieran kontsonanteetan ematen den zenbait berezitasunen berri. Horretarako /j/ fonemaren ebakera eta bustidura hartuko ditugu oinarritzat, hauetan ematen baita berezitasun nabarmenena.

/j/ fonemaren ebakera

Fonema honek bizkaieran 4 ebakera ezberdin izan ditzake, ezagunenak bi badira ere (ikus mapa)

"jan" hitzaren mapa:

A - [y]
B - [x]
C - [s]
E - [ds]



Etxaide "Ordenación cartográfica de algunos datos del "Erizkizundi Irukoitza"tik hartua.

Beraz:

1. [y] Bakiotik hasi, Errigoititik, Arratia eta Arabako Akosta, Murua, Manurga, Gopegi, Eriberaino marratik ezkerretarantz dauden ia herri guztietan ematen da ebakera hau.

2. [x] Goian aipatu marra horretatik eskumatara gehiengoa [x̣] da ebakeraz. Lurralde honetan bestalde beste ebakera batzu ere ematen dira.

3. [dš] Ebakera hau "jan" hitzean herri hauetan ematen da: Ubidea, Otxandio, Murua, Nafarrete, Legutio, Gatzaga, Aspe, Arteaga, Ibarrangelua, Lekeitio, Eibar eta Elgeta.

Bustidura

Jakina da euskaran bi eratako bustidura edo palatalizazioa eman daitekeela, balio adierazkorrekoa eta inguramenduzkoa, alegia.

Bizkaieran bat baino ez da ematen: bigarrena, aurreko "i" batek eragindakoa, hain zuzen. Ez da jadanik sortzen balio adierazkorrik duen hitzik. Bustidura fosilizatua dago (Azkue, Morf. 278§). Beraz, "i" bokal edo bokalerdiak osteko kontsonantea busti egiten du:

i + s, z > [š] goizean [goš̆ean], izerdi [iš̆erdi]
i + ts, tz > [č] bakoitz [bakoč̆]
i + n > [n̬] mina [miṇe], oina [oṇe]
i + l > [l̬] mutila [mutil̬e]
i + t > [t̬] aita [ait̬e]
i + n + d > [ind̬] egin dot [ind̬ot]
i + n + t > [int̬] iminten [imit̬en]

Hala ere den hauek ez dira bizkaiera osoan ematen. Hemen ezina dugu bustidura egiten ez den eremu eta egiten dena bereiztea, bizkaiera osoan egiten da eta. Bestalde, zenbat eta ezkerrerago hainbat eta gutxiago eta zenbat eta eskumarago seguruago ematen dela aitortu behar A. M. Etxaidek burutu dizkigun mapei kasu egiten badiegu behinik behin (ikus mapa).



A_1 - mutila

B_1 - mutilla

B_2 - mutille

(A. M. Etxaide "Ordenación cartográfica de algunos datos del "Erizkizundi irukoitza (triple cuestionario)" lanetik hartua).

Beraz Arratia, Txorierri eta inguruak izango ditugu gutxi en egiten den tokiak. Adibidez eta kasu bat baino ez aipatzearren Mendebaldeko Bonaparteren "central" deitu horretan t ugari ditugu i-ren ondoren: aitte, maitte... , Mendebaldeko besteetan agertzen ez den fenomenoa (16).

(16) Ikus baita MOUTARD, "Etude...", 19. orr; K. ROTAETXE, Estudio... 78. orr.;

II.2.2. Neutralizazioak

Euskaran (eta baita bizkaieran ere) oposizioak sarri ezabatzen edo neutralizatzen dira.

Horietako neutralizazio batzu hauek dituGu:

a) Leherkariak zenbait posiziotan neutraliza daitezke:

1. Hitz haseran euskara zaharrean oposizioa neutralizatu egiten zen. Gaur egun neutralizazio hau galdu samar dau kagu eta batez ere bizkaieran; gorrak maiz agertzen baitira:

kerexa, parkatu, prakak...

gehienak ozenez ebakitzen badira ere.

2. Txistukari eta txetxekarien ondoren neutralizazioa gorra da. Hitz barruan: asti, asko, azpi (K. Rotaetxe, Estudio... 91. orr.). Sandhietan "ez" ukapenezkoaren ondoren:

ez du [eśtu]
ez gara [eśkara]

Dena den ez da neutralizazio hau guztiz orokorra (17). Batez ere "ez" hori ez denean; eta hau muga-mailari loturik dago (ik. Txillardegi-ren "Euskal azentuaz" Tesia).

noiz goaz [nośgoaś]
noiz da [nośda]

3. Hitz amaieran burutzapen gorrez neutralizatzen dira. Gorrak ere, t kenduz, beste biak oso gutxi agertzen dira:

arrunt, prest, bat.....lexikoan.
dut..., semeak.... morfologian.

b) Txistukari eta txetxekariek ere sortzen dituzte neutraliza-

(17) A. IRIGIOEN, "Euskara normalizatuaren ahoskatzeaz; Txillardegik Bergarako biltzarretarako bidali duen lanari oharrak" E. XXIV (1978-2), 631-638. orr.

zio batzu:

1. Frikari/afrikatuen arteko oposizioa neutralizatu egiten da hitz haseran. Burutzapena bikoitza da, frikaria da txistukaria (s, z, /ś/ eta /s/) eta afrikatua txetxekaria (tx, /č/):

senar, zaar, zenbat...
eta txakur, txarri, txarto...

2. Leherkari gorren aurrean (PTK) ere, burutzapena frikari izanik:

zorr̥otz	zorroztu	[śorroštu]
latz	laztu	[laštu]

3. Baita R, L, N kontsonanteen ondoren. Kasu honetan burutzapena afrikatua da:

giltz, kaltzerdiak, deskantzau...

c) r/r̄ dardarkarien artean bokalartean ez beste inguru foniko guztietan (18): aRtu, loRtu, aRdi.....

d) l/ll oposizioa kontsonante aurre eta atzean, hitz hasieran eta amaieran (19) neutralizatu egiten da, oposizioa bokalartean bakarrik mantenduz: aLtu, Laño .....

II.2.3. Beste fenomeno batzu

Kontsonanteetan bizkaiera eta gainorantzeko euskalkien artean ematen den d/l alternantzia dugu nabarmenena:

bizkaieran edur /elur
bedar /belar
zidar /zilar...

Beste hau ematen da -gi/-ki aditzetan:

bizkaieran ebagi /ebaki
jagi /jaiki (Azkue, Morf., 53 bis)(20)

---

(18) "El archifonema se realiza como vibrante simple detrás de consonante, múltiple ante consonante, al final y en algunos préstamos..." K. Rotaetxe. Estudio..., 93. orr.
(19) Bizkaiera osoan ez bada ere.
(20) Azkue, Morfología Vasca, 514, 515, 516 .

Badago oraindik beste alternantziarik ere bizkaiera barruan:

lasai / nasai
edo / ero; edan/eran (arruntak Ondarroan)
ipini / imini

Asimilazioak: zenbat [śemet]
ondiño [oiniɲo] (Holmer, Ap. vizc.)
Erorketak: r Ø: nor baina nok (nork), zek ...
d Ø: sudur su(u)r

Azentua

Azentuaz ezer esatekotan, eta ikerkuntzen bidez gaia sakontzen ez den bitartean, gehienok ezagutzen ditugun 2 gauzatxo esango ditugu:

1. Homofonoak bereizteko erabiltzen da azentua:
   basó / báso (mendia / edalontzia)
   txistúa / txístua (txua / musika tresna)
   bazátoz / bázatoz (baieztatu) / (baldintza)
   aldatzéko / aldátzeko .... (izena / aditza)

2. Balio morfologikoa ere badu; hots, singular eta plurala bereizteko erabiltzen da; Arratieran adibidez honako hauek ditugu:
   uméa / úmeak (pl.)
   andréa / ándrak "
   kamiñóa / kamíñoak

III. MORFOSINTAXIA

III.1. Izenaren deklinabidea

Bizkaieraz Izen Sintagmek hartzen dituzten erlazio-atzizkiak beste euskalkietan erabili ohi direnak dira, gehien batez. Hala ere forma nahiko ezberdinetan agertzen zaizkigu, batez ere pluraletan. Hona hemen, gaingiroki, bizkaierak erabili ohi duen deklinabidea.

	MUGAGABEA	MUGATU SINGULARRA	MUGATU PLURALA
NOR	--	-A (1)	-AK
NORK	-(e)K	-AK (2)	-AK
NORI	-(r)I, -ERI (3)	-ARI (4)	-AI, EI, ERI, AIRI
NOREN	-(r)EN (5)	-AREN (5)	-EN, AN
ZERIK	-(r)IK	--	--
NOREKIN	-(e)GAZ	-AGAZ (8) (7)	-AKAZ, EKAZ (6)
ZEREZ	-(e)Z	-AZ	-EKAZ (9)
NON	-(e)TAN	-(e)AN	-ETAN, ATAN
NO(REN)GAN	-[(e)EN]GAN (11)	-A(REN)GAN (10)	-AKAN, -EKAN, -ANGOAN
NONDIK	-(e)TATIK	-(e)TIK, DIK, TI (12)	-ETATIK
NO(REN)GANDIK	ENGANDIK, GANDIK ANDIK GAIK	-AGANDIK, ANDIK	-AKANDIK, EKANDIK
NONGO	-(e)TAKO	-(e)KO	-ETAKO
NORA	-(e)TARA	-(e)RA (13)	-ETARA
NO(REN)GANA	-GANA ANA	-AGAINA, ANA, AGANA, ÑE	-KANA, AKAINA
NORENTZAT	-(r)ENTZAT	-ARENTZAT (14)	-ENTZAT, ANTZAT

Oharrak: 1) /a/ organikoa dutenek artikulua hartzerakoan /a+a = ea/ egiten dute: neskea, neskearen, neskeari, neskearentzat,... baina pluralean eta inesibo singularrean neskak, neskan/en, neskai/ei ... (sokea, sopea, bandearea ...). Honi buruzko zehaztasunak jakiteko ikus fonetika-fonologia lana.

2) Bizkaieraz azentuak balio bereizgarria du: gizónak (sing) / gízonak (plur.).

3) Mugagabeetan hartu beharko ez lukeen /r-/ hartzen du: Mikeleren, Mikeleri, Mikelerentzat ... Mikelen, Mikeli, Mikelentzat ... erabili beharrean.

4) Singularreko "R" hori erortzen den lekuetan, azentu az desberdintzen dute pl. eta sing.(ikus. Nork kasua)

5) Ahozko euskeran gehienetan "RE" desagertzen da. Horrela "gizonaren" barik "gizonan" agertzen zaigu. (beste euskalkietan ere hauxe gertatzen da).

6) -(RE)KIN, -A(RE)KIN, -EKIN erako formak ere agertzen dira, batez ere plurala adierazterakoan.
Mutilagaz baina mutilekin

7) Kasu hau eta "Zerez" kasua nahiko nahasturik agertzen dira, askotan. Gainera neutralizazio bat ematen da:
lagunagaz - lagunaaz - lagunaz

8) Azkueren ustez Nogaz eta Norekin artean bazegoen desberdintasunik:
Aitagaz (erderazko "por medio de")
Aitarekin (erderazko "con")

9) Mugatu plurala ez da erabiltzen, "ez" atzizkia hartu beharrean "zegaz" kasukoa hartzen du.

10) Noren gainean eraikitako kasuek (Norengan, Norengandik ...) honen ezaugarria galtzen dute.

11) Kasu hau leku batzutan, edo ea desagertuta dago, edo beste kasu batzuekin nahastuta agertzen zaigu. Ondarruko euskeran, esate baterako: "aiztarengan" (Mg)

esan beharrean "aiztanin" edo "aiztatan" erabiltzen dute; "lehengusuengan" (Mg. pl.) esan beharrean "lengusunin" edo "lengusukin" esaten dute (ikus K. Rotaetxe "Estudio estructural ...")

12) Askotan "tik" erabili beharrean "rik" erabiltzen da

13) Kasu honen gainean NORANTZ (-rantza, Mendebaldean; -runtz, -rontz Ekialdean) eta Noraino (-anoik, -ragiño, -raño) kasuak ditugu. Bizidunekin ia-ia ez dira erabiltzen. Askotan "-raño" erabili beharrean "arte" erabiltzen da (Bilbora arte).

14) Bizkaiko zenbait herritan ez dituzte "-entzat" eta "-entzako" hizkiak bereizten. "Norentzako (edo honen bariantea: Norendako) da ogia?" eta halakoak askotan entzuten dira.
"-retako" ere erabiltzen da, batez ere izenorde pertsonalekin (neuretako ...)
Bermio - Mundaka aldean "-tzat" ahozkatu beharrean "tzak" esaten dute (geuetzak, guretzat-en ordez).

15) Oraintsu arte bizkaieraz ezezaguna zen /-I buruz/ horren ordez /-en goraberan, -en inguruan, -en gainean/ erabiltzen dira.

III.2. Erakusleak

a) Forma: Bizkaierak beste euskalkietan erabiltzen ez diren formak hartzen ditu: ("h" hau, jakina, ortografikoa da; ez fonetikoa).

Hau, hori, ha, honeik, horreik, hareik
Honen, horren, haren, honein, horrein, harein
Honi, horri, hari, honei, horrei, harei (honeri, horreri, hareri, ...)
Honentzat, horrentzat, harentzat, honeintzat, horreintzat, hareintzat edo honendako, horrendako, harendako, honeindako, horreindako, hareindako
Honegaz, horregaz, haregaz, honeikaz, horreikaz, hareikaz
Honegatik, horregatik, haregatik, honeikatik, horreikatik, hareikatik
Honetan, horretan, haretan, honeitan, horreitan, hareitan.

b) Erabilera

1) Beste euskalkietan izenaren atzean aurkitzen ditugu, baina bizkaieraz aurrean ere erabiltzeko joera handia dago. Dirudienez, hirugarren graduko erakuslea /a/ eta mugatzailea /-a/ ezberdintzeko, lehenengoak aurrera jo zuen:

etxe A
etxeA
} = A etxeA sortzen dute.

- Geroago, analogiaz, beste erakusleek ere aurreko lekua hartzen dute:

AU etxeA (edo-ta au etxeau zenbait hizkeratan)

- Ikusten denez nahiz eta erakuslea hartu, izenak mugatzailea ere hartzen du.
- Fenomeno hau aditz-lagunaren egituretara iragan da, eta adberbioz baliaturiko formak sortu ditu:
emen etxean, orra etxera, orduan denboran ...

2) Erakuslea izenaren aurretik eta atzetik jartzea, bizkaieran aurkitzen dugun beste berezitasun bat litzateke, Mikel Zarateren ustez euskalki gehienetan galtzen ari den "singular hurbila" sortzeko da. Kasu honetan erakuslea izenaren atzean dagoenez honek ez du mugatzailea hartzen.

onek txakurrak ⟶ onek txakur onek
oneri andreari ⟶ oneri andre oneri

- Bizkaierak, "singular hurbil" arrunta ere erabiltzen du: gazteori ...

3) Erakusleek /-xe/ atzizkia hartzen dutenean galdegai bihurtzen dira beti, eta aditzaren aurrean joan behar dute. Dena dela, nahiz eta galdegaiak izan, batzutan esaldiaren beste leku batzutan ikusten ditugu.

- Oso zaila litzateke hemen bizkaieraz agertzen zaizkigun bariante guztiak biltzea (Ikus. Azkueren hiztegian /-s̃e/). Laburki azaldurik halako zerbait agertzen zaigu:

Hauxe	honetxek
Horixe	horretxek
haxe	haretxek
honeitxek (honetxeik)	- (berdin)
horreitxek (horretxeik)	
hareitxek (haretxeik)	

honexetan
horrexetan
harexetan
honexeitan (honeixetan)
horrexeitan (horreixetan)
harexeitan (hareixetan)

honetxen	honetxeri
horretxen	horretxeri
haretxen	haretxeri
honeitxen (honexein)	honetxei
horreitxen (horrexein)	horretxei
hareitxen (harexein)	haretxei

- Bestelako batzu
  alantxerik/alantxik/alantxek/alakoxeak
  ordutixek/ oraindixek/oraingoxe/orduantxe/oraintxe.

III.3- Izenorde pertsonalak

Galdegaiak direnean, bizkaierak forma indartuaz baliaturik halako lokuzio aipagarriak sortzen ditu: Nik neuk, Niri neuri .. Forma: beste euskalkietan forma indartuak direnak bizkaieraz arruntak izango balira moduan erabiltzen dira, hots, ni/hi ... beharrean neu/eu / bera/geu/zeu/zeuek/eurek .

III.4- Bestelako izenordeak.

- EDOzer/ EDOnor/ EDOnoz/ EDOzein/ EDOzelan/ EDOnora/ EDOnundik/ EDOnongo , zerNAHI/ norNAHI/ noizNAHI .... eta abarren ordez.
- Nor edo nor = norbait; Zer edo zer=zerbait; Nun edo nun= nunbait; Bat edo bat = norbait; bein edo bein; bat zein bat (nornahi); lehen bait lehen; Bat ez bat (iñor ez); behin ez behin (inoiz ez).
- ZelanGURA, NozGURA, NunGURA... NolaNAHI, NoizNAHI, NunNAHI.... eta abarren ordez.
- Nundik nora, nundi edo handi, nundi edo nundi.

III.5- Adberbioak

Berezko adberbioak gutxi izanik euskaraz, bizkaieraz forma berezi batzu agertzen zaizkigu:

1) Beste euskalkietan /-ki/ atzizki bidez sortzen diren batzu, bizkaieraz /-to/ atzizkiaren bidez egiten da: ondo, ederto, txarto, polito...

2) Bizkaieraz oso adberbio gutxi ditugu, eta adjektiboak a ditzaren aurrean jarriz adberbioaren zeregina betetzen du: "zuzen erantzun eutson", "garbi dago".

3) Beste kasuetan, gerundioaren adiera duela, /-ka/ erabiliko da: bultzaka eroan dau, bultzaka darabil ...

III.6- ATZIZKIAK

Atzizki zerrenda hau Azkuerengandik (Morfología Vasca I) jaso dugu. Bereziki (Azkueren esanari jarraituz) bizkaieraz bakarrik erabiltzen diren zenbait atzizki aukeratu ditugu.

-KUNE (kuna): (beste euskalkietan KUNDE): EKINTZA fakultatea adierazteko, arpegikuna, esakuna (e), begirakuna (e) ... (§ 70)
-GIN+AN (+EN): bizkaiko gerundio berezi bat: ipuingiñan, ogigiñan, ormagiñen. (§ 91)
-LA: "-le"ren bariantea entzula, ekarla. (§94)
-REANGO : eritasun esanahiaz: Alboreango (=pulmonia), burureango (jaqueca)... (§ 124).
-LANGO (=lako): Zelangoa (=zelakoa), onenlango, orrelango... (§ 179)
-LASOKO: Mungia inguruan (gu lasoko bat = gu bezalako bat). (§ 180)
-ZTAR: Txori-Herrin erabiltzen den "-Ar"en bariante bat da, Sondikaztar, Mungiaztar, Zamudioztar ... (§ 185)
-BAKO: (bageko edo bagakoren laburpena), ganorabako, burubako, ardurabako, zentzunbako...(§ 221).
-TZU: "bat" zenbatzailearekin erabiltzen da euskalki guztietan bizkaieraz ostera guztiekin erabiltzen da: bitzuk, irutzuk ... galdeegileekin ere erabil daiteke: nortzuk, zertzuk, zeintzuk.. (§ 231)
-BAIT (baist, paita) Hau erabili beharrean askotan "nor edo nor" (norbait, nopaita, norbaist), "zer edo zer" (zerbait, zepaita, zerbaist) "zelan edo alan" (zelanbait), "noiz edo noiz" (noizbait), eta horrelakoak erabiltzen dira. (§ 266)
-TO: izen kopuru gutxirekin, ondo, ederto, txarto, obeto, polito...

III.7- ADITZ SINTAGMA

Bizkaierak eskaintzen dituen berezitasunak ikusteko, aditzaren formak ikusi aurretik, bere osagai nagusienetariko batzu, alde batetik, eta ohar eta berezitasunen zerrenda bat eskainiko da.

A- Aditzaren osagaiak

1. NOR-en komunztadurarako erabiltzen diren izenorde markak:
   a) orain aldian: n(a), (a), d(a), g(a), z(a), z(a), d(a)
   b) lehen aldian: laguntz. iragangaitza: n(i)n, (i)n,-,
      g(i)n, z(i)n, z(i)n,-.
      laguntz. iragankorra: nind, ind, -e-,
      gind (gint), zind (zint), zind (zint),
      -(e)-.
      (erditik mendebaldera nind nend)
      sintetikoak: n(e)n, (e)n, -(e)-, g(e)n,
      z(e)n, z(e)n, -(e)-.

   Adibideak:
   a) naz, ago, daka(r)t, gaitu, zaitez, zabiltze, dagoz.
   b)- nintzan, intzan, gintzazan, ziniakozan.....
   - ninduzun, zinduan, gindukezuz, eban, eben.....
   -nentorren, zentozan, etorren, gengozan.....

2. NORK (NOK)-en komunztadurarako erabiltzen diren izenorde markak:
   a) atzean doanean: t(da), k/n(a/na),-, gu, zu, zue, e.
   b) aurrean doanean: NOR kasuaren 3. pertsona daramaten
      lehen aldiko laguntzailea: n(e), (e), -(e)-, g(e)nd
      z(e)nd, z(e)nd, -(e)-.
      sintetikoa: n(e), (e), -(e)-, g(e),
      z(e), z(e), -(e)-.

   Adibideak:
   a) daka(r)t, daikek/n, dau, dautsogu, dozu, diraustazue
      (esan), gakarrez.
   b) neban, eikean (hezakeen), egizuen (iezazuen), bagenduz,
      zenduan, zeu(n)ke, eutsoen....
      ne(n)karren, herabilen, eragoion (eragon), geroiazan
      (eroan), zirudian, zeu(n)ken, erabiltsoen.....

3. NORI -zehar osagaiaren komunztadurarako erabiltzen diren izenorde markak. Bi moetatara agertzen zaizkigu:
   a) aurreko hitza bokale (i) denean, batuaz bezala:
      t, k, o, gu, zu, zue, e. (barianteak daude)
   b) aurreko hitza bokale (i) ez denean:
      iragangaitzetan: t, k, ko, ku, tzu, tzue, ke.
      iragankorretan: st, sk, ko(tso), sku, tsu, tsue, ke(tse)

Adibideak:

a) deidan, deian, deion, deigun, deizun, deizuen, deien, leikit, leikik, leikio, leikigu, leikizu, leikizue, leikie.

b) jat, jak, jako, jaku, jatzu, jatzue, jake.
deust, deusk, deutso, deusku, deutsu, deutsue, deutse.
dakast, dakask, dakarko, dakasku, dakartsu...

4. PLURALGILEAK:

a) -IT- (za), u nukleoekin, baita "(d)i"-rekin ere, askotan plural ez diren adizkietan fosildurik: naiten, Daiten.. Segidan azalduko dugun pluralgilearekin batera agertzen zaigu sarritan: dituguz....

b) -Z- pazienteen pluralgilea (Pujana: El verbo vasco vizcaíno 18.) Azken aldean doa (datoz, dabiz, datorkoz, jakoz, ez datorzkio, zaizkio... beste euskalkietan bezala). Hala ere, aditzak /N/ atzean daukala, edo erlazio atzizkiren batekin lotu ezkero, aipaturiko elementu hauek joango dira atzean, azken tokian, /Z/ eta erlazio atzizkia, edo /N/ lotzen dituen elementua /a/ izanik.

d) -E- /zu/-/zuek/ pertsonak bereizteko pluralgilea. Z-ren atzean doa: zoaze, zaiataze (zatzaizkidate).
Transitiboetan, NOR-en pluralgile gisa agertzen denean, nukleoaren atzean doa: zaituEt
NORK kasuan, pluralgile honen funtzioa "zuek" eta "haiek" haien singularretatik (zuk, hark) bereiztean datza.
Bere lekua: - nukleoaren atzean zenduEn
- NORI-ren ezaugarriaren atzean eutsoEn
- KEren atzean.

5. NUKLEOAK (erroen infinitiboak)

a) indikatiboan erabiltzen diren laguntzaileenak

IZAN
UKAN
EUTSI*(nor-nori-nork) batzutan ere beste moduetan nori-
(EKIN*) ren markekin nahastuta Azkueren us

tez NOR-NORI-ren jatorrizko erroa forma alokutiboek (hika) aditz egituran euki omen zuten eragi nagaitik haren aztarna gal zitekeen.

b) indikatiboaz landa erabiltzen diren laguntzaileenak

EDIN*

EKIN*

EGIN - gehienetan "I" agertzen da soilik. Gipuzkoako al de zabal batetan ezaguna izan da eta da.

(Mitxelena: "sobre el pasado de la lengua vasca")

EZAN* - Bizkaiko lurralde batzutan erabilia orain dela gutxi (Mitxelena).

d) Sintetikoen sailean:

. Erabilienak: EGON, IBILI, JOAN, ETORRI, EKARRI, EROAN, EUKI, JAKIN (Mogelek, "dakijo" hark-hari) (E)ION* (esan), ERABILI, IHARDUN, ERITZI,

. Erabilera oso murriztua daukaten beste batzu: IRAUTSI* (esan), ERAGON (Arratia eta Orozkon), ERION* edo JARIO*, IRUDI, ETZAN, IRAUN.

. Mogelek beste batzu jokatzen ditu: EZAGUN, IKUSI (dakust, hark-niri-) ERAGIN, JARRAITU.

. Aditz sintetikoez jokaturik, ez eta erabilienetan ere ez da baldintzaren ondorioa agertzen.

B- Ohar eta berezitasun batzu

.- Ahalezko eta subjuntibozko jokoaldietan aditzak aspektu bukatua hartzen du: ekarri deion, etorri gaitezan, sartu daiteke.. Salbuespenez: Ken adi (Azkuek dio zehaztu gabeko aginteeran forma batzu geratu direla: joka, mintza, alda, eba....).

.- Aditz batzuren bukaerak aldatuz doaz. Bokalean bukatutako batzuk, /n/ hartu dute: hartun, jaurtin, heldun,....Beste batzuk behar ez den /-tu/ hartu dute: betetu (ala betatu?).

.- Beste euskalkitan /-ki/ amaiera dena /gi/-z amaitzeko joera dago: jagi, ebagi.....

.- Bizkaieraz aspektua /a + tu/ denean, /au/ egiten da: asmau, pentsau, kobrau ... hala ere badira bestela egiten diren aditz banaka batzu: osatu, landatu, laiatu...Baliteke bilakatze bat egotea /a + tu/>/adu/>/au/ edo /eu/>/a/ edo /e/.

.- Aditzaren nominalizazioa, sarri, aspektu bukatuaren gain egiten da: zabalduten dau, beteten ibili da.., halere bisilaboetan /-tzen,-ten/, batzutan /-tzean/ egiten dute : ez dot hartzean ikusi, jatean, ebatean, irigitean... /t(z)ean/ hitz bukaerak funtzio ugaria dauka:

Hartzean (hartzien) esaldiaren arabera izan daiteke:
- hartzen
- hartzera
- hartzeko

.- Jerundialak egiteko /ten/ erabili beharrean oso normala da mugagabeen deklinabide forma aurkitzea: betetan ibili da, sinistetan, fumetan, kontetan, pentsetan, amatetan. Baita -tu + te elkartzean, bitxiago izanik, posible da /keta/ aurkitzea (Leniz, Zigoitia, Arrasaten...) zuriketan....

.- Bizkaieraz izugarrizko erreztasunez egin dira laburketak indikatibozko aldietan: ekarritso, esangotso, ikusistan,...ekarri deutso, esango deutso, ikusi eustan, e.a. erabili beharrean. Bada Laburketa harrigarriagorik ere: inbikotsozu = egin beharko deutsozu, edo einbeakostazu = egin beharko deustazu (Arratia).

-D- Orain aldiko NOR kasuaren ezaugarria, iraganean ere entzun daiteke.

.- Iraganetan hirugarren pertsonako subjetu marka galdu egiten da. Ez ostera, iragana oinarritzat sortutako ahalezko eta subjuntibozko, nahiz baldintzazkoetan: etorren, ekarri egidan, emon eustan... baina baletor, ekarrileikit, emongo leuskit... Halere noizbehinka entzuten dira, eta Azkuek aipatzen ditu, kasu hauek: zirautsan (esan), zioan, ziarduan , zirudian, zituzan (ebazan-en bariantea), zeitezela (Azkue: Morf. Vasca 772). Bermion "esan zauan" esaten da.

.- /T/ lehen pertsonako marka, bokal artean, Bizkai eta Gipuzkoako alde batzutan /R/ bihurtzen da: dorala, daukaranian...

Baina oso normala da ere bokale artean ozen ez bihurtzea: esantsutaz, ekarri dotaz.....

.- /N/, 2. pertsonako marka, /NA/ da Abadino, Bermio, Gernika, Lekeitio, Arrasate inguruan.
/K/ + /Z/ (pluralgilearen marka) lotuz, /zak/ amaiera daukagu, ez /kaz/. Adibidez: dok - dozak (dituk).

.- *Zornotza, Otxandio, Arratia inguruan nabe (naute), naurie da;* abe, aurie; dabe, daurie; gaitue, gauriez;.....

.- Bizkaieraz normalki ez da predatiborik erabiltzen, erabiliz esaldia ulertzen baldin bada ere. Adibidez: deutsoz, jataz, datordaz, dakartzugu. Halere, kasu batzutan loturazko bokalaren hertsiduraz egiten da: deutso, deidan, deikio, ...

.- TSI* (NOR-NORI-NORK Laguntzailearen erroa), zeharkako osagarriaren 2.pertsonari gehiturik, /A//NA/ formak ematen dizkigu, atzean zerbait baldin badator: deuk, deun (hark-hiri), deunat (dinat) (Deumat Orozkon).
Soraluze, Otxandio, Ubidea, Leniz, Oñatin .../TSI*/+/K/ (2. pertsonako zeharkako osagarria), /K/ azkena ez denean /ST/ ematen du, halanola: esan doste. "Hiri" ala "Niri" den, kontextuaren arabera bereizi behar.

.- Zehar galderarako erabili ohi den, singularreko 3. pertsonako bokalea anizkorra da /a,o,e/ agertzen direla. Singularraren eta pluralaren arteko desberdintasuna honela egin ohi da:
/o/ ekarri deutso (hari)/ekarri deutse (Haiei); esautson/esautsen
/a/ ekarri deutsa (hari)/ekarri deutse (Haiei); esautsan/esautson
/e/ ekarri deutse (hari)/ekarri deutsie (Haiei); esautsen/esautsien.

.- Eibar, Soraluze, Nabarnizen... zuek: zara, zagoz, zoaz....

.- Oñatin E pluralgilea, AI da: daukai, zagozai .....

.- Baldintza (erreala), Begoñan, Barrikan, Bermeon, Lekeition.. "n" elementua desagertu gabe egiten dute.

.- Beste zenbait lekutan bezala, baldintzetan nolako elkarketa mota bereziak sortzen dira: baleuskio, etorriko banintzakio,. ekarriko baleutso, etorriko banintxako... e.a. erabili beharrean. Ikusten denez, biak erabiltzen dira batera.

.- "nenbilke" "natorke" "nagoke"...desagertu dira, sinonimotzat bere perifrastikoak erabiliz.

.- Bizkaieraz ahalezkoetan eta baldintzazkoetan aldiaren marka azken tokian, aldatu gabe jarri beharrean, /NORI/ adierazteko atzizkiaren aurrean jartzen da, bokalea aldatuz: Ekarri daike-ekarri daikio (eta ez diezaioke), etorriko nintzake-etorriko nintzakizu (eta ez nintzaizuke).

.- Aditz iragangaitzek ez dute /ite/ hartzen baldintzetan: nintzake, .intzake...eta ez nintzateke, intzateke, ...halere ez da galketarik izango potentzialetan: naiteke, daiteke....

.- L behar ez den lekuan ipintzen da batzutan-bageukaz/baleukaguz.

.- Iraganeko marka /en/ bizkaieraz generalki /an/ agertzen da: nintzan, genzozan, jatazan,.. baina nenbilen, ebilen, ebilen

Azkeneko -N- Bizkaiko leku batzutan ez da agertzen: /nusta/ Nik. hiri-; /gusta/-guk.hiri-; /uskua/-hik.guri-, Olaetan; nintzañendorra esaten da Otxandion, hikako adizkietan (Azkue: Morfología Vasca 882).

.- Erdian agertzen den lehen aldiko ezaugarri hau /N/, kasu hauetan: Ninduen, gindukez, nenkarzun (zuk-ni)-....ezezean beste batzutan ere agertzen da, "esatea lez": genduen, nengian, zeunke, nengiala, zenkarre....

.- Aditz jokuaren laburpenak bide direla, sarritan iraganean orainaldiko eskema erabili ohi da: eztutzuten, esautzuten, ekastazun,... ez neutsun, esan neutsun, ekarri zeunstan..... etabarren ordez.

.- Aditz iragangaitz laguntzaileak, galdu egiten du sarritan aditz-erroa: joango ñatzu, ñako, gakoz... eta ez najako, najatzu, gajakoz.

.- Bizkaieraz UKAN aditzak gaur egunez guztiz galdu du aditz askatuaren esanahia; Laguntzaile hutsaren funtzioa duela. Horren ordez EDUKI erabiltzen da: hamar urte daukadaz, egarria dauka.

.- Sarritan ahalezkoetan aldi hipotetikoa eta erreala nahastu egiten dira: Ekarri neinke, geinke, leike.... ekarri daiket, daikegu, daike etabarren ordez.

.- Ahalezko formetan nahastea sortzen da, laguntzaile iragankorra iragangaitzaren ordez erabiltzen dela. Beharbada ez da hankasartzea, azpiegiturako perpausaren agerpen berezia baino: etorri neinke, joan daiket...etorri neinteke, joan naiteke-ren ordez. Kontutan hartu behar da etorri ahal izan dot, joan ahal izango dot direla forma jatorrak, beraz, AHAL UKAN.

.- Bizkaieraz oraindik bizirik irauten dute forma zahar batzu, ekarri nei, lei; ekarri neinkean, einkean... eta antzekoen ordez.

.- Ez da erabiltzen beste euskalkietako ari izan aditza, ibili/erabili eta ihardun eta eragon (kasu gutxi batzutan) erabiliz betetzen dela: Ikasten dabil, Lanean diardu , arineketan darabil, bearrean daragoio, kanta(du) daroa (kantatu ohi (ei)du)

.- Aditz faktitiboetan, /-azo, -erazo, -eragin/ erabiltzen dira: ikasiazo, jan eragin,....

Alor honetan bizkaierak berezitasun handiak eskaintzen ditu eta aditzaren formak azaltzera jo aurretik zerrenda batetan bizkaieraren eremuetan agertzen diren berezitasunen zerrenda eskainiko da:

.- Mugagabearekiko komunztaduraren kasuan, gramatika-arauak betetzen dituzten esaldiak entzuten dira: Zeinbat beatz daukozu? baina orokorki, ba dirudi multzoari pluraltasuna ezartzen diotela, eta orduan, nahiz eta multzo hori zehaztugabea izan, aditzak gehienetan pluraltasun markak hartzen ditu: Zeinbat bide dagoz? zeinbat katu daukozuz?

.- Bizkaieraz pluraletako komunztadura galduz doa, batez ere aditz sintagma barruan laburpenak egiten direnean. Oso arrunta da honako esaldiak entzutea: sagarrak ekarrikotsut, ogiak ekarritsoten,... sagarrak ekarriko deutsudaz, ogiak ekarri neutsozan,...

.- Badira baita ere bizkaieraz, oraindik guztiz aditz bihurtu ez diren aditz-mota batzu, horren kausaz NÓRK NOR forman erabili beharrean NORK NORI NOR forma dutenak: Lagundu DEUTSUT (lagun egin deutsut)= lagundu zaitut erabili beharrean. Berdin, itxaron deutsut, deitu deutsut,.....

.- Beste kasu batzutan, gaur egunez aditz iragangaitz bezala hartzen ditugun batzu laguntzaile iragankorrarekin agertzen zaizkigu. Hauek ere, behar bada, aurreko zenbakian aipaturikoaren ondorio ditugu: urten dot, igon dot, jarraitu dot,....(behar bada, urten egin dot, igon egin dot, jarrai egin dot,....)

.- Itsas aldeko herri batzuetan NORK NORI NOR erabili beharrean NORK NOR erabiltzen dute: ogia emon zaitut, ardoa ekarri nau,

Beste euskalkietan gertatzen den bezala, erdararen eragipenez (beraz baztertzeko zerbait litzateke) NORK NOR erabili beharrean NORK NORI NOR sarri agertzen zaigu: kotxean ekarri deutsut, kalean ikusi deust (Zer? eperdia amama batek ilobari esan zion bezala?)

.- Esaldi laburretan, aditza perifrastikoa denean, bai Bizkaian bai Iparraldean aditz laguntzailea galdegaiaren ondoan ipintzen da.

Laster da hil / laster zara etorri

- Bizkaieraz guztiz arrunta da ordena hau.

.- Aditza galdegai denean Bizkaierak hori azpimarratzeko bereberezkoa den errekurtso bat darabil; aditz-partizipioaz (lehen partizipioaz) baliatzen da aditz partizipio honek edozein izenen funtzioa hartzen duelarik:

a) Aditz sintetikoek: partizipioa aditz jokatuaren aurrean daramate:
Onek JAKIN daki / Astiro baina ETORRI dator.
Oinarrizko egitura hau zabaldu egin da, eta batzutan, nahiz eta galdegaia beste elementu bat izan, aditz-partizipioa ere agertzen da: Etorri BIAR dator.

b) Aditz perifrastikoek, aditz partizipioa "EGIN" aditzaren aurrean eramango dute. Aspektuari buruzko ezaugarriak (Ø, -ten, -ko) EGIN aditzak hartuko ditu, eta honi iragankortasuna edo ez iragankortasuna aditz-partizipioak emango dio: Etxean AURKITU egin dot / JOAN egingo naiz.
- Erabilera, hemen ere, zabaldu egin da eta "Egin" aditza erabili arren beste galdegai bat egotea gerta daiteke: Txistua jo ONDO egiten dau
- Askotan "egin" hori beste aditz bati laguntzen aurkitzen dugu: Etxera noa ikasi egiteko.

III.8.- ADITZA

(I): Irizar "Contribución a la dialectología vasca".

(Mo): I.M. Echaide: V. EUSKERA 1960: "Las flexiones verbales contenidas en PERU ABARCA de MOGEL.

1 : Intxausti : el verbo vasco y guipuzcoano, Verbo abreviado: atalean, Bizkaierako perifrastikoa).

2 : Pujana : Flexiones del verbo vasco vizcaíno

3 : Zamarripa : Gramatica Vasca

4 : Azkue : Morfología Vasca.

1. LAGUNTZALE IRAGANGAITZAK

A - NOR

naz, 1,2,3,4; naix, 4; nai
az, 1,4; aix, 4
da, 1,2,3,4; dai, 4
gara, 1,2,3,4; gaa, 4
zara, 1,2,3,4; zaa, 4
zaree, 1,2,3; zarie, 4; sa(r)ie, sar(e)e, sara, sare, sate, sara(s), sarai, seate (I)
dira, 1,2,3,4; dia, die, dii, 4

---

nintzan 1,2,3,4
intzan 1,2,3,4
zan 1,2,3,4; zen (Mo)
giñan, 1,4; gintzazan, 2: giñean, 3; giñian (Mo); gintzan, 4
ziñan, 1,4; zintzazan, 2; ziñean, 3; ziñian (Mo); zintzan, 4
ziñeen, 1,4; zintzazen, 2; ziñien, 3
ziran, 1,2,3; zirean, 3; zirian (Mo)

---

naitean, 1; naiten, 2,3; nadin (Mo); nadin, 4
aitean, 1; adin, 4
daitean, 1; daiten, 2,3; dedin (Mo); dadin, 4
gaitezan, 1,2,3; gaizan, 4
zaitezan, 1,2,3; zaitian (Mo); zaizan, 4
zaitezen, 1,2,3; zaizen, 4
daitezan, 1,2,3; daitezen (Mo); daizan, 4

---

neintean, 1; neinten, 2; nendin, 3; nendin, 4
eintean, 1; endin, 4
eitean, 1; eiten, 2; zitean, 3; zedin, 4
geintezan, 1,2; gintezan, 3; gendizan, 4
zeintezan, 1,2; zintezan, 3; zendizan, 4
zeintezen, 1,2; zintezen, 3; zendizen, 4
eitezan, 1,2; zitezan, 3; zedizan, 4

---

aite, 1,4; adi, 4
beite, 1,3; bedi, 2,4
zaitez, 1,2,3,4; zaite (Mo); zaiz, 4
zaiteze, 1,2,3,4; zaize, 4
beitez, 1,3; bediz, 2,4

---

banintz, 1,2,3,4; banitz, 4
baintz, 1,4; baitz, 4
balitz, 1,2,3,4
bagiña, 1,3,4; bagintzaz 2,4; bagine, 4
baziña, 1,3,4; bazintzaz, 2,4; bazine, 4
baziñee, 1,3,4; bazintzaze, 2,4; baziñie (Mo), 4
balira, 1,3,4; balitzaz, 2,4

---

nintzake, 1,2,3,4; nintzateke (Mo); nintzake, ninteke..., 4

intzake, 1,4; itzake, inteke, 4 ...

litzake, 1,2,3,4; litzateke (Mo); liteke,... 4

giñake, 1, 4; gintzakez, 2,3,4; gintekez,... 4

ziñake, 1,4; zintzakez, 2,3,4; zintekez,... 4

ziñakee, 1,4; zintzakeze, 2,3,4; zintekeze,... 4

lirake, 1,4; litzakez, 2,3,4; litzatez (Mo), litekez... 4

---

naiteke, 1,2,4; neinteke, 2,3; neinde (Mo); neindeke, nindeke, nei... 4

aiteke, 1,4; eindeke, indeke, ei? ... (4)

daiteke, 1,2,4; leiteke, 2,3; leite (Mo); leinteke, liteke, lei 4

gaitekez, 1,2,4; geintekez, 2,3; geindez (Mo); geindekez, gindeke, 4

zaitekez, 1,2,4; zeintekez, 2,3; zinaiz (Mo); zeindekez, zindeke, zineiz 4

zaitekeze, 1,2,4; zeintekeze, 2,3; zeindekeze, zindekiei, zineiz.... 4

daitekez, 1,2,4; leitekez, 2,3; leitekez (Mo); leitekez, litekiei, leiz 4

---

neinteke, 1,2,4

einteke, 1,4

leiteke, 1,2,4

geintekez, 1,2,4

zeintekez, 1,2,4

zeintekeze, 1,2,4

leitekez, 1,2,4

---

neintekean, 1,2,4; nindekean, neikean, 4

eitekean, 1,4; indekean, eikean, 4

eitekean, 1; zeitekean, 2,4; leitekean, 3; litekean, zeikean, 4

geintekezan, 1,2,4; gindekean, geingiazen, 4

zeintekezan, 1,2,4; zindekean, zeingiazen, 4

zeitekezen, 1,2,4; zindekien, zeingiezen, 4

litekezan 1, zeitekezan, 2,4; leitekezan, 3; litekien, zeikiazen, 4

B - NOR NORI

NIRI

. akit, a͡dat, 4
. jata, gata, dxat, dxast, yat, yata, xat (I)
. zaiataz, 2; zatxataz, 3; zakidat, 4; za͡dataz (4)
. zaiataze, 2; zatxataze, 3; zakidaze, 4; zadataze (4)
. jataz, 2; yataz, 3; dakidaz, 4; ͡dataz (4)

HIRI

. nakik/n, 4; da͡dak/n, 4
. jak/n, 1; dakik/n, 4; ͡dak/n (4)
. gakizak, gakinaz, 4; ga͡dazak, ga͡danaz (4)
. dakizak, dakinaz, 4; ͡datazak, ͡daanaz (4)

HARI

. naiako 2; natxako, 3; nakio, 4; na͡dako (4)
. akio, 4; a͡dako (4)
. jako, gako, dxako, yako (I)
. gaiakoz, 2; gadxakoz, 3; gakioz, 4; ga͡dakoz (4)
. zaiakoz, 2; zatxakoz, 3; zakioz, 4; za͡dakoz (4)
. zaiakoze, 2; zatxakoze, 3; zakioze, 4; za͡dakoze (4)
. jakos, gakos, dxakos, yakos, yako, xako, jako (I)

GURI

. akigu, 4; a͡daku (4)
. jaku 1,2,; yaku, 3; dakigu, 4; ͡daku (4)
. zaiakuz, 2; zatxakuz, 3; zakiguz, 4; za͡dakuz (4)
. zaiakuze, 2; zatxakuze, 3; zakiguze, 4; za͡dakuze (4)
. jakuz, 4; ͡dakuz (4); yakuz, 3; dakiguz, 4

ZURI

. naiatzu, 2; natxatzu, 3; nakizu, 4; na͡datzu (4)
. jatzu 1,2,; yatzu 3; dakizu, 4; ͡datzu (4)
. gaiatzuz, 2; gatxatzuz, 3; gakizuz, 4; ga͡datzuz (4)
. jatzuz, 2; yatzuz, 3; dakizuz, 4; ͡datzuz (4)

ZUEI

. naiatzue, 2; natxatzue, 3; nakizue, 4; nad̃atzue (4)
. jatzue, 2; yatzue, 3; dakizue, 4; d̃atzue (4)
. gaiatzuez, 2; gatxatzuez , 3; gakizuez, 4; gad̃atzuez (4)
. jatzuez, 2; yatzuez, 3; dakizuez, 4; d̃atzuez (4)

HAIEI

. naiake, 2; natxake, 3; nakioe, 4; nad̃ake, (4)
. akioe, 4; ad̃ake (4)
. jakue, gakue, dxakie, dxakoie, yake, yakie, dxake, jakue, xate(i), jake (I)
. gaiakez, 2; gatxakez, 3; gakiez, 4; gad̃akez, (4)
. zaiakez, 2; zatxakez, 3; zakioez, 4; zad̃akez (4)
. zaiakeze, 2; zatxakeze, 3; zakioeze, 4; zad̃akeze (4)
. jakez, 2; yakez, 3; dakioez, 4; d̃akez, (4)

NIRI

. intzaidan, 4
. jatan, 2; yatan, 3; d̃atan, 4
. ziatazan, 2; zintxatazan 3, (2); zintzakidazan, 4
. ziniatazen, 2; zintxatazen (2), 3; zintzakidazen
. jatazan 2; yatazan, 3; d̃atazan, 4

HIRI

: nintzakian, 4; nintzakinan, 4
. jdan, janan, 4; d̃aan, d̃anan, 4
. gintzakiazan, 4; gintzakinazan, 4
. d̃aazan, 4; d̃anazan, 4

HARI

. niniakon, 2; nintxakon, (2), 3; nintzakion, 4
. intzakion
. jakon, 1,2,; yakon, 3; d̃akon, 4
. giniakozan, 2; gintxakozan (2), 3; gintzakiozan, 4
. ziniakozan, 2; zintxakozan (2), 3; zintzakiozan, 4
. ziniakozen, 2; zintxakozen (2), 3; zintzakiozen, 4
. jakozan, 2; yakozan, 3; d̃akozan, 4

GURI

. intzakigun, 4
. jakun 1,2; yakun, 3; ðakun, 4
. ziniakuzan, 2; zintxakuzan, 3; zintzakiguzan, 4
. ziniakuzen, 2; zintxakuzen (2), 3; zintzakiguzen, 4
. jakuzan, 2; yakuzan, 3; ðakuzan, 4

ZURI

. niniatzun, 2; nintxatzun (2), 3; nintzakizun, 4
. jatzun, 2; yatzun, 3; ðatzun, 4
. giniatzuzan, 2; gintxatzuzan, (2), 3; gintzakizuzan, 4
. jatzuzan, 2; yatzuzan, 3; ðatzuzan, 4

ZUEI

. niniatzuen, 2; nintxatzuen, (2), 3; nintzakizuen, 4
. jatzuen 1,2; yatzuen, 3; ðatzuen, 4
. giniatzuezan, 2; gintxatzuezan (2), 3; gintzakizuezan, 2
. jatzuezan, 2; yatzuezan, 3; ðatzuezan, 4

HAIEI

. niniaken 2; nintxaken (2), 3; nintzakioen, 4
. intzakioen, 4
. jaken, 1,2; yaken, 3; ðaken, 4
. giniakezan, 2; gintxakezan (2), 3; gintzakioezan, 4
. ziniakezan, 2; zintxakezan, (2), 3; zintzakioezan, 4
. ziniakezen, 2; zintxakezen, (2), 3; zintzakioezen, 4
. jakezan, 2; yakezan, 3; ðakezan, 4

NIRI

. baintzakit, 4
. balitxat, 1,3; balitzakit, 2,4; balitzat (4)
. bazintzakidaz, 2,4; bazintxataz, (2), 3
. bazintzakidaze, 2,4; bazintxataze, (2), 3
. balitzakidaz, 2,4; balitxataz, (2), 3

HIRI

. banintzakik/n, 4
. balitxak/n, 1; balitzakik/n, 4
. bagintzakizak, bagintzakinaz, 4
. balitzakizak, balitzakinaz, 4

HARI

. banintzakio, 2,4; banintxako (2), 3
. baintzakio, 4
. balitxako, 1,3; balitzakio 2,4
. bagintzakioz, 2,4; bagintxakoz (2), 3
. bazintzakioz, 2,4; bazintxakoz (2), 3
. bazintzakioze 2,4; bazintxakoze (2), 3
. balitzakioz, 2,4; balitxakoz, (2), 3

GURI

. baintzakigu, 4
. balitxaku, 1,3; balitzakigu, 2,4
. bazintzakiguz, 2,4; bazintxakuz (2), 3
. bazintzakiguze 2,4
. bazintxakuze (2), 3
. balitzakiguz 2,4; balitxakuz (2), 3

ZURI

. banintzakizu, 2,4; banintxatzu (2), 3
. balitxatzu 1,3; balitzakizu 2, 4
. bagintzakizuz, 2,4; bagintxatzuz (2), 3
. balitzakizuz, 2,4; balitxatzuz (2), 3

ZUEI

. banintzakizue, 2,4; banintxatzue (2), 3
. balitxatzue, 1,3; balitzakizue 2,4
. bagintzakizuez, 2,4; bagintxatzuez (2), 3
. balitzakizuez, 2,4; balitxatzuez (2), 3

HAIEI

. banintzakie, 2; banintzakioe, 4; banintxake (2), 3
. baintzakioe, 4
. balitxake 1,3; balitzakie, 2; balitzakioe, 4
. bagintzakiez, 2; bagintzakioez, 4; bagintxakez, (2), 3
. bazintzakiez, 2; bazintzakioez, 4; bazintxakez, (2), 3
. bazintzakieze, 2; bazintzakioeze, 4; bazintxakeze (2), 3
. balitzakiez, 2; balitzakioez, 4; balitxakez, (2), 3

NIRI

. . intzakit, 4
. litzakit, 1,2,3,4
. zintzakidaz, 2,3,4
. zintzakidaze 2,3,4
. litzakidaz, 2,3,4

HIRI

. nintzakik/n, 4
. litzakik/n, 1,4
. gintzakizak, gintzakinaz, 4
. litzakizak, litzakinaz, 4

HARI

. nintzakio, 2,3,4
. intzakio 4
. litzakio 1,2,3,4
. gintzakioz 2,3,4
. zintzakioz, 2,3,4
. zintzakioze 2,3,4
. litzakioz, 2,3,4

GURI

. intzakigu, 4
. litzakigu 1,2,3,4
. zintzakiguz 2,3,4
. zintzakiguze 2,3,4
. litzakiguz, 2,3,4

ZURI

. nintzakizu, 2,3,4
. litzakizu, 1,2,3,4
. gintzakizuz, 2,3,4
. litzakizuz, 2,3,4

ZUEI

. nintzakizue, 2,3,4
. litzakizue 1,2,3,4
. gintzakizuez 2,3,4
. litzakizuez 2,3,4

HAIEI

. nintzakie, 2,3; nintzakioe, 4
. intzakioe, 4
. litzakie 2,3; litzakioe 1,4
. gintzakiez 2,3; gintzakioez, 4
. zitzakiez, 2,3; zintzakioez, 4
. zintzakieze, 2,3; zintzakioeze, 4
. litzakiez, 2,3; litzakioez, 4

NIRI

. akit, 4
. bekit, 1,2,3,4; dakidala (4)
. zakidaz, 2,3, (Mo), 4
. zakidaze, 2,3,4
. bekidaz, 2,3,4; dakidazala (4)

NIRI

. nakian, nakinan, 4
. bekik/n, 1; dakiala, dakinala, 4
. gakiazan, gakinazan, 4
. bekizak, bekinaz, 4;dakiazala, dakinazala (4)

HARI

. nakion, 4

. akio, 4

. bekio, 1,2,3,4; dakiola (4)

. gakiozan, 4

. zakioz, 2,3, (Mo), 4

. zakioze, 2,3,4

. bekioz, 2,3; dakiozala, 4

GURI

. akigu, 4

. bekigu, 1,2,3,4; dakigula, (4)

. zakiguz, 2,3,4

. zakiguze, 2,3,4

. bekiguz, 3,4; dakiguzala (4)

ZURI

. nakizun, 4

. bekizu, 1,2,3,4; dakizula (4)

. gakizuzan, 4

. bekizuz, 3,4; dakizuzala (4)

ZUEI

: nakizuen, 4

. bekizue 1,2,3,4; dakizuela (4)

. gakizuezan, 4

. bekizuez 2,3,4; dakizuezala (4)

HAIEI

. nakioen, 4

. akioe, 4

. bekioe, 1,4; bekie, 2,3; dakioela (4)

. gakioezan, 4

. zakioez, 4; zakiez, 2,3

. zakieze, 2,3; zakioeze, 4

. bekiez, 2,3; bekioez, 4; dakioezala (4)

NIRI

. akidan, (4); akidala, 4
. dakidan 1,2,3, (4); daidan (Mo); dakidala, 4
. zakidazan (4), 2,3; zakidazala, 4
. zakidazen (4), 2,3; zakidazela, 4
. dakidazan 2,3, (4); dakidazala, 4

HIRI

. nakian, nakinan, (4); nakiala, nakinala, 4
. dakian, dakinan, (4); dakiala, dakinala, 4
. gakiazan, gakinaza, (4); gakiazala, gakinazala, 4
. dakiazan, dakinazan, (4); dakiazala, dakinazala, 4

HARI

. nakion 2,3, (4); nakiola, 4
. akion (4); akiola, 4
. dakion 1,2,3, (4); dakiola, 4
. gakiozan 2,3, (Mo), (4); gakiozala, 4
. zakiozan 2,3, (4); zakiozala, 4
. zakiozen 2,3, (4); zakiozela, 4
. dakiozan 2,3,(4); dakiozala, 4

GURI

. akigun, (4); akigula, 4
. dakigun, 1,2,3, (4); dakigula, 4
. zakiguzan 2,3, (4); zakiguzala, 4
. zakiguzen 2,3, (4); zakiguzela, 4
. dakiguzan 2,3, (4); dakiguzala, 4

ZURI

. nakizun, 2,3, (4); nakizula, 4
. dakizun, 1,2,3, (4); dakizula, 4
. gakizuzan 2,3, (4); gakizuzala, 4
. dakizuzan 2,3, (4); dakizuzala, 4

ZUEI

. nakizuen 2,3, (4); nakizuela, 4
. dakizuen 1,2,3, (4); dakizuela, 4
. gakizuezan, 2,3, (4); gakizuezala, 4
. dakizuezan 2,3, (4); dakizuezala, 4

HAIEI

. nakien, 2,3; nakioen (4); nakioela, 4
. akioen (4); akioela, 4
. dakien 2,3; dakioen 1, (4); dakioela, 4
. gakiezan 2,3; gakioezan (4); gakioezala, 4
. zakiezan 2,3; zakioezan, (4); zakioezala, 4
. zakiezen 2,3; zakioezen (4); zakioezela, 4
. dakiezan 2,3; dakioezan (4); dakioezala, 4

NIRI

. enkidan, 4
. ekidan 1,2,3,4
. zenkidazan, 2,3,4
. zenkidazen, 2,3,4
. ekidazan, 2,3,4

HIRI

. nenkian, nenkinan, 4
. ekian, ekinan, 1,4
. genkiazan, genkinazan, 4
. ekiazan, ekinazan, 4

HARI

. nenkion, 2,3,4
. enkion, 4
. ekion, 1,2,3,4
. genkiozan, 2,3,4
. zenkiozan, 2,3,4
. zenkioezan, 2,3,4
. ekiozan, 2,3,4

GURI

. enkigun, 4
. ekigun, 1,2,3,4
. zenkiguzan, 2,3,4
. zenkiguzen, 2,3,4
. ekiguzan, 2,3,4

ZURI

. nenkizun, 2,3,4
. ekizun, 1,2,3,4
. genkizuzan 2,3,4
. ekizuzan, 2,3,4

ZUEI

. nenkizuen, 2,3,4
. ekizuen 1,2,3,4
. genkizuezan 2,3,4
. ekizuezan, 2,3,4

HAIEI

. nenkien, 2,3; nenkioen, 4
. enkioen, 4
. ekioen, 1,4; ekien 2,3
. genkiezan 2,3; genkioezan, 4
. zenkiezan 2,3; zenkioezan, 4
. zenkiezen, 2,3; zenkioezen, 4
. ekiezan, 2,3; ekioezan, 4

NIRI

. daitekit, 1,2; leikit, 3, (2)
. zaitekidaz, 2; zeinkidaz, 3, (2)
. zaitekidaze, 2; zeinkidaze, 3, (2)
. daitekidaz, 2; leikidaz, 3, (2)

HIRI

. nakikek (4); nakik (4); naikek (4); neikek (4); neindekik (4)
. daitekik/n, 1

HARI

. naitekio, 2; neinkio 3, (2)
. daitekio 1,2; leikio 3, (2)
. gaitekioz, 2; geinkioz, 3, (2)
. zaitekioz, 2; zeinkioz, 3, (2)
. zaitekioze, 2; zeinkioze, 3, (2)
. daitekioz, 2; leikioz 3, (2)

GURI

. daitekigu 2,1; leikigu, 3, (2)
. zaitekiguz, 2; zeinkiguz, 3, (2)
. zaitekiguze, 2; zeinkiguze, 3, (2)
. daitekiguz, 2; leikiguz, 3, (2)

ZURI

. naitekizu, 2; neinkizu, 3, (2)
. daitekizu 1,2; leikizu 3, (2)
. gaitekizuz, 2; geinkizuz, 3, (2)
. daitekizuz, 2; leikizuz, 3, (2)

ZUEI

. naitekizue 2; neinkizue 3, (2)
. daitekizue, 1,2; leikizue, 3, (2)
. gaitekizuez, 2; geinkizuez, 3, (2)
. daitekizuez, 2; leikizuez, 3, (2)

HAIEI

. naitekie, 1; neinkie, 3, (2)
. daitekioe, 1; daitekie, 2; leikie, 3, (2)
. gaitekiez, 2; geinkiez, 3, (2)
. zaitekiez, 2; zeinkiez, 3, (2)
. zaitekieze, 2; zeinkieze, 3, (2)
. daitekiez, 2; leikiez, 3, (2)

NIRI

. leitekit 1,2; leikit (2)
. zeintekidaz, 2 ; zeinkidaz, 2
. zeintekidaze, 2; zeinkidaze, 2
. leitekidaz, 2; leikidaz, 2

HIRI

. leitekik, leitekin, 1

HARI

. *neintekio*, 2; *neinkio* (2)
. leitekio, 1,2; leikio (2)
. geintekioz, 2; geinkioz (2)
. zeintekioz, 2; zeinkioz (2)
. zeintekioze, 2; zeinkioze (2)
. leitekioz, 2; leikioz, (2)

GURI

. leitekigu, 1,2; leikigu (2)
. zeintekiguz, 2; zeinkiguz, (2)
. zeintekiguze, 2; zeinkiguze, (2)
. leitekiguz, 2; leikiguz (2)

ZURI

. neintekizu, 2; neinkizu (2)
. leitekizu, 1,2; leikizu (2)
. geintekizuz, 2; geinkizuz (2)
. leitekizuz, 2; leikizuz (2)

ZUEI

. neintekizue, 2; neinkizue (2)
. leitekizue 1,2; leikizue (2)
. geintekizuez, 2; geinkizuez (2)
. leitekizuez, 2; leikizuez (2)

HAIEI

. neintekie, 2; neinkie (2)
. leitekioe, 1; leitekie, 2; leikie, (2)
. geintekiez, 2; geinkiez, (2)
. zeintekiez, 2; zeinkiez (2)
. zeintekieze, 2; zeinkieze (2)
. leitekiez, 2; leikiez (2)

2 - LAGUNTZAILE IRAGANKORRAK

A - NOR - NORK

NI

. nauk/n, 4 ; nok/n (4)
. nok/n (4)
. nau, neu, dost, doust, nou (I)
. nozu, 2,3,(Mo),4; nauzu, 4; naizu (4)
. nozue 2,3, (Mo), (4); nauzue, 4; naizue (4)
. nabe 2,3, (Mo), (4); naue, 4

HI

. aut, 4; eut (4)
. au, 4; eu (4)
. augu, 4; eugu (4)
. aue, 4; abe (4)

HURA

. dot, dut (I)
. dok/na 1,2,3; dok/n, 4; duk/n (4)
. dau, 1,2,3,4; du (4), deu (4)
. dogu 1,2,3,4; dugu (4).
. dozu 1,2,3,4; duzu (4).
. dozue 1,2,3,4; dozube (Mo); duzue (4)
. dabe, daurie, daure, dau(b)ie, daud(i)e, doudi(i)e, daue (I)

GU

. gozak/n, 4; gauzak/n (4); gaituk/n (4)
. gaitu, 2, (Mo) (4); gaituz, 3; gauz, 4.
. gaituzu 2, (4), gozuz, 3,(4); gauzuz, 4
. gaituzue, 2, (4); gozuez, 3, (4); gauzuez, 4
. gaitue, 2, (4); gaituez, 3; gauez, 4

ZU

. zaitut, 2, (Mo), (4); zaitudaz, 3; zaudaz, 4
. zaitu, 2, (Mo), (4); zaituz, 3; zauz, 4
. zaitugu , 2 (4); zaituguz, 3; zauguz, 4
. zaitue 2, (4); zaituez 3, (Mo); zaitube (Mo); zauez, 4

ZUEK

. zaituet, 2, (4); zaitudaze, 3; zauedaz, 4
. zaitue 2, (4); zaituze 3, (Mo); zauez, 4
. zaituegu 2, (4); zaituguze, 3; zaueguz, 4
. zaituee, 2; zaitueze, 3; zaitue, (4); zauez, 4

HAIEK

. dodaz, 4; dudaz (4); ditut (4)
. dozak/n, 4; duzek, donaz (4); dituk/n (4); dozana (4)
. dauz 4; ditu (4)
. doguz 4; duguz (4); ditugu (4)
. dozuez 4; duzuez (4); dituzue (4)
. dauez 4; ditue (4)

NI

. nenduan, nendunan, 5
.ninduan, nindunan; niñamen, niñamenan, (5)
. ninduan, 2,3, (4); nenduan 4; niñaben 4
. ninduzun 2,3, (4); nenduzun, 4; niñamezun (4)
. ninduzuen 2,3, (4); nenduzuen, 4; niñamezuen (4)
. ninduen 2,3, (4); ninduben (Mo); nenduen, 4; niñandien (4).

HI

. endudan, 4; indudan (4); iñamedan (4)
. enduan, 4; induan (4); iñaben (4)
. endugun 4; indugun (4), iñamegun (4)
. enduen 4; induen (4); iñaudien (4)

HURA

. neban 1,2,3, (4); nenan 4; nemen (4)
. euan, eunan 1,4; emen (4)
. eban 1,2,3, (4); enan 4; eben (4)
. genduan 1,2,3, (4), (Mo); geuan 4; gemen (4)
. zenduan 1,3,2, (4); zenduben (Mo); zeuan 4; zemen (4)
. zenduen 1,3, (Mo), 2, (4); zeuen 4; zemien (4)
. eben 1,2,3, (4); euen 4; eudien (4).

GU

. genduazan, gendunazan 4; ginduazan, gindunazan (4); giñabezan, giñabenazan (4)
. ginduzan 2,3, (4); genduzan 4; giñabezan (4)
. ginduzuzan 2,3, (4); genduzuzan 4; giñauzuzan (4)
. ginduzuzen 2; ginduzuezan 3, (4); genduzuezan 4; giñauzuezan (4)
. ginduezan 2,3, (4); genduezan 4; giñaudiezan (4)

ZU

. zindudazan 2,3, (Mo), (4); zendudazan 4; ziñabedazan (4)
. zinduzan 2,3, (4); zenduzan 4; ziñabezan (4)
. zinduguzan 2,3, (4); zenduguzan, 4; ziñabeguzan (4)
. zinduezan 2,3, (4), zenduezan 4; zendubezan (Mo); ziñandiezan (4)

ZUEK

. zinduedazan 2, (4); zindudazan (2), 3; zenduedazan 4; ziñandiedazan (4)
. zinduezan (4), 2; zinduzen (2), 3; zenduezan 4; ziñabezan (4)
. zindueguzan 2, (4); zinduguzen (2), 3; zendueguzan 4; ziñabeguzan (4)
. zindueezan 2, (4); zinduezen (2), 3
. zenduezan 4; ziñandiezan (4)

HAIEK

. nebazan, 4; nemezan (4); nituan (4)
. enazan 4; ituan/nan (4); emezan (4)
. ebazan 4; ebezan (4); zituen (4)
. genduzan 4; genazan (4); gituan (4); gemezan, (4)
. zenduzan 4; zenazan (4); zemezan (4)
. zenduezan 4; zenezan (4); zemiezan (4)
. ebezan 4; zituen (4); eudiezan (4)

NI

. banenduk, banendun, 4
. banindu 2,3, (4); banendu, 4
. baninduzu 2,3, (4); banenduzu, 4
. baninduzue 2,3, (4); banenduzue, 4
. banindue 2,3, (4); banendue, 4

HI

. baendut, 4; baindut, (4)

. baendu, 4; baindu, (4)

. baendugu, 4; baindugu, (4)

. baendue, 4; baindue, (4)

HURA

. baneu 1,2,3,4

. baeu 1,4

. baieu 1,2,3,4

. bagendu 1,2,3, (4); bageu, 4

. bazendu 1,2,3, (4); bazeu, 4

. bazendue 1,2,3, (4); bezeue, 4

. balebe 1,2,3, (4); beleue, 4

GU

. bagenduzak, bagendunaz, 4

. bagindue 2,3, (4); bagenduz, 4

. baginduzuz 2,3, (4); bagenduzuz, 4

. baginduzuez 2,3, (4); bagenduzuez, 4

. baginduez 2,3, (4); bagenduez, 4

ZU

. bazindudaz 2,3, (4); bazendudaz, 4

. bazinduz 2,3, (4); bazenduz, 4

. bazinduguz 2,3, (4); bazenduguz, 4

. bazinduez, 2,3, (4); bazenduez, 4

ZUEK

. bazinduedaz, 2, (4); bazenduedaz, 4; bazindudaze, 3

. bazinduez, 2, (4); bazenduez, 4; bazinduze, 3

. bazindueguz, 2, (4); bazinduguze, 3; bazendueguz, 4

. bazindueez 2, (4) ; bazindueze, 3; bazenduez, 4

HAIEK

. banendue, 4; banindue, (4)
. baendue, 4; baindue (4)
. baleuz, 4; balitu (4)
. bageuz, 4; bagenduz, (4)
. bezeuz, 4; bazenduz (4)
. bazeuez, 4; bazenduez (4)
. baleuez, 4; balitue (4)

NI

. ninduke/n (4); nendukek/n 4; niñaukek/n (4)
. ninduke 2,3, (4); nenduke 4; niñauke (4)
. nindukezu 2,3, (4); nendukezu 4; niñaukezu (4)
. nindukezue 2,3, (4); nendukezue 4; niñaukezue (4)
. nindukee, 2; ninduke 3, (4); nendukee, 4; niñaukee (4)

HI

. enduket, 4; induket (4); iñauket (4)
. enduke, 4; induke (4); iñauke (4)
. endukegu 4; indukegu (4); iñaukegu (4)
. endukee, 4; endukie (4); iñaukie (4)

HURA

. neuke 1,2, (Mo), 4; neunke 3, (4)
. eunke 1, (4); euke, 4
. leuke 1,2,3,4
. geunke 1,3, (4); geuke 2,4; genduke (Mo), (4)
. zeunke 1,3, (Mo), (4); zeuke 2,4; zenduke (4)
. zeunkee 1, zeunke (4); zeunkie 3; (Mo); zeukee, 2; zenduké (4); zeuké, 4
. leukee 1, (Mo), 4; leukie 2,3, (4)

GU

. gendukezak, gendukezan 4; gindukezak, gindukezan (4)
. gindukez 2,3, (4); gendukez 4; giñaukez (4)
. gindukezuz 2,3, (4); gendukezuz 4; giñaukezuz (4)
. gindukezuez 2,3, (4); gendukezuez, 4; giñaukezuez, (4)
. gindukeez 2; gindukiez, 3; gendukeez, 4; gendukiez (4); giñaukiez (4).

ZU

. zindukedaz 2,3, (4); zendukedaz 4; zinkaukedaz (4); zeunskedaz (Mo)
. zindukez 2,3, (4); zendukez, 4; ziñaukez, (4); zeunskez (Mo)
. zindukeguz 2,3, (4); zendukeguz, 4; ziñaukeguz, (4)
. zindukeez 2; zindukiez 3, (4); zendukeez (Mo); zendukiez, 4; ziñaukeez (4)

ZUEK

. zindukeedaz, 2; zindukedaze, 3; zendukiedaz, 4; zinaukiedaz (4)
  zindukiedaz (4)
. zindukeez, 2; zindukeze, 3; zendukiez, 4; zindukiez, (4); ziñaukiez, (4).
. zindukeeguz, 2; zendukieguz, 4; zindukiguze, 3; zindukieguz, (4);
  ziñaukieguz (4).
. zindukeez, 2; zindukeze, 3; zendukiez, 4; zindukiez, (4); zinaukiez (4)

HAIEK

. neukez, 4; neunkez, (4); niṫuke (4)
. eukez, 4; eunkez, (4); iṫuke, (4)
. leukez, 4; liṫuke, (4)
. geukez, 4; geunkez (4); gendukez, (4)
. zeukez, 4; zeunkez, (4); zendukez, (4)
. zeukez, 4; zeunkiez, (4); zendukiez, (4)
. leukiez, 4; liṫukie (4)

NI

. naik/n 4; neik/n (4)
. nagi, 4; nai, 4; naiala (4)
. naizu, 2,4; nagizu, 3, (Mo); neizu (4)
. naizue 2,4; nagizue, 3; neizue (4)
. naie, 4; naiela (4)

HI

. aidan, 4
. ai, 4; aiala (4)
. aigun, 4
. aie, 4; aiela (4).

HURA

. daidan 4; deidan (4)
. eik/n, 1,4
. bei 1,2,4; daiala (4)
. dagigun 4; deigun (4)
. eizu 1,2, (Mo), 4; egizu, 3
. eizue 1,2,4; egizue 3; egizube (Mo)
. beie 1,2,4; begie, 3; daiela (4).

GUK

. gaizak, gainaz, 4; gaizan (4)
. gaik/n, 4
. gagiz, 3; gaiz, 4; gaizala (4)
. gaizuz 2,4; gagizuz, 3, (Mo); gaizu (4)
. gaizuez 2,4; gagizuez, 3; gaizue (4)
. gagiez 3; gaiez, 4; gaiezala (4).

ZUK

. zaidazan 4; zeidazan (4)
. zagiz, 3; zaiz, 4; zaizala (4)
. zaiguzan 4; zaigun (4)
. zagiez, 3; zaize, 4; zaizela (4).

ZUEK

. zaiedazan 4; zaiedezan (4); zeidezan (4)
. zagize 3; zaiez, 4; zaiezala, (4)
. zagiguzan, 4; zaiguen (4)
. zagiezé, 3; zize, 4; zaiezela (4)

HAIEK

. daidazan, 4; deidezan, (4)
. eizak, einaz, eizan, 4; eik/n (4)
. beiz 4; daizala (4)
. daiguzan 4; daigun (4)
. eizuz, 4; eizu (4)
. eizuez, 4; eizue (4)
. beiez, 4; daiezala (4)

NI

. naiala, nainala, 4
. naian 2; nagian 3; nagiala, 4
. naizun, 2; nagizun 3; nagizula 4
. naizuen 2; nagizuen 3; nagizuela 4
.naien 2; nagien 3; nagijela (Mo); naiela 4.

HI

. aidala, 4
. aiala, 4
. aigula, 4
. aiela, 4

HURA

. daidan 1,2; dagidan 3, (Mo); daidala, 4
. daian, dainan 1; daiala, dainala, 4
. daion 1,2; dagion 3, (Mo); daiala, 4
. daigun 1,2; dagigun 3, (Mo); daigula, 4
. daizun, 1,2; dagizun, 3, (Mo), daizula, 4
. daizuen 1,2; dagizuen 3, (Mo); daizuela, 4
. dagien 1,2; daien 3, (Mo); daiela, 4

GU

. gaiazala, gainazala, 4
. gaizan 2; gagizan, 3; gaizula (Mo), 4
. gaizuzan 2; gagizuzan 3; gaizuzala, 4
. gaizuezan, 2; gagizuezan, 3; gaizuezala, 4
. gaiezan 2; gagiezan 3; gaiezala 4

ZU

. zaidazan 2; zagidazan 3; zaidazala, 4
. zaizan, 2; zagizan, 3; zaizala (Mo), 4
. zaiguzan, 2; zagiguzan, 3; zaiguzala, 4
. zaiezan, 2; zagiezan, 3; zaiezala, 4

ZUEK

. zaiedazan, zagidazen, zaidazala
. zaiezan, zagizen, zaiezala
. zaieguzan, zaiguzen, zaieguzala
. zaiezen, zagiezen, zaizela

HAIEK

. daidazala, 4
. daiazala, dainazala, 4
. dazala, 4
. daiguzala, 4
. daizuzala, 4
. daizuezala, 4
. daiezala, 4

NI

. nengiala, nenginala, 4
. nengian 2,3; nengiala, 4
. nengizun 2,3; nengizula, 4
. nengizuen 2,3; nengizuela, 4
. nengien 2,3; nengiela, 4

HI

. engidala, 4
. engiala, 4
. engigula, 4
. engiela, 4

HURA

. neian 1; nengian 2,3, (Mo); neiala, 4; nengiala (4)
. engian, 1; eiala, 4; engiala (4)
. eian, 1; egian 2,3, (Mo); eiala, 4
. gengian 1,2,3, (Mo); geiala, 4; gengiala (4)
. zengian 1,2,3, (Mo); zeiala, 4; zengiala (4)
. zengien 1,2,3, (Mo); zeiela, 4; zengiela (4)
. eien, 1; egien 2,3; eiela, 4

GU

. gengiazala, genginazala, 4
. gengizan 2,3; gengizala, 4
. gengizuzan 2,3; gengizuzala, 4
. gengizuezan 2,3; gengizuezala, 4
. gengiezan 2,3; gengiezala, 4

ZU

. zengidazan 2,3; zengidazala, 4
. zengiozan 2,3; zengiozala, 4
. zengiguzan 2,3; zengiguzala, 4
. zengiezan, 2,3; zengiezala, 4

ZUEK

. zengiedazan 2; zengidazen 3; zengiedazala, 4
. zengiezan 2; zengizen 3; zengiezala, 4
. zengieguzan, 2; zengiguzen 3; zengieguzala, 4
. zengieezan 2; zengiezen,3; zengiezala, 4

HAIEK

. neizala, 4; nengizala (4)
. eizala, 4; engizala (4)
. eizala, 4
. geizala, 4; gengizala (4);
. zeizala, 4; zengizala (4)
. zeizela, 4; zengiezala (4)
. eiezala

NI

. naike/n, 4; ninaikek/n (4)
. naike 2,3,4; ninaike (4)
. naikezu 2,3,4; ninaikezu (4)
. naikezue 2,3,4; ninaikezue (4)
. naikee 2,4; naikie 3; ninaikee (4)

HI

. aiket, 4; inaiket (4)
. aike, 4; inaike (4)
. aikegu, 4; inaikegu (4)
. aikee, 4; inaikee (4)

HURA

. daiket 1,2, (Mo), 4; neike 3, (4)
. daikek/n 1,4; eike (4)
. daike 1,2,4; daikian (Mo); leike 3, (4)
. daikegu 1,2,4; geike 3, (4)
. daikezu 1,2,4; egikezu (Mo); zeike 3, (4)
. daikezue 1,2,4; zeikie 3; zikee (4)
. daikee, 1,2,4; leikie 3; leie (4)

GU

. gaikezak, gaikenaz, 4 ; ginaikezak, ginaikenaz (4)
. gaikez 2,3, (Mo), 4; ginaikez (4)
. gaikezuz 2,3, (Mo), 4; ginaikezuz (4)
. gaikezuez 2,3, (Mo), 4; ginaikezuez (4)
. gaikeez 2, (Mo), 4; gaikiez, 3 ; ginaikeez (4)

ZU

. zaikedaz, zengidaz, zinaikedaz
. zaikez, zeinkez, zinaikez
. zaikeguz, zinaikeguz
. zaikeez, zaikiez, zinaikeez

ZUEK

. zaikeedaz, zaikedaze, zinaikeedaz
. zaikeez, zaikeze, zinaikeez
. zaikeeguz,zaikeguze, zinaikeeguz
. zaikeez, zaikieze, zinaikeez

HAIEK

. daikedaz, 4; neiz (4)
. daikezak, daikenaz, 4; eikezak, eikenaz (4)
. daikez 4; leikez (4)
. daikeguz, geikez (4)
. daikezuz, 4; zeikez (4)
. daikezuez, 4; zeikeez (4)
. daikeez, 4; leikeez (4)

NI

. neinke, 2
. neinkezu, 2
. neinkezue, 2
. neinkee, 2

HURA

. neinke, 1,2; nei (Mo)
. einke, 1
. leike 1,2; lei (Mo); leijala (Mo)
. geinke 1; geike, 2; giñai (Mo)
. zeinke, 1; zeike, 2
. zeinkee, 1, (Mo), zeikee, 2
. leikee 1,2; leije, leje (Mo)

GU

. geinkez, 2
. geinkezuz, 2
. geinkezuez, 2
. geinkeez, 2

ZU

. zeinkedaz, 2
. zengidaz, 2
. zeinkez, 2
. zeinkeguz, 2
. zeinkeez, 2

ZUEK

. zeinkeedaz, 2
. zeinkeez, 2
. zeinkeeguz, 2
. zeinkeez, 2

B - NOR NORI NORK

NIRI

. deustak/n, 4
. daust, 3,4,2; deust (Mo)
. daustazu 2,3,4; deustazu (Mo)
. daustazue 2,3,4
. dauste 2,3,4; daustee (Mo)

HIRI

. dauat, daunat, 4
. dausk, daun, 4
. dauagu, daunagu, 4
. daue, daune, 4

HARI

. deutsat, 1; dautsat 2,3,4
. deutsak/n 1; dautsak/n, 4
. deutze, dotza, deutzo,
  dotzo, dutzo, tzo, dotze,
  dautzo, deutzo, jao, dotza
  detza, dotxa, xan,dio (I)
. deutsagu, 1; dautsagu 2,3,4
. deutsazue,1; dautsazue 2,3,4; dautsazube (Mo)
. deutsoe, 1; dautsoe, 2; dautse 3,4

GURI

. dauskuk/n, 4
. dausku 2,3,4; deusku (Mo)
. dauskuzu 2,3,4
. dauskuzue 2,3,4; deuskuzube (Mo)
. dauskue 2,3,4; deuskube (Mo).

ZURI

. dautsut 2,3,4
. dautsu 2,3,4
. dautsugu 2,3,4
. dautsue 2,3,4

ZUEI

. dautsuet 2,3,4
. dautsue 2,3,4; dautsube (Mo)
. dautsuegu 2,3,4
. dautsuee 2; dautsue 3,4

HAIEI

. dautset 2,3,4; dautseet (Mo)
. dautsek/n, 4
. deutz(e)e, dotze, deutz(i)e, dutzie ,dotz(i)e, (de)tzoie, tze, dautz(i)e, dutze, jaue, detze, dotxe, doste, diue (I)
. dautsegu 2,3,4
. dautsezu 2,3,4; deutsezu (Mo)
. dautsezue 2,3,4
. dautsee, 2, (Mo); dautsie 3; dautse, 4

NIRI

. eustan, 4
. eustan 2,3,4; zeustan (Mo)
. zeustan 2,3,4; zeunstan (Mo)
. zeusten 2,3,4;
. eusten 2,3,4

HIRI

. neuan, neunan, 4
. euan, eunan, 4
. geuan, geunan, 4
. euen, eunen, 4

HARI

. neutsan 1,2,4; neuntsan 3.
. euntsan 1; eutsan, 4
. eutsan 1,2,3,4
. geuntsan 1,3; geutsan 2,4
. zeuntsan 1,3; zeutsan 2,4
. zeuntsoen 1; zeutsuen 2; zeutsen 3,4
. eutsoen 1,2; eutsen 3,4

GURI

. euskun, 4
. euskun 2,3, (Mo), 4
. zeuskun 2,3,4
. zeuskuen 2,3,4
. euskuen 2,3,4

ZURI

. neutsun 2,3,4
. eutsun 2,3,4
. geutsun 2,3,4
. eutsuen 2,3,4

ZUEI

. neutsuen 2,3,4
. eutsuen 2,3,4
. geutsuen 2,3,4
. eutsueen 2; eutsuen 3,4

HAIEI

. neutsuen 2,3,4
. eutsun, 4
. eutsen 2,3,4
. geutsen 2,3,4
. zeutsen 2,3,4
. zeutseen 2, (Mo); zeutsien 3; zeutsen, 4
. eutsen 2; eutsien 3; eutsén 4.

NIRI

. baeust, 4
. baleust 2,3,4
. bazeust 2,3,4
. bazeuste 2,3,4
. baleuste 2,3, (Mo), 4

HIRI

. baneusk, baneun, 4
. beleusk, baleun, 4
. bageusk, bageun, 4
. baleue, baleune, 4

HARI

. baneutsa 1; baneutso 2,3,4
. baeutsa 1; baeutso 2,3,4
. baleutsa 1; baleutso 2,3,4
. bageuntsa 1; bageutso, 2,3,4
. bazeuntsa 1; bazeutso 2,3,4
. bazeuntsoe 1; bazeutsoe, 2; bazeutse 3,4
. baleutsoe 1,2; baleutse 3,4

GURI

. baeusku, 4
. baleusku 2,3,4
. bazeusku 2,3,4
. bazeuskue 2,3,4
. baleuskue 2,3,4

ZURI

. baneutsu 2, (Mo), 4; baneuntsu 3.
. baleutsu 2,3,4
. bageutsu 2, (Mo), 4; bageuntsu, 3
. baleutsue 2,3,4

ZUEI

. baneutsue 2,3,4
. baleutsue 2,3,4
. bageutsue 2,3,4
. baleutsuee 2; baleutsue 3,4

HAIEI

. baneutse 2,3,4; baneutsee (Mo)
. baeutse, 4
. baleutse 2,3,4
. bageutse 2,3,4
. bazeutse 2,3,4
. bazeutsee 2; bazeutsie 3; bazeutse, 4
. baleutsee, 2; baleutsie 3; baleutsé, 4

NIRI

. euskit, 4
. leuskit 2,3,4; leusket (Mo)
. zeuskit 2,3,4; zeusket (Mo)
. zeuskide 2,3,4; zeuskede (Mo)
. leuskide 2,3,4

HIRI

. neuskik/n, 4
. leuskik/n, 4
. geuskik/n, 4
. leuskiek, 4; leuskine, 4

HARI

. neuskio 1,2,3,4
. eunskio 1; euskio, 4
. leuskio 1,2,3,4, (Mo)
. geunskio 1; geuskio 2,3,4
. zeunskio 1; zeuskio 2,3,4
. zeunskioe 1; zeuskioe 2,4; zeuskie, 3; zeuskioe (4)
. leuskioe 1,2,4; leuskie 3; leuskioe (4)

GURI

. euskigu, 4
. leuskigu 2,3,4
. zeuskigu 2,3,4
. zeuskigue 2,3,4
. leuskiue 2,3,4

AZKUE BIBLIOTEKA - EUSKALTZAINDIA

ZURI

. neuskizu 2,3,4
. leuskizu 2,3,4
. geuskizu 2,3,4
. leuskizue 2,3,4

ZUEI

. neuskizue 2,3,4; neuskijue (Mo)
. leuskizue 2,3,4
. geuskizue 2,3,4
. leuskizuee 2; leuskizue 3; leuskizué, 4

HAIEI

. neuskioe 2,4; neuskie, 3; neuskiue (4)
. euskioe, euskiue, 4
. leuskioe 2,4; leuskie 3; leuskiue (4)
. geuskioe 2,4; geuskie 3; geuskiue (4)
. zeuskioe 2,4; zeuskie 3; zeuskiue (4)
. zeuskioe 2,4; zeuskie 3; zeuskiue (4)
. leuskioe 2,4; leuskie 3; leuskiue (4)

NIRI

. eidak/n, 4; eistak/n (4)
. beit 2,4; beist (2), 3, (4)
. eidazu 2,3,4; eistazu (2), (4)
. eidazue 2,3,4; eistazue (2), (4)
. beide 2,4; beiste (2), 3, (4)

HIRI

. daiadán, dainadan, 4
. beik/n, 4
. daiagun, dainagun, 4
. beiez, beinez, 4

HARI

. daiodan, 4
. eiok/n, 1,4
. beio 1,2,4; beyo 3; daiola (4)
. daiogun, 4
. eiozu 1,2,4; eyozu, 3, (Mo)
. eiozue 1,2,4; eyozue, 3
. beioe 1,2,4; beyoe, 3; daioela (4)

GURI

. eiguk/n, 4
. beigu 2,3, (Mo), 4; beisku (2), (4)
. eiguzu 2,3, (Mo), 4; eiskuzu (2), (4)
. eiguzue 2,3, (Mo), 4; eiskuzue (2), (4)
. beigue 2,3, (Mo), 4; beiskue (2), (4)

ZURI

. daizudan, 4; daitzudan (4)
. beizu 2,3,4; beitzu (4)
. daizugun 4; daitzugun (4)
. beizue 2,3,4; beitzue (4)

ZUEI

. daizuedan, 4; daitzuedan (4)
. beizue 2,3,4; beitzue (4)
. daizuegun, 4; daitzuegun (4)
. beizuee 2; beizue 3,4; beitzue (4)

HAIEI

. daioedan, 4
. eioek/n, 4
. beioe 2,4; beyoe, 3; daioela (4)
. daioegun, 4
. eioezu 2,4; eyoezu, 3
. eioezue 2,4; eyoezue, 3
. beioee, 2; beyoe, 3; beioe, 4; daioela (4)

NIRI

. daidaala, 4; daistaala (4)

. daidan 2; daistau (2); dagistan 3; daidala, daistala, 4

. daidazun 2; daistazun (2); dagistazun 3; daidazula, daistazula , 4

. daidazuen, 2; dagistazuen (3); daidazuela, daistazuela, 4

. daiden 2; dagisten 3; daidela, daistela, 4

HIRI

. daiadala, 4; dainadala (4)

. daiala, 4; dainala (4)

. daigula, 4; dainagula (4)

. daiela, 4; dainela (4)

HARI

. deiodan 1; daiodan 2; dagiodan 3; dagiodala (Mo); daodala, 4

. deiioan, deionan, 1; daioala, daionala, 4

. deion 1; daioan 2
daion 3; dagiola (Mo); daiola, 4

. deiogun 1; daiogun 2; dagiogun 3; daijogun, dajogun, 4

. deiozun 1; daiozun 2; dagiozun 3; daiozula, 4

. deiozuen 1; daiozuen 2; dagiozuen 3; daiozuela, 4

. deioen 1; daioen 2; dagioen 3; daioela, 4

GURI

. daigula, daigunala, 4; daiskuala, daiskunala (4)

. daigun 2; daiskun (2); dagiskun 3; dagiskula (Mo); daigula, 4; daiskula (4)

. daiguzun 2; daiskuzun (2); dagiskuzun, 3; daiguzula, 4; daiskuzula (4)

. daiguzuen 1; daiskuzuen (2); daiguzuela, 4; daiskuzuela (4); dagiskuzuen, 3

. daiguen, 2; daiskuen (2); dagiskuen, 3; dagigubela (Mo); daiguela, 4;
daiskuela (4).

ZURI

. daizudan 2; daitsudan (2); dagitsudan 3; daizudala, 4; daitzudala (4)

. daizun 2; daitsun (2); dagitsun 3; daizula 4; daitzula (4)

. daizugun, 2; daitsugun (2); dagitsugun, 3; daizugula, 4; daitzugula (4)

. daizuen 2; daitsuen (2); dagitsuen 3; daizuela 4; daitzuela (4)

ZUEI

. daizuedan 2; .dagitsuedan (2); daizuedala 3; daitzuedala , 4
. daizuen 2; daitsuen (2); dagitsuen, 3; daizubela (Mo); daizuela 4; daitzuela (4)
. daizuegun 2; daitsuegun (2); dagitsuegun 3; daizuegula, 4; daitzuegula (4)
. daizueen 2; dagitsuen 3; daizuela 4; daitzuela (4)

HAIEI

. daioedan, 2; dagioedan 3; daijuedan, daijedan (Mo); daioedala, 4
. daieala, 4
. daioen 2; dagioen 3; daijen, deijuen (Mo); daioela, 4
. daioegun 2; dagioegun 3; dagijegun (Mo); daijuegun (Mo); daioegula, 4
. daioezun 2; dagioezun 3; daioezula, 4
. daioezuen 2; dagioezuen 3; daioezula, 4
. daioeen 2; dagioen 3; daioela, 4

NIRI

. eidala, 4
. egidan 2; eidan (2); eistan (2); egistan 3; eidala, 4
. zengidan 3,2; zeidan (2); zeidala, 4
. zengiden 2,3; zeiden (2); zegiden (Mo); zeidela, 4
. egiden 2; eiden (2); egisten 3; eidela, 2

HIRI

. neiala, neinala, 4
. eiala, einala, 4
. geiala, geinala, 4
. eiela, einela, 4

HARI

. neion 1, (2); (Mo); nengion 2,3; nengiola, 4
. engion 1
. eion 1, (2); egion 2,3; egiola, 4
. gengion 1,2,3; geion (2); gegion (Mo); geiola, 4
. zengion 1,2,3; zeion (2); zegion (Mo); zeiola, 4
. zengioen 1,2,3; zeioen (2); zegioen (Mo); zeioela, 4
.eioen 1, (2); egioen 2,3; eioela, 4

GURI

. eigula, 4

. egigun, 2; eigun, eiskun (2); egistun, 3; eigula, 4

. zengigun 2,3; zeigun (2); zeigula, 4

. zengiguen 2,3; zeiguen (2); ziguela, 4

. egiguen 2,3; eiguen (2); eiskuen (2); egiskuen 3; eiguela, 4

ZURI

. nengizun, 2; neizun (2); nengitsun, 3; neizula, 4

. egizun, 2; eizun (2); egitsun 3; eizula, 4

. gengizun, 2; geizun (2); gengitsun, 3; gegitsun (Mo); geizula, 4

. egizuen 2; eizuen (2); egitsuen 3; eizuela, 4.

ZUEI

. nengizuen, 2; neizuen (2); nengitsuen 3; neizuela, 4

. egizuen 2; eizuen (2); egitsuen 3; eizuela, 4

. gengizuen 2; geizuen (2); gengitsuen 3; geizuela, 4

. egizuen 2; eizuen (2); egitsuen 3; eizuela, 4

HAIEI

. nengioen 2,3; neioen (2); neioela, 4

. eioela, 4

. egioen 2,3; eioen (2); eioela, 4

. gengioen 2,3; geioen (2); geioela, 4

. zengioen 2,3; zeioen (2); zeioela, 4

. zengioen 2,3; zeioeen (2); zeioela, 4

. egioen 2,3; eioen (2); eioéla, 4

NIRI

. daikedak/n, 4; ineit (4)

. daiket 2,4; leist 3; leit (4)

. daikedazu 2,4; ziñeista 3; ziñeit (Mo), (4)

. daikedazue 2,4; ziñeiste 3; ziñeide (4)

. daikede 2,4; leiste 3; leide (4)

HIRI

. daikeat, daikenat, 4; neik/n (4)
. daikek/n, 4; leik/n (4)
. daikeagu, daikenagu, 4; gineik/n (4)
. daikee, daikene, 4; leie, leine (4)

HARI

. deikioz, 1; daikeot, 2,3; neyo, 3; neiq (4)
. daikeok/n 4; ineio (4)
. deikio 1; daikeo 2,4; leyo 3; leio (4)
. deikiogu 1; daikeogu 2,4; gineyo 3; gineio (4)
. deikiozu 1; daikeozu 2,4; zineyo 3; zineio (4)
. deikiozue 1; daikeozue 2,4; zineyoe 3; zineioe (4)
. deikioe 1; daikeoe 2,4; leyoe 3; leioe (4)

GURI

. daikeguk/n, 4; ineigu (4)
. daikegu 2,4; leigu 3, (4); leijue (Mo)
. daikeguzu 2,4; ziñeigu 3; zineigu (4)
. daikeguzue 2,4; ziñeigue 3; zineigue (4)
. daikegue 2,4; leigue 3, (4)

ZURI

. daiketsut 2; daikezut 4; neizu 3, (4)
. daiketsu 2; daikezu 4; leizu 3, (4)
. daiketsugu 2; daikezugu 4; giñeizu 3; gineizu (4)
. daiketsue 2; daikezue 4; leizue 3, (4)

ZUEI

. daiketsuet 2; neizue 3, (4); daikezuet, 4
. daiketsue 2; leizue (4), 3; daikezue, 4
. daiketsuegu 2; daikezuegu, 4; giñeizue 3; gineizue (4)
. daiketsuee 2; daikezue, 4; leizue 3; leizue (4)

HAIEI

. daikeoet 2,4; neyoe 3; neioe (4)
. daikeoek/n 4; ineioe (4)
. daikeoe 2,4; leyoc 3; leioe (4)
. daikeoegu 2,4; gineyoc 3; gineioe (4)
. daikeoezu 2,4; zineyoe 3; zineioe (4)
. daikeoezue 2,4; zineyoc 3; zineioé (4)
. daikeoe 2,4; leyoc 3; leioe (4)

NIRI

. leikit 2; leit (leist) (2)
. zeinkit 2; ziñeit (ziñeist (2)
. zeinkide 2; zineide (2)
. leikide 2; leide (leiste) 4

HÀRI

. neikio 1; neinkio, 2
. einkio, 1
. leikio 1,2
. geinkio 1,2
. zeinkio 1,2
. zeinkioe 1,2
. leikioe 1,2

GURI

. leikigu 2; leigu (leisku) (2)
. zeinkigu 2; ziñeigu (2)
. zeinkigue 2; ziñeigue (2)
. leikigue 2; zeigue (leiskue) (2)

ZURI

. neinkizu 2; neizu (2)
. leikizu 2; leizu (2)
. geinkizu 2; giñeizu (2)
. leikizue 2; leizue (2)

ZUEI

. neinkizue 2; neizue (2)

. leikizue 2; leizue (2)

. geinkizue 2; giñeizue (2)

. leikizue 2; leizuee (2)

HAIEI

. neinkioe 2; neioe (2)

. leikioe 2; leioe (2)

. geinkioe 2; giñeioe (2)

. zeinkioe 2; ziñeioe (2)

. zeinkioe 2; ziñeioee (2)

. leikioe 2; leioee (2)

IV. JOSKERA

1.- IZEN SINTAGMA

1.1.- DETERMINANTEA

Izen sintagmari buruz, bizkaieraren berezitasunik handiena determinantearen erabileran datza, hau da, mugatzaile eta erakuslearen erabileran.

1.1.1.- Mugatzailea

a) Guztiz orokorra den arau hau: IM ⟶ I + Adj + Mug.

adibidez: "Etxe ederrAK"

Batzutan forma adierazkorrak sortzeko apurtzen da, honelako araua betetzen:

IM ⟶ I + Mug + Adj + Mug, adibidez:

"Honek bai etxeAK ederrAK"

b) Ildo honetatik jarraituz, berezia da "Guzti" adjektiboaren erabilera, ia beti arau hau betetzen du:

I + Mug + Guzti + Mug, hau da: "Umeak guztiak"
"Arropak guztiak"...

Baina goian ikusi badugu I + Mug + Adj + Mug arauak forma adierazkorrak sortzeko balio duela, Adjektibo hori "Guzti" denean adierazkortasun hori zeharo galduta dagoela esan behar dugu, hau da, "Etxeak guztiak" "guzti" adjektiboaren erabilera arrunta da.

1.1.2.- Erakuslea

a) Beste euskalkietan erakusleak izenaren atzean aurkitzen ditugu, baina bizkaieraz aurrean ere erabiltzeko joera handia dago. Dirudienez, bizkaieraz hirugarren graduko erakuslea "a" denez, mugatzailearekin ("-a") ez nahastatzeko erakusleak izenaren aurrera jo zuen. Hau da:

"Etxe a"
izena erakuslea
"Etxea"
izena mugatzailea

Nola ezberdindu?

Erakuslea aurrean jartzen: "A etxea"

Ikusten denez nahiz eta erakuslea egon, honek aurreko tokia hartzen duenez izenak mugatzailea ere darama.

Geroago, analogiaz, beste erakusleek ere aurreko tokia hartu zuten:

"Au etxea"..... (1)

Fenomeno hau aditzlagunaren egituretara ere iragan da, eta adberbioz baliaturiko formak sortu ditu:

"Etxe honetan" eman du "Emen etxean"
"Etxe horretara" " du "Orra etxera"
"Denbora hartan" " du "Orduan denboran"

---

(1) VILLASANTE, fr. L.- "Sintaxis de la oración vasca"-Editorial franciscana Aranzazu- Oñate (Guipúzcoa):

"En vizcaino popular se nota una gran tendencia a anteponer el demostrativo, sobre todo de tercera persona. Como en este dialecto tal demostrativo es "A", tal vez haya sido la necesidad de distinguirlo del artículo lo que ha contribuido a impulsar este cambio de posición: A etxia/Arek gizonak, y una vez iniciada la tendencia, por generalización, aún en casos en que no hay peligro de tal confusión se tienda a anteponerlo. Pero en el vasco literario, aún en el dialecto vizcaíno, se guarda la ley de posponer el demostrativo".

b) Erakuslearen beste erabilera bat bai izenaren aurrean, bai atzean jartzea da. Adibidez:

"Onek txakur onek"
"Oneri andre oneri"

Dirudienez, beste euskalkietan galtzeko bidean dagoen (edo galdu den) "singular hurbila" sortzeko. Mikel Zaratek, behintzat, ondoko sintagma hauek "zehaztu-zehaztu singular"-tzat ematen ditu. (1)

"Onek txakur onek erbitarako ez dauala balio esan deuste"

"Ori gizon ori sarri egoten zan leen gure etxean"

"Oni katu oni ez dakit zer pasatzen jakon"

"Onen zoro onen diru irabazteok ere ez dakit nik zertan gel dituko diran".

Joera hau (erakuslea izenaren aurrean eta atzean) bizi-bizirik dago Bizkaian.

Baita "singular hurbila" arrunta ere erabiltzen da, hau da, Izena + Erakuslea: (2)

Mugagabea	Mugatu singularra	
	arrunta	hurbila
gazteØ	gazteA	gazteORI

1.2.- BEREZITASUN AIPAGARRI BATZU

1.2.1.- Erakusleek "-XE" atzizkia hartzen dutenean galdegai bihurtzen dira, eta jakina, aditzaren aurrean joan behar du-

(1) ZARATE, M.- "Euskal deklinabidea"- Leopoldo Zugaza, editor. Durango. Aipaturiko esaldiak ere liburu honetatik hartuta daude.

(2) Nahiz eta hemen "Nor" kasua bakarrik aipatu, noski deklinabideko kasu guztietan ematen da.

te.

"Auxe ekarri dogu"

Dena dela, batzutan beste lekutan aurkitzen ditugu.

1.2.2.- Izenorde pertsonalak galdegai direnean, bizkaierak forma indartuaz baliaturiko lokuzio aipagarriak sortzen ditu:

"Nik neuk egin dot"

"Niri neuri esan deuste" .....

2.- ADITZ SINTAGMA

2.1.- ADITZA

2.1.1.- Aditzaren komunztadura. Mugagabearekiko komunztadura.

Orokorki, sintagma mugagabeak erabiltzerakoan, aditzetan, pluraltasun markak agertzen zaizkigu, nahiz ez beti:

"Zenbait mutil etorri dira?"

"Zenbait bide dagoz?"

"Zenbait katu daukozuz?"

"Zenbait urte daukozuz?" (baina baita "zenbat urte daukazu"?)

Beraz, badirudi, sintagma mugagabeek adierazten dituzten multzoetan nahiz eta, noski, zehaztugabeak izan, Bizkaierak edo nolako pluraltasuna ikusten duela, eta ondorioz, aditzetan pluraltasun hori azpimarratzen du. Pluraltasun hori, dena dela, ez da aspaldikoa (ikus "Refranes y Sentencias", adib.).

2.1.2.- Aditza galdegai (1), (2)

Esaldiaren barruan aditzaren ekintza bera galdegaia denean, bizkaierak bere-berezkoa den errekurtso bat erabiltzen du. Hau da, aditz-partizipioaz (lehen-partizipioaz) baliatzen da, eta aditz-partizipio hau beste edozein galdegai izango bailitzan aditzaren aurre-aurrean kokatzen da.

a) Aditz sintetikoak

Aditz-partizipioa aditz jokatuaren aurrean aurkitzen dugu:

"Onek JAKIN daki"

"Astiro, baina ETORRI dator"

Egitura hau zabaldu egin da, eta batzutan, nahiz eta galdegaia beste edozein elementu izan, aditz-partizipioa ere agertzen da:

"Etorri BIHAR nator"
aditz partizipioa galdegaia

b) Aditz perifrastikoak:

Aditz perifrastikoetan, aditz-partizipioa "Egin" aditzaren aurrean aurkituko dugu:

"ETORRI egin da"

Aspektuari buruzko ezaugarriak (Ø, -t(z)en, -ko/go), "egin" aditzak hartuko du, eta, iragankortasuna edo ez iragankortasuna aditz-partizipioak (hots, kasu honetan galdegaia) ezarriko du:

---

(1) Letra handiz dagoena galdegaia da.

(2) Puntu hau hobe lantzeko ikus:
AKESOLO, L. "Galdegaiarekiko aztergai bat edo beste" "Euskera" aldizkarian 1980. urtean.
AREJITA, A. "Aditzaren galdegai funtzinoaz" "Euskera" aldizkarian, 1980. urtean. "Euskera" XXV (1980)-2, 371-380 or.

(2) Ikus "Euskera", XXV (1980)-2, 371-380 or.

"Etxean AURKITU egin dot"

"JOAN egin naiz"

Joera hau gipuzkeraz ere aurkitzen dugu, baina ondoen zaintzen duen euskalkia bizkaiera da.

Hemen ere, a) kasuan bezala, erabilera zabaldu egin da, eta aditza ez den beste edozein galdegairekin batera aditz-partizipioa ere aurki dezakegu:

"Txistua jo ONDO egiten dau".

Batzutan, "egin" aditzak beste edozein aditzi laguntzen dio.

"Etxera noa ikasi egiteko"

honela badirudi gehiago azpimarratzen dela "Ikasi"-ren indarra.

2.1.3.- Berezitasunak

Esaldi laburretan eta aditza perifrastikoa denean, bai Bizkaian bai Iparraldean aditz-laguntzailea galdegaiaren ondoan ipintzen da, orden arrunta (aditz-partizipioa + laguntzailea) apurtzen:

"LASTER da hil"

"LASTER zara etorri"

3.- PERPAUS TXERTATUAK

Euskalki guztiak hartuta, bizkaierak, ez dauka besteekin konparatuz joskera aldetiko ezberdintasun handirik, normalki arau orokorrak betetzen ditu. Hau kontutan hartuz, eta lana gehiegi ez luzatzearren, hemen bizkaieraren berezitasunak, besterik ez dira aipatuko.

Horretxegaitik, (ezberdintasun handirik aipatzeko ez dagoenez) perpaus elkarkidetuak ez ditugu hemen aztertuko; eta, perpaus txertatuen barruan esaldi mota batzu (kondizionalak, konparatiboak eta kontsekutiboak) ere ez. (1)

3.1.- SUSTANTIBOAK.

3.1.1.- Konpletiboak

Dakigunez, orokorki, esaldi nagusia baiezkoa denean aditz menperatuan "-LA" atzizkia aurkituko dugu, eta esaldi nagusia ezezkoa denean aditz menperatuan "-NIK" atzizkia.

Baina, bizkaieraz, esaldi nagusia baiezkoa denean bi atzizki erabiltzen dira, bata "-LA", eta bestea "-NA".

"-LA" erabiliko dugu esaldi menperatua galdegaia denean:

"Bere aita etorri daLA esan deutsot"
galdegaia

eta "-NA" esaldi menperatua galdegaia ez denean:

"Ba daki berak asarre nagoaNA"
galdegaia

Baita aditz nagusia ziurtasuna adierazten duenean:

"Jakina da aprobatu dauaNA"

---

(1) Dena dela gai hau merezi duen moduan aztertzeko komenigarri litzaizueke behintzat hiru oinarrizko liburu hauek kontsultzea:
VILLASANTE, fr. L.- "Sintaxis de la oración compuesta" -Editorial franciscana Aranzazu- Oñate (Guipúzcoa).
GOENAGA, P.- "Gramatika bideetan".
ALTUBE, S.- "Erderismos".

Bi atzizkien arteko ezberdintasuna bizkaierak guztiz zaintzen du. Gipuzkoan, Goiherri aldean, "-NA" atzizkia ere erabiltzen da; baina Bizkaian erabilera hau herri guztietan ematen da.

Fonetika aldetik, aditz jokatua eta atzizkien artean, gehienetan, "-a" izaten da loturazko hizkia, adibidez:

Dago + La ⟶ Dago-a-la

Aditza "-a"z bukatzen bada fenomeno hau gertatzen da:
A + A E + A

Zara + NA ⟶ zarEANA

3.1.2.- Zehar-galderak.

Bere egituran euskararen arau orokorrak jarraitzen dute. (hau da, menpeko aditza + N). Hemen bakarrik aipatu behar aditz nagusiak "bai ala ez" erantzuna eskatzen duenean, menpeko aditzean "-NENTZ" eta "-NEZ" atzizkiak agertzea posible dugula. Adibidez:

"Ez deust esan etorriko daNENTZ" (= "Ez deust esan etorriko daN ala ez").

Altuberen ustez Busturia eta Gernika aldean "-NENTZ" atzizkia erabiltzen dute, eta Arratia aldean "-NEZ" atzizkia.

3.2.- ADJEKTIBOAK (ERLATIBOZKOAK)

Ez dago hemen ere ezberdintasun handirik aipatzeko. Erlatibozko esaldiek, beste lekuetan bezala, P + -N + mug. araua betetzen dute:

"Nik ekarri dodaN liburua...."

Aditz-jokatu gabez egindako erlatibozko esaldiak, alde batetik eredu orokorra jarraitzen dute, hau da:

aditz partizipioa + $\begin{matrix}-RIK\\-TA\end{matrix}$ + KO + mugatzailea

("Ikusitako etxea", "Ikusitakoa")

baina bestaldetik, askotan, batez ere Gernika aldean forma hau laburtzen da, eta "-KO" atzizkia aditz partizipioari zuzen-zuzen lotzen zaio:

"Ikusitako etxea" = "IkusiKO etxea"

"Ikusitakoa" = "IkusiKOa"

Bukatzeko, maila literario barruan, bizkaiera "ZEIN" aurriz kiaz eta "-N" atzizkiaz ere baliatzen da, hau da:

"ZEIN" ... aditza + -N

adibidez: "Elduko da eguna, CEINETAN esango yataN presta nadilla *ondo ilteko*" *(AÑIBARRO- "Escu liburua"-22)*

Balio berberaz Iparraldeko euskalkiek erabiltzen duten "BAIT-" aurrizkia ("ZEIN" ...BAIT-aditza) ez dugu inoiz bizkai eraz aurkituko.

3.3.- ZIRKUNSTANTZIALAK

3.3.1.- Aldizkoak

Arau orokorretatik at aipagarria da "-KERA" atzizkiaren era bilera. Bi ekintzak aldi berean ematen direnean erabiltzen da, eta, aditz partizipioari ezartzen zaio:

"SartuKERAN ikusi neban"

Bestaldetik Iparraldean oso erabilia den "-LARIK" atzizkia, Bizkaian ez da agertzen, bere lekuan "-LA" atzizkia aurkitzen du gu, baina, dena dela bere erabilera ez da oso ugaria. Normalki epe luzea adierazteko, eta baita aditz trinkoekin ere erabiltzen

da, hau da:

"Etxean nengoaLA gogoratu neban ..."

Baita erdarazko "Desde que" adieraz ere erabiltzen da:

"Denbora asko da etorri dala".

3.3.2.- Erazkoak

Bizkaieraz "BEZALA" atzizkia ez zaigu agertzen, bere lekuan "LEGEZ" (eta bere barianteak "LEZ" eta "LETZ") aurkituko ditugu. "LEGEZ" posible da bai aditz jokatuari bai aditz partizipioari ezartzea.

Aditz jokatuari "-N" baten bitartez lotzen zaio:

"Gura dauaN LEGEZ"

dena dela Arratian "-NA" erabiltzen dute, hau da:

"esan daNA LEZ"

Aditz partizipioari lotzeko "-TAKO" atzizkiaren bitartez egiten da:

"EsanDAKO LEGEZ"

Baita esaldi modaletan ere Azkuek (1) deitutako "supositivo comparado" sartu behar dugu, "supositivo comparado" hau soilki Bizkaian erabiltzen da, eta soilki ere "L-"z hasten diren baldintzazko aditzak erabiliz, araua hauxe da:

BAI + baldintzako aditza ("L-"ez hasten direnak) + -N

"Bailetorren", "Bailitzan" ...

(1) AZKUE, R.M. "Morfología vasca" Ed. La Gran Enciclopedia Vasca.

3.3.3.- Helburuzkoak

Beste euskalkietan aditz partizipioari ezartzen zaion "-TEA GATIK" atzizkia Bizkaian oso gutxitan entzuten da, honen ordez "-TEARREN" erabiltzen da:

"Zugaz hitzegitearren etorri naz".

"ZERTARAKO" galderari erantzuten dio, noski;"-T(Z)EKO", "-TEKO-TAN"... atzizkiak ere erabiltzen direlarik.

"ZERTARA" galderari erantzuteko balio duen "-T(Z)ERA" atziz kia bizkaieraz ez da agertzen, honen ordez gerundioa erabiltzen da, hau da:

"Erosketak EGITEN noa"

"Liburuak EROSTEN noa"

3.3.4.- Kontzesiboak

Goian aipatu dugunez (3.3.3) hemen ere gehiago erabiltzen da "ARREN" "-GATIK" baino, eta askotan adiera kontzesiboa indar tzeko "ARREN" atzetik "ERE" elementua agertzen da:

"Erdi lo egon ARREN BE ..."

Adiera kontzesiboa emateko "BAINA" ere erabiltzen da, bi-garren esaldiaren amaieran, adibidez:

"Liburua garestia da, ez da ona BAINA"

Dena dela erabilera hau oso urria da.

3.3.5.- Kausalak

Beti bezala beste euskalkiekin konparatuz ez dago ezberdintasun handirik, beste lekutan erabiltzen diren errekurtsoak erabiltzen dira.

Hala ere aipagarria da "ETA"ren erabilera aditzaren atzetik, poposizio moduan; baina erabilera hau guztiz hedatua bada Bizkaia osoan, Gipuzkoan ere aurkitzen dugu.

"ETA" atzizkiaz sortutako esaldiek ez diote zuzen-zuzen "ZERGATIK" galderari erantzuten, haien kausalitatea "-LAKO"atzizkiaz egindako esaldiena baino askoz ahulagoa da. Hain kausalitate gradoa beste euskalkietan agertzen diren "BAIT-" aurrizkiaz egindako esaldien parekoa da.

Villasanteren ustez (1) "Kausa logikoa" azaltzen dute. Guk ematen dugun bide-batezko azalpena adierazten dute.

"Etxera noa, aspertzen naz ETA"

Bizkaian askotan "ZE" aurrizkiaz batera aurkitzen dugu:

".... ZE berandu etorri da TA"

eta beste askotan "-LA" atzizkiaz batera:

"Bildur zan jo edo egingo ebeLA TA"

Badirudi "-LA ETA" erabiltzen dugunean geurea ez den arrazoi bat ematen dugula, hau da beste inoren arrazoia ematen dugula:

"Ez da joango, ezin dauaLA TA".

---

(1) VILLASANTE, fr. L.- "Sintaxis de la oración compuesta" Editorial franciscana Aranzazu- Oñate (Guipúzcoa).

V. LEXIKOA

I. Hitz berdintsuak (bizkaierazko moldea, ezkerretan dator)

a) Bokale aldaketak

- baltz : beltz
- barri : berri
- bidar : bider
- garri : gerri
- gaza : geza
- itzal : itzel
- laba : labe
- txarri : txerri
- lora : lore
- ota : ote
- urten : irten
- iruntsi : irentsi
- guntzurrun (kuntzurrun) : giltzurrun
- uger : igeri
- ule : ile
- ultze : iltze
- uri : (h)iri
- urun : irin
- guzur : gezur
- emon : eman
- ete : ote

- bildur : beldur
- eleiza (elexa) : eliza
- gitxi : gutxi
- gaztai : gazta
- ardao (-u) : ardo

b) Kontsonante aldaketa

- edur : elur
- bedar : belar
- zidar : zilar
- idar (irar): ilar
- eskegi : eskeki
- irigi : ireki
- jagi : jaiki
- aizta : a(h)izpa
- lebatz : legatz
- zutunik : zutik
- beaztun : beazun
- irargi (iretargi) : hilargi
- orio : olio
- premiña : premia
- suin : suhi
- zentzun : zentzu

c) Kontsonante eta bokale

- izeko : izeba
- aitita : aitona
- amoma (amama) : amona
- eroan : eraman
- itxun : etzan
- irigi : ireki
- bialdu : bidali
- eskuma : eskuin
- kerexa : gerezi
- mesmeru : mizpira
- ur(rean) : hurbil
- arkal : elkar
- baga : gabe

II. Bestelakoak.

- abade : apaiz
- a(d)itu : ulertu
- adore : kemen
- akiakula : atxakia
- albista : berri
- aldatz : aldapa
- aldra : talde
- amatau : itzali
- armosu : gosari
- ardi : arkakuso bekereka
- ardura : axola
- arean : zerbait
- arerio : etsai
- arin : azkar
- arra : zehe
- arrakada : belarritako
- arrankari : amuarrain
- arrasti : arratsalde
- artazi : guraize
- artu! : tori!

- ats : kirats
- atzamar : be(h)atz
- aurretiaz :
- bekoki : kopeta
- baino : baizik
- barruntatu : susmatu
- basatza : lokatza
- bear : lan
- bear egin : lan egin
- beargin : langile
- beaztun : behazun
- beitu : begiratu
- beilegi : (h)ori
- berakatz : baratxuri
- berba : hitz
- berenberegi : apropos
- buzkantz : odolki
- dominístikun: usin
- durditu : txunditu
- ebatzi : erabaki
- edozelan : edonola
- ei : omen
- ekandu : ohitura
- enbra : emakume
- eskuma : eskuin
- ezean : ezik
- ezelan : inola
- ezelango : inolako
- eztegu : eztei
- galdara : pertza
- garo : ihintz
- gatx : zail
- geriza : itzal
- gomuta : oroitzapen
- gomutatu : oroitu
- gorta : ikuilu
- gura : nahi
- ilen : astelehen
- iko : piku
- inarra : txillar
- inatazi : txingor, kazkabar
- indaba (baba): babarruna
- indiar : judia
- iratzartu : esnatu
- itaun : galdera
- itaundu : galdetu
- itogin : itaizur, itute
- izara : maindire
- iziotu : piztu
- jadetsi : portu

- jagon : zaindu
- jausi : erori
- jazo : gertatu
- jezarri : eseri
- judegu : judu
- kadera : berna
- koju : harrapatu
- kontrokots : papada
- konorta : zentzu
- korta (Ikus gorta)
- lako : bezalako
- lapiko : eltze
- lar(egi) : gehiegi
- lepo : bizkar
- lotu : gelditu
- lukurrero : lukurari
- lupetsu : istiltsu
- lupetza : lokatza
- mendatu : txertatu
- miliki : mindulin bupera
- motz : itsusi
- mun : muino
- neba : anaia
- ogerleko : duro
- okaran : aran
- oratu : atxiki
- orma : pareta
- ortu : baratze
- oskol : hatzazal
- ostendu : ezkutatu
- ostera : txango
- otzara : otarre
- poltsiko : sakela
- probarri : demaharri
- putxa : gatzatu
- sama : lepo
- sats : simaur
- sein : haur
- suin : suhi
- sute(ezkaratza): sukalde
- tamal : pena
- tertzio : une
- txapin : izei
- txarto : gaizki
- txindor : urretxindor
- txiro : pobre
- ubertu(ugertu): heldoildu
- urrezuri : zilar
- zelako : nolako
- zelan : nola
- zer edo zer : zerbait

III. a) Asteko egunak:

- (astelena), : astelehen
- martitzen : astearte
- eguazten : asteazken
- eguen : ostegun
- bari(a)ku : ostiral
- sapatu : larunbat
- domeka : igande

b) Hilabeteen izenak:

- urtarril : ilbeltz, urtarril
- zezeil : otsail
- marti : martxo
- jorrail : apiril
- orril : maiatz
- bagil : ekaina
- garagarril : uztail
- dagonil : abuztu
- irail : irail
- urri
- zemendi : azaro
- abendu : abendu

VI. TRANSKRIPZIO FONETIKOAK

1. HOLMER-HOLMER, Apuntes vizcaínos, 181-183

a) Transkripzio fonetikoa.

at´i´ñe pa´sako geusi´(j)e. afie´tatik joan san andra´bat berme´oko plasa´ra oñe´s sol´u´betik afau´cek salcien. al´e´ga sanien sol´u´bera kanceu´e(i)nce´n eta jesa´fi eincen it´u´fi ba`ten o`nduen. a´n iku´si seuen afau´ca ede´rbat eta imin seue´n beran oca´ran. iše´n san bera´nak baño andi´jaue eta ondo eto´fi jacon ornidu´teko dose´nie. baña asi san kofiduten eta ćafi bacuk urte´n coien beran o´ndotik kofiduten. ordu´en bera´ri kendu´ jacon memo´rije eta esa(u)´nkijen no´ndik dabi´l´en. e(g)ue´rdiko ama´bijetan ese´tu seuen bera´n buru´en bakijo`n. efo´pak gusti´jek sati´t´ute eta kade´rak ufu´tute. Orduen begi´t´u seuen oca´ran eseukela so´l´u´ben topa´suen afo´cie(e)

b) Transkripzio semifonetikoa.

Atxiñe pasako geuzie. Arrietatik yoan zan andra bat Bermeoko plasára oñes Sollubetik arráutsek saltzíen. Allega zanien Sollubera kantseu intzen eta yesarri intzen itxurri baten onduen. An ikusi zeuen arrautza eder bat eta imin zeuen beran otsáran. Isen zan beran(ak) baño andiyaue eta ondo etorri jatson orniduteko dosenie. Baña asi zan korriduten eta txarri batzuk urten zeuen beran ondotik korridutan; orduen berari kendu jatson memoriye eta ezeunkiyen nondik dabillen. Eguerdiko amabiyetan ese

tu seuen beran burue Bakiyon. Erropak guztiyek zatittute eta kaderak urrutute. Orduen begitxu zeuen otzaran ezeukela Solluben topa zeuen arrotzie.

(ikus. Holmer, Ap. Vizc., 192 or.)

2. Bizkaiera mendebaldekoa. Arratiera (Zeanuri)
Osaba ilobak elkarrizketan (1. Osaba; 2. iloba):

1. Ba txarto pentzéute etxák ori. Oin gasolínea karútuten yoapai, ta eletrisidadea be eskastuingok da ik oiñ sasoi ona deukek ikesginen eiteko da ni, nik... beyákiat txondorra iten da, ik eta nik txondorras negósioa igual ingounkek e? egurre be bayak oin aunke sea piñúskoa. Da gero ba millonario eiten bagosak badákik e? sonbrérue-gas edo... guk tipo ona etxuk eukiko baiye.

2. Nondi asi be yakinbe enauke ingo bata neuk, nondi asi bes ikesginen.

1. Nondi asi bes?, Neuk esongostat!

2. Esan bai baie orixe... leen esan dotena, tipo eskasa ba inos ikusi barik...

1. Etxók ardure gixona, nire edadérorduko ikísikok ikesginen

3. Ekialdeko azpieuskalkikoa: Aramaion grabatua:

Libre urten da gero, istrusiñuek ikesi biesiela, gure aurrekuek asi sien. Aurreku kinttekuek eta, istrusiñuek ikesten da, joño arek e, airen wesabak anaie eguen orduen an soldau, aek wesabak e, beak atzeatuko eustela ille bi gure oanean; andramaixa agustukoz, joan bier gen da, ille bi atzeatu eskero oeto ibiliko nintzela. Se bero gutxiau,

ta, oeto. Gero ba emen sekretarixa difuntuek ikusi nindueni en kalien, orduentxe juen bier da, ia es nintzen juen, mesatik ur ten neneien bulsatik tietu te:

- esas juen da!
- No, no ha ido pues me ha dicho esto y esto.
- Ha venido una carta. Karrateruekin ikesgiñen nebilen orduen ni Albiñen, da karrateruekin karta bat bieldu eistien aik an dik Bittoixatik. Joño, desertor artu eiñgo nindduela ta, arraixue, -desertor artuko nauxuepa!

::::::

- Juen nintzen Bittoixa. Juen nintzen. Urrengo gusurre esan neutzen urregukuen ia Bittoixen isen nintzen, urrengo dome kan.. da:
- Es, ser esango neutzen ba!. Es da
- Pues ya...

Neu be, eso ya se, esanutzen da kitto. Geo presentau nintzen an da, lagunik es istrusiñue ikisteko. Ta arropeipes eus ten amabost egunien emon.

.....

Ba, or emen! Emen kuadrillak emen Asentzion da, oneik sol dauak edo estakju ba! Milisianuek. Oneik es euken soldau erro paik. Soldau erropa barik baiñe emen jente asko eon san Bilbo aldea eitten da joño. Batzuk e bene-benetan, beste batzuk es. Ementxe batek e niri esausten e, ortxe beuntze apur bat launketarren e, mille peseta leenaoko diruen emungostela baa. Ortxe launketarren. Martxau eiñgure ta, billur. Neuk esan be bai:

-ee!, ortik bea juango as bai! Antiejos be juen soan! Emen antiojosdun ba ebillen da ak martxauen. Joño, beti euen arutze jueteko desietan. Ak martxa euen da, andik? juetan bes to paukopai nik, ementxe da... a beti etorten san gurea esnie ar

tzen. Esnie gure ixeteuen artute, ortxe bixok gengosala esasten ba, ba denpora gutxi barru abantzie etorrela, esasten. aste santue san da, Pasko bigarrenien dingi-danga asi sien, gabien...ak beuken sera! Ak e Bilbon ixeuken aitte, aitte aberatza ixeuken da, raixue eskondiute lurpeien eukela ak. Da ango raixoko seretik pentzeute euela, aitte orrek esantzela laster yatosepa!. Esautzola aittek. Da alaxen etorri be bai; ak esperantxixe beuken.

VII. BIBLIOGRAFIA

1. Lan orokorrak

MOUTARD, N., "Etude phonologique sur les dialectes basques", F.L.V., 19 (5-42); 20 (141-190); 22 (9-54).

UHLEMBECK, "Contribution à une phonologie comparée des dialectes basques", RIEV, III (1909), 465-503; IV(1910) 65-118.

YRIZAR, Pedro de, Contribución a la Dialectología de la lengua Vasca, (2 T.) Gipuzkoa-ko CAP. 1981.

MITXELENA, L., Fonética histórica vasca, Dip. de Guip. 1977.

MITXELENA, L., Sobre el pasado de la lengua vasca, Auñamendi, 1964.

MITXELENA, Apellidos vascos, San Sebastián, 1955.

CAMPION, A., Gramática de los cuatro dialectos literarios vascos, Tolosa, 1884.

ORMAETXEA-MITXELENA, "Euskal azentuaz", Euskera (1958), 29-44.

MITXELENA, L., Lengua común y dialectos vascos, Bol, J. Urquijo, 1981 , 291-313

ETXAIDE, Ana M., "Ordenación cartográfica del Erizkizundia", B.J. Urquijo, (1974), 113-174.

AGUD, M., "Areas toponímicas en el País Vasco", B.J. Urquijo, 1973, 37-56.

AZKUE, Morfología vasca, Bilbo, 1923.

VAN EYS, Grammaire comparés des dialectes basques, Paris, 1879.

AZKUE, "Del acento tónico vasco en alguno de sus dialectos", E., XI (1930), 282-297; XII (1931), 3-50.

EUSKALTZAINDIA, Erizkizundi irukoitzari Bizkaiak erantzun diona" Euskera VI (IV) (1925), 16-36; VII (I), (1926), 38-56; VII (II), (1926), 45-59; XI (1930), 62-71.

AZKUE, "Fonética vasca", 1. Congreso de estudios vascos, Oñate 1, 1918, 456-480.

2. Bizkaierari buruzkoak

HOLMER, N. eta ABRAHMSON, V., "Apuntes vizcaínos", J. Urquijo, (1968), 87-141; (1969), 171-228; (1977), 5-46.

ROTAETXE, K., Estudio estructural del euskera de Ondarroa. Zugaza. 1978.

IZAGIRRE, K., Vocabulario vasco de Arantzazu y zonas colindantes; J. Urquijo, 1970.

ZARATE, M., Influencia del vascuence en la lengua castellana, G.E.V.1967.

NAVARRO TOMAS, "Observaciones fonéticas sobre el vascuence de Guernica", III. Congr. de Est. Vasc., 1972, 49-56

RIJK, R. de, "Vowel interaction in Biscaian Basque", F.L.V., 5 (1970), 149-168.

BASTERRETXEA, J., "Estudios sobre entonación (Guernica)", F.L.V. 18, 353-394; 21, 289-338.

IZAGIRRE, K., "Oñatiko liñagin-iztegitxoa", Euskera, (1956), 12-20.

IRIGOIEN, "Sobre el vizcaíno literario", Euskera, (1958), 105--132.

SAN MARTIN, J. "Eibarko hiztegi teknikoaz", E., (1958). 141-158.

LOPEZ DE GUEREÑU, "Voces alavesas", E., (1958).

ETXEBARRIA T., Lexicón de Eibar, E., (1965).

Lz. de GUEREÑU, "Más voces alavesas", Euskera, (1973), 119-149.

LASPIUR, I., "Azentu diakritikoa Eibarren", Euskera, (1979), 175-270.

AÑIBARRO, Gramática vascongada, Urquijo, 1969, 31-170.

IZAGIRRE, K., "Antzuolako euskera", Urquijo, (1968), 49-72.

ZAMARRIPA, P., Gramática vasca, Bilbao, 1909.

ALTUBE, S.,"Eibartarrak eta euskera", Euskera, V (1960), 61-65.

BERRIATUA, I., "Bermeoko arraintzaleen leksikua", Euskera, VIII-IX, (1963-64), 385-392.

ETXEBARRIA, T., "Flexiones verbales de Eibar", Euskera, VIII-IX, (1963-64), 53-130.

EGUSKITZA, J., "Bizkaiko euskeraren eta batez be bere adizpiakeraren aldakuntzak", Euskera, VI (II-III), (1925), 136-147.

ETXABURU, "Frases ondarresas", Euskera XVII, (1972), 104-111.

ETXABURU, "Ondarru-ko itzak -Palabras ondarresas", Euskera, XVII, (1972), 111-119.

IRIGOIEN, A.,"Bilbo eta euskara", Euskara, XXII, (1977), 385-425

SAN MARTIN, J., "Eibar-en teknika gaietan egin dan eboluzioari buruz".Euskera, IV, (1959), 127-138.

OREGI, J., "Bergarako euskera", Arizondo, I (1976), 41-42.

PUJANA, P., Olaetako euskal aditza, Vitoria, 1979.

ROLLO, W., The basque dialect of Marquina, Amsterdam, 1925.

ZABALETA, L., "El dialecto de Oñate", Oñate (1951), 12-18.

ZABALETA, L., "Variedad dialectal vasca de Oñate", Oñate, (1952-53).

G I P U Z K E R A

J. L. Ugarte

I. SARRERA SOZIOLINGUISTIKOA

L. Luziano Bonapartek egindako dialektoen 4. sailkapenean zortzi dialekto bereizten ditu. Horietako bat gipuzkera da; bizkaiera, iparraldeko goi nafarrera eta lapurteraren artean kokaturik. Haren sailkapenean, gipuzkera Gipuzkoako zati handi batetan eta Nafarroako zati txiki batetan hedatzen da. Gipuzkoan bi lekutan hedatzen ez delarik. Leintz bailarara eta Deba erdiko haranera, alde batetik; Irun, Hondarribi, Oiartzun eta Lezora bestetik. Nafarroan, berriz, haren kriterioa jarraituz gipuzkera Burundara eta Etxarri-Aranatza hedatuko litzateke.

Gipuzkeraren muga hauek oso eztabaidatuak izan dira gero. Azkue, D. Intza eta Mitxelenaren partetik batez ere.

- Azkuerentzat, Altzola eta Elgoibarko euskarak ez dira bizkaieraren barnean kontsideratu behar, gipuzkeraren barnean baizik. Bestalde Burundako euskara ez zaio gipuzkera iruditzen.

- Intzaren ustez, Burundako euskalkia (Ziordi, Olazti, Altsasu, *Urdiain, Iturmendi, Bakaikoa,...) ezin daiteke gipuzkeraren* barnean sar. Harentzat, ez dago bilakaerarik edo progresiorik Goierriko euskaratik Burundako euskarara. Eta horrek nolabait bi euskalki desberdin direla frogatzen du.

- Mitxelenaren ustez Errenteriako euskara ez da gipuzkera, nafarrera baizik. Honen ustez, antza handiagoa du Lezo eta Oiartzungo hizkerekin, Donostia eta Pasaiakoekin baino. Eta adibide batzu ematen ditu. "aita", "gaitu"..... esaten da, busti gabe; "Ikusi naken", "ikusi ninduan" esan beharrean; "dut", "det" esan beharrean;.....

Nafarroako euskalkiarekin, Burunda eta Etxarri-Aranazkoekin alegia, Bonapartek berak ere izan zituen nahiko buruhauste. Nonbait sartu behar, eta gipuzkeran egin zuen.

Gaur egun, nahiz eta Bonaparteren sailkapena kritikatua izan, oraindik bakarra da (edo serioena, behinik behin). Horregatik, geure lanean ere erabiliko dugu. (Ikus mapa 0.1.).

Gipuzkera hedatzen den lurraldea nahiko zabala da -zehazki 1686 km^2- bainan mapan ikus dezakegunez ez da handiena. Bizkaierak, Iparraldeko goi nafarrerak eta hegoaldeko goi nafarrerak lurralde handiagoak harrapatzen dituzte. Izatez, laugarrena dugu gipuzkera hedaduraz. (Beste kontua da euskaldun kopurua, horretan gipuzkera bizkaieraren hurrengo litzateke).

Bainan ez da 1686 km^2 horietan berdin hitzegiten. Nahiz eta dialekto bera izan, herri batetik bestera hizkera erruz aldatzen da, E.b. Mutrikun, Hernanin, Seguran, Altsasun arras diferente hitzegiten da. Hau dela eta, gipuzkera zatitu beharrean aurkitzen gara; eta azpi-euskalki eta hizkeretan zatituko dugu. (Bonapartek berak moldatu zuenaren arauera).

Hiru azpi-euskalki bereiz daitezke: Iparraldekoa, Hegoaldekoa eta Nafarroakoa; eta bakoitzean hizkera desberdinak. Horrela, iparraldeko azpi-euskalkian hiru hizkera: Hernani aldeko hizkera, Azpeitia aldeko hizkera eta Tolosa aldeko hizkera; hegoaldeko azpi-euskalkian hizkera bakarra, Zegamakoa; eta Nafarroako azpi-euskalkian bi; Burundako hizkera batetik. Etxarri Aranazkoa bestetik. (Ikus mapa 2). Azkuek, Iparraldeko azpi-euskalkian laugarren hizkera bat ere bereizten zuen, Elgoibar, Altzola, Mendaro, Astigarribia, Mutriku eta Deba hartzen dituena. Bainan guk ez dugu kontutan hartuko.

Bestalde, hizkera bereko herri guztietan ez da berdin hitzegiten. Adibide garbi bat, Azkoitia eta Azpeitiako hizkerak dira, nahiz eta hizkera berekoak izan (eta elkarrengandik oso gertu gainera) oso ezberdin hitzegiten da. Halere, ia beti izaten da, herri bat, hizkeraren hizkera eredutzat hartzen dena.

Guk ondoko taula hau kontutan izan dugu:

Hizkerak	Herriak	
Ernani	Ernani	-Hizkeraren eredua (h.e.)
	Orio	-kostako hizkera berezia
Tolosa	TOLOSA	-h.e.
	ANDOAIN	-hizkera berezia (h.b.)
	BERASTEGI	-nafarrerarekin mugan
	BEIZAMA	-Azpeitiko hizkerarekin mugan
Azpeitia	AIZARNA	-h.e.
	AZPEITIA	-h.b.
	AZKOITIA	-h.b.
	DEBA	-h.b.
	MUTRIKU	-h.b.
	ELGOIBAR	-h.b.
	ZUMARRAGA	-hegoaldeko muga (Zegamako hizkerarekin mugan)
	ERREZIL	-ekialdeko muga (Tolosako mugan)
Zegama	ZALDIBIA	-h.e.
	ZEGAMA	-h.b.
	LEGAZPI	-h.b.
	ATAUN	-h.b.
Burunda	ZIORDI	-h.e.
	ALTSASU	-h.b.
	BAKAIKOA	-h.b.
	URDIAIN	-h.b.
	DORRAU	-h.b.(Ergoiengo eredua)
Etxarri	ETXARRI-A.	-h.e.

Azter dezagun orain gipuzkera, bainan demografiaren ikuspegitik, hots, zenbatek hitzegiten duten.Eta hau egiteko Pedro Irizarren bere liburutik datuak jaso besterik ez dugu egingo.

"Contribución a la dialektologia de la lengua vasca" da liburua eta, atal batetan, 1972. urtean egindako inkesta baten berri eman digu. Bertan, herriz herri,Euskal Herri guztian euskaldunen kopurua azaltzen duelarik.

Lana edo ikerketa egiterakoan, Irizarrek, Bonaparteren 1869.ko sailkapena darabil, eta haren arabera dago egina. Iza tez, zortzi euskalkiak hartzen ditu, eta banan banan aztertzen. Gipuzkera aztertzerakoan, lehen aipaturiko azpi-euskalki eta hizkerak kontutan hartzen ditu. Eta horregatik sei ata letan aztertzen: Hernani aldeko euskaldun kopurua, Tolosa aldekoa, Azpeiti aldekoa, Zegama aldekoa, Burunda bailarakoa eta Etxarrikoa.

Esan bezala 1972.urtean egin zen inkesta, eta hura egite ko metodoa honako hau izan zen: Gipuzkoako herri guztietako parrokoei gutun bat bidali eskaera hauek eginez: bataz besteko euskaldun kopurua; euskaldunen portzentaia kalean eta base rrietan; eta euskaldunen portzentai totala.Leku batzutan, Donostian adibidez, metodo hau erabilkaitza zenez,beste zerbait asmatu behar izan zen. Honela, Donostian, gutunak, 29 parroki tara bidali ziren, bainan herri guztiko euskaldun kopurua eskatu beharrean, eliztar euskaldunen kopurua bakarrik eskatzen zitzaien.

Bestalde, akats bat du inkesta honek, zera da; inkesta 1972koa dela, eta erabili den biztanleen errolda 1970koa. Hau kontutan hartu behar da.

Guk inkestaren emaitzak ez ditugu herriz herri azalduko, azpi-euskalki eta hizkeren arauera baizik, ez luzatze arren.

-Iparraldeko azpi-euskalkia- Ernani aldeko hizkera:

Herriak: Hernani, Lasarte, Orio, Pasaia, Errenteria, Donostia, Usurbil.
Biztanleak: 259.440
Euskaldunen kopurua; 68.540
Euskaldunen portzentaia: %26,41

-Donostia bakarrik:
Biztanleak: 165.829
Euskaldunen kopurua: 36.365
Euskaldunen portzentaia: % 21,93

-Iparraldeko azpi-euskalkia- Tolosa aldeko hizkera:
Herriak: Tolosa, Aduna, Albiztur, Alkitza, Andoain, Anoeta, Asteasu, Beizama, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Zizurkil, Elduaien, Ernialde, Ibarra, Irura, Larraul, Leaburu-Gaztelu, Lizartza, Orexa, Urnieta, Billabona.
Biztanleak: 55.024

Azkenik esan, zuzen-zuzenean daturik ematerik ez badugu ere, Gipuzkoan nahiko prozesu berezia gertatu dela azken urte otan, (1950-60-tik aurrera) industrializazioa dela medio. Baserriak pisu handia izan badu ere, herriek hartu dute lehenta suna. Herriotan industrializazio oso barreiatua sortu da, Biz kaian ez bezala (Bilbo); Gipuzkoan probintzia guztian zehar zabaldu da industrializazioa (Eibar-Arrasate-Zumarraga-Beasain Tolosa-Hernani-Errenteria-Irun). Ondorioa garbia eta berezia izan da: inmigrazioak -beheko klaseak- gehiengo izanik, hizkuntza ofiziala dakar, bertakoek -erdi eta goi klasea- gehien go ez izanik, hizkuntza marjinala dute, edo arbuiatu egiten dute. Egitura eskematikoegi honek herri adina aldaera du. Eta hala, hizkuntzak oinarri geografiko ezean, gorabehera handiak jasaten ditu, oro har diglosia nabarmenean.



GIPUZKERA

2. Mapa

2. FONETIKA FONOLOGIA

2.1. BOKALISMOA

Bokalismoa 4 ataletan aztertu dugu:

-Bokale gauzatzea;
-Bokale alternantziak, bokale erorketak eta laburketak;
-Diptongoak;
-Bokale elkarketak;
-Bokale berdinen elkarketak.

Eta honako iturburu hauek erabili ditugu: 1go., 3., 4. eta 5. ataletarako Navarro Tomas, K. Izagirre, N. Moutard eta Irizar; 2. atalerako, Uhlembeck.

2.2. KONTSONANTISMOA

Kontsonantismoa ez dugu guk nahi genukeen adina aztertu, zenbait datu baztertu egin dugu, baina ez azaldu. (Izatez, dialektologian gehien landuta dagoen atala fonetika-fonologia da). Gipuzkeraren kontsonantismoari buruz, asko hitzegin daiteke. Guk, horregatik beste batetarako utziko dugu; eta orain go honetan datu aipagarrienak besterik ez ditugu emango.

Kontsonanteak lau taldetan aztertu ditugu: herskariak, txistukariak, sabaikariak eta beste fonemak (N. Moutard-i jarraituz). Kontsonanteen gauzatzeari buruzko datuak ez ditugu azaldu (Navarro Tomás-en liburuan aurki daitezke) ez eta alternantzi eta kontsonante erorketari buruzkoak (Uhlembeck). Espaziorik eza izan da horren esplikazioa.

2.1. BOKALISMOA

A. Bokaleen gauzatzea

- A bokalea. Gipuzkeraren "a" soinua gazteleraren "a" erlikoa bezala ahoskatzen da; padre, vaso... hitzetan entzuten len bezala. Hala ere, hainbat egoeratan palatalizaziora jotzen lu. Hori dala eta, arrotzari atentzioa gehien ematen diona 'a" palatalizatuaren maiztasuna da. Adb.: zordunai, diptongoan aitago; gogorrak, "ak" bukaeran dagoelako; ... Ezpain tinkalura nabaria da.

- E bokalea. "E" bokalearen aldagarriek, gipuzkeraz, arikulazio eremu zabala dute; irekiak izan daitezke (errekan, dibidez) eta itxiak ere (goldea'n adibidez). Hala ere joera adago, muga horien barne, "e" soinu irekiaren alde.

- I bokalea. Gipuzkeraz ez dago "i" itxirik, ez eta soiu erdikorik ere: e.b. gaztelerazko pide, misa... hitzetan gertzen diren bezalakorik. Kasu gehienetan gipuzkeraren "i" aztelaniaren "i" irekiaren berdina da (cinco, bizco, mil...) san liteke, ordea, batzutan irekidura-maila handiagoa ez ote uen.

- O bokalea. Mota irekia da nagusi, halere "oa" sailaren o" soinua (giroa, gaisoa...) badirudi gaztelariaren "o" baio itxiagoa dela.

- U bokalea. Bokale honen tinbre eskuarra gaztelariazko itz hauetan (turco, multa, busca...) agertzen dena baino gariagoa eta irekiagoa da.

Datu hauek, Navarro Tomas-en "Pronunciación guipuzcoana" iburutik hartuak ditugu. Eta kontutan izan behar dugu, hark ipuzkeraren ahoskuntza aztertzerakoan, bi pertsonen hizketa akarrik erabili zuela; Alkitzakoak biak. Horregatik ez dugu entsatu behar gipuzkeraren hedadura guztian hala ahoskatzen enik. Diferentziak batipat Nafarroako azpi-euskalkiekin dira.

Nafarroako gipuzkeraren ahoskerari buruz N. Moutard eta K. Izagirrek ohar batzu badituzte. Eta azalduko ditugu.

- Bokaleak ez dira oso tinkatuak eta zentralizatu samarrak daude.

- "I" eta "u"-ren ondoren datorren "a" ia beti aldatzen da, gutxi edo asko, "e"-ren aldera; gehienetan bide erdian gelditzen da. Adb.: neskiai, gutxitan, dakiau, sukalde, udaako, soruan,... Hitz bukaeran "a" bokalea [ə] ahoskatzen da, [eśkuə] e.b.

- Batzutan "a" eta "o"-ren arteko hotsa gertatzen da: naun (noun), duazu (duozu).

- Askotan "e" eta "i"-ren artekoa: geo (gio), artzeati (artzieiti), umeok (umiok),...

- Gutxitan "o" eta "u"-ren artekoa: zuloik (-luik), zegoban (-guban),...

B. BOKALE ALTERNANTZIAK, BOKALE ERORKETAK, KONTRAZIOAK

Atal honetan Uhlembeck-ek euskal bokalismoari diona azalduko dugu, bainan gipuzkerarekin bakarrik zerikusia duten adibideak agertuz.

B.1. BOKALE ALTERNANTZIAK

A bokalea.

A - e alternantzia

"R" batek jarraitzen dionean (bai bakarra; bai, batez ere r̄-ren aurrean)

gara, zara, zarete (B.) ; gera, zera, zerate (G.)

barri (B.) - berri (G.)

(G. , L.) : erdara - erdera

-Ai - ei diptongoetan; kasu hauetan asimilazio atzerakaria litzateke.
iritai (G.) . igitei (NB.)
jaiki (G.) . yeiki (L.)

- Mugatzaile singularraren aurrean a e (i) gertatzen da; bizkaieraz batez ere, baina gipuzkeraren zenbait lekutan ere.
arreba (a) . arrebea (arrebia) (disimilazio atzerakaria).

-A-e alternantzia erroaren bukaeran maiz gertatzen da:
galda (NB.) - eme (G.)

A - i alternantzia
Oso arraroa da. Hitz banaketan gertatzen da, adb.:
kiskaldu (G.) kiskildu (B.) . Badirudi asimilazioa da goela.

A - o alternantzia
- "R" baten aurrean
  gar - gori - gorri
- Besteak:
  ardai (ip. dial.) - ardoi (G.)
  ale (G.) - olo
  yaria (NB.) - jario (C.)

A - u alternantzia

  ukabil (G.) ükhübil (Z.)

  Monoptongazioak ez dira falta:

Ai - i naiz, aiz (G.) - niz, hiz (Z., NB.)
Au - u aunatu (G.) - unhatu (L.)
Au - a Hau maiz gertatzen da.

  yautsi (ip. dial.) - jatxi (G.)
  aurpegi (G.) - arpegi (L.)
  (G.) : nauk, nauzu, nauzute - nak, nazu, nazute.
  Bilintx: daukat, dauka, naukazu - dakat, daka, nakazu.
  "-an" - "-aun": andi - aundi,

E. bokalea

E - i alternantzia

- Erroaren hasieran:
  (G.) ; eseri - isiri
  eiz (G.) - ihizi (ip. dial.)

- "R" baten aurrean:
  (G.) : ageri - agiri
  nere (G.) - nire (B.)

- "L" baten aurrean:
  beldur (ip.dial.) - bildur (heg. dial.)

- Sudurkari aurrean:
  ibeni (L., B.) - ipiñi (G.)

- "N" baten ondoren:
  negar (heg.dial.) - nigar (ip.dial.)

E - o alternantzia

ordeka (G.) - ordoki (L.)
illoba (G.) - illeba (N G .)
hogei - hogoi.

E - u alternantzia

gezur (G.) - guzur (B.) Asimilazioa?.
(G.) : erruki - urriki

Monoptongazioak:

Ei - i (G.): leize - lize
Ei - e leize (G.) - leze (ip. dial.)
Eu - u euskaldun, euskara (G.) - üskaldun, üskara (Z.)

I bokalea

I - ya alternantzia

(L. , N B .) : ilki - yalgi. Gipuzkeraz "yalki" esaten da, baina beste esanahi bat du.

I - o alternantzia

mordi (B.) - mordo (G.)
edeki - ideki - idiki - idoki

I - u alternantzia

- "R" edo "l" baten aurrean:
irten (G.) - urten (B.)
iri (G.) - uri (B.)
(G.) : irruti - urruti
ille (G., L.) - ulle (B.)

- Beste kasu batzuetan asimilazioa edo disimilazioa gertatu da:

izi (ip. dial.) - izu (G.)
gitxi (...) - gutxi (G.)
piska (G.) - puska (ip. dial.)

O bokalea

O - u alternantzia

-"R" baten aurrean
moskor (G.) - mukur (B.) - muskur (L.)
(G.) : galdor - galdur

-"L" baten aurrean

nola (G.,..) - nula (Z.)

- Sudurkari baten aurrean (hau batipat iparraldeko eus-

kalkietan gertatzen da, baina hegoaldekoetan ere bai:

(G.) norontz - noruntz
nagosi (B.) - nagusi (G.)
Botatu (G .,..) - butatu (L.)

- Zenbait lekutan, mugatzaile sing. aurrean o>u gertatzen da.

Oi - i Hau inoiz gertatzen da.

orroi (G.) - orro (G.), ip. dial.) (ik. orroe, orroa)

U bokalea

U-a eta u-e korrespondentziak oso arraroak dira. Eta beste korrespondentzitaz gorago hitzegin dugu.

B.2. BOKALE ERORKETAK

A -Ai eta au diptongoek batzutan "a" galdu egiten dute (lehen aipatua). E.b.: naiz, aiz (G.) - niz, hiz (Z.) ; aunatu (G.) - unhatu (Z.)

- Hitz amaieran "a" batzutan desagertu egiten da:

barda (NB.) - bart (G.) , txorta (NB.) - txort (G., L.)

E -Haserako "e" askotan erori egiten da.

ebaki - bagilla (ekaina , etxe - txaola
ezazu - zazu
ezan - zan
ezadazu - zadazu

Campión 95

-Leherkari baten eta "r" baten artean dagoen "e" bokalea maiz desagertu egiten da. Adb.: andere - andre, abere -

abre (NB.) , (G.) abere - ildu - abrildu.

-Aldrebes gertatzen denean ere bai, hots, "e" bokalea "r' baten eta leherkari baten artean dagoenean. Adb.: arreta (G.,...) - artha (ip. dial.)

-Hitz amaierako "e" erortzen da batzutan: arraultze (ip. dial.) - arraultz (G.) , baratze (ip. dial.) - baratz (G.)

I -Kasu batzutan hitz haseran "i" erori egiten da: ikusi (G. ,..) - kusi (NG.) illoba (G. , ip.dial.) - llobia (B.) , itzazu - zatzu (Campión 96).

-Hitzaren barnean "i" bokalearen erorketak ere izaten dira: aliso (gaztelaraz) - altza (G. ,...

Monoptongazioak:

O -Oi konbinaketaren "o" galdu egiten da batzutan (lehen aipatua):
orroi (G.) - orro (G. , ip.dial.) (ik. orroe, orroa)

-Hitz amaieran erortzen da: txito (B.) - txit (G.) (Z.)

U -Au eta eu diptongoak "u" batzutan galtzen dute.

B.3. LABURKETAK

A (h) a (ip.dial.) - a(a) (B.) - a (G.)
ahal (ip. dial.) - al (G.,..)
aari (B.) - ari (G.)
txahal (ip. dial.) - txal (G.)
nahasi (ip. dial.) - naastu (B.) - nastu (G.)

-Ae - a

gizonaren - gizonaen - gizonan

-Ao - o

ardao (B.) - ardo (G. .,...)
(G.) : aita-on - aiton

-E (h) e (ip. dial.) - e(e) (B.) - e (G.)

behe - be, leher - ler, mee - me

-I (h)i- i E.b.: mihi (ip. dial.) - mi (G.)

-O (h)o- o E.b.: ohola (ip. dial.) - ola (G.)

-U (h)u- u (u) - u

zuhur (ip. dial.) - zur (G. ,...)
uhur (ip. dial.) - uur (B.) - ur (G.)

Campión-en eritziz laburketarako joerarik ahulena duten euskalkiak, gipuzkera eta bizkaiera dira; joera azkarrena aldiz, hegoaldeko nafarrerak.

Baina , hala ere, gipuzkeran gertatzen dira laburketa gogorrak:

amorrai (hamu-arrain), biagu (behar degu), biat (behar det).

C. DIPTONGOAK

Gipuzkerarazko diptongoei buruz hiru ohar:

- 1. Ai, ei edo oi diptongoei kontsonante palatalizatu batek jarraitzen badie, diptongoaren "i" horiek itxi egiten dira, eta zenbait kasutan kontsonante busti hartara asimilatu eta bateratzen dira. Adibideak:

AI + konts. bustia - epailla - epalla, paitarra - pattarra

EI + " - ereiñ - ereñ

OI + " - oilloa - olloa, oiñaze - oñaze

- 2. "Eu" diptongoarekin gauza bitxia gertatzen da benetan. Ahoskuntza desberdina du hiru azpi-euskalkietan:

- Iparraldeko euskalkian (Andoain inguruan behinik behin, hor jaso baititu datuak N. Moutard-ek) batzutan ez da "eu" diptongoa agertzen, edo "e" bilakatu delako (œskaldun - eskaldun), edo diptongoaren "u" bokalea kontsonanti zatu egin delako (euria - ebiya, euli - elbi).

- Hegoaldeko azpi-euskalkian (Ataunen) "eu" diptongoa "u" bilakatzen da: euskera - uskera. Hau nafarrera garaiera dialektoan eskuarra da.

- Nafarroako azpi-euskalkian, berriz "eu" - "au" gertatzen da. E. b., euri - auri, euli - auli, euskeraz - auzkeaz, eun - aun. Eta hau Aezkoako hizkeran ere gertatzen da.

- 3. Nafarroako azpi-euskalkian askotan EI-ren ordez AI entzuten da. Adb.: "baiya", "sai", "ogai", "gaiyenak"...

C. BOKALE ELKARKETAK

Hiru azpi-euskalkiak bakarka hartuko ditugu.

- Iparraldeko azpi-euskalkia.

- "I" bokalea eta hari darraion beste edozein bokaleren artean, soinu palatal bat sortzen da. Adibideak: "bihotza" [biyoca], "tentazioan" - [tentasiyoan], "Indietatik" - [indiyetatig], "txoria" - [ʧoriya]

- Bigarren bokalea "i" duen diptongo bati, "a" mug. elkartzen bazaio, tartean "y̯", "d͡y̯" edo antzeko soinu bat, [y], sortzen da. Adb.: "beia" - [beiy̯a], "kaia" - [kaiy̯a].

- "U" eta "a" bokalen artean loturazko kontsonante bat sortzen da. Adb.: "eskua" - [eskuba], "zentzua" - [sencuba]... Baina ez beti: "telefonua" - [telefonua], "kabua" - [kabua]...

- "ea", "oa" bikoteetan "e", "o" bokalak itxi egiten dira: "goldea" - [goldea] - [goldia], "beroa" - [beroa] - [berua]...

- "oa". "ua" [wa] herskari belarearen ondoren edo "a" baten ondoren."Biraoa" - [birawa], "negua" - [neguba]

- Hegoaldeko subdialektoa.

- Izen arruntetan, erroa "a" bokalez bukatzen bada eta mug. singularrak segitzen badio, orduan A + A > EA: "makila" - "makilea", "euskera" - "euskerea".

- Izenaren erroa "u" bokalez bukatzen bada eta mug. singularrak segitzen badio, orduan "a" > "e". "Lekua" - "lekue", "burua" - "burue"

- Berdin gertatzen da izena "i" bokalez bukatzen bada. "txoria" - "txorie".

- Nafarroako azpi-euskalkia:

- Hemen ere, iparraldeko azpi-euskalkian bezala, loturazko kontsonante bat sortzen da izen amaierako "u" eta "a" mug. sing. artean: "negua" - [neguba], "kainua" - [kainuba]...

- Halaber, izen amaierako "i" eta mugatzailearen artean soinu sabaikari bat entzun daiteke:"ilargia" - [ilargiŷa], euria - [auriŷa].

E. BOKALE BERDINEN ELKARKETA

- Hitz batzutan, tinbre bereko bokale segida ikus daiteke: "goorra", "eskaatza"... Kasu batzutan bokale arteko "g"

erori delako da, beste batzutan bokale arteko "r" erori delako...

- Badaude beste hitz batzu bi bokale berdinak segidan dituztenak atzean. Kasu horiek ahoskatzerakoan, bokaleak biribilketa edo luzadura bat izaten du: "zaar" - [saar̄] - [sa:r̄], "txaal" - [č̆aal] - [č̆a:l]. Eta maiz bokale sinple bat bezala ahoskatzen da: [sar̄]; [č̆al].

- Asimilazioa dela medio, beste zenbait hitzetan bokale berdinen elkarketa gertatzen da: o-o, "garoak" - "garook"; i-i, "amabiek" - "amabiik", "txoriek" - "txoriik";... Kasu hauek hegoaldeko azpi-euskalkian detektatu dira.

- Haserako kontsonantea erori delako, hitz batzutan haserako bokalea luzatu egiten da: "kabia" - [aapiŷa] - [aapiŷe] - [a:piŷe]. Hau ere hegoaldeko azpi-euskalkian erreparatua.

- Nafarroako azpi-euskalkian, kasu batzutan ez da honako laburketa hau gertatzen: e + e > e . Adb.: "gazteena" - [gasteena].

Ondoren, eraskin modura, izenak mugatzailea lotzerakoan izaten dituzten transformazioak agertuko ditugu, gipuzkeraren hizkera guztietan. (Bonaparteren "Phonologie"-en azaltzen da).

I - 1. Hernani, Astigarraga, Errenteria, Pasaiak, Donostia:
á, iá, iyá, uá, ubá.

2. Tolosa, Billabona, Andoain, Urnieta, Albistur, Bidania, Goiatz: á, iá, iddá, uá, ubá.

3. Azpeitia, Errezil: á, iá, iddá, uá, ubá-uá.
Azkoitia: á, iá, idxá , uá, ubá-uá.
Zumarraga, Urretxu: á, eá, iá, oá, ubá.

II. Zegama, Segura, Ormaiztegi, Telleriarte, Legazpi: eá, eá-á, á; eá; ié; oá; ué.

Ordizi: á, eá, ié, oá, ué.

III. 1 - Urdiain, Bakaikoa, Iturmendi, Altsasu, Olazti, Ziordi: iá, iá, iyá, uá, ubá.

2.- Etxarri-Aranatz: á, iá, iyá, uá, ubá.

2.2. KONTSONANTISMOA

A HERSKARIAK

- Mailegu hitzetan, maiz, haseran, herskari gorra aurkitzen da (pake, pagoa, piper...); baina baita herskari ozena ere (gorputz, gurutz, denbora).

- Txistukari ondoren normalena (p, t, k) hirukotea izanik ere, ozen-gorra aurkakotasunaren neutralizazioa ez da beti betetzen, zeren, batzutan, bi eretara entzuten baita: "ezta ona" edo "ez da ona". Hala ere, Nafarroako azpi-euskalkian, neutralizazio hori erregularragoa da.

B TXISTUKARIAK

- Iparraldeko azpi-euskalkia, (Andoain eta Urnieta aldeko datuak).

Ez dituzte denek "z" eta "s", hitzegiterakoan behinik behin, ondo bereizten. Antzera ahoskatzen dituzte "zu" [ʂu], eta "su" [ʂu], "zaar" [ʂaaɾ̄] eta "sar" [ʂaɾ̄]... Hitzak, berriro errepikatzeko esanez gero, edo hiperzuzenketa baten bidez, orduan bai, bereizten dituzte; baina , jakina, bereizketa hau ez da bapatekoa.

Gauza bera gertatzen zaie "tz" eta "ts" fonemekin. Ahoskuntza zaintzerakoan bakarrik bereizten dituzte.

Hitz haseran ez da "ts" edo "tz" aurkitzen, bai ordea - "tx": [ʧuri], [ʧori] [ʧakuɾ̄]... Hitz berberetan, batzutan: [s] - [ʧ] zalantza ikus daiteke: "zuri" [suri] "txuri"

[čuri], "zakur" [sakur̄] "txakur" [čakur̄]...; baina ez beti balio fonologikoekin, alegia, "tx" ekin daudenak hipokorismoak eta "z" rekin daudenak handikariak edo gaitzeskariak.

- [n, l, r] ondoren, frikari-afrikatu aurkakotasunaren neutralizazioa ez dirudi beti betetzen denik: [ensalada], [gison sar̄ bat]...

- Kasu apartetan sudurkari aurreko frikaria ozen gisa gauzatzen da: "esne" [eźne].

Hegoaldeko azpi-euskalkia (Ataungo datuak)

- Orokorki, txistukari mota desberdinak ondo bereizten dira. Halabaina, hitz batzutan zalantzak gertatzen dira: "zulo" - [šulo] , "noiz" - [noiš], "apaiz" - [apeiš]...

- "Tz" [c] hitz haseran oso bitxia da, adibide gutxi dau de: [curi], [cembat]. Baina , tx [č] berriz, askotan entzuten da: [čori], [čiki], [čiśtu]. Iparraldeko azpi-euskalkian beza la, "tx" eta "z" artean fluktuazioa gertatzen da, haseran.

- "X" frikaria oso arraroa da hitz haseran, eta haren or dez artikulagune bereko afrikatua erabiltzen da. Oso hitz gutxi da "x" haseran duenik: "xixtu" eta "xipeleta" horietako batzu.

- Azpi-euskalki honetan ere [n, l, r] ondorengo frikari-afrikatu aurkakotasunaren neutralizazioa ez dago. Ez mailegu hitzetan([enšalada], [šalša]), ez eta jatorrizko hitzetan([ar̄saia], [gison sar̄a])

Nafarroako azpi-euskalkia.

- Hemen ere txistukari hiru ordenak bereizten dira.

- Haseran ez da ez "tz", ez "ts" entzuten; baina "tx" na haroa da, beste azpi-euskalkietan bezala.

- "X" hasieran arraroa da. Eta "x" eta "tx" hitz amaieran oso gutxitan entzuten dira.

- [n, l, r] ondoren, igurzkari-afrikatu oposizioaren neutralizazioa bada, baina ez erregularki: adb. "arrantzali" baina "arranzaa gazi", "mutilzarra", "zarzaro txarra", "orzbat".

C. SABAIKARIAK

Iparraldeko azpi-euskalkia.

- Badirudi, "tt" [t̻] fonema bezala desagertzen ari dela, haren ordez "tx" erabiltzen delako, edo, batere, erabiltzen ez delako: [guči], [čiki], [torrtola],... "it" soinua: "ditu" [dit̻u], "aita" [ait̻a],... eta horrelako hitzetan agertzen da, baina aurrean "i" bat daramalako, eta ez da horregatik fonema bezala konsideratzen.

- [l] fonema palatalizatu edo busti egiten da aurretik "i" bat badu: "ibilli", "billatu", "illa", "illoba",... Hitz bukaeran [l] ez da entzuten.

-.[n] naharoa da: "soñoko", "lañua", "oña", "ñaño", "mingaña", "piñ";...

Hegoaldeko azpi-euskalkia.

- [t], fonema bezala badago: [kutun], [ontoa]... "I" bokalaren ondoren ere "t" palatalizatu egiten da. Eta bestalde, hemen ere [t] [c] fluktuazioa badago.

- [l] palatalizatu egiten da "i" bokalaren ondoren. Hala ere "ibili" eta "ibilli", biak esaten dira.

- [n] ere "i" baten ondoren busti egiten da. Hala ere, "zaina" esaten da eta ez "zaña".

Nafarroako azpi-euskalkia.

- [t̬] soinua ia erabat desagertu da.

- Batzutan, badirudi, "i" bokalearen ondorengo "n" eta "l" ez direla bustitzen. Eta bereiztasun honetan lapurteraren, baxenabarreraren eta aezkeraren antza du: "iloba", "erregina", "laino",...

D. BESTE FONEMAK

Iparraldeko azpi-euskalkia

- [f] fonema oso urria da. Haren ordez batzutan [b] fonema aurkitzen da ("kafia" - "kabia") edo [p] fonema ("nafar" - "napar"). Halere, hainbat hitzetan entzuten da: "fedea", "afari", "festa"...

- [x] fonema ez da bakarrik [xaun], [xaungoikoa] hitzetan bakarrik ahoskatzen, hegoaldeko dialekto gehienetan bezala, aditzen hasieratan ere eskuarki arki daiteke: [xan], [xo], - [xaúci].

- [r] - [r̄] fonemak bukaeran neutralizatzen dira.

- Bokale arteko "r", orokorki, frikari-albeolare bezala ahoskatzen da. Adb.: beroa - [beɹoa].

Hegoaldeko azpi-euskalkia.

- [f] fonema batzuetan [p] ahoskatzen da [api, apari, napara ,...] bainan ez beti: "fede", "fruta", "festa",...

- [x] hasieran maiz arkitzen da, bokalartean arraroagoa da. Eta posizio horretan, bokalartean alegia, gaztelaniatikako maileguetan bakarrik agertzen da; "biaje" - [beaxe]...

- [r] - [r̄] bukaeran neutralizatzen da.

Nafarroako azpi-euskalkia.

- Hemen ere [f] fonemaren ordez, maiz aurkitzen da [p] fonema. [f] fonema "fede", "faltsoa", "afai"... hitzetan aurkitzen da, eta baita ere "fago" hitzean non "f" - k "p" ordezkatu baitu.

Hurrengo orrialdean gipuzkeraren kontsonanteen taulak azalduko ditugu; soinu guztiak ez badaude ere (afrikatu eta frikari ozenak falta dira, bestalde ubulareak ere falta dira.) hala ere nahiko adierazgarriak dira.

Izatez, hiru taula azalduko dira: lehenengoan, hitz hasera aurkitzen diren kontsonanteak azalduz; bigarrenean, bokaleartean azaltzen direnak azalduz; eta hirugarrenean, hitz bukaeratan azaltzen direnak.

Haseran

	Ezpainkariak	Horzkariak	Bizkar albeolareak	Apiko albeolareak	Sabaiaurrekoak	Sabaikariak	Belareak
Leherk. gorrak	(p)	(t)				(t̯)	(k)
Leherk. ozenak	b	d					g
Sudurk.	m			n		ñ	
Frikari gorrak	f		s	ś	š		x
Afrikatu gorrak					č		
Albokariak				l			
Dard. bak.				r			
Dard. aniz.				r̄			

Barnean

Leherk.gorrak	p	t				t̯	k
Leherk. ozenak	b	d				d̯	g
Sudurk.	m			n		n̯	
Frikari gorrak	f		s	ś	š		(x)
Afrikatu gorrak			c	ć	č		
Albokariak				l		l̯	
Dard. bak.				r			
Dard. aniz.				r̄			

Bukaeran

Leherk. gorrak		t					k
Leherk. ozenak							
Sudurk.						n̯	
Frikari gorrak			s	ś			
Afrikatu gorrak			c	ć	č		
Albokariak				l		l̯	
Dard. bak.							
Dard. aniz.				r̄			

3. MORFOLOGIA

3.1. DEKLINABIDEA

Gipuzkeraren deklinabidea aztertzerakoan LOPEZ MENDIZABAL, ARRIGARAI eta CAMPION-en gramatikak erabili ditugu. Bainan taulak osatzerakoan zailtasunak izan ditugu. Izatez, gramatika bakoitzean agertzen diren deklinabide taulak erosoak dira, eta ez hori bakarrik, horrez gain, gramatika batetik bestera (nahiz eta hiruretan aztertzen dena gipuzkera izan) hitz batzu ezberdin agertzen dira. Eta hori kontutan izan behar da.

Lehendabiziko zailtasuna gainditzeko, taulak geure kasa bete behar izan ditugu, inon begiratu gabe; bainan, hori bai, izartxo batez abisatuz.

Bigarren zailtasuna gainditzen errazagoa izan zaigu. Kasu bera adierazteko hitz bat baino gehiago baleude, orduan denak jarri.

Eta eman ditzagun orain taulak.

BIZIGABEAK

	MUGAGABEA	MUG. SING.	MUG. PL.	MUGAGABEA	MUG. SING.	MUG. PL.
nominatiboa	MENDI	MENDIA	MENDIAK	LUR *	LURRA	LURRAK *
ergatiboa	MENDIK	MENDIAK	MENDIAK	LURREK *	LURRAK	LURRAK *
datiboa	MENDIRI	MENDIARI	MENDIAI	LURRI *	LURRARI	LURRAI *
gen. posesib.	MENDIREN	MENDIAREN	MENDIEN	LURREN *	LURRAREN	LURREN *
asoziatiboa	MENDIREKIN	MENDIAREKIN	MENDIEKIN	LURREKIN *	LURRAREKIN	LURREKIN *
destinatiboa	MENDIRENTZAT	MENDIARENTZAT	MENDIENTZAT	LURRENTZAT *	LURRARENTZAT	LURRENTZAT *
instrument.	MENDIZ	MENDIAZ	MENDIEZ	LURREZ *	LURRAZ	LURRETAZ *
inesiboa	MENDITAN	MENDIAN	MENDIETAN	LURRETAN *	LURREAN	LURRETAN
gen. lokatiboa	MENDITAKO	MENDIKO	MENDIETAKO	LURRETAKO *	LURREKO	LURRETAKO
alatiboa	MENDITARA	MENDIRA	MENDIETARA	LURRETARA *	LURRERA	LURRETARA
al. terminala	MENDITARAIÑO	MENDIRAIÑO	MENDIETARAIÑO	LURRETARAIÑO *	LURRERAIÑO	LURRETARAIÑO *
ablatiboa	MENDITATIK	MENDITIK(AN)	MENDIETATIK	LURRETATIK *	LURRETIK	LURRETATIK
direktiboa	MENDITAR$^{O}_{U}$NTZ	MENDIR$^{O}_{U}$NTZ	MENDIETAR$^{O}_{U}$NTZ	LURRETAR$^{O}_{U}$NTZ *	LURRER$^{O}_{U}$NTZ	LURRETAR$^{O}_{U}$NTZ *
prolatiboa	MENDITZAT			LURTZAT *		
partitiboa	MENDIRIK			LURRIK *		

B I Z I D U N A K

	MUGAGABEA	MUG. SING.	MUG. Pl.	MUGAGABEA	MUG. SING.	MUG. PL.
nominatiboa	UME	UMEA	UMEAK	GIZON	GIZONA	GIZONAK
ergatiboa	UMEK	UMEAK	UMEAK	GIZONEK	GIZONAK	GIZONAK
datiboa	UMERI	UMEARI	UMEAI	GIZONI	GIZONARI	GIZONAI
gen. posesiboa	UMEREN	UMEAREN	UMEEN	GIZONEN	GIZONAREN	GIZONEN
asoziatiboa	UMEREKIN	UMEAREKIN	UMEAKIN	GIZONEKIN	GIZONAREKIN	GIZONAKIN
destinatiboa	UMERENTZAT	UMEARENTZAT	UMEARENTZAT	GIZONENTZAT	GIZONARENTZAT	GIZONARENTZAT
instrumentala	UMEZ	UMEAZ	UMEAZ	GIZONEZ	GIZONAZ	GIZONEZ
inesiboa	UMEGAN	UMEAGAN	UMETAN	GIZONETAN	GIZONAGAN	GIZONETAN GIZONAKGAN
gen. lokatiboa	-	-	-	-	-	-
alatiboa	UMEGANA	UMEAGANA	UMENGANA	GIZONGANA	GIZONAGANA	GIZONENGANA
al. terminala	*UMEGANAIÑO*	*UMEAGANAIÑO*	*UMENGANAIÑO*	*GIZONGANAIÑO*	*GIZONGANAIÑO*	*GIZONENGANAIÑO*
ablatiboa	UMEGANDIK	UMEAGANDIK	UMENGANDIK	GIZONGANDIK	GIZONAGANDIK	GIZONENGANDIK
direktiboa	UMEGAN$^{O}_{U}$NTZ	UMEAGAN$^{O}_{U}$NTZ	UMENGAN$^{O}_{U}$NTZ	GIZONGAN$^{O}_{U}$NTZ	GIZONAGAN$^{O}_{U}$NTZ	GIZONENGAN$^{O}_{U}$NTZ
partitiboa	UMERIK			GIZONIK		
prolatiboa	UMETZAT			GIZONTZAT		

IZEN NAGUSIAK

	BIZIDUNAK		BIZIGABEAK	
nominatiboa	JOSE	ANDRES	LEZO	IRUN
ergatiboa	JOSEK	ANDRESEK	LEZOK	IRUNEK
datiboa	JOSERI	ANDRESI	LEZORI	IRUNI
gen. posesiboa	JOSEREN	ANDRESEN	LEZON	IRUNEN
asoziatiboa	JOSEREKIN	ANDRESEKIN	LEZOKIN	IRUNEKIN
destinatiboa	JOSERENTZAT	ANDRESENTZAT	LEZORENTZAT	IRUNENTZAT
instrumentala	JOSEZ	ANDRESEZ	LEZOZ	IRUNEZ
inesiboa	JOSEGAN	ANDRESGAN	LEZON	IRUNEN
gen. lokatiboa	-	-	LEZOKO	IRUNGO
alatiboa	JOSEGANA	ANDRESGANA	LEZORA	IRUNA
al. terminala	JOSEGANAIÑO	ANDRESGANAIÑO	LEZORAIÑO	IRUNERAIÑO
ablatiboa	JOSEGANDIK	ANDRESGANDIK	LEZOTIK	IRUNDIK
direktiboa	JOSEGANONTZ	ANDRESGAN$^{O}_{U}$NTZ	LEZOR$^{O}_{U}$NTZ	IRUNER$^{O}_{U}$NTZ
partitiboa	JOSERIK	ANDRESIK	LEZORIK	IRUNIK
prolatiboa	JOSETZAT	ANDRESTZAT	(LEZOTZAT)	(IRUNTZAT)

- I Z E N O R D E A K

- PERTSONALAK

nominatiboa		NI	I	*	GU	ZU	ZUEK	*
ergatiboa		NIK	IK		GUK	ZUK	ZUEK	
datiboa		NERI	IRI		GURI	ZURI	ZUEI	
gen. posesiboa		NERE,ENE	IRE		GURE	ZURE	ZUEN	
asoziatiboa		NEREKIN	IREKIN		GUREKIN	ZUREKIN	ZUEKIN	
destinatiboa		NERETZAT	IRETZAT		GURETZAT	ZURETZAT	ZUENTZAT	
instrumentala		NITAZ	ITAZ		GUTAZ GUTZAZ	ZUTAZ ZUTZAZ	ZUENTZAZ	
inesiboa		NIGAN	IGAN		GUGAN	ZUGAN	ZUENGAN	
alatiboa		NIGANA	IGANA		GUREGANA	ZUREGANA	ZUENGANA	
al. terminala		NIRAÑO	IRAÑO		GUREGANAIÑO	ZUREGANAIÑO	ZUENGANAIÑO	
ablatiboa		NIGATIK	IGATIK		GUREGATIK	ZUREGATIK	ZUENGATIK	
direktiboa		NIRONTZ	IRONTZ		GURONTZ	ZURONTZ	ZUE(NR)ONTZ	

* 3. pertsona, erakusleen berdina.

- INTENTSIBOAK

nominatiboa	NERAU NERONI	ERORI ERORRI	BERAU BERORI BERA	GEUROK GEROK GEOK	ZERORI ZERORRI	ZEUROK ZEROK ZEOK	BERAK BEROK EUROK
ergatiboa	NERONEK	ERORREK	BERONEK BERORREK BERAK	GEUROK GEROK GEOK	ZERORREK	ZEUROK ZEROK ZEOK	BERAK BEROK EUROK
datiboa	NERONI *	ERORRI *	BERARI	GEROI	ZERORRI *	ZEVOI *	BEROI BEREI
gen. posesiboa	NERONEN *	ERORREN *	BERE * BERAREN	GERONEN *	ZERORREN *	ZEUON *	BERON BEREN
asoziatiboa	*NERONEKIN* *	*ERORREKIN* *	BEREKIN * BERAREKIN	*GEROKIN*	ZERORREKIN *	*ZEUOKIN* *	BEROKIN BEREKIN
destinatiboa	NERONENTZAT *	ERORRENTZAT *	BERETZAT BERARENTZAT *	GERONTZAT	ZERORRENTZAT *	ZEUONTZAT *	BERONTZAT BERENTZAT
instrumentala	NERONETZAZ *	ERORRETZAZ *	BERETZAZ * * BERARENTZAZ	GEROTZAZ	ZEROTZAZ *	ZEUOTZAZ *	BEROZAZ
inesiboa	NERONENGAN *	ERORRENGAN *	BEREGAN * BERARENGAN *	GEROTAN GEROKAN *	ZERORRENGAN *	ZEUONGAN *	BEROKGAN
alatiboa	NERONENGANA *	ERORRENGANA *	BERARENGANA * BEREGANA *	GEROKANA	ZERORRENGANA *	ZEUONGANA *	BERAKGANA BEREGANA
al. terminala	NERONENGANAINO *	ERORRENGANAIÑO *	BEREGANAIÑO * BERARENGANAIÑO *	GEROKANAINO *	ZERORRENGANAINO *	ZEUONGANAINO *	BEROTARAÑO
ablatiboa	NERONENGANDIK *	ERORRENGANDIK *	BEREGANDIK * BERARENGANDIK *	GEROKANDIK	ZERORRENGANDIK *	ZEUONGANDIK *	BEROKGANDIK
direktiboa	NERONENGAN$^{O}_{U}$NTZ *	ERORRENGAN$^{O}_{U}$NTZ *	BEREGAN$^{O}_{U}$NTZ * BERARENGAN$^{O}_{U}$NTZ *	GEROKAN$^{O}_{U}$NTZ *	ZERORRENGANONTZ *	ZEUONGANONTZ *	BEROTARONTZ

- ERAKUSLEAK

AU	ORI	URA
ONEK	ORREK	AREK ARREK, ARK
ONEN	ORREN	AREN ARREN
ONI	ORRI	ARI ARRI
ONEKIN	ORREKIN	AREKIN ARREKIN
ONETAN ONTAN	ORRETAN ORTAN	ARTAN
ONETAKO ONTAKO	ORRETAKO ORTAKO	ARTAKO
ONETARA ONTARA	ORRETARA ORTARA	ARTARA
ONETATIK ONTATIK	ORRETATIK ORTATIK	ARTATIK
ONETZAZ ONEZAZ	ORRETZAZ ORTZAZ	ARTZAZ
ONENGAN ONEGAN	ORRENGAN ORREGAN	ARENGAN ARGAN
ONENGANA ONEGANA	ORRENGANA	ARENGANA ARGANA
ONENGANDIK ONEGANDIK	ORRENGANDIK ORREGANDIK	ARENGANDIK ARGANDIK
ONENGATIK ONEGATIK	ORRENGATIK ORREGATIK	AR(R)ENGATIK ARGATIK
ONENTZAT	ORRENTZAT	ARENTZAT ARRENTZAT

OEK OYEK	ORIEK OIEK	AEK AYEK
OEK OYEK	ORIEK OIEK	AEK AYEK
OEN OYEN	ORIEN OIEN	AEN AYEN
OEI OYEI	ORIEI OIEI	AEI AYEI
OEKIN OYEKIN	ORIEKIN OIEKIN	AEKIN AYEKIN
OETAN OYETAN	ORIETAN OIETAN	AETAN AYETAN
OETAKO OYETAKO	ORIETAKO OIETAKO	AETAKO AYETAKO
OETARA OYETARA	ORIETARA OIETARA	AETARA AYETARA
OETATIK OYETATIK	ORIETATIK OIETATIK	AETATIK AYETATIK
OETZAZ OYETZAZ	ORIETZAZ OIETZAZ	AETZAZ AYETZAZ
OENGAN OYENGAN	ORIENGAN OIENGAN	AENGAN AYENGAN
OENGANA OYENGANA	ORIENGANA OIENGANA	AENGANA AYENGANA
OENGANDIK OYENGANDIK	ORIENGANDIK OIENGANDIK	AENGANDIK AYENGANDIK
OENGATIK OYENGATIK	ORIENGATIK OIENGATIK	AENGATIK AYENGATIK
OENTZAT OYENTZAT OENTZAKO	ORIENTZAT OIENTZAT OIENTZAKO	AENTZAT AYENTZAT AENTZAKO

Orain ohar batzu azalduko ditugu, Campion-en gramatikatik hartuak hauek. Gipuzkeraren deklinabidearen bereiztasunak agertzen dira, eta nolabait beste euskalkien deklinabideekin alderatuz.

NOMINATIBOA ETA ERGATIBOA.

Gipuzkeran nominatibo plurala eta ergatibo plurala berdinak dira; ez dira bereizten. Ergatibo singularra eta ergatibo plurala ere berdinak dira, baina idatzita; azentuaren arauera bereizten baitira. Hots: "gizonák egin du" baina "gizónak egin dute".

Beste euskalki batzutan -AK atzizkia erabili beharrean (ergatibo plurala adierazteko) -EK erabiltzen dute: iparraldeko euskalkietan, hegoaldeko nafarrera garaian eta Baztango azpi euskalkian, hain zuzen.

DATIBOA.

Datibo plurala gipuzkeraz nahiz bizkaieraz -AI atzizkiaz adierazten da; lapurteraz eta zubereraz, aitzitik, -A-ren ordez -E- erabiltzen dute. Zubereraz datibo plurala ere -ER atzizkiaz adierazten da: "idier", "amer",... (idiei, amei,...).

ASOZIATIBOA.

Gipuzkeraz, instrumentala erabili beharko litzatekeen kasu askotan asoziatiboa erabiltzen da, gaztelanieraren eraginez. Adb.: "berebilakin joan naiz", "arkatzakin idatzi dugu",.....

Bestalde, gipuzkerak asoziatiboa adierazteko -KIN erabiltzen du, baina zubererak adibidez ez du -KIN erabiltzen, -KI baizik. Eta bizkaierak berriz -GAZ.

DESTINATIBOA

Gipuzkeraz, destinatiboa adierazteko -TZAT atzizkia erabiltzen da eskuarki. -TZAKO ere erabiltzen da, baina bizkaieraz gehiago.

INSTRUMENTALA.

Bizkaierak eta gipuzkerak, maiz asoziatiboa eta genitibo posesiboa erabiltzen dute, instrumentala erabili beharrean (gaztelanieraren eraginez).

INESIBOA

Inesiboa bizidunetan adierazteko -GAN atzizkia erabiltzen da, bainan bizkaieran eta gipuzkeran bakarrik; iparraldeko euskalkietan, iparraldeko nafarrera garaian eta hegoaldeko nafarrera garaian aldiz, BAIT(H)A edo BEIT(H)A hitza erabiltzen da, eta hari -N bat lotuz.

Inesiboa adierazteko -GAN atzizkia erabiltzen denean, atzizkiaren aurretik orokorki -EN- artizkia sartzen da. Hau, genitibo lokatiboan, alatiboan, alatibo terminalean eta ablatiboan ere gertatzen da. Gipuzkeraz ordea beti ez. Bi eratara erabiltzen da: "senarragan", "senarrarengan"....

LEKUTASUNEZKO GENITIBOA

Gipuzkeraz plurala adierazteko -ETA atzizkia eransten zaio ("mendietako") mugagabea adierazteko -TA- ("zenbait menditako"). Bainan beste euskalkietan beste artizki batzu erabiltzen dituzte.

ALATIBOA

Hegoaldeko euskalkietan alatiboa adierazteko -RA atzizkia erabiltzen da, iparraldekoetan berriz, -RAT, -LAT edo -LA.

ALATIBO TERMINALA

-ÑO atzizkia gipuzkeran eta bizkaieran erabiltzen da; -NO, -INO, -IÑO iparraldeko euskalkietan.

Denborazko lokuzioetan -DAÑO erabiltzen da: "gaurdaño", "aurtendaño",... Bestalde, batzutan, -ÑO atzizkia ARTE hitzari lotzen zaio. Adb.; "gizona gizon den arteraño" (G.), "gizona gizon deino" (ip. dial.).

ABLATIBOA

Ablatiboa adierazteko -TIK, -DIK, -TI, -DI, -RIK atzizkiak erabiltzen dira euskalkietan zehar. K-rik gabekoak bizkaieran erabiltzen dira; -TIK eta -DIK gipuzkeran; eta -RIK iparraldeko euskalkietan.

Bainan, gipuzkerak askotan -TIK edo -DIK atzizkiari -AN eransten dio. Adb.: ETXETIKan, EMENDIKan,... Hala ere adierazia aldatu gabe.

3.2. ADITZA

Aditza aztertzerakoan gauza bat ikusten da garbi: Nafarroako adizkiak Gipuzkoakoekiko oso ezberdinak direla. Beraz, bi tal de bereiz ditzakegu, iparraldeko eta hegoaldeko azpi-euskalkien adizkiak alde batetik, eta Nafarroako azpi-euskalkien adizkiak bestetik.

Horrek ez du esan nahi Gipuzkoan erabiltzen diren adizkerak denak berdinak direnik; aldatzen dira, noski, bainan ez gehiegi. Adizki orokorretan behinik behin, ez dago diferentzia handirik Hernani, Tolosa, Azpeitia eta Zegamako hizkeren artean.

Hegoaldeko azpi-euskalkiak, halere, berezitasun nabariak di tu; e.b. plurala singularrarekin adierazten dute,...

Guk lan honetan INDIKATIBOA bakarrik agertuko dugu bizpahiru arrazoirengatik: bat, hizkera batetik besterako diferentziak adizkera horretan nahiko ondo ikusten direlako; gehien aztertua dagoena indikatiboa bera delako; hiru, aditz guztia azaltzea luzeegia litzatekeelako.

Bestalde gure nahia gipuzkeraren lurralde osoan erabiltzen diren adizkiak azaltzea izan da. Horretarako hizkera bakoitzetik herri bat aukeratu dugu (nolabait hizkera isladatzen duena) eta herri horretako adizkiak agertzen saiatu gara. Hala ere, geure nahi hori kasu guztietan ezin izan dugu bete, ikusiko den bezala.

Gipuzkeraren aditzak hainbat gramatikatan azaltzen dira (Campión, Arrigarai, Lopez Mendizabal, J. Intxausti,..), baina ez dute benetan ahoskatzen den aditza isladatzen. Izatez, flexio literarioak agertzen dira horietan. Eta gure lanerako ez dute balio. Horregatik beste iturburuetara jo behar izan dugu. Iturburu hauek honako hauek izan dira: Azkueren "Morfologia", "Erizkizundi hirukoitza", P. Irizar, G. Bähr, Intza,... baina azkenengo biak batez ere. Gipuzkoan erabiltzen den aditza azaltzeko Bähr-en lanetara jo dugu; Nafarroako gipuzkeran erabiltzen den aditza azaltzeko, aldiz, Intzaren lanetara. Bähr-ek Gipuzkoako

40 herritako adizkiak aztertu zituen, baina Indikatiboa bakarrik (legazpiera osoa aztertu zuen). Eta Intzak Burundako aditza aztertu zuen, baina hikarik ez zuen jaso. Beraz, oraindik gauza asko jaso gabe dago. Bestalde, Etxarri-Aranazko aditza ere jaso gabe dago. Edo agian jasota daude, baina sistematiza turik gabe.

Hori dela eta, ezin izan dugu geure helburua edo nahia guztiz bete. Zenbait adizki ez ezagutzeagatik, haien ordezko laukuneak hutsik utzi behar izan ditugu.

Esan bezala, hizkera bakoitzeko herri bat hartu dugu. Ernani, Ernani aldeko hizkeretatik; Zaldibia, Zegama aldeko hizkeretatik; Tolosa, Tolosa aldeko hizkeretatik; Aizarna, Azpeiti aldeko hizkeretatik; Ziordi, Burundako hizkeretatik; eta azkenik, Etxarri-Aranatz. Baina zenbait kasutan herri hauetako adizkirik ez dugu aurkitu, eta orduan hizkera-mota bereko beste herri baten adizkiak azaldu ditugu. Hau, NOR eta NOR-NORI zutabeak azaltzerakoan gertatu da: Aizarnako eta Zaldibiko adizkiak ez genituen ezagutzen eta Azpeitiko eta Legazpiko adizki ezagunak agertu ditugu. Zenbait adizkitan ere, e.b.: -NOR-NORI orainaldia Azpeitiko zutabean, ez genuen Azpeitiko adizkirik kasu batzuetan, eta zarauzkoak jarri ditugu. -NOR-NORI-NORK lehenaldia Ernaniko zutabean, ez genuen Ernaniko adizkirik ezagutzen eta Pasaiakoak jarri ditugu.

Hikazko formen taulak ez ditugu emango. Hala ere zerbait esango dugu bukaeran horri buruz.

Eta azkenik adizkien transkibaketari buruzko ohar batzu:

L- fónema honekin "l" bustia edo palatalizatua adieraziko dugu.
T- " "t" " "
D- " "d" " "
Â Ê,I,O,U- Txapelak, luzeak direla adierazten du.

ADITZ LAGUNTZAILEA

IZAN INDIKATIBOA NOR ORAINALDIA

	Flex. lit.	HERNANI	TOLOSA	AZPEITIA	LEGAZPI	ZIORDI	ETXARRI
Ni	NAIZ	NAIZ	NAIZ	NAIZ	NAIZ	NAIZ	
Hi	AIZ	AIZ	AIZ	AIZ	AIZ		
Hura	DA	DA	DA	DA	DA	DA	DA
Gu	GERA	GEA	GEA	GEA	GA, GÂ	GADA	
Zu	ZERA	ZEA	ZEA	ZEA	ZA, ZÂ	ZADA	ZAA
Zuek	ZERATE	ZEATE	ZEATE	ZEATE	ZATE, ZÂTE	ZADAI	ZARIE
Haiek	DIRA	DIA	DIA	DIA	DIE, D̄E, DIRE	DIRA	DIE

IZAN INDIKATIBOA NOR LEHENALDIA

	Flex. lit.	HERNANI	TOLOSA	AZPEITIA	LEGAZPI	ZIORDI	ETXARRI
Ni	NINTZAN				NITZEN	NINTZAN	
Hi	INTZAN						
Hura	ZAN				ZAN	ZAN	
Gu	GIÑAN				GIÑEN, GINDEN	GINAN	
Zu	ZIÑAN				ZIÑEN, ZINDEN	ZINAN	
Zuek	ZIÑATEN				ZINETEN, ZINDETEN	ZINDAIN	
Haiek	ZIRAN				ZIEN	ZIRAN	

IZAN INDIKATIBOA NOR-NORI ORAINALDIA

	Flex. lit.	Hernani	Tolosa	Azpeitia	Legazpi	Ziordi	Etxarri
Ni-hiri	NATZAIK NATZAIN						
Ni-hari	NATZAIO	NATZAYO	NATZAIO	NAITZEKO	NAI(TZE)KO		
Ni-zuri	NATZAIZU				NAIZU		
Ni-zuei	NATZAIZUE				NAIZUE		
Ni-haiei	NATZAIE				NAITZETE		
Hi-niri	ATZAIT						
Hi-hari	ATZAIO						
Hi-guri	ATZAIZU						
Hi-haiei	ATZAIE						
Hura-niri	ZAIT	ZAIT̄	ZAIT	ZAT	ZAT	ZAIDA	DAKIT
Hura-hiri	ZAIK ZAIN						
Hura-hari	ZAIO	ZAYO	ZAIO	ZAKO	ZAKO	ZAIO	
Hura-guri	ZAIGU	ZAIGU	ZAKU	ZAKU	ZAKU	ZAIGU	DAKIEGU
Hura-zuri	ZAIZU	ZAIZU	ZATZU	ZATZU	ZATZU	ZAIZU	DAKIZU
Hura-zuei	ZAIZUE	ZAIZUTE	ZATZUE	ZATZUE	ZATZUE	ZAIZAI	DAKIZUE
Hura-haiei	ZAIE	ZAYOTE	ZAIE	ZAKOE	ZATE	ZAIE	DAKIYOE

Gu-hiri	GATZAIZKIK GATZAIZKIN						
Gu-hari	GATZAIZKIO	GATZAIZKIYO	GATZAIZKIO	GATZAIO(Zar.)	GAITZEKIO		
Gu-zuri	GATZAIZKIZU				GAITZEZU		
Gu-zuei	GATZAIZKIZUE				GAITZEZUE		
Gu-haiei	GATZAIZKIE				GAITZETE		
Zu-niri	ZATZAIZKIT				ZATZAT		
Zu-hari	ZATZAIZKIO	ZATZAYO	ZATZAIZKIO	ZAIZKIO(Zar.)	ZAITZEKO		
Zu-guri	ZATZAIZKIGU				ZAITZEKU		
Zu-haiei	ZATZAIZKIE	ZATZAYOTE	ZAITZAIZKIE	ZAIZKIE(Zar.)	ZAITZIE		
Zuek-niri	ZATZAIZKIDATE				ZAITZAZUET		
Zuek-hari	ZATZAIZKIOTE	ZAIZKATE			ZAITZAKO(E)		
Zuek-guri	ZATZAIZKIGUTE				ZAITZEKU		
Zuek-haiei	ZATZAIZKIETE	ZAIZKATE			ZAITZIE		
Haiek-niri	ZAIZKIT	ZAIZKIT̃	ZAIZKIT	ZAITZIT	ZAT	ZEZKIDA	DAZKIT
Haiek-hiri	ZAIZKIK ZAIZKIN						
Haiek-hari	ZAIZKIO	ZAIZKA	ZAIZKIO	ZAIZKU	ZAKO	ZAIZKIYO	DAZKIYO
Haiek-guri	ZAIZKIGU	ZAIZKIGU	ZAIZKIU	ZAIZKU	ZAKU	ZAIZKIGU	DAZKIEGU
Haiek-zuri	ZAIZKIZU	ZAIZKIZU	ZAIZKITZU	ZAITZU	ZATZU	ZAIZKIZU	DAZKIZU
Haiek-zuei	ZAIZKIZUE	ZAIZKIZUTE	ZAIZKITZUE	ZAITZUE	ZATZUE	ZAIZKIZAI	DAZKIZUE
Haiek-haiei	ZAIZKIE	ZAIZKATE	ZAIZKIE	ZAIZKOE	ZATE	ZAIZKIYE	DAZKIYOE

IZAN INDIKATIBOA NOR-NORI LEHENALDIA

	Flex. lit.	Hernani	Tolosa	Azpeitia	Legazpi	Ziordi	Etxarri
Ni-hiri	NINTZAIAN NINTZAINA						
Ni-hari	NINTZAION				NITZEKON		
Ni-zuri	NINTZAIZUN				NITZEZUN		
Ni-zuei	NINTZAIZUEN				NITZEZUEN		
Ni-haiei	NINTZAIEN				NITZETEN		
Hi-niri	INTZAIDAN						
Hi-hari	INTZAION						
Hi-guri	INTZAIGUN						
Hi-haiei	INTZAIEN						
Hura-niri	ZITZAIDAN				ZITZETAN, ZITAN	ZAIKIRAN	
Hura-hiri	ZITZAIAN ZITZAINAN						
Hura-hari	ZITZAION				ZITZEKON, ZIKON	ZAIKIYON	
Hura-guri	ZITZAIGUN				ZITZEKUN, ZIKUN	ZAIKIGUN	
Hura-zuri	ZITZAIZUN				ZITZEKUN, ZIZUN	ZAIKIKUN	
Hura-zuei	ZITZAIZUEN				ZITZEZUEN, ZIZUEN	ZAIKIZAIN	
Hura-haiei	ZITZAIEN				ZITZETEN, ZITEN	ZAIKIYEN	
Gu-hiri	GINTZAIZKIAN GINTZAIZKINAN						

Gu-hari	GINTZAIZKION				GINTZEKON		
Gu-zuri	GINTZAIZKIZUN				GINTZEZUN		
Gu-zuei	GINTZAIZKIZUEN				GINTZEZUEN		
Gu-haiei	GINTZAIZKIEN				GINTZETEN		
Zu-niri	ZINTZAIZKIDAN						
Zu-hari	ZINTZAIZKION						
Zu-guri	ZINTZAIZKIGUN						
Zu-haiei	ZINTZAIZKIEN						
Zuek-niri	ZINTZAIZKIDATEN						
Zuek-hari	ZINTZAIZKIOTEN						
Zuek-guri	ZINTZAIZKIGUTEN						
Zuek-haiei	ZINTZAIZKIETEN						
Haiek-niri	ZITZAIZKIDAN				ZITZETAN, ZITAN	ZAIZKIRAN	
Haiek-hiri	ZITZAIZKIAN ZITZAIZKINA						
Haiek-hari	ZITZAIZKION				ZITZEKON, ZIKON	ZAIZKIYON	
Haiek-guri	ZITZAIZKIGUN				ZITZEKUN, ZIKUN	ZAIZKIGUN	
Haiek-zuri	ZITZAIZKIZUN				ZITZEZUN, ZIZUN	ZAIZKIZUN	
Haiek-zuei	ZITZAIZKIZUEN				ZITZEZUEN, ZIZUEN	ZAIZKIZAIN	
Haiek-haiei	ZITZAZKIEN				ZITZETEN, ZITEN	ZAIZKIYEN	

UKAN INDIKATIBOA NOR-NORK ORAINALDIA

	Flex. lit.	Hernani	Tolosa	Aizarna	Zaldibia	Ziordi	Etxarri
Nik-hi	AUT	AT	AUT	AUT	AUT		
Nik-hura	DET	DET	DET	DET	DET	DOT	DET
Nik-zu	ZAITUT	ZAI͞TUT	ZAI͞TUT	ZAI͞TUT	ZAITUT		
Nik-zuek	ZAITUZTET	ZAI͞TUZTET	ZAITUZTET	ZAI͞TUET	ZAIZTET	ZAITUBEIT	
Nik-haiek	DITUT	DI͞TUT	DITUT	DI͞TUT	DI͞TUT	TUT	
Hik-ni	NAUK NAUN	NAK NAN	NAUK NAUN	NAUK NAUN	NAUK NAUN		
Hik-hura	DEK DEN	DEK DEN	DEK DEN	DEK DEN	DEK DEN		
Hik-gu	GAITUK GAITUN	GAI͞TUK GAI͞TUN	GAITUK GAITUN	GAI͞TUK GAI͞TUN	GAI͞TUK GAI͞TUN		
Hik-haiek	DITUK DITUN	DI͞TUK DI͞TUN	DITUK DITUN	DI͞TUK DI͞TUN	DI͞TUK DI͞TUN		
Hark-ni	NAU	NAU	NAU	NAU	NAU	NAU	DUT
Hark-hi	AU	AU	AU	AU	AU		
Hark-hura	DU	DU	DU	DU	DÔ	DAU	
Hark-gu	GAITU	GAI͞TU	GAITU	GAI͞TU	GAI͞TU	GAITU	
Hark-zu	ZAITU	ZAI͞TU	ZAITU	ZAI͞TU	ZAI͞TU	ZAITU	
Hark-zuek	ZAITUZTE	ZAI͞TUZTE	ZAITUZTE	ZAI͞TUE	ZAIZTE	ZAITUBEI	
Hark-haiek	DITU	DI͞TU	DITU	DI͞TU	DI͞TU	TU	
Guk-hi	AUGU	AGU	AUGU	AÛ	AUU		

Guk-hura	DEGU	DEGU	DEGU	DEU	DEU	DAÛ	
Guk-zu	ZAITUGU	ZAIT̄UGU	ZAITUGU	ZAIT̄UU	ZAIT̄UU	ZAITUGU	
Guk-zuek	ZAITUZTEGU	ZAIT̄UZTEGU	ZAITUZTEGU	ZAIT̄UEU	ZAIZTEU	ZAITÛ	
Guk-haiek	DITUGU	DIT̄UGU	DITUGU	DIT̄UU	DIT̄UU	TÛ	
Zuk-ni	NAUZU	NAZU	NAZU	NAZU	NAZU	NAUZU	
Zuk-hura	DEZU	DEZU	DEZU	DEZU	DEZU	DEZU	
Zuk-gu	GAITUZU	GAIT̄UZU	GAITUZU	GAIT̄UZU	GAIT̄UZU	GAITUZU	
Zuk-haiek	DITUZU	DIT̄UZU	DITUZU	DIT̄UZU	DIT̄UZU	TUZU	
Zuek-ni	NAUZUTE	NAZUTE	NAZUTE	NAZUTE	NAZUTE	NAUZAI	
Zuek-hura	DEZUTE	DEZUTE	DEZU(T)E	DEZUE	DEZUTE	DEZAI	
Zuek-gu	GAITUZUTE	GAIT̄UZUTE	GAITUZUE	GAIT̄UZUE	GAIT̄UZUE	GAITUZAI	
Zuek-haiek	DITUZUTE	DIT̄UZUTE	DITUZU(T)E	DIT̄UZUE	DIT̄UZUE	TUZAI	
Haiek-ni	NAUTE	NAUTE	NAUTE	NAUE	NAUE	NAUBEI	DUUBIET
Haiek-hi	AUTE	AUTE	AUTE	AU(B)E, ABE	AUE		
Haiek-hura	DUTE	DUTE	DU(T)E	DEBE, DEE	DUE	DAI	DABIE
Haiek-gu	GAITUZTE	GAIT̄UZTE	GAITUZTE	GAIT̄UE	GAIT̄UZTE	GAITUBEI	
Haiek-zu	ZAITUZTE	ZAIT̄UZTE	ZAITU(ZT)E	ZAIT̄UE	ZAIT̄UE	ZAIZAI	
Haiek-zuek	ZAITUZTE	ZAIT̄UZTE	ZAITUZTE	ZAIT̄UE	ZAIZTE	ZAITUBEI	
Haiek-haiek	DITUZTE	DIT̄UZTE	DITU(ZT)E	DIT̄UE	DIT̄UE	TUBEI	

UKAN INDIKATIBOA NOR-NORK LEHENALDIA

	Flex. lit.	Hernani	Tolosa	Aizarna	Zaldibia	Ziordi	Etxarri
Nik-hi	INDUDAN	INDUAN	IÑUTEN	IÑUTEN	IÑUTAN		
Nik-hura	NUAN	NUN	NUUN	NÔN, NUAN	NÔN		
Nik-zu	ZINDUDAN	ZIÑUAN	ZIÑUEN	ZIÑUTEN	ZIÑUZTAN		
Nik-zuek	ZINDUZTEDAN	ZIÑUZTEAN	ZIÑUZTEN	ZIÑUZTEN	ZIÑUZTEN		
Nik-haiek	NITUAN	NIT̄UN	NITUN	NIT̄UN	NIT̄UN		
Hik-ni	NINDUAN NINDUNA	NIÑUBAN NIÑUNAN	NIÑUAN NIÑUNAN	NIÑUN NIÑUNAN	NIÑUAN NIÑUNAN		
Hik-hura	UAN UNAN	UN	UAN	UAN	UAN		
Hik-gu	GINDUAN GINDUNA	GIÑUBAN GIÑUNAN	GIÑUAN GIÑUNAN	GIÑUN GIÑUNAN	GIÑUZEAN GIÑUZENAN		
Hik-haiek	ITUAN ITUNAN	IT̄UN	ITUAN	IT̄UAN	IT̄UN		
Hark-ni	NINDUAN	NIÑUN	NIÑUN		NIÑUN	NINDUBEN	
Hark-hi	INDUAN	INDUN	IÑUAN	IÑUN	IÑUN		
Hark-hura	ZUAN	ZUN	ZÛN	ZÔN, ZUAN	ZÔN		
Hark-gu	GINDUAN	GINDUN	GIÑUZEN		GIÑUZEN	GINDUZEN	
Hark-zu	ZINDUAN	ZIÑUN	ZIÑUN	ZIÑUN	ZIÑUZEN		
Hark-zuek	ZINDUZTEN	ZIÑUZTEN	ZIÑUZTEN	ZIÑUEN	ZIÑUZTEN		
Hark-haiek	ZITUAN	ZIT̄UEN	ZITUN	ZIT̄UN	ZIT̄UN		
Guk-hi	INDUGUN	INDUUN	IÑUUN, IÑUATEN	IÑÛN	IÑUUN		

Guk-hura	GENUAN	GENDUN	GENDUN	GENDUN	GENDUN		
Guk-zu	ZINDUGUN	ZIÑUUN	ZIÑUN	ZIÑUN	ZIÑUZTEUN		
Guk-zuek	ZINDUZTEGUN	ZIÑUZTEUN	ZIÑUZTEGUN	ZIÑUEUN	ZIÑUZTEUN		
Guk-haiek	GENITUAN	GENITU(E)N, GIÑUN	GIÑUZEN	GIÑUN	GIÑUTZEN		
Zuk-ni	NINDUZUN	NIÑUZUN	NIÑUZUN		NIÑUZUN	NINDUZUN	
Zuk-hura	ZENUAN	ZENDUN	ZENDUN	ZENDUN	ZENDUN		
Zuk-gu	GINDUZUN	GIÑUZUN	GIÑUZUN		GIÑUZUN	GINDUZAIN	
Zuk-haiek	ZENITUAN	ZIÑUN	ZIÑUZEN	ZIÑUN	ZIÑUTZEN		
Zuek-ni	NINDUZUTEN	NIÑUZUTEN	NIÑUZU(T)EN		NIÑUZUEN	NINDUZAIN	
Zuek-hi	ZENUTEN	ZENDUTEN	ZENDU(T)EN	ZENDUEN	ZENDUEN		
Zuek-hura	GINDUZUTEN	GIÑUZUTEN	GIÑUZU(T)EN		GIÑUZUN	GINDUZAIN	
Zuek-haiek	ZENITUZTEN	ZIÑUZTEN	ZIÑUZTEN	ZIÑUEN	ZIÑUZTEN		
Haiek-ni	NINDUTEN	NIÑUTEN	NIÑU(T)EN		NIÑUEN	NINDUBAIN	
Haiek-hi	INDUTEN	INDUTEN	IÑUTEN	IÑUEN	IÑUEN		
Haiek-hura	ZUTEN	ZUTEN	ZUEN ?	ZE(B)EN	ZUEN		
Haiek-gu	GINDUZTEN	GIÑUZTEN	GIÑUZTEN		GIÑUZTEN	GINDUZEIN	
Haiek-zu	ZINDUZTEN	ZIÑUZTEN	ZIÑUZTEN	ZIÑUEN	ZIÑUZTEN		
Haiek-zuek	ZINDUZTE(T)EN	ZIÑUZTEN	ZIÑUZTEN	ZIÑUEN	ZIÑUZTEN		
Haiek-haiek	ZITUZTEN	ZITUZTEN	ZITUZTEN, ZITUEN	ZIT̄UEN	ZIT̄UEN		

IZAN INDIKATIBOA NOR-NORI-NORK ORAINALDIA

	Flex. lit.	Hernani	Tolosa	Aizarna	Zaldibia	Ziordi	Etxarri
Nik-hiri-hura	DIAT DIÑAT	DIT	DIAT DIÑAT	DIT	DIAT DIÑAT		
Nik-hiri-haiek	DIZKIAT DIZKIÑAT	DIZKIAT DIZKIÑAT	DIZKIAT DIZKIÑAT	DIZTIT DIZTIÑAT	DIZKIAT DIZKIÑAT		
Nik-hari-hura	DIOT	DIDOT	DIOT	DIDOT	DIOT	DEROT	
Nik-hari-haiek	DIZKIOT	DIZKAT	DIZKIOT, DIZKAT	DIZKOT	DIZKIOT	DEROTZIT	
Nik-zuri-hura	DIZUT	DIZUT	DIZUT	DIZUT	DIZUT	DEZUT	
Nik-zuri-haiek	DIZKIZUT	DIZKITZUT	DIZKITZUT	DIZTUT	DIZUT, DIZKITZUT	DEZKIZUT	
Nik-zuei-hura	DIZUET	DIZUTET	DIZUTET	DIZUET	DIZUET	DEZAIT	
Nik-zuei-haiek	DIZKIZUET	DIZKITZUTET	DIZKITZUTET	DIZTUET	DIZUET, DIZKIZUET	DEZKIZAIT	
Nik-haiei-hura	DIET	DIDOTET	DIOTET	DIDET	DIET	DERUBET	
Nik-haiei-haiek	DIZKIET	DIZKATET	DIZKATET, DIZKIOTET	DIZTÊT	DIZKIET	DERUBEZAIT	
Hik-niri-hura	DIDAK DIDAN	DIAK DIAN	DIAK DI(R)AN	DIAK DIAN	DIAK DIAN		
Hik-niri-haiek	DIZKIDAK DIZKIDAN	DIZKIAK DIZKIAN	DIZKIAK DIZKIAN	DIZTAK DIZTAN	DIZKIAK DIZKIAN		
Hik-hiri-hura	DIOK DION	DIYOK DIDON	DIOK DION	DIYOK DIDON	DIOK DIOK		
Hik-hari-haiek	DIZKIOK DIZKION	DIZKAK DIZKAN	DIZKIOK, DIZKAK DIZKION, DIZKAN	DIZKOK DIZKON	DIZKIOK DIZKION		
Hik-guri-hura	DIGUK DIGUN	DIUK DIUN	DIGUK DIGUN	DIUK DIUN	DIUK DIUN		
Hik-guri-haiek	DIZKIGUK DIZKIGUN	DIZKIUK DIZKIUN	DIZKIGUK DIZKIGUN	DIZKUK DIZKUN	DIZKIUK DIZKIUN		
Hik-haiei-hura	DIEK DIEN	DIDOTEK DIDOTEN	DIOTEK DIOTEN	DIDEK DIDEN	DIEK DIEN		

Hik-haiei-haiek	DIZKIEK DIZKIEN	DIZKATEK DIZKATEN	DITZATEK, DIZKIOTEK DIZKATEN, DIZKIOTEN	DIZTEK DIZTEN	DIZKIEK DIZKIEN		
Hark-niri-hura	DIT	DIT	DIT	DIT̄	DIT̄	DURA	DUUT
Hark-niri-haiek	DIZKIT	DIZKIT	DIZKIT	DITZIT̄, DIZTIT̄	DIZKIT	DURATZIT	
Hark-hiri-hura	DIK DIÑ	DIK DIÑ	DIK DIÑ	DIK DIÑ	DIK DIÑ		
Hark-hiri-haiek	DIZKIK DIZKIÑ	DIZKIK DIZKIÑ	DIZKIK DIZKIÑ	DIZTIK DIZTIÑ	DIZKIK DIZKIÑ		
Hark-hari-hura	DIO	DID̄O	DIO	DID̄O	DIO	DERO	DOO
Hark-hari-haiek	DIZKIO	DIZKA	DIZKIO, DIZKA	DIZKO	DIZKIO	DEROTZI	DOOTZA
Hark-guri-hura	DIGU	DIGU	DIGU	DIU	DIU	DEGU	
Hark-guri-haiek	DIZKIGU	DIZKIGU	DIZKIGU	DIZKU	DIZKIU	DEZKIGU	
Hark-zuri-hura	DIZU	DIZU	DIZU	DIZU	DIZU	DEZU	
Hark-zuri-haiek	DIZKIZU	DIZKITZU	DIZKITZU	DIZTU	DIZU	DEZKIZU	
Hark-zuei-hura	DIZUE	DIZUTE	DIZUTE	DIZUE	DIZUE	DEZAI	
Hark-zuei-haiek	DIZKIZUE	DIZKITZUTE	DIZKITZUTE	DIZTUE	DIZUE	DEZKIZAI	
Hark-haiei-hura	DIE	DID̄OTE	DIOTE	DID̄E	DIE	DERUBE	DOOBIE
Hark-haiei-haiek	DIZKIE	DIZKATE	DIZKATE, DIZKIOTE	DIZT̂E	DIZKIE	DERUBEZAI	
Guk-hiri-hura	DIAGU DIÑAGU	DID̄AU DIÑAU	DIAGU DIÑA(G)U	DIGU DIÑAU	DIA(G)U DIÑAU		
Guk-hiri-haiek	DIZKIAGU DIZKIÑAGU	DIZKIYAU DIZKIÑAU	DIZKIAGU DIZKIÑAU	DIZTIGU DIZTIÑAU	DIZKIAU DIZKIÑAU		
Guk-hari-hura	DIOGU	DID̄OGU	DIOGU	DID̄OU	DIOU	DEROGU	
Guk-hari-haiek	DIZKIOGU	DIZKAGU	DIZKIOGU, DIZKAGU	DIZKOU	DIZKIOU	DEROTZIGU	

	Flex. lit.	Hernani	Tolosa	Aizarna	Zaldibia	Ziordi	Etxarri
Guk-zuri-hura	DIZUGU	DIZUGU	DIZUGU	DIZUU	DIZUU	DEZUGU	
Guk-zuri-haiek	DIZKIZUGU	DIZKITZUGU	DIZKITZUGU	DIZTU(G)U	DIZUU	DEZKIZUGU	
Guk-zuei-hura	DIZUEGU	DIZUTEGU	DIZUTEGU	DIZUEU	DIZUEGU	DEZAIGU	
Guk-zuei-haiek	DIZKIZUEGU	DIZKITZUTEGU	DIZKITZUTEGU	DIZTUEN	DIZUEN	DEZKIZAIGU	
Guk-haiei-hura	DIEGU	DIDOTEGU	DIOTEGU	DIDEU	DIEU	DERUBEGU	
Guk-haiei-haiek	DIZKIEGU	DIZKATEGU	DIZKATEGU, DIZKIOTEGU	DIZTEN	DIZKIEU	DERUBEZAIGU	
Zuk-niri-hura	DIDAZU	DIAZU	DI(R)AZU	DIAZU	DIAZU	DURAZU	
Zuk-niri-haiek	DIZKIDAZU	DIZKIATZU	DIZKIATZU	DIZTATZU	DIZKIATZU	DURATZIZU	
Zuk-hari-hura	DIOZU	DIDOZU	DIOZU	DIDOZU	DIOZU	DEROZU	
Zuk-hari-haiek	DIZKIOZU	DIZKATZU	DIZKIOTZU, DIZKATZU	DIZKOTZU	DIZKIOZU	DEROTZIZU	
Zuk-guri-hura	DIGUZU	DIGUZU	DIGUZU	DIUZU	DIOZU	DEZUGU	
Zuk-guri-haiek	DIZKIGUZU	DIZKIGUTZU	DIZKIGUTZU	DIZKITZU	DIZKIUTZU	DEZKIGUZU	
Zuk-haiei-hura	DIEZU	DIDOTEZU	DIOTEZU	DIDEZU	DIEZU	DERUBEZU	
Zuk-haiei-haiek	DIZKIEZU	DIZKATETZU	DIZKATETZU, DIZKIOTEZU	DIZTETZU	DIZKIEZU	DERUBEZAIZU	
Zuek-niri-hura	DIDAZUTE	DIAZUE	DIAZUE	DIAZUE	DIAZUE	DURAZAI	
Zuek-niri-haiek	DIZKIDAZUTE	DIZKIATZUTE	DIZKIATZUTE	DIZTATZUE	DIZKIATZUE	DURATZIZUE	
Zuek-hari-hura	DIOZUTE	DIDOZUTE	DIOZUTE	DIDOZUE	DIOZUE	DEROZAI	
Zuek-hari-haiek	DIZKIOZUTE	DIZKATZUTE	DIZKOTZUTE, DIZKATZUTE	DIZKOTZUE	DIZKIOZUE	DEROTZIZAI	

Zuek-guri-hura	DIGUZUTE	DIGUZUTE	DIGUZUTE	DIUZUE	DIUZUE	DEGUZAI	
Zuek-guri-haiek	DIZKIGUZUTE	DIZKIGUTZUTE	DIZKIGUTZUTE	DIZKUTZUE	DIZKIUTZUE	DEZKIGUZAI	
Zuek-haiei-hura	DIEZUTE	DIDŌZUTE	DIOTEZU(E)	DIDĒZUE	DIEZUE	DERUBEZAI	
Zuek-haiei-haiek	DIZKIEZUTE	DIZKATETZUTE	DIZKATZUTE,DIZKIOZUTE	DIZTETZUE	DIZKIEZUTE	DERUBETZIZAI	
Haiek-niri-hura	DIDATE	DIATE	DIATE	DIE	DI(R)E	DURAI	
Haiek-niri-haiek	DIZKIDATE	DIZKIATE	DIZKIDATE	DIZTĒ	DIZKIRE	DURATZIYAI	
Haiek-hiri-hura	DITEK DITEN	DITĒK DITĒN	DITEK DITEN	DIDĒ DIÑE	DIE DIÑEA		
Haiek-hiri-haiek	DIZKITEK DIZKITEN	DIZKITĒK DIZKIÑE	DIZKITEK DIZKITEN	DIZTIDĒ DIZTIÑE	DIZKIE DIZKIÑEA		
Haiek-hari-hura	DIOTE	DIDŌTE	DIOTE	DIDŪE	DIOE	DEROI	
Haiek-hari-haiek	DIZKIOTE	DIZKATE	DIZKIOTE, DIZKATE	DIZKUE	DIZKIOE	DEROTZAI,DEROTZIEI	
Haiek-guri-hura	DIGUTE	DIGUTE	DIGUTE	DIGUE	DIGUE	DEGUBAI	
Haiek-guri-haiek	DIZKIGUTE	DIZKIGUTE	DIZKIGUTE	DIZKUE	DIZKI(G)UE	DEZKIGUBAI	
Haiek-zuri-hura	DIZUTE	DIZUTE	DIZUTE	DIZUE	DIZUE	DEZAI	
Haiek-zuri-haiek	DIZKIGUTE	DIZKITZUTE	DIZKITZUTE	DIZTUE	DIZUE	DEZKIZUBAI	
Haiek-zuei-hura	DIZUETE	DIZUETE	DIZUETE	DIZUE	DIZUE	DEZAIBAI	
Haiek-zuei-haiek	DIZKIZUETE	DIZKITZUTE	DIZKITZUTE	DIZTUE	DIZUE	DEZKIZAI	
Haiek-haiei-hura	DIETE	DIDŌTE	DIOTE	DIDŪE	DIETE	DERUBAI	
Haiek-haiei-haiek	DIZKIETE	DIZKATE	DIZKATE, DIZKIOTE	DIZTĒ	DIZKI(O)E	DERUBEZAI	

IZAN INDIKATIBOA NOR-NORI-NORK LEHENALDIA

	Flex. lit.	Hernani	Tolosa	Aizarna	Zaldibia	Ziordi	Etxarri
Nik-hiri-hura	NIAN NIÑAN	NIIN NIÑAN	NIAN NIÑAN	NIÑ NIÑAN	NIAN NIÑAN		
Nik-hiri-haiek	NIZKIAN NIZKIÑAN	NIZKIN NIZKIÑAN	NIZKIAN NIZKIÑAN	NIZTIÑ NIZTIÑAN	NIZKIAN NIZKIÑAN		
Nik-hari-hura	NION	NIDON	NION	NIDON	NION	NERON	
Nik-hari-haiek	NIZKION	NIZKAN	NIZKAN,NIZKION	NIZKON	NI(ZKI)ON	NEZKERON	
Nik-zuri-hura	NIZUN	NIZUN	NIZUN	NIZUN	NIZUN	NEZUN	
Nik-zuri-haiek	NIZKIZUN	NIZKITZUN	NIZKITZUN	NIZTUN	NIZKITZUN	NEZKITZUN	
Nik-zuei-hura	NIZUEN	NIZUTEN	NIZU(T)EN	NIZUEN	NIZUEN	NEZAIN	
Nik-zuei-haiek	NIZKIZUEN	NIZKITZUTEN	NIZKITZU(T)EN	NIZTUEN	NIZKITZUEN	NEZKIZAIZ	
Nik-haiei-hura	NIEN	NIDOTEN	NIOTEN	NIDEN	NIEN	NERUBEN	
Nik-haiei-haiek	NIZKION	NIZKAN	NIZKAN,NIZKION	NIZKON	NI(ZKI)ON	NEZKERUBEN	
Hik-niri-hura	IDAN	IAKAN IANAN	IAKEN	IAN	ITAN		
Hik-niri-haiek	IZKIDAN	IZKIANAN	IZKIATEN	IZTAN	ITAN		
Hik-hari-hura	ION	IDON	IO(KE)N	IDON	ION		
Hik-hari-haiek	IZKION	IZKAN	IZKA(KE)N, IZKIO(KE)N	IZKON	I(ZKI)ON		
Hik-guri-hura	IGUN	IGUKAN IGUNEN	IGUN?	IUN	IGUN		
Hik-guri-haiek	IZKIGUN	IZKIGUKAN	IZKIUN	IZKUN	IZKIUN		
Hik-haiei-hura	IEN	IDOTEN(pas.)	IOTEKEN IOTENEN	IDEN	IEN		
Hik-haiei-haiek	IZKION	IZKAN	IZKA(KE)N,IZKIO(KE)N	IZKON	IZ(ZK)ION		

Hark-niri-hura	ZIDAN	ZIAN	ZIAN	ZIAN	ZIIN	ZERUAN	
Hark-niri-haiek	ZIZKIDAN	ZIZKIAN	ZIZKIAN	ZIZTAN	ZIZKÎN	ZEZKURAN	
Hark-hiri-hura	ZIAN ZIÑAN	ZIIN ZIÑAN	ZIAN ZIÑAN	ZÎN ZIÑAN	ZIAN ZIÑAN		
Hark-hiri-haiek	ZIZKIAN ZIZKIÑAN	ZIZKIN ZIZKIÑAN	ZIZKIAN ZIZKIÑAN	ZIZTIÑ ZIZTIÑAN	ZIZKIAN ZIZKIÑAN		
Hark-hari-hura	ZION	ZIDON	ZION	ZIDON	ZION	ZERON	
Hark-hari-haiek	ZIZKION	ZIZKAN	ZIZKAN	ZIZKON	ZION	ZEZKERON	
Hark-guri-hura	ZIGUN	ZIGUN	ZIGUN	ZIUN	ZIGUN	ZEGUN	
Hark-guri-haiek	ZIZKIGUN	ZIZKITZUN	ZIZKITZUN	ZIZTUN	ZIZKITZUN	ZEZKIGUN	
Hark-zuri-hura	ZIZUN	ZIZUN	ZIZUN	ZIZUN	ZIZUN	ZEZUN	
Hark-zuri-haiek	ZIZKIZUN	ZIZKITZUN	ZIZKITZUN	ZIZTUN	ZIZKITZUN	ZEZKIZUN	
Hark-zuei-hura	ZIZUEN	ZIZUTEN	ZIZU(T)EN	ZIZUEN	ZIZUEN	ZEZAIN	
Hark-zuei-haiek	ZIZKIZUEN	ZIZKITZUTEN	ZIZKITZU(T)EN	ZIZTUEN	ZIZKITZUEN	ZEZKIZAIN	
Hark-haiei-hura	ZIEN	ZIDOTEN	ZIOTEN	ZIDEN	ZIEN	ZEROIN	
Hark-haiei-haiek	ZIZKION	ZIZKAN	ZIZKAN	ZIZKON	ZION	ZEZKEROIN	
Guk-hiri-hura	GENIAN GENIÑAN	GIÑIN GIÑINAN	GIÑIAN GIÑIÑAN	GIÑUN GIÑUNAN	GIÑUAN GIÑUNAN		
Guk-hiri-haiek	GENIZKIAN GENIZKIÑAN	GIÑIZKIN -	GIÑIZKIAN GIÑIZKINAN	GIÑIZTIÑ GIÑIZTIÑAN	GIÑUAN GIÑUZKINAN		
Guk-hari-hura	GENION	GENIDON	GIÑION	GIÑON	GIÑION	GENDERON	
Guk-hari-haiek	GENIZKION	GENIZKAN	GENIZKAN	GENIZKON	GIÑION	GENDEZKERON	

	Flex. lit.	Hernani	Tolosa	Aizarna	Zaldibia	Ziordi	Etxarri
Guk-zuri-hura	GENIZUN	GIÑIZUN	GIÑIZUN	GINZUN	GIÑUZUN	GENIZUN	
Guk-zuri-haiek	GENIZKIZUN	GIÑIZKITZUN	GIÑIZKITZUN	GIÑIZTUN	GIÑUZUN	GENEZKEZUN	
Guk-zuei-hura	GENIZUEN	GIÑIZUTEN	GIÑIZU(T)EN	GINZUEN	GIÑUZUEN	GENDEZAIN	
Guk-zuei-haiek	GENIZKIZUEN	GIÑIZKITZUTEN	GIÑIZKITZU(T)EN	GIÑIZTUEN	GIÑUZUEN	GENDEZKEZAIN	
Guk-haiei-hura	GENIEN	GINDOTEN	GIÑIOTEN	GIÑEN	GIÑEEN	GENDERON	
Guk-haiei-haiek	GENIZKIEN	GIÑIZKAN	GIÑIZKAN	GINIZKON	GIÑION	GENDEZKERUBEN	
Zuk-niri-hura	ZENIDAN	ZIAZUN	ZIAZUN	ZIAZUN	ZIAZUN	ZENDURAN	
Zuk-niri-haiek	ZENIZKIDAN	ZIZKIATZUN	ZIZKIATZUN	ZIZTATZUN	ZIZKIATZUN	ZENDUZKIRAN	
Zuk hari-hura	ZENION	ZIDOZUN	ZIOZUN	ZIÑON	ZIÑION	ZENDURON	
Zuk hari-haiek	ZENIZKION	ZIZKATZUN	ZIZKATZUN, ZIZKIOZUN	ZIZKOTZUN	ZIÑION	ZENDUZKIRON	
Zuk-guri-hura	ZENIGUN	ZENIGUN(pas.)	ZIGUZUN	ZIUZUN	ZIUZUN	ZENDUGUN	
Zuk-guri-haiek	ZENIZKIGUN	ZENIZKIGUN(pas.)	ZIZKIGUTZUN	ZIZKUTZUN	ZIZKIUTZUN	ZENDUZKIGUN	
Zuk-haiei-hura	ZENIEN	ZENIDOTEN(pas.)	ZIÑIOTEN	ZIÑEN	ZIEZUN	ZENDUROBEN	
Zuk-haiei-haiek	ZENIZKIEN	ZIZKATZUN	ZIZKATZUN, ZIZKIOTZUN	ZIZKOTZUN	ZIÑION	ZENDUZKEROBEN	
Zuek-niri-hura	ZENIDATEN	ZENIDATEN(pas.)	ZIAZU(T)EN	ZIAZUEN	ZIAZUEN	ZENDURAIN	
Zuek-niri-haiek	ZENIZKIDATEN	ZIZKIATZUEN	ZIZKIATZU(T)EN	ZIZTATZUEN	ZIZKIATZUEN	ZENDUZKIRAIN	
Zuek-hari-hura	ZENIOTEN	ZIDOZUTEN	ZIOZU(T)EN	ZIÑOEN	ZIÑUEN	ZENDUROIN	
Zuek-hari-haiek	ZENIZKIOTEN	ZIZKATZUTEN	ZIZKATZUTEN	ZIZKOTZUEN	ZIÑOEN	ZENDEZKIRUIN	

Zuek-guri-hura	ZENIGUTEN	ZENIGUTEN(pas.)	ZIGUZU(T)EN	ZIUZUEN	ZIUZUEN	ZENDUGUZAIN	
Zuek-guri-haiek	ZENIZKIGUTEN	ZENIZKIGUTEN(pas)	ZIZKIGUTZU(T)EN	ZIZKUTZUEN	ZIZKIUTZUEN	ZENDUZKIUZAIN	
Zuek-haiei-hura	ZENIETEN	ZENIDOTEN(pas.)	ZIÑIOTEN	ZIÑEEN	ZIEZUEN	ZENDEROIN	
Zuek-haiei-haiek	ZENIZKIETEN	ZIZKATZUTEN	ZIZKATZUTEN	ZIZKOTZUEN	ZIÑOEN	ZENDEZKIROIN	
Haiek-niri-hura	ZIDATEN	ZIATEN	ZIATEN	ZIEN	ZIEN,ZEREN	ZURAIN	
Haiek-niri-haiek	ZIZKIDATEN	ZIZKIATEN	ZIZKI(AT)EN	ZIZTEN	ZIZKIREN	ZURATZIAIN	
Haiek-hiri-hura	ZIATEN	ZITEN ZITENAN	ZIATEN ZIÑATEN	ZIYEN ZIÑENAN	ZIEN ZIÑENAN		
Haiek-hiri-haiek	ZIZKIATEN ZIZKIÑATEN	ZIZKITEN ZIZKITENEN	ZIZKIATEN ZIZKIÑATEN	ZIZTIYEN ZIZTIÑEN(AN)	ZIZKIEN ZIZKIÑENAN		
Haiek-hari-hura	ZIOTEN	ZIDOTEN	ZIOTEN	ZIDOEN	ZIOEN	ZEROIN	
Haiek-hari-haiek	ZIZKIOTEN	ZIZKATEN	ZIZKATEN	ZIZKOEN	ZIOEN	ZEZKEROIN	
Haiek-guri-hura	ZIGUTEN	ZIGUTEN(pas.)	ZIGU(T)EN	ZIUEN	ZIGUEN	ZEGUZAIN	
Haiek-guri-haiek	ZIZKIGUTEN	ZIZKIGUTEN	ZIZKIGU(T)EN	ZIZKUEN	ZIZKIGUEN	ZEZKIGUZAIN	
Haiek-zuri-hura	ZIZUTEN	ZIZUTEN	ZIZU(T)EN	ZIZUEN	ZIZUEN	ZEZAIN	
Haiek-zuri-haiek	ZIZKIZUTEN	ZIZKITZUTEN	ZIZKITZUEN	ZIZTUEN	ZIZKITZUEN	ZEZKIZAIN	
Haiek-zuei-hura	ZIZUETEN	ZIZUTEN (pas.)	ZIZU(T)EN	ZIZUEN	ZIZUEN	ZEZAIN	
Haiek-zuei-haiek	ZIZKIZUETEN	ZIZKITZUTEN(pas)	ZIZKITZU(T)EN	ZIZTUEN	ZIZKITZUEN	ZEZKEZAIN	
Haiek-haiei-hura	ZIETEN	ZIDOTEN (pas.)	ZIOTEN	ZIDEN	ZIOEN	ZEROIN	
Haiek-haiei-haiek	ZIZKIETEN	ZIZKATEN	ZIZKATEN	ZIZKOEN	ZIOEN	ZEZKEROIN	

ADITZ TRINKOA

Ez ditugu gipuzkeran erabiltzen diren aditz trinko guztiak azalduko, ez eta denbora guztiak (orainaldia bakarrik azalduko dugu). Arrazoi handiena daturik eza da.

EGON, JOAN, ETORRI, IBILI INDIKATIBOA NOR ORAINALDIA

	Flex. lit.	HERNANI	TOLOSA	AIZARNA	ZALDIBIA	ZIORDI	ETXARRI
Ni	NAGO	NAO,NOO	NAGO	NAO	NAO		
Hi	AGO	AGO	AGO	A(G)O	AO		
Hura	DAGO	DAGO,DOO,DAO	DAGO	DAO	DAO		
Gu	GAUDE	GAUDE	GAUDE	GAURE	GARE		
Zu	ZAUDE	ZAUDE	ZAUDE	ZAURE	ZARE		
Zuek	ZAUDETE	ZAUTE	ZAUDETE	ZAURETE	ZAITE		
Haiek	DAUDE	DAUDE	DAUDE	DAURE	DAUDE		

Ni	NOA	NUA	NUA	NUA	NOA		
Hi	OA	UA	UA	UA	OA		
Hura	DIJOA	DIJUA	DIJUA	DIJUA	DIJOO,DIJOA		
Gu	GOAZ	GUAZ	GUAZ	GUAZ	GOATZ(A)		
Zu	ZOAZ	ZUAZ	ZUAZ	ZUAZ	ZOATZ(A)		
Zuek	ZOAZTE	ZUAZTE	ZUAZTE	ZUAZTE	ZOAZTE		
Haiek	DIJOAZ	DIJUAZ	DIJUAZ	DIJUAZ	DIJOOTZ		

	Flex. lit.	HERNANI	TOLOSA	AIZARNA	ZALDIBIA	ZIORDI	ETXARRI
Ni	NATOR	NATOR	NATOR	NATOR	NATOR		
Hi	ATOR	ATOR	ATOR	ATOR	ATOR		
Hura	DATOR	DATOR	DATOR	DATOR	DATOR		
Gu	GATOZ	GATOZ	GATOZ	GATOZ	GATOZ		
Zu	ZATOZ	ZATOZ	ZATOZ	ZATOZ	ZATOZ		
Zuek	ZATOZTE	ZATOZTE	ZATOZTE	ZATOZTE	ZATOZTE		
Haiek	DATOZ	DATOZ	DATOZ	DATOZ	DATOZ		

Ni	NABIL	NABIL̄	NABIL	NABIL̄	NABIL̄		
Hi	ABIL	ABIL̄	ABIL	ABIL̄	ABIL̄		
Hura	DABIL	DA(B)IL̄	DABIL	DABIL̄	DABIL̄		
Gu	GALBILTZ	GA(B)ILTZA	GABILTZA	GABILTZA	GABILTZE		
Zu	ZABILTZ	ZABILTZA	ZABILTZA	ZABILTZ(A)	ZABILTZE		
Zuek	ZABILTZATE	ZABILTZATE	ZABILTZATE	ZABILTZATE	ZABILTZETE		
Haiek	DABILTZ	DABILTZA	DABILTZA	DABILTZA	DABILTZETE		

JAKIN, EUKI INDIKATIBOA NOR-NORK ORAINALDIA

	Flex. lit.	Hernani	Tolosa	Aizarna	Zaldibia	Ziordi	Etxarri
Nik-hura	DAKIT	DAKIT	DAKIT	DAKIT	DAKIT̄		
Nik-haiek	DAKIZKIT	DAKIZKIT	DAKIZKIT	DAKITZIT	DAKITZET̀		
Hik-hura	DAKIK DAKIN	DAKIK DAKIN	DAKIK DAKIN	DAKIK DAKIN	DAKIK DAKIN		
Hik-haiek	DAKIZKIK DAKIZKIN	DAKIZKIK DAKIZKIN	DAKIZKIK DAKIZKIN	DAKITZIK DAKITZIN	DAKITZEK DAKITZEN		
Hark-hura	DAKI	DAKI	DAKI	DAKI	DAKI		
Hark-haiek	DAKIZKI	DAKIZKI	DAKIZKI	DAKITZI	DAKITZE		
Guk-hura	DAKIGU	DAKIGU	DAKIGU	DAKIGU	DAKIU		
Guk-haiek	DAKIZKIGU	DAKIZKIGU	DAKIZKIGU	DAKITZIU	DAKITZEU		
Zuk-hura	DAKIZU	DAKIZU	DAKIZU	DAKIZU	DAKIZU		
Zuk-haiek	DAKIZKIZU	DAKIZKIZU	DAKIZKI(T)ZU	DAKITZU	DAKITZETZU		
Zuek-hura	DAKIZUE	DAKIZUE	DAKIZUE	DAKIZUE	DAKIZUE		
Zuek-haiek	DAKIZKIZUE	DAKIZKI- TZUTE	DAKIZKI- (T)ZUTE	DAKITZUE	DAKITZEZUE		
Haiek-hura	DAKITE	DAKIT̄E	DAKITE	DAKIYE	DAKIE		
Haiek-haiek	DAKIZKITE	DAKIZKIT̄E	DAKIZKITE	DAKITZIYE	DAKITZEE		

	Flex. lit.	Hernani	Tolosa	Aizarna	Zaldibia	Ziordi	Etxarri
Nik-hura	DAUKAT	DA(U)KAT	DAUKAT	DAUKAT	DAUKET	DUKAT	
Nik-haiek	DAUZKAT	DAKAZKIT, DAUZKAT	DAUKAT	DAUKAT	DAUZKET	DUKATZIT	
Hik-hura	DAUKAK DAUKAN	DAKAK DAKAN	DAUKAK DAUKAN	DAUKAK DAUKAN	DAUKEK DAUKEN		
Hik-haiek	DAUZKAK DAUZKAN	DAKAZKIK DAKAZKIN	DAUZKAK DAUZKAN	DAUZKAK DAUZKAN	DAUZKEK DAUZKEN		
Hark-hura	DAUKA	DAKA	DAUKA	DAUKA	DAUKE	DUKA	
Hark-haiek	DAUZKA	DAKAZKI	DAUKA	DAUKA	DAUZKE	DUKATZI	
Guk-hura	DAUKAGU	DAUKAGU	DAUKAGU	DAUKAGU	DAUKEU	DUKU	
Guk-haiek	DAUZKAGU	DAKAZKIGU	DAUZKAGU	DAUZKAGU	DAUZKEU	DUKATZIGU	
Zuk-hura	DAUKAZU	DAKAZU	DAUKAZU	DAUKAZU	DAUKEZU	DUKEZU	
Zuk-haiek	DAUZKAZU	DAKAZKITZU	DAUZKA(T)ZU	DAUZKATZU	DAUZKETZU	DUKATZIZU	
Zuek-hura	DAUKAZUE	DAKAZUTE	DAUKAZUE	DAUKAZUE	DAUKEZUE	DUKAZAI	
Zuek-haiek	DAUZKAZUE	DAKAZKI TZUTE	DAUZKA (T)ZUTE	DAUZKATZUE	DAUZKETZUE	DUKATZIZAI	
Haiek-hura	DAUKATE	DAUKATE	DAUKATE	DAUKE	DAUKEE, DAUKEA	DUKAI	
Haiek-haiek	DAUZKATE	DAKAZKITE	DAUZKATE	DAUZKE	DAUZKEA	DUKATZIAI	

EKARRI INDIKATIBOA NOR-NORK ORAINALDIA

	Flex. lit.	HERNANI	TOLOSA	AIZARNA	ZALDIBIA	ZIORDI	ETXARRI
Nik-hura	DAKART	DAKARRET	DAKAR(KI)T	DAKARRET	DAKARRET		
Nik-haiek	DAKAZKIT	DAKAZKIT	DAKAR(KI)T	DAKARTZIT	DAKARTZET		
Hik-hura	DAKARK DAKARREN	DAKARREK DAKARREN	DAKARKIK DAKARKIN	DAKARREK DAKARREN	DAKARREK DAKARREN		
Hik-haiek	DAKAZKIK DAKAZKIN	DAKAZKIK DAKAZKIN	DAKARKIK DAKARKIN	DAKARTZIK DAKARTZIN	DAKARTZEK DAKARTZEN		
Hark-hura	DAKAR	DAKAR	DAKARKI	DAKAR	DAKAR		
Hark-haiek	DAKAZKI	DAKAZKI	DAKARKI	DAKARTZI	DAKARTZE		
Guk-hura	DAKARGU	DAKARGU	DAKARKIGU	DAKARGU	DAKARREU		
Guk-haiek	DAKAZKIGU	DAKAZKIGU	DAKARKIGU	DAKARTZIU	DAKARTZEU		
Zuk-hura	DAKARTZU	DAKARTZU	DAKARKIZU	DAKARTZU	DAKARTZU		
Zuk-haiek	DAKARKIZU	DAKARKITZU	DAKARKIZU	DAKARKITZU	DAKARTZEZU		
Zuek-hura	DAKARTZUTE	DAKARZUTE	DAKARKIZUTE	DAKARTZUE	DAKARTZUE		
Zuek-haiek	DAKARKIZUTE	DAKARKITZUTE	DAKARKIZUTE	DAKARKITZUE	DAKARTZEZUE		
Haiek-hura	DAKARTE	DAKARTE	DAKARKITE	DAKARDE	DAKARREA		
Haiek-haiek	DAKAZKITE	DAKAZKITE	DAKARKITE	DAKARTZIYE	DAKARTZEA		

ERAMAN INDIKATIBOA NOR-NORK ORAINALDIA

	Flex. lit.	HERNANI	TOLOSA	AIZARNA	ZALDIBIA	ZIORDI	ETXARRI
Nik-hura	DARAMAT	DARAMAT	DARAMAKIT	DÂMAT	DAAMAT		
Nik-haiek	DARAMAZKIT	DARAMAZKIT	DARAMA(I)ZKIT	DÂMATZIT	DARAMATZET		
Hik-hura	DARAMAK DARAMAN	DARAMAK DARAMAN	DARAMAKIK DARAMAKIN	DÂMAK DÂMAN	DAAMAK DAAMAN		
Hik-haiek	DARAMAZKIK DARAMAZKIN	DARAMAZKIK DARAMAZKIN	DARAMA(I)ZKIK DARAMA(I)ZKIN	DÂMATZIK DÂMATZIN	DAAMATZEK DAAMATZEN		
Hark-hura	DARAMA	DARAMA	DARAMAKI	DÂMA	DAAMA		
Hark-haiek	DARAMAZKI	DARAMAZKI	DARAMA(I)ZKI	DÂMATZI	DAAMATZE		
Guk-hura	DARAMAGU	DARAMAGU	DARAMAKIGU	DÂMAU	DAAMEU		
Guk-haiek	DARAMAZKIGU	DARAMAZKIGU	DARAMAZKIGU	DÂMATZIU	DAAMATZEU		
Zuk-hura	DARAMAZU	DARAMAZU	DARAMAKIZU	DÂMAZU	DAAMAZU		
Zuk-haiek	DARAMAZKIZU	DARAMAZKITZU	DARAMA(KI)ZKIZU	DÂMATZU	DAAMATZEZU		
Zuek-hura	DARAMAZUTE	DARAMAZUTE	DARAMAKIZUTE	DÂMAZUE	DAAMAZUE		
Zuek-haiek	DARAMAZKIZUTE	DARAMAZKITZUTE	DARAMA(KI)ZKIZUTE	DÂMATZUE	DAAMATZEZUE		
Haiek-hura	DARAMATE	DARAMATE	DARAMAKITE	DÂMEE	DAÂMEA		
Haiek-haiek	DARAMAZKITE	DARAMAZKITE	DARAMAZKITE	DÂMATZIYE	DAAMATZEA		

HIKA

Lehenik esan beharra dago hiketaz ez dagoela gauza handirik idatzita. Gauza solteak, han eta hemen, aurkitzen dira; bainan pi suzko lanik ez dago. Eta gu lan honetan ez goaz gauza berriak as matzera, dagoenaren berri ematera baizik. Hau dela eta, ohar batzu besterik ez ditugu emango gipuzkeraren hikari buruz.

Hemen ere, lehengo aditzetan bezala, diferentzia nabarmena dago azpi-euskalkien artean, Nafarroakoarekin batipat. Taula batzu emango ditugu:

A LAGUNTZAILEA INDIKATIBOA NOR,NOR-NORI,NOR-NORK,NOR-NORI-NORK Orain eta Lehenaldia

	NOR		NOR-NORI		NOR-NORK		NOR-NORI-NORK	
(Zuka)	DA	DIRA	ZAIT	ZAIO	NAU	DUTE	DIT	DIZKIO
Hernani	DEK	DITUK	ZA(ID)AK	ZAYOK	NIOK	DITEK	ZIAK	ZIZKAK
Tolosa	DEK	DITUK	ZATAK,ZAI(D)AK	ZAYOK	NATXIOK	DITEK	ZIAK	ZIZKIOK
Azpeitia*	DEK	DITUK	ZATAK	ZAKOK,ZAYOK	NATXIOK	DIDDE	ZEAK	ZIZKOK
Zaldibia	DEK	DITUK	ZATAK	ZAKOK	NATXIOK	DIE	ZIAK,ZEAK	ZEOK
Ziordi	DOK	TUK	ZAIDAK	ZAIYOK	DURAK	DIAI	DURAK	JEROK
Etxarri	DEK	TUK	ZIKIEK	ZIKIOK	ZIEK	YE	ZIEK	ZIOTZAK

(Zuka)	NINTZEN	ZEN	NINTZAION	ZITZAION	NUEN	ZITUEN	NION	ZIZKION
Pasaia*					NÎN NIÑAN	ZIZKIKEN ZIZKIÑEN		
Tolosa					NIAN NIÑAN	ZIZKIAN ZIZKIÑAN		
Aizarna					NÎN NIÑAN	ZETIN ZETIÑAN		
Zaldibi					NIAN NIÑAN	ZETIAN ZETIÑAN	ZIOAN NIONAN	
Ziordi								
Etxarri								
Flex. liter.	NINDUKAN NINDUNAN	UKAN UNAN	NINTZAIOKAN NINTZAIONAN	ZITZAIOKAN ZITZAIONAN			NIKAN NINAN	ZIKAN ZINAN

* Ez ditugu Aizarna eta Hernaniko adizkiak aurkitu, eta haien ordez Azpeitia eta Pasaiakoak jarri ditugu

Orainaldiko taula P. Irizarren liburutik atera dugu. Lehenaldikoa osatzeko ordea ez genuen daturik. Intzak Burundako adizkien lana egiterakoan hikarik ez zuen jaso. Bestalde, Bähr-ek lehenaldiko hika osatugabea dauka.

Baina , taula hutsik gera ez zedin, literatur-adizkiak sartzea pentsatu dugu, Campion-en liburutik hain zuzen .

Adizki guztien literatur-adizkiak J. Intxaustiren liburutik atera ditugu. Izatez, gauza bitxi gertatzen da flexio hauekin: e.b. gipuzkeraren gramatika eta liburuetan agertzen diren literatur-adizkiak, asko eta asko, batetik bestera aldatu egiten dira. Horrek, beste gauza askoren artean zera adierazten du: gipuzkera ez dela euskalki finkoa, hots, batzuentzat gipuzkera gauza bat da, besteentzat beste gauza bat.

S I N T A X I A

Sintaxia zoritxarrez lan honetako umezurtza dugu; alegia, beste ataletan nola hala gipuzkeraren ikuspegi orokor samarra jadets bazitekeen ere, sintaxiaren arloa benetan elkor suertatu da. Ezin izan dugu nahikoa material lortu, orain artean idatzitakoak ez du ikuspegi dialektologiko egokiegirik ematen. Lan honek orain artean idatzitakoaren bilduma izatea xede duenez, eta ez geroagoko ikerketetan sartu, oraingoan atal hau hutsik utzi dugu.

L E X I K O A

Lexikoa bi autoreren lanetatik bildu dugu: J. Goikoetxea eta K. Izagirre. Goikoetxeak Loiola inguruan jasotako hiztegi txo bat du, nahiko kaxkarra da; baina hango hizkera nolabait isladatzen du.

Izagirrek, Altsasun jaso zuen bere lexikoa. Hiztegi hau aurrekoa baino luzeagoa da, bainan ez dago oso jantzia esaldi aldetik. Alabainan, Burunda aldeko euskararen errainu bakarre netakoa dugu.

Hegoaldeko azpi-euskalkian oinarritutako lexikorik ez du gu ezagutzen.

Iparraldeko azpi-euskalkia

ABELA.- Tabernatik ordaindu gabe aldegiten duena

AGONDU.- Gaixo bati eseritzen lagundu.

AJE-UME.- Kutsatu edo zirpildutako semea.

ALE.- Gezurra galanta.

ARGI-IKARA.- Egunsentiko argia.

ARKUSIN.- Dominístiku.

ARTUA.- Tolesdura

AZALA EGIN.- Azerikeria bat egin.

BANTXUT.- ¡presente!, lista pasatzerakoan.

BEBARRU.- Atalondo.

BELDU.- Estireki (atea, adibidez)

BUSTITZA.- Potzu.

DESPITTA.- Eztabaida, "disputa".

DRIXKA.- Iskanbila.

EEPIXIO.- Entretenimendu, zaletasun.

EGIA.- Ertz, soslai.

ENTRAME.- Jangura, sakea.

ERASAN.- Mindu, erre.

ERRILLARA.- Ilada doblea.

EUTSI GOIARI!.- Ideialei eutsi.

FRUTTU.- Urtume, jatorrizko.

GANBARAKO.- Buruko kolpea.

GERIZA.- Tristùra.

GINGIRRI.- Sudur barruko azkurea.

IGURTZIA.- Jipoia, egurra.

IRAAKIN.- Haserretu.

ITZ GORRI.- Irain.

ITZ POTOLO.- Hitz pedante.

JAN-TXAKUR.- Zurrupatzaile, aprobetxategi.

JANTZI-MAIXTRA.- modelo, maniki.

KALOSTRE.- Klaustroa.

KEE-BIUR.- Kiribelean doan kea.

KIKILI.- Esnegain.

KONKORTU.- Nerabe, gaztetxo.

LABE.- Inkubategi.

LAKAÑA (herri lakaña).- Luzatuta edo lerrotuta dagoen herria.

LAN-OZPEN.- Lan-krisi.

LARDABIO.- Istilu.

LARDATZ.- Zikin.

MATXARDA.- Emakume likin.

MAZPILDU.- Zapaldu, zehatu.

MENOSA.- Arrazatua, higatua.

MERKATU.- Orokorrago egin.

MOJATU.- Moja sartu.

MOKOLIÑ.- Emakume sudurluze

MOZKETA.- Esames, berrikeria.

MOZKOTE TORROPOTON.- Txikia eta gizena.

MUSKER.- Zorte, adur ona.

NARRU GUXI.- Bilutsik.

NESKAME.- Hiruroineko ("tripode").

OLARRI.- Gizagaineko lana.

ONUZTU.- Itzuli/ Eskutara hurreratu.

PASTIKUNA.- Belarrondoko, zaplada.

PATRI-PILLOAK.- Sakramentuzko aitortzak.

PATTAL EGON (edo IBILI).- Gaixorik.

PINPORT-UDA.- Gaseosa.

SAKAILLO.- Eraile, gerlati.

SAKATU.- Jasan, bulkadeei eutsi.

SALERI.- Izurrite.

SEGIZIO.- Hileta-jarraigoa.

SORGIN-ORRATZ.- Hodeien zirriztuetatik igarotzen diren eguzki izpiak.

SU-TA-SALDA.- Kaliputsu, txispak botaz.

TALAIAN EGON.- Begiztatu.

TRANPAL.- Eskaileretako laugune.

TXIBISTURI.- Aspergarri, mutiri.

ZANKA-LATERO.- Zankarteka, alde batera.

ZARRAKATU.- Zahartu, aguretu-atsotu.

ZORUA JO.- (Ur geldiari) bide eman, ubideak eman.

Nafarroako azpi-euskalkia

ABAR.- Su egiteko adartxo.

AFOLABAKU.- Axolagabe(ko).

AIZKAN (IBILI).- Arrika

AIXKIRE.- Adiskide

AIYA.- Txerritoki

AIZEBILDU.- Bisuts, auso.

AMAUR.- Amaraun.

ANTUX.- Dominstikoa.

ARAINAN.- Herenegun

ARRAMAIYO.- "Armario".

ATALAGI.- Atea ixteko langa.

AULUBI.- Marrubi.

AZTAL.- Orpo / Lokatzaren zipriztina galtzetan.

BARGI.- Malda, aldapa.

BEGITILAT.- Betile bat.

BILISKORRIAN.- Bilutsik.

BULTZURRUN.- Giltzurrun.

BURNINDAI.- Burnizko pala ogia labean sartzeko.

EBAI.- Ebakiak.

EDADI.- Edari.

ERDETSU.- Lerdetsu.

ERRENKADETAN (EGON).- Goitikan.

ESKUELDI.- Sorta

ESKUTXI.- Ukabila.

ERREN.- Arantze.

IYOZI.- Irentsi.

FARI.- Joare

FERRATZAILE.- Perratzaile.

GALTZARPE.- Besazpi.

GANBEL.- Aska

GILDA.- Gerezi.

IBINTZA.- Uztondo.

IGUNTZI.- Erratzar.

IGURAIA.- Landak zaintzen dituena.

INBULUSKAN.- Bueltaka, jira-biraka.

INTXORDI.- Intxaurrondoak egoten diren lekua.

IREDIA.- Iratzeak egoten diren lekua.

IRUSKI.- Eguzkia.

ITOJIN.- Itogina.

JAUNKA.- Zaunka.

KAFI.- Kabi

KUKERA.- "Clueca".

LURNARRATU.- Lubizia

MAKI (IZAN).- Errena

MARTINSALTALAI.- Matxinsalto.

MENTZAI.- Legami.

METATU.- Inausi

MUBER.- Sukarri

NEKASI.- Hamalau urte arterainoko neskatila.

ODAI.- Ekaitza.

OINEZTURI.- Oinaztargi.

OKAN.- Arana (ik. "okaran")

OLIAZIYU EMAN.- Oleazioa eman.

PAGAXIBIKOR.- Bago gazte.

PARTZ.- Bartz, "liendre".

PASTARROTZ.- Sakuak josteko orratza.

SAGON.- Xaboi

SEKURA GUTXI.- Lehortea

SIETS, SIESLEKU.- Leku zingiratsua.

SUTAILI.- Arotza / SUTAILA.- Arotz.

TALTAKAN (EGON).- Dardarti.

TXAPILO.- Gorapilo.

TOKAN.- Hika.

TUBA.- Txistua.

TXIPU.- Makala.

TXIRRIKA.- Gurpila.

TXISTERI.- Zizare.

TXOTRATI.- Xorien kabia.

UBALDI.- Uholde

UREI.- Eduki

URTXISTIN.- Ur zipriztina.

YAILI.- Mugitu.

YIKURDI.- Garandu, aletu.

YON.- Egon.

ZI.- Ihi / Burduntzi, gerren.

ZIL.- "Ombligo".

TRANSKRIBAKETA FONETIKOA

Transkribaketa fonetikoa egiterakoan, geure nahia eta helburua, ahalik eta hizkera eta herri gehienetako motak azaltzea izan dira. Hala ere, kasu batzutan ezin izan dugu ezer egin, zeren hemen ere lanaren beste ataletan bezala jasota dagoen datuei lotuta aurkitzen baikara.

Bi atal hutsik utzi ditugu, Hernaniko hizkera eta Etxarri-Aranazkoari dagozkienak.

-Tolosa aldeko hizkeran bi transkribaketa azaldu ditugu: bata, Navarro Romás-ek egindakoa; eta bestea, N. Holmer-ek egindakoa.

-Azpeiti aldeko hizkeran beste bi, J. M. Barandiaran-en liburu batetik jasotakoak.

-Zegamako hizkeran liburu beretik Ataungo transkribaketa bat agertu dugu.

-Eta Burundako hizkeran, K. Izagirrek egindako transkribaketa bat, Altsasuko euskaran oinarritua.

Esan beharra dago, bestalde, transkribaketa guztiak ez direla berdinak; batzu aberatsagoak dira besteak baino. Navarro Tomasena (Alkitza) oso aberatsa da. Holmer-ena ere (Gaztelu) aberatsa da, baina azentua erreparatzen du batez ere. J.M. Barandiaranek jasotakoak, izatez ez dira transkribaketak (Azkoiti eta Aiakoak), beste helburu batekin jasota daude; halere, gehiegi konprometitu gabe (daturik ez genuenez) transkribaketa modura azaldu ditugu. Ataungo hizkera, autore berak jasota ere, datu gehiago hizkerari buruz, autoreak berak datu gehiago ematen du. Azkenik, K. Izagirre, transkribaketa egiterakoan (Altsasu) azentua dauka aztergai nagusitzat.

TRANSKRIPZIO FONETIKOA

- IPARRALDEKO AZPIDIALEKTOA

Tolosa aldeko barietatea

[gę̄rnikakọ ar̄b̄ola | da beđẹiŋkatub̄a | eu̯śkaldunẽn ar̄tẹan | gustiz maitatub̄a | emãn da sab̄alcasu mundub̄an fr̄utub̄a | ađoracen sai̯tuɡu | ar̄b̄ola śantub̄a // mi̯la ur̄te iŋguru đa | eśaten dutela | xai̯ŋkoaɡ xar̄isub̄ela | gę̄rnikako ar̄b̄ola // sau̯đe b̄ađa sutikan | ǫrai̯n da đembǫɹa | eɹoɹicem basę̄ra | ar̄aś galduɡę̄ra // ecę̄ra eɹoɹiko ar̄b̄ola mai̯tẹa | baldim pǫr̄tacem bađa biskai̯ko xuntiya | lau̯rok ar̄tuko đeɡu | suɹekim par̄tiya | pakiyam bisi đeđin | eu̯śkạldun xẽntiya]

Alkitza

Gernikako arbola bedeinkatua da, euskaldunen artean guztiz maitatua. Eman eta zabal ezazu munduan frutua, jauresten zaitugu arbola santua.

Mila urte inguru da gernikako arbola Jainkoak jarri zuela esaten dutela. Zaude bada zutik, orain da denbora, erortzen bazara guztiz galdu gara.

Baldin portatzen bada Bizkaiko Biltzarra ez zara eroriko arbola maitea. Euskaldun jendea bakean bizi dadin laurok hartuko dugu zurekin parte.

[eče'bate`am bisi'sjen bi śorgiń ' ama'labak ' ta morro'ja | ba'ńo mo`ro'jak e'cekiń śo'rgińek si`e'nik | ta a'isan a`ba'rkak xo'śten ' ta lo'ak a'rtusun | ta ama'k alaba'i esa'ncion // mo`ro'ja lo' seo`n ' ta bwe'ltabat e`ma'm be'ańeu | ta śu'rteko bu'rni aspi'n ' se'ukean uke'ndukiń iu'rcita ' eśancuen | śa'śi gu'stiŋ ga'ńetik ' e'ta la'ńo gu'sti a'spiti`k // ta čimini'tik ate'asjen ta xuncien e`ćaje'i mu'su ema'tea // ta morro'jak ' ai't'u i'ncjen se(r) eśancuen | ta uke'ndukiń iu'rci ta ge`rikoakiń alki' lotu'ta eśancun | śa'śi gusti'ń a'spiti(k) ' ta la'ńo gusti'ń ga'ńeti ta a'lki ta gu'sti ' a`te'asan čimini'ti // śa'śi gu'stik u`ratu ta xu'ncanda e`ćaje'i este'na śa'rtusion | ta e`ćaje'k eśa'ncun // oa'i go śo`rgiń one'k ' mutu're sorro'ca se'ukean]

Gaztelu

Etxe batean bi sorgin bizi ziren, amalabak, eta morroia. Bainan morroiak ez zekien sorginak zirenik. Eta abarkak josten ari zela loak hartu zuen. Eta amak alabari esan zion: -Morroia lo zegon eta buelta bat eman behar dinagu. Eta surtako burni azpian zeukaten ukenduaz igurtzi eta esan zuen: -Sasi guztien gainetik eta hodei guztien azpitik. Eta kebidetik atera ziren eta joan ziren etsaiari musu ematera. Eta morroiak zer esan zuten aditu egin zuen. Eta ukenduaz igurtzi eta gerrikoa alkiari lotuta esan zuen: -Sasi guztien azpitik eta hodei guztien gainetik. Eta alki eta guzti atera zen kebidetik. Sasi guztiak herrestan (zeramatzala) joan zen eta etsaiari eztena sartu zion, eta etsaiak esan zuen: -Oraingo sorgin hauek muturra zorrotza.

Azpeitia aldeko hizkera

[aralaɾko arcai bati ' a:riya aɾapatu ẽmẽn sion ' ãmbotoko dãmiek | aɾcayak galdetu ẽmẽn siõn dãmiei ' ia a:riya nũn sãn // nere śukaldeãn ' eɾãncun ẽmẽn siõn dãmiek ẽmango sẽnuke bai ' etoɾcẽm ba:is // aɾcai ori prailiekĩn akõnśexau ' ta õnek eśãn ẽmẽn siõn dãmiẽn leisera auɾeaka śaɾtu ' eta aceaka iɾteteko | ala ' xoãn ẽmẽn sãn ' ta a:ri ori ' buɾko ẽmẽn seu kan dãmiek | eldu aɖaɾetatik ' eta atera ẽmẽn suẽn aceraka a: riya | oɾɖuẽn dãmiek dio // eśkeɾak ẽmãn deiskiok etoɾi aisẽ am besela atera aisẽnari ' beśtela ' ẽmẽn gelditu beaɾko uãn]

Azkoitia.

Aralarko artzai bati aharia harrapatu omen zion Anbotoko Damak. Artzaiak Damari ia aharia non zegoen galdetu omen zion: -"Nere sukaldean", erantzun omen zion Damak. -"Emango zenuke (zenidake)?" - Bai, etortzen bahaiz". Artzai hori frailearekin aholkatu, eta honek esan omen zion Damaren kobara aurreraka sartu eta atzeraka irtetzeko. Hala, joan omen zen, eta ahari hori, burko (bezala) omen zeukan Damak. Adarretatik heldu eta atzeraka atera omen zuen aharia. Orduan Damak dio: "Eskerrak eman ezaizkiok etorri haizean bezala atera haizenari, bestela hemen gelditu beharko hukeen".

[arcayak xun siram proseśiyon ãmbotoko kweba ' ta śenora ardacen ari omen san // kampon uresko kantińak euki ' ta beakin xun san mutikośkor batek kantińa oštu nai | beštiak ' usteko ta usteko ' bańa oštu sunian ' bumba ' kantińak tirua egin omen suan // gero ' iluncian lota etori siranian ' mutila lari omen san ' eta beśten erdian lotan xari omen san | bańa erdian xari aren ' arastoik (g)abe galdu san gaben]

Aia

Artzaiak prozesioan Anbotoko kobara joan ziren, eta Señora ardatzen ari omen zen. Kanpoan urrezko pegarrak izaki eta haiekin joan zen mutilkoxkor batek, pegarra lapurtu nahi (izan zuen). Besteek, uzteko eta uzteko esaten zioten; bainan lapurtu zuenean, bunba!, pegarrak tiroa(?) egin omen zuen. Gero, iluntzean lotara etorri zirenean mutila urduri omen zen; baina erdian jarriagatik, arrastorik (utzi) gabe galdu zen gauean.

HEGOALDEKO AZPIDIALEKTOA

Zegama aldeko barietatea

[beaśiŋgo baśeri ƀatên ' bisi emêncien śenar̄emaste ƀi ' bośt umekiń | gisona kr̄iśtau̯ ona emencan ' bańo andr̄ea ' ośo gai̯stoa ' ta ińolârê umêk batisacea nai̯ ecôna | alakoatên ' gisonak pen-ćau̯ emencôn ' ume đanak ar̄tu gur̄đin da ' batisacea elisâ eama-tea | tala ' bei̯ek gur̄điri eanći ' ta śar̄tu ber̄tan umêk ' ta g̱eo śokas lotu andr̄ea kur̄teśkilarêri ' ta aƀit̬u emencan danakiń elisâƀiđên // andi ƀêla ' ar̄cendo śu ta g̱ar̄ andr̄êk ' ta śoka da-nak er̄e ' tan dixoa ai̯đên deađar̄ka // nê umêk seruako ' ta ni oań muruako // eśam besela ' muru aldea xo emencon ' tan numbai̯t' beg̱it̬ati iskutau̯ emencan // ar̄eskeo mûmendiko lei̯sêm bisi isete emen da | bacûk ' bai̯ta ikuśirê isen emen dôja lei̯se iŋgurûn ' eu̯skit'an eśeita ' il̬ea or̄asten ai̯ dala // au̯ đa guk au̯r̄ekôri ai̯tu iseŋ ginduna]

Ataun

Beasaingo baserri batetan senar-emazte bi bost umerekin bizi omen ziren. Gizona, kristau ona omen zen, baina andrea, oso gaiztoa eta inolaz ere umeak bataiatzea nahi ez zuena. Halako batean, gizonak, ume guztiak gurdian hartu eta bataiatzera eramatera pentsatu omen zuen. Eta hala, behiak gurdiari erantsi, eta umeak bertan sartu, eta gero andrea gurtesiari sokaz lotu eta denekin abiatu omen zen eliza bidean. Handik berehala andreak su eta gar hartzen du, eta soka denak erre, eta han doa aidean dehadarka. "Nere umeak zerurako, eta ni orain Mururako". Esan bezala, Muru aldera jo omen zuen, eta han nonbait begi bistatik ezkutatu omen zen. Harrezkero Murumendiko leizean bizi izaten omen da. Batzuk ikusi ere omen dute leize inguruan, eguzkitan eserita, ilea orrazten ari dela. Hau da guk aurrekoei aditu izan genuena (geniena).

NAFARROAKO AZPIDIALEKTOA

Burundako azpidialektoa

[aŋkućíŋ xaiči gindubem bide puśkaat ' seŋgaiti iríśtau iten san sapatakin | ta bjexe ona iŋ gendubén ' ta beŕis e fán lai ke ' beya irutičo itén da ' iruti | gertúbo bálcé | ni binepíŋ konforme noon ikus gendunén ' bai ta gaiyo espaldim bagaa fatén eé ' gure begiyek óndo ikuśi situnein aŋgo basterak]

[eta baskaitan aśí gindán da ' ecakiyéín nólaeśkatu árdua ' an ecain eta árdoik ' eta guk aispa biyok bagendekien éśkues ' eta nik banakiyen an franseśak baseela eśkuéldunak ' eta serbisailiai eśan nuan // baéspaa bakisu eśkués ' da baiyéc eśán suan | ba ook bér déí árduá ' eta ata sasubéi árdúa]

Altsasu

Oinutsik jaitsi genduen bide puska bat, zeren irristatu egiten zen zapatekin. Eta bidai ona egin genuen eta berriz ere joan liteke, (baina) behea urrutitxo egiten da, urruti. Gertuago balego... Ni behinik behin, konforme nengoen ikusi genuenarekin. Eta gehiago joaten ez bagara ere, gure begiek ondo ikusi zituzten ango bazterrak.

Eta bazkaltzen hasi ginen, eta ez genekien nola eskatu ardoa, han ez zegoen ardorik, eta guk ahizpa biok bagenekien euskaraz, eta nik banekien han frantzesak bazeudela euskaldunak, eta serbitzaileari esan nion: badaezpada, badakizu euskaraz? Eta baietz esan zuen. Ba, hauek ardoa behar dute eta atera ezaiezue ardoa.

B I B L I O G R A F I A

I. Lan orokorrak

Agud, M. "Areas toponímicas en el Pais Vasco", BJUrquijo, 1973; 37-56.

Azkue, R.M. "Morfología Vasca", Bilbo, 1923

Bourciez (Allières), "Atlas lingüístico", Fontes LV, 1977; 353--386

Campión, A. "Gramática de los cuatro dialectos literarios vascos", Tolosa, 1884.

Etxaide, A.M. "Ordenación cartográfica... del Erizkizundia", BJUrquijo, 1974; 113-174.

Irigarai, "Estado actual de la onomástica botánica navarra", Fontes.

Iturriaga eta BESTE BATZU, "Dialogues basques GBLS", Hordago 1978 (Bonaparte, 1857)

Lafon, R. "Remarques sur l'aspiration en basque", Mélanges à Gavel, Ed. Privat, 1948.

Lafon, R. "Sur la place de l'aezcoan, salazarais, roncalais...", Pirineos, 1955; 109-133

Michelena, L. "Fonética histórica vasca". Dip. de Guip., 1977.

Michelena, L. "Sobre el pasado de la lengua vasca", Auñamendi, 1964.

Michelena, L. "Apellidos Vascos", Donostia, 1955

Michelena, L. "Un vocabulario A. Sa. R. preparado por el Pr. Bonaparte", BSVAP, 1958; 335-364.

Michelena, L. "Lengua común y dialectos vascos", BJUrquijo 1981; 291-313.

Moutard, N. "Etude phonologique sur les dialectes basques", Fontes L.V.; 19 (5-42), 20 (141-190), 22(9-54).

Uhlembeck, "Contribution à une phonologie comparée des dialectes basques", RIEV - III (1909), 465-503 ; IV (1910), 65-118.

Van Eys, "Grammaire comparée des dialectes basques", Paris, 1879

Yrizar, P. "Contribución a la Dialectología de la lengua vasca" (bi tomo), Gipuzkoako CAP, 1981

Ormaetxea, Michelena, "Euskal Azentuak", Euskera 1958; 29-44.

II. Gipuzkeraz

Altuna, F. "Azpeitiko euskeraz", Euskera 1956; 7-11

Arrigarai, "Gramática vasca", Pamplona, 1919

Bähr, G. "Estudio sobre el verbo guipuzcoano", RIEV: 1926, XVII (98-122, 370-394); 1927, XVIII (437-369); 1928, XIX(287--312); 1929, XX(325-349); 1930, XXI (547-587); 1931, XXII /245-269); 1934, XXV (63-77); 1935, XXVI (122-136).

Barandiaran, J.M. "Diccionario ilustrado de la Mitología Vasca", Obras completas Tomo I, Ed. La gran Enciclopedia Vasca, Bilbao, 1972.

De Alzo, Fr.D. "Estudio sobre el euskera hablado". Ed. Izarra, 1961.

Etxaide, Ana M. "Castellano y vasco en el habla de Orio", Ed. Principe de Viana, 1968.

Goikoetxea, J. "Loiola inguruko iztegia", Euskera 1967; 25-60

Holmer, N. "El idioma vasco hablado", Ed. Diput. Guip., 1964

Intza, D. "Burundako euskalkia", Euskera, III (1922).

Izagirre, K. "Altsasuko euskaraz", Urquijo 1967; 45-97

Larramendi, H. "El imposible vencido", Hordago, 1979

Lopez Mendizabal, "Gramática vasca", Buenos Aires, 1943

Navarro Tomás, "Pronunciación guipuzcoana", Homenaje a Men. Pidal, III- Madrid, 1925; 593-653.

Otaegi, B. "Beizamako euskaraz". Tesina, 1981.

Intxausti, J. "Euskal Aditza. Gipuzkera-bizkaiera ", Arantzazu, 1980.

Bähr, G. "Flexiones verbales de uso actual en Legazpia (Goyerri)" Euskera 1925, VI, nº 2-3, 73-114 or.

Alustiza, J. "Lihoaren penak eta nekeak", Jakin, 1981; 211-225.

OHARRAK

1. Irizar, P. "Contribución...", Tomo I; 124 orr.
2. Intza, D. "Burundako euskalkia"; 3-6 or.
3. Irizar, P. Ibid., Tomo II; 250-251 or.
4. Id., Ibid., Tomo I; 107-115 or.
5. Id., ibid., Tomo I; 130 or.
6. Id., ibid., Tomo I; 173-191 or.
7. Navarro Tomás, "Pronunciación guipuzcoana"; 593-603 or.
8. Izagirre, K. "Altsasuko euskeraren gai batzuk"; 46-47 or.
9. Moutard, N. "Etude phonologique..."; 9-21 or.
10. Irizar, P. Ibid., Tomo II; 255 or.
11. Uhlembeck, "Contribution...", RIEV 1909; 465-503 or.
12. Moutard, N. "Etude phonologique..."; 21-23 or.
13. Navarro Tomas, ibid.; 603-633 or.
14. Uhlembeck, ibid.; RIEV 1910; 65-118 or.
15. Izagirre, K. Ibid.; 46 or.
16. Campión, A. "Gramática..."; 193-240 or.
17. Irizar, P. Ibid. Tomo II; Cuadro General
18. Campión, A. Ibid.; Cuadro II
19. Intxausti, J. "Euskal Aditza. Gipuzkera-Bizkaierak"; 33-164 or.
20. Navarro Tomás, ibid.; 652-653 or.
21. Holmer, N. "El idioma vasco hablado"; 162-163
22. Barandiaran, J.M. Dicc. de Mitologia vasca"; 294-296 or.
23. Id., ibid.; 285-286 or.
24. Izagirre, K. Ibid., 50-51 or.

N A F A R R E R A G A R A I A

I. Kamino

* Liburu honetan Nafarrera Garaiak dituen azpieuskalkietatik hegoaldekoa bakarrik hartu da aztergaitzat.

I. SARRERA SOZIOLINGUISTIKOA

Ez da bat ere erraza itzaltzear dagoen euskalki bati buruz ko berri handiegirik jasotzea. Gaur egun euskalki honetako hiztunak zaharrak dira ia gehienak.

Ezer baino lehen euskalki honek zituen azpieuskalkiak eta aldaerak azal daitezke; eta "zituen" diot, gaur egun ia gehienak itzali egin baitira. 1860 urte inguruan, 1935 urtean eta 1972. ean zeuden hiztunak ere adieraziko dut.

Hiru azpieuskalkitan banatu ohi da euskalki hau: Iruñeaz ez kerretara doana, Iruñeaz eskuinetara doana, eta Iltzarbekoa.

Ezkerretarakoak, Oltza, Zizur eta Gulinako hizkerak ditu.

Eskuinetarakoak, Egues, Olaibar, Artze, Erro eta Auritzeko hizkerak.

Iltzarbakoak Gareskoa bakarrik.

Honela adieraziko da: ezkerretan hizkera, ondoren biztanleak, eta azkenik euskaldunek osatutako kopurua. Noski, hiru zerrenda dira, bakoitza bere urteari baitagokio.

	1860	1935	1972
EGUES:	12.165 / 3.250	11.862 / 0	11.792 / 0
OLAIBAR:	2.755 / 1.830	3.792 / 231	5.885 / 43
ARTZE:	3.384 / 2.606	2.697 / 710	1.242 / 27
ERRO:	3.854 / 3.460	3.979 / 2.116	2.602 / 402
AURITZ:	457 / 414	609 / 244	397 / 56
GARES:	11.333 / 1.569	8.420 / 0	6.098 / 0
OLTZA:	14.909 / 8.926	12.781 / 360	14.254 / 27
ZIZUR:	3.508 / 1.260	3.635 / 0	8.317 / 0
GULINA:	1.324 / 1.190	1.242 / 247	716 / 37

Ikusten denez euskara arront galdua zen 1972. urtean: Olaibar, Artze, Erro, Auritzi, Oltza eta Gulina ez beste guztietan. Baina hauek 1972. urteko datuak ziren, eta 11 urtetan gauzak okerrera joan dira. Orduan Artzen 16 ziren, eta Oroz Betelun 11, baina guzti horiek hil ez ote ziren zalantza dut; gauza bera Oltzako hizkeraz. Gulinako hizkerari buruz, zera esan dezaket; 1982.eko udan 2 euskaldun zeudela Zian, eta Ziako beste bi zahar Iruñeko gaisoetxe batean.

Beste hizkerei dagokienez, 1982. urteko udan hau ikus zitekeen: Olaibarko hizkeraz hondakinik gelditzen zen. Gaskuen lau ziren euskaldunak, gutxi gora behera. Latasan ere entzun daiteke euskara oraindik, eta nahikoa. Baina elkarren artean ere erdaraz egiteko joera dute hango zaharrek. Gazteren batek badakike ziur. Artzeko ezaguerarik ez dut. Erro bailaran Mezkiriz da euskaldunik gehien duen herria. 1972.ean 43 omen ziren, orain ere hortik, hain zahar ez diren batzuk hitz egiten baitute, edo behintzat badakite. Lintzoainen ere antzeko zerbait gertatzen da, baina herri hau ez da Mezkiriz bezain haundia. Yrizarrek 22 eus

kaldun ematen zituen 1972.ean, orain hango zahar baten ustez 10 besterik ez da gelditzen. Esteribarren bada gehiagorik. Eugin zahar askok badakite, eta zenbaitek erabili ere bai, baina kanpotik etorritako jende erdaldunak kalte egin dio zalantzarik gabe honi. Ez da horrelakorik gertatzen Iragin, ez baita hemen Eugin adina kanpotar; eta herri honetan euskarak zenbait funtzio betetzen du oraindik, eta gainera zenbait haurri eta gazteri euskaraz egiten zaio etxean (eta hau ez da eskuarki euskara hain eroria den tokietan inoiz gertatzen); herri abertzalea dugu benetan Iragi. Auritzen ere zenbait zaharrek egiten du euskaraz.

Zalantzarik gabe euskalki hau hiltzat jo daiteke hanka sartzeko beldurrik gabe. Oso zaharrak dira hiztun gehienak eta ez dago altxatze aukerarik, gainera euskarak ez du funtziorik betetzen ez lagunen artean ez salerosketan eta ez inon, (Eugi eta Iragi har daitezke salbuespen bakartzat); baina Iragi oso herri txikia da eta Eugi zoritxarrez kanpotarrez bete da.



3. Mapa

NAFARRERA (GARAIA)

II. FONOLOGIA

II.1.- BOKALEAK

Euskalki gehienetan arauzkoa denez, bost bokale aurki daitezke: A, E, I, O eta U.

I) Bokale galketaz zera esan daiteke:

AFERESIZ.

[tór̃i] = etorri
[kár̃i] = ekarri
[báki] = ebaki
[kúśi] = ikusi
[mastéki] = emazteki
[mán] = eman
[sa̯u̯tu] = ezagutu

II) Bokale hersketak ere erruz topa daitezke, hala nola:

e > i

- Ondoko -u aren eraginez hauek ematen dira:

[irúski] = eguzki
[gínwen] = genuen
[iď̯uki] = eduki

- Ondoko kontsonante sabaikariak ere badu eraginik:

[iv̌e] = etxe

- Sudurkari inplosibaren ondorengo -e asko hertsi egiten da:

[iséi̯n] = izanen

[eg̣oi̯mbai̯ta] = egonen baita

[er̄ai̯nuke] = erranen nuke

(juai̯n) ere aurkitu dugu textu zaharretan.

- Beste zenbait ere bada:

[bior̄ak] = behorrak

[nion] = nehon

- Hitz bukaeran -e horrek ondoren mugagabeko -a hartzen dueneko hiatoetan ez du hersteko joera handirik, ez bederen Gipuzkoan gertatzen den adina. Halaz ere zenbait aldiz hertsia aditu dut, eta baita irakurri ere textu zaharretan.

[yeṇdia]

[ber̄cia]

[eg̣otia]

[bjar̄] = behar

[esj̣ág̣o] = hezeago

Baina orokorki ez da horrela gertatzen. Behintzat orea, aćaldean eta beste horrelako asko entzun ditut. Eta textu zaharretan: (olietzea), (gañean), (lurrean), (egitean), (ordenatzea), (emancionean), (castidadea), (enea) eta horrelakoak lekuko.

o>u

- Honekin ere antzekoa gertatzen da. Hondarrak ausnartuz, -oa hiatoren bat -ua bihurtzen dela ikus daiteke: Lizarragaren liburuan, edota (infinitua) Utergako sermoietan. Baina gaur egun euskalki honetako azken zaharren ahotan -o hori hertsi gabe aditzen da zalantzarik gabe: [elektrikoapaitire] e.a.

a e

- Euskalki honetan ifarraldeko nafarrera garaian bezala, erruz gertatzen da hersketa hau, bai hitz bukaeran eta bai tartean:

BARNEAN: [iendétan] = igandetan [biserra] = bizarra
[luséiden] = Luzaiden

BUKAERAN: [baitire] , [ure] = hura, [yókwen] = jokoan ,
[míne da gauzbet] = mina da gauza bat, [te] = eta ,
[komediek] , [aide] = ari da , [aragíe] .

Eta textu zaharretan: (erreinuen), (malvatue), (beardugule) e.a.

Baina hertsi gabe ere entzun daiteke: [burua] , textu zaharretako (izugarria) eta beste asko.

Beraz gauza ez da beti hain sistematikoa gehienetan gertatzen bada ere.

- Diptongoek ere badute hausteko joera nabaria:
[ok] = hauek. [oetan] [aen] = haien [beeak] = behiak
[xaero] = jaiero. [oketaik]

Dirudienez forma guzti hauek diptongoaren hausketatik datoz. -behi eta- jai hitzak galdu egin dute besteek bezala ziurraski diptongozko bigarren osagaia.

Are gehiago beste hiru hitz hauekin:

[ulcia] = eultzea [uśkéra] [eśkindu] = eskeini.

II.2.- DIPTONGOAK

Euskalki guztietan dauzkagun beheranzkoak edo bokalerdiak, badira hemen ere.

-ai: [semáit] [emáin] [urtetáik] [aiśágo] [eřáiten]

-ei: [iséin] [géien] [béśteik] [séleik] [béiti]

-oi: [góiti]

-au: [auřtengo] [itáute] = egiten dute. [auř]

-eu: [iteunte] = egiten dute.

Goranzko diptongoak edo kontsonanterdiak ere badira:

-ja: [áundja] [třatórjan] [bjářko] [úřtja] [góisjan]

-je: [gusjétan] [asjéndakin] [bagindakjén] [estakisjé]

-oa: Silaba bakar batez ahoskatzen dute: [alayáiŋkoa] [eméŋgoa] [aeskoán] [beřcoátei] = bertze bati. [ančuékoa] = Aintzioa koa.

-wa: [píškwat]

-we: [bagintwen] [fwéřtja]

-wi: [páśtwik] [sářtwik] [geldítwik]

- Gero agertuko den bezala, kontsonante arteko bokale bat gal daiteke, inguratzen zuten bi bokaleek diptongoa osatzen dutelarik.

[béśteik] [gindeleik] [ontáik] [eunéro] [seřtáik]

Bestalde eta Bizkaian eta Gipuzkoan bezala zenbait erakusletan eta erakusle ez direnetan ere bai, -u bokalez bukatutako

diptongoan galdu egiten da delako -u hori tartean -b bat agertzen delarik:

[eb̥ek] [ab̥ék] textu zaharretan. [gab̥aś eta egúneś] e.a.

II.3.- KONTSONANTEAK

- H fonemarik ez dago. Horregatik batzutan bereondorioz gel ditu den arrastoren bat agertzen da.

[egun] = ehun [agoś] = ahoz.

Bokale luzeak ere agertzen dira haren ondorioz: [naaśkie] e.a. Baina baita ere [aiđe]

Eugin eta beste inon ere erakusleengan /h/ aren aztarna daitekeen /g/ bat aurkitu dut, Lizarragaren liburuan bezala. Eugiko andere batek (pantano honetaz) esan beharrean [pantano gontas] esaten baitzuen.

- ST/RZ = RTZ errotazismoa ere ematen da:

Lintzoain herrian [béśte] eta [bérce] erabiltzen dira.

Eugin ere esaldi berean hiztun batek [eśan] eta [eran] esan zituen [bercenaś] eta beste errotazismo fenomenoak ere badira.

- Bokalen arteko -b, -r eta -g ren erorketa ere nabarmena da.

[giśaátjan]	=	gisa batean	[aitu]	=	aritu
[ireási]	=	irabazi	[naiseleik]	=	naizelarik
[anaiát]	=	anaia bat	[śoótik]	=	sorotik
[paátu]	=	jarri	[eunáin]	=	egunaren
[iori]	=	igorri	[dao]	=	dago

- Bustidurarik gertatzen da zenbait ingurugirotan:

Diptongo ondorengo -n eta -l ak busti egiten dira:

[sala] [eundano] = egundaino. [bana]

Diptongoaren osagai ez direnak ez dira bustitzen:

[mila] [sinéten] [ibili] [ginen] [polite] [adines] [bila] [mutilak]

Hala ere zenbaitetan bai:

[inon] [inik] = eginik . [ilen] = hilen

-ITZ ere -TX bihur daiteke: [bakoča] .

Textu zaharretako (ezcachazule utzi tentacioen erorcera) eta (libra gachazu) lekuko.

- LL fonemak balioa du honako kasu honetan: [laburretie] = oso laburrak bait dira.

- S eta Z fonemak oso ondo bereizten dira euskalki honetan, baina bada interferentziarik, Z hori inplosibaz eta hitzeko azken silaban doanean S bihurtzen baita.

[gauáśko] = gauezko. [ineśgeroś] = eginez geroz. [bi aldiś]

Halaz ere, [térdiś] = eta erdiz entzun ondoren [térdis] entzun dugu. Baita [yas] = jaz ere.

- [y][x] eta [s] hotsak:

Euskalki honetan gehien erabiltzen dena zein den asmatzea ez da hain erraza. [y] eta [x] asko entzuten dira, baina[s] ez. [s] hau Mezkiritzen erabiltzen omen da, baina nik Mezkiritzen [y] eta [x] besterik ez dut entzun.

Hala ere textu zaharretan saiatzen ziren apaiz hizlariak [s] hori nolabait adierazten. Hor ditugu Utergako (seietan) =

= jaietan; eta (saqitia) = jakitea, lekuko adierazgarri. Izan ere aipatutako eliz paper horietan "J" agertzen da, beraz "S" hori [s] besterik ezin izan.

Harira itzuliz, beste herrietan [y] eta [x] erabiltzen direla esan behar, baina [y] gehiago askozaz ere. Bestalde, eta esate baterako Latasan, [xana] eta [yana] esaten direla aipatu behar.

Iragin adibidez: [yaiki] [yaići] [yokátu] [yan] [yeići] eta [yaući] = jaitsi.

Lintzoainen ere bai: [yan] [yas] [yoštaketa] . Baina bai ta ere [xoan] eta [xa ere es] esaera. [xa ere es] = deus ere ez.

- Sinkoparen arrastorik agertzen da:

[atr̄aceunte] [subr̄ire] = Zubirire. (abrátsa) textu zaharretan. [bátr̄e] = bat ere. (obrena) = hoberena. [or̄gátik] abre = abere. [bedr̄áci].

- Sudurkariei dagokienez, / n/ fonemari bereziki, askotan inplosiban galdu egiten dela argi dago:

[eneki] [tr̄atoreki] [se] [sute] [oraiˆ] [égu] = egun edo gaur.

II.3.1.- KONTSONANTE ELKARKETAK

- N + D sandhian, aldaketa nabarmen eta orokorra gertatzen da beti.

[kantaceunte] [atr̄aceunte] [iteunte] [yar̄dukiceunte] eta halakoak.

- M eta B elkartzen badira, galdu egiten da bigarren hau:

[semait̂] = zenbait

[lemisiko] = lehenbiziko

[aśtemagára]

[iruskie goracemáda] = eguzkia goratzen bada.

- k + d = t [ibarratiré] = ibarrak dira,

[ericikietiré] [emén denak baráceatire] .

OHARRA: Ez ditut leherkariek eta txistukariek jasaten dituzten aldaketak aipatuko, horiek oso arruntak baitira, eta ia Euskal Herri guztitik zabalduak daude. Hemen euskalki honetakoak direnak aipatzen dira.

III. MORFOSINTAXIA

III.1.- DEKLINABIDEA

	singularrez	pluralez
Nominatiboa	ia	-ak
Ergatiboa	-ak	-ek
Datiboa	-ari	-ei
Genitiboa	-aren	-en
Asoziatiboa	-areki	-eki
Destinatiboa	-arendako	-endako
Instrumentala	-s	-es
Inesiboa	-en	-etan
Ablatiboa	-tik=rik	-etarik
Adlatiboa	-ra	-etara
Lokatiboa	-ko	-etako
Partitiboa	-rik	

Oharrak:

- Nominatiboz -a eta -ak herts daitezke, lehen esaten genuen bezala.

- Genitiboz -aren hori [ain] ahoskatzen da.

- Asoziatiboari dagokionez, atzizkia -areki eta -arekin izan daiteke herritik herrira aldatu egiten baita, zenbait herritan bi erak erabiltzen direlarik.

- Destinatiboz, -arendako [aindako] bihurtzen da.

- Hau euskalki honetako bereizgarri nabaria da, alegia instrumentala [ś] eta ez [s] egitea.

- Ablatiboan zenbait bereizkuntza egin behar da: -tik eta -rik erabiltzen dira. [gusietáik]baina [eritik]. -k hori ere gal daiteke, Eugin [gibeléti]entzun bait daiteke. Baina [gerosti] [eta nondi] ere.

- Adlatiboko atzizkia -ra bada ere, -rat ere aditu dut: [karateraraT] [arát] ,[onáta] e.a.

Bestalde Nafarroako zati handi batetan bezala, gora eta behera esateko [goiti] eta [beiti] erabiltzen dute.

III.2.-ADITZA

Gutxi gora behera agertuko dut, hala ere ez dut inola ere herri guztietan forma hauek ematen direnik adierazi nahi.

naiz	nintze(n)	dut	nue(n)	tut
yaiz	ize(n)	dun/k	ue(n)	tun/k
da	ze(n)	du	zue(n)	tu
gara	gine(n)	dugu	ginue(n)	tugu
zara	zine(n)	duzu	zinue(n)	tuzu
zaate	zinete(n)	duzie	zinute(n)	tuzie
dire	zire(n)	dute	zute(n)	tuzte

Beti esan ohi da euskalki honen bereizgarrietan bat lehen aldiko formetan -n hori galdu egiten zuenekoa zela. Hori egia da, baina argitasun baten beharrean gelditzen da. Ez da toki guztietan gauza hori gertatzen. Hona hemen adibidea: Iragin eta Eugin aditzek -n bazuten ere, Mezkiritzen hiztun berak biak tar

tekatzen zituen, eta Lintzoainen -n gabeko formak, entzun nituen soilik.

Nor-Nori-Nork formetan, [dio], hark niri [diré] eta horrela koak ditugu. Pluralean berriz -di hori galdu egiten da, eta diz kio formari [tio] dagokio.

- t letraz hasten diren aditz horiek -n letraz bukatutako aditzekin lotzerakoan metatesi hau gertatzen da: [emateunte] , [ikuśtentut] ,[arceunte] eta halakoak.

- Behin Errora iritsiz gero, muga ingurura alegia, hango usaia hartzen dute aditzek. Nor-Nori-Nork forman adibidez. Bes teen tiote, dazkote da. Besteen nio, neko da e.a. Ahalmenkeran ere nabarmen daiteke: [ecutela ikáśten aal] [iten aal duena]= egiten ahal duena, eta iparraldean erabiltzen diren beste for- mak. Hala ere Mekiritzen bertan horkoak baitira iparraldeko usai na duten aditzak, [ezdaike] = ez daiteke eta [ecakete deuś ikáśi] erak entzun ditut, beraz Erro inguruan iparraldeko eta euskalki honetako forma jatorrak batera bizi dira.

Esteribar eta Erro inguruan gaizki erabiltzen da nor-nork forma zenbaitetan: [nik śuri ikuśi diśut] . [ekari siguten] = = ekarri gintuzten. Iragin [eramaten diréte] = eramaten nau te, Mezkiritzen eta Lintzoainen ere bai.

- Kausala BAIT hitzaren bidez osatzen dute, Gipuzkoa alde ko -LAKO ez dute ia erabiltzen.

[makinaria eośtéko espáita terenoik emen]

[orai espáita urembearik] = uren beharrik

- Erlatiboa oso erdaldundua darabilte:

[orai badire gaste bacuk itauntenak uśkéra]

[badire bai kantaceuntenak]

[badut alaba bat euśkara erakuśten ari dana]

[aśten dire eriko norbaitekin euśkalduna dena]

- Noiztasuna adierazteko, ez dute -NEAN atzizkia erabil-
:zen, -LARIK [leik] baizik.

[semait aldis xuntacen garéleik]

[kopelečeko kamjonak karcen tusteleik paátu bjar]

- Aditz iragankorrekin osagarri zuzenaren funtzioa bete-
:zen duena beste tokietan nominatiboz jartzen bada, hauek ifa
:raldean bezala genitiboa darabilte:

[egunain páštera] (onen eta gaistoen juzguecera) textu zaha-
rretan.

[aen kwida] [uren yáušteko]

- Geroaldirako -EN atzizkia darabilte -N z bukatutako adi
tzetan.

[isain] [erain] [emain] [eramain] e.a.

IV. AZENTUA

Gai honi eusteko erabili dudan bidea hauxe da: Nik Latasa, Lintzoain, Eugi, Iragi, eta Mezkiritzen jasotako bandak, eta bes tetik Mitxelenak 26. Fontes Linguee Vasconumen (1976) argitaratutako "Acentuación Alto Navarra" lana.

Euskalki honetan hitz egiten entzundakoan, ez da bat ere zaila azentoa non doan antzematea. Batzutan erdararen oroipena datorkigu burura.

Singularretan azentua azkenaurreko silaban doa, baina ez da ahaztu behar euskalki honetan kontsonanterdi anitz dela: wi, ja, je, jo, wa, we e.a.

[pénceak] ea silaba bakarrean ahoskatua. [gisóna] , [áspja] [luséiđen] [pencéra] [baitáuđe] [áldiś] [esdáike] [garéleik] [gínen] [igwalcáiđe néri euśkára nola erdára]. [gutiré gutiré gáldu berce tokjétam besála] [xoáten ginéleik auspeříra] [sáucen al dúsu suk aunic irúne ?]

Edo Lizarragaren liburutik: (ará non eldudén bércea úr ésque)

Modeloa singulare mugatutik hartzen da: [śémja] tik [śéme]. Ez ahantzi /ea/ silaba bakar batean ahoskatzen dela.

Zera pentsa daiteke, azentuazio hau nahiko berria dela. Lehendik lehen hiatoa zena diptongo bihurtu, eta gero ondorioz diptongo aurreko silabak azentua jaso.

[egia]> [egja]> [égja] alegia.

Mari Lurdes Etxeberriaren tesinan agertzen denez;

- Atzizki batzuk azentua erakartzen dute berengana: (gizoníc), (gendearén) (legetíc) eta (argirá).

  Beste batzurekin zalantza gertatzen da: árgian / argián eta egúnean / eguneán.

- Azentuazioa, nominatibozko mugatu singularrean doa, azkenaurreko silaban.

- Mitxelenak ere badu azentua erakartzen duten atizkiei buruz zerbait. Honek ere Lizarragaren liburutik hartua, Mari Lurdesek bezala.

- (r)íc: ardoríc, chutiríc, ezurríc.

- (e)tíc: mundutíc, eriotzetíc, ertetíc.

- (r)í: itsuarí, beartsuerí, guizonéi

- etán, pluralez: becatuetán, ilunbetán, dirután

- Inesiboak zalantza: iceneán / icénean. lurreán / lúrrean.

- Nora: mundurá / mundúra

Pluraletan ergatiboak nominatiboak baino joera haundiagoa du oxitonoa, azken silaban azentuatua alegia izateko: becátuak eta béguiac. Baina beguióc.

Hala ere maizago buratsoéc edo cervitzucoéc burátsoec baino.

- bat numeralak erakartzen du: muticobát

- Deklinabideko atzizkiekin ere: asto báten, asto bátec

- -ren singularrak eta pluralak erakartzen dute baina mugagabeak ez: gurutzearén, aitarén, judioén baina mugagabez bi gizónen.

Lau bereizgarri Mitxelenaren ustez

- Funtziorik ez

- Balio informatiborik ez berria delako azentuaren fenomeno hau.

- Mugatuaren azkenaurreko silaban kokatzen da azentua.

- Oso aldagarria.

Toki izenetan ez da paradigmatikoa, azkenaurreko silaban joateari ezin baitio utzi: [aurispéĭn] da, baina [aurispeĭíra]. [xeronára] [balencjára]

Pluraletan oxitonoa izateko joera du, azken silaban alegia

[toki anicetán] [emeŋgoák xoaten dire andalusiára]

[patata acúk]

Ikus, dena dela, honi buruz Txillardegi-ren "Euskal Azentuaz" lanean, Elkano-ko Lizarraga-ri buruzko kapitulua.

V. HIZTEGIA

abrats = aberats

afera = gaia

ago = aho

agotz = lasto

agitu = gertatu

altzin = aurre

alke = lotsa

arras = guztiz

arront = guztiz

atzendu = ahantzi

aunitz = asko

azpiak = iztarrak

baratu = gelditu

barreatu = hedatu

bearri = belarri

beiti = behera

bida = bi

deus ere = bat ere ez

egun = gaur

eldu = iritsi

eri = gaiso

goatze = ohe

goiti = gora

idortu = lehortu

igan = igo

igorri = bidali

iruzki = eguzki

ja ere = ezer ez

jautsi = jaitsi

kario = garesti

kontent = pozik

larrazken = udazken

manatu = agindu

nior = inor

ortots = trumoi

paratu = jarri

sagobe = pentze

yago = gehiago

yaitzi = jetxi

yalgi = irten

yautsi = jaitsi

zango = hanka

zikiro = ahari

VI. TRANSKRIBAKETAK

VI.1.- EUGIKO ELKARRIZKETA. UZTAILAK 12, 1982.

- [sér̄tai̯k aśi
- pantáno góntas
- gu lem baśér̄iambisi gínen ta gero pucua etór̄i selei̯k onáta eká r̄i siɡúten emen ečea iŋ gínuen orai̯ emem bisi ɡara / lemišien esin laketu ɡinuén esin ećítu eta orai̯ ur̄te pareƀat tor̄i giné la eta kónteŋ gara /
  ure bota sutélei̯k atr̄ási siɡúten eta tór̄i ɡinen óna / orái̯ ár̄ tio beđr̄áci ur̄teter̄đis bisítu ɡara ái̯đe ƀacun íčean / tór̄cen diré bér̄ce eu̯śkaldun oetái̯k ere xoan den ur̄tian eɡon sien úśkeldun yéŋde poliki iƀilcen da / eméŋɡwa déna diferént ja uśkera an tolośan ta ƀai̯ uśkéra poɭite
- bai̯ pátus geosti aténcio púšket er̄eša đa / orai̯ ikéśteko saɭa déla / gu ƀeti uśkeras mincaceŋ gara eta atr̄áceŋ gara kámpora ta aśtemaɡára er̄iko nor̄ƀai̯tekin ola uśkálduna đéna iten diɡu- te ar̄ítu / kampotar̄ekin er̄đaras beɲo ber̄cenas ór̄tik kámpo b- ti uśkaras iru anai̯ar̄eƀak /
- nai̯ đisu onek er̄an uśkera orai̯ itembái̯te eśtudɟos gu uśetuak gau̯đe ƀeti eu̯śkeras geren éčean / an xaɟo ɡínen eta ɡero emen śwer̄ta sakigum parjénte bacuen éčean eɡom bed(e) r̄áci ur̄tes eta onáta tor̄i ginen / beɲo sei̯mbeáu̯su orái̯ko gaste oketái̯k bađiré ikéśteu̯ntenak baɲa éčan tute ai̯tetamek er̄đáldunek eta.. Eta nora joan zarete?

es gara atrácen / eméndi iruñéra / xoáten gara kónprak itéra eta gáusak eroštera semait aldis medikuetára ere xoambear déleik / gasteak ginéleik sanfermintára denetáik badúgu béti serbaitékin adines bagasi góiti orai albaláike béiti tóri beris]

- Ohitura zaharrak eta?

[lem basem bai len čištulariek eta atabalariek eta basiren eta dan cariek ere baña orái saarák / gero gásteek eta ikési suten / néskakoek eta mutilek ciśtue xocem poliki / orái déla lau edo borc urté eta orai bat ere es da áicem béštetam bakarik átracendiré eta pašakálea eamatéunte

sikíro yátea in ginuen góiti ontán / baña oiturak kambjácen dire orai está dáncaik ere / bérce erietakoák onatá tórcen siren denak dancara igwal lekubetéra nola bercoatéra / beste den tokiré xoaten da gasterie gusie kočekinte or emendik lemisiko erie fránciak wa urepel da aréba baginuén an xoan den úrtian ilcen an / denek mesa eta kantátu euskeras ta šarmánki gero kantátu ere dena euskéras kantáceunte]//

VI.2.- MEZKIRIZKO ELKARRIZKETA. UZTAILAK 12, 1982

-[orduam pweś móstu negúrian ta geró erámjentačurékin forma mán ta gero berce eramjentacurekin refinétu ta gero yálgi piškát ior deistéla iúskira edo šu ondoan edo ola]

- Nola galdu da euskara?

-[nóla nik zérdagit nóla / gure adinekotán geének baginda kjén ori bái baña ya xendea xoan da emendik ere ta gutiré gutiré gál du berce tokietam besala se motibós es dakit igwalcáide néri euskára nola erdára yardukicem badiréte berdim berdin diré emen ai déla gálcen arront... ecará berce gisonákin egon or / arek nig ba

no yágo yarrdukicen du euskara / badu berce anaiat arekin errdára
beris kostumbrja árrtwik sanšebaštjanéra xoáten naiseleik nik us
te denak euskeras iseincirén / errdaras gisóna ikásten ai siréla
semáit berce semaiték gáldu sutéla
ni ne gaste demboran ánic xoaten nincen arat lanéra an baicén
méndien espéldie materjalie emen ecen deušik eta arat xoaten ginen lanéra /
semáit áldis ola pwes gaste kontuk mastéki bat ikusten genueleik.
se istarratwén se áspjatwén ganerakoan sánggwoa / ni bi sanggoetáik
nao akítrik]
Zein tokitan izan zara?
[aunicetán luséiden aeskwán orbaisétan gero ojánean aitu gera ere
bágo botácen egurríten aeskwán denák bagoatiré
madriléra yáusten sutéleik úrjan surek estúgu esóndu áicjas baka
rik orai espaité ur bearik suren yáusteko orai kamjonékin]
Eta lana dela eta?
[orai gu besalakoék deuses retirátwik pwes déuses badiré beak biorr
bakan semáit ere bada / bakočak bere pencétan iten aal duéna
ečeko lanak ines geros eceláik berce lanik igwal amaborc egunetá
ko ečola in ta an méndjan gabás eta egunés /
geró iendétan ečolatik yáusten giné erríre eunáin páštera
orai bi beitut eta aen kwida xoáten nais bíle yáici
beeak gaues péncjan ečeko pencétan errciik paitaude orai demorón
tan emáten da gauáško laraskena elduš geros eunésko eunés péncjan ta gabás éčean]//

VI.3.- LATASAKO EĻKARRIZKETA. UZTAILAK II 1982.

-[ta séreŋ gáñjan mincacia]

- gazte kontuak adibidez.

-[émendik espai̯gará átr̄a apénaś onek kontátu desáke ǥeyáǥo onen iśtórie đa lusjáǥo ǥer̄a đembóan ta or̄đuen śeǥan ta ni an nee đem boan ecénum bér̄ce śéǥa eldu siren makínek eta gešáo baṇa óek kr̄istom palisak emantié gaṇera ecen sór̄ci or̄đu ta istori oek uđen gáu̯eś ere gáu̯eś ere ƀai̯ / ulcie lar̄áṇean iŋ gero ai̯seátu paǥočareki biaramónjam botáceko ber̄is ulcie bíldu balak er̄aten dióǥu guk /

amaláu̯ amaƀór̄c eǥun itemasuen eu̯rie eđo giroa kéndu ór̄đwan lusjáǥo / ór̄đwan oǥía íčan sor̄si eǥuntáko políte yar̄ko sen oǥi ori kar̄etérai̯k ecélai̯k ośtica oṇeś / ar̄đoa úđen neǥuen ta ƀates / or̄đuen iendétan yoan ośtaturé ta péna íčea tór̄ceko seati an eáten tr̄agoṭoacú sur̄upé sur̄upé yendeak kaśkoa beró beró bér̄ce iǥénde ár̄tjo esin pr̄oƀatú te tíra alaeré ƀisíceŋ gituen úr̄tjak eta ur̄tjak /

beśtak sanmartíntan gośálcen gástjak ečes eče muśikái̯ki andik beśteatéra eta ƀeśteatéra sor̄ci eče điré eta lau̯ eumbátes eta ber̄ceátes béŋga danca tíra iluśtr̄au̯ ośtátuan kar̄táki pátu duroána r̄átwa páśteko gero parjéntjak tór̄cendirén aǰéki gero or̄đáṇeś su xoatencínen]

Lanak eta ?

-[saspjétan aśteŋ gara déi̯sten aldiombáteś lenáo bino ba orai̯ espai̯túǥu śeǥátu eta imbiar̄ gero bíldu bisíe tr̄ankile beśte moduś]

Iruñera joaten al zarete?

[nóa xoam beáu̯ǥu ƀer̄sétara iruṇéa bei̯n eo ƀér̄ce]

Eta feria?

[esta emen emen ur̄ƀiḷéna irur̄cúnen isatencen demboaś amar̄eu̯ntái̯k

berćenaś irunéra elisóndon e isáten die]

Garai joanak eta?

-[orái áiše seátik len eráiten sen garíe garíe bakisú seŕ den ta itencén igíte gero laŕanen ulcíe orái esta eráiten eta es eraiteáki bildwíkabe /

orái eśénja oŕtáik bisicen gara beiak paraceu lem bano geyáo paraceáki beaŕdu yána geyágo / guk emen duguné da śuxésjoa áundje bi aldis egúnjan déici góisjan ta gábjan guria esdáike úci / len eśéneik ecen atŕácen pweś garíe len déna láueś gero bŕabának tirátwik idiéki orái estu nok bákicen śegáki]//

VI.4.- LINTZDAINGO ELKARRIZKETA. MARTXOAK 8 , 1983

[Ba oŕ yaŕdúkicen diré uśkeras iruríte elisóndo gaste ta denék emen lusáiden aurispéŕin ere es /

bada oŕ kaŕtéroa orai ŕetirátwi táo, oŕek basitué boŕc śeme, bweno bátu ta bi alaba oek denak gastean denak ai siré euśke ras bana ya orai es, es suté nái edo oánik orái euśkéra ogei ogéitamaŕ uŕte aicen se áiše / ni geŕan eon ninceláik basiré gipuskwakoak ta aicenciré euśkeras bana nik śekula enué icik ere neri paśa sakidéna ecendakié komprendítu //

predicazale andibati. Aterace Conventutic vere lagunerequi eta mesagero ayec aurretic guiatu cituste carricas carrica, pasatu artean Villa gucia. Ellegatucida Alcalaco portalera, eta icusiric campora nai zutela eraman, veldurtuce confesorea traiciorembat naibideciotela eguin, cergatic predicacenzue ainvercе libertaderequi vicioen contra, ecce, (sic) vicioetan sarturic zaudenac ez zaude sobra content; conque erranciote ez zela treve aurrera pasacera. Jauna, erran ciote, vetor gurequi veldurric gabe, emen verla (sic) dago enfermoa eta necesidade andie dauque, cergatic dudaric bague egun arratsean illen da.

Au adituzuenean, encomendacen celaric Jangoicueri, erresolvituce juatera; ellegatu zida ugalde vasterrera eta arbola bazuen azpien opatuzate enfermoa eta erranciote guiecen zuten ayec: Ona non dauqui jauna en- // -fermoa, exortatu beza alduen eficacie guciarequi confesatu dayela, bada egonduda gogor confesaceco. Apartatucida andic Mensagero ayec eta asice confesora exortacen, baña ain gogorturic cego ece ez zute eguin arren baiten confesorearen arracioac mellaric batere. Trabajatuzue confesoreac vere aleguin gucierequi, baña errespondacencio: Uzibezada, Ayte, ez nazala cansatu. Ontan ellegatu cida mensagero ayec eta erranciote confesoreari: Ayte, icusivez iniolaco guisas albadu convertitu eta confesatu guizon au, cergatic bercela emen geude legionebat Demonio infernure eramateco; guc ekarriguindue Hospitaletic onara, cergatic an ez zue nai confesatu, eta justificaceco ovequiego (sic) onen causa, manatu gaitu Jangoicuec ecarzagula soledade ontara eztezan escusaric atra (sic) norbaitec aituco duela onen confesioa; eta au erratearequi apartatu cida verris, orduen asice esforza andiagoarequi exortacen, baña egonican desdichatu arrequi espacio andien fruituric atera bague arrimatu zida Demonioac eta, corputz (sic) eta arimen, eramezute infernure, egoteco errecen secula verevicien vere escusa eyen castigotan.

O Catolicoak! icusten duce zertara ellegacenden animabat luceceangatic egun batetic vercera confesioa eta converticea? Determinatu zait bada ez egoter (sic) orduetes ere vecatuen, bada posible da ez ellegacea viarco egunera: *Ne diferas de die in diem.* Nauzu ez ellegatu enfermo ure ellegatucen desdichara? O ciein facil de naibalinbaduzu! Erran zadazu: Ill balaquizu Anaia bat aniz estimacen duzuna eta albacenzaque erresucitetu acto contricioscoatequi, esperatuco zinduque verce egunbateraño erresucitaceco? Bacindaude infernuen, merecitu duzun vezala aniz aldis, eta (esten vezala) posible baliz ateracea tormentu avetaric, arrepenticearequi solo (?) uzico cinduque gueroco? Idurizaide ez ez. Bada catoli- // -coa † Jaun Divino onen misericordiec ematen dizu facultade acto contricioscoarequi erresucitaceco zure anime illic balinbado (sic) vecatuerequi; arrepenticearequi emateinzu licencie ateraceco infernue baño estado gaiztoagotic vaite (sic) vacatuena. Eztezazule galdu ocasioau; ellegatuceit bada oin sagratu evetara eta sentimendu andibatequi erranzozu: Jesuchristo nere Jaune etc.

382 [14]

Mz. Morentin delakoen sermoietatik XVIII. mendekoa (Muzki-koa, NG.).

OYARRÍA. [1]

VERSION AL DIALECTO VULGAR DE ARIZHUN, VALLE DE BAZTAN, (NABARRA), POR D. DÁMASO LEGAZ.

I.

Gauerdi da. Karlomano Erregea Auritz-berrin dago bere tropekiñ. Zeru illunean ez da ageri ilargik eta ez ere izarrik; urrunerá sugar andiek dirdir iteute mendienartean; Frantsak kantatzen ai dire errian; Altabizkarko inguruetan senti

(1) Así se llama en Baztan á Roncesvalles.

Frantsak lò daude Auritz-berrin; Altabizkarko inguruetan otsoak marrumaka daude, eta Euskaldunek zorrozten tuzte beren dardo ta aizkorak Ibañetako aitzetan.

V.

Zer da osots oi?—galditen du berriz Karlomanok, eta pajiak, loakartuik, etzion ihardetsi.—Yauna,—dio Erroldan indartsuák;—mendiko ugaldea da, Andresaroko artaldeen beoyua dá.—Adi bat iduri du,—ihardesten du Errege Frantsak.—Egia da, Yauna,—dió Erroldanek;—erri unek nigar iten du gutaz oroitzen delaik.

VI.

Karlomano atsberatuak ez dezáke loa bereganatu; lurra eta zeruek argikgabe daude; otsoek ai dire marrumaka Altabizkarren; Euskalduneen aizkorek eta dardoek dirdir iteute Ibañetako ariztietan.

VII.

Ah!—zizpurutzen du Karlomanok.—Enaiteke loakartu; beroak erretzen nau. Zer da asots oi?—eta Erroldanek loa-

dire otsoen izigarrizko marrumak, eta Euskaldunek zorrozten tuzte beren dardo ta aizkorak Ibañetako aitz eta arrietan.

II.

Karlomano atsberatua ez daiteke loakartu; goatzeain ondoan bere pajecho batek leitzen du amoriozko historio bat; urrunchago, Erroldan indartsuak garbitzen du bere Durandarte ezpat famatua, eta Turpin arzobispo onak errezazten dio Yangoikoain Ama sainduai.

III.

Nere pajechoa,—dio Karlomano Erregeak;—zer da gauazko isiltasuna austen duen asots oi?—Yauna,—erten dio pajeak;—Iratiko zein baita itsasoa baño aundiagokoa—oyanaren ostoak dire, aizeak mugituak.—Ah! gazte maitia, eriotzaren oyua iduri du, eta nere biotza beldur da.

IV.

Gaua oso ilun da. Ez da zeruan ilargik ageri, ez ere izarrik; urrunerá sugarrak dirdir iteute mendienartean;

kartuik, etzion ihardetsi.—Yauna,—dió Turpin onak;—erreza béza, erreza béza nerekin. Dumbasots oi Euskal-Erriko gerrako-kanta da, eta gaur da gure gloriaren azken eguna.

VIII.

Iguzkiak argitzen tu mendiak. Karlomano garaitua iges doaye, «bere luma beltz, ta bere kapa gorriaikin». Aurrak eta makumeak dantzan dabiltza atsañez beteic Ibañetan. Arrotzik eztá Euskal-errian, eta menditarren irrintzak zeruraño ba doazi.

VII. BIBLIOGRAFIA

"Materiales para un estudio comparativo...," Fontes 1982 (133-228)

Martinez Morentin sermoiak. Muzkikoa Gesalatz ibarrean. Fontes 15. 1973. (369.390)

Doctrina christioarén catechima I. Euskararen Lekukoak I. Iruñea 1979. Joakin Lizarraga Elkanokoa.

Ultzurrun. "El catecismo manuscrito de Maquirriain de 1828", Euskera 1960. (377-405)

Ondarra. "Catecismo del siglo XVIII en vascuence de Uterga (Valdizarbe)". Fontes 35-36 (173-222).

Arturo Campionen "Orreaga" balda. Nafarroako 18 herritan jasoa.

Pedro de Yrizar. "Contribución a la dialectología de la lengua vasca. 1981. urtean. Gipuzkoako aurrezki kutxa probintziala.

LAPURTERA

J. Abaitua
A. Otsoa
J. L. Ormaetxea

I.- SARRERA SOZIOLINGUISTIKOA

I.1- Euskalki eta eskualdearen mugak bereziko ditugu.

LAPURDIKO MUGAK:

Iparraldean Fraintzia
Hegoaldean: Gipuzkoa, Nafarroa
Ekialdean: Nafarroa Beherea
Mendebaldean: Kantauri itsasoa

LAPURTERAREN MUGAK:

Hegoaldean: gipuzkera, goi-nafarrera
Ekialdean: baxenabarrera

Lapurtera Lapurdin, Aturri-behereko eskualdeetan ez ezik, Nafarroa Garaian, Urdazubin eta Zugarramurdin, hitzegiten da.

Aturri beherean baxenabarreraz mintzatzen da; eta Miarritzen, Angelun, Baionan, Ahurtin, eta Gixunen,erdara erabiltzen da.

Goi-nafarrera = Nafarrera Garaia.
Baxenabarrera = Nafarrera Beherea.

I.2. Euskalkiaren barruan, bi azpieuskalki bereizten dira: berezkoa eta nahasia; eta hauetan ere, barne hizkerak.

BEREZKOA

SARA	Sara
	Ahetze
	Senpere
	Urdazubi
	Zugarramurdi
AINHOA	Ainhoa
DONIBANE-LOHIZUNE	Donibane- Lohizune
	Azkaine
	Bidarte
	Biriatu
	Ziburu
	Getaria
	Hendaia
	Urruña

NAHASIA

ARRAINGOITZE	Arrangoitze
	Basusarri
	Arbona

I.3- Lapurdiko hiztunen kopurua eta Lapurterarena ezberdinak dira.

LAPURDIKO HIZTUNAK

LAPURTERA	Berezkoa:	20.800
	Nahasia:	1.400
BAXENABARRERA	Adour: (Aturri-behere)	3.100
	Labort:	14.200
		39.500

LAPURTERAREN HIZTUNAK

SARA, URDAZUBI, ETA ZUGARRAMURDI	4.213 + 750 = 4.963
AINHOA	378
DONIBANE-LOHIZUNE	16.240
ARRANGOITZE	1.389
	22.750

I.4 IRITZI BATZU:

Larramendik, lapurterazko ezaugarri batzutaz baliatzen direla Hondarribian,Irunen eta Oiartzunen, dio; "y aún de su tonillo gustoso" (egiñen dut, ...). Eta bere "DICCIONARIO TRILINGUE DEL CASTELLANO, BASCUENCE Y LATIN"- delakoan hau dio: "El dialecto labortano se usa también en Baja Navarra y aún en la Alta, pero con grandes diferencias".

Bonapartek

1862 Lapurtera mintzatzen da ez bakarrik Lapurdin,baizik-eta Urdazubin eta Zugarramurdin ere bai.

1863 Bardozen (Lapurdi) ez da mintzatzen, baina bai Urdazubin eta Zugarramurdin (Nafarroa)

1864-5 Ez da hitzegiten Labort eskualdeetan.

1866-8 Ez da hitzegiten ez Adour, ez Labort eskualdeetan. Euskalki batetan lotuko zituen gero lapurtera eta baxenabarrera:" Navarro- labortano".

1869 Sailketa:

EUSKALKIA	AZPIEUSKALKIA	HIZKERA
Lapurtera	Berezkoa	Sara
		Ainhoa
		Donibane-Lohizune
	Nahasia	Arrangoitze

1881 Lapurteraren barruan, Baztango euskara sartu zuen. 1.869an bai lapurtera eta bai baxenabarrera kontsidera zitekeela esan zuen.Irizar-en ustez, lapurterak eta Baztango euskarak antz handia dute; baina ez dira euskalki bera. Baietz pentsatuz geroz,7.300 hiztun gehiago lituzke lapurterak.

1869an, Bonaparteren ustez, lapurteraren hiztunak hauek ziren:

Berezkoa:	21.581
Nahasia:	1.389
	22.970

II.0.- ZENBAIT OHAR

1. Fonologi sailean etsenplu asko hartu dugu J. Leiçarragagan dik, nahiz-eta bere hizkuntza orobat lapurtera ez izan. Baina hitzen kontuan aintzakotzat hartu dugu, "funtsean lapurtera mota bat" erabiltzen baitzuen, omen.

2. Morfologi sailean, autoreen laburduren zerrenda hau da:

L. = Leizarraga

A. = Axular

P. = Pouvreau

Gaz. = Gazteluzar

C. = Chourio

D. = Duhalde

H. = Harriet

La. = Larramendi

I. = Inchauspe

Har. = Haraneder

Lardi. = Lardizabal

Lar. = Larregi.

G. I. obra baten laburdura da, Gudu Izpirituala.



Euskalki-muga ————————

Azpi-euskalki muga —·—·—·—

Hizkera-muga - - - - - - -

Probintzi-muga - + - + - + -

4. Mapa

LAPURTERA

II:- EZAUGARRI FONOLOGIKO-FONETIKOAK

1. BOKALEAK

1.1. Lapurterak, euskalki gehienek bezala, sistema bakun bat dauka; bost fonema bokaliko, eta hiru irekidura maila, baititu.Lapurterak ez du bokale sudurkaririk bereizten, sudurreztapena ez baitu hartzen ezaugarri bereizletzat. Sudurreztapena kontsonante sudurkarien eraginez ager daiteke noizpait automatikoki, baina ez du funtzio linguistikorik betetzen.

Bokale bikoitzak gertatzen dira bokalearteko leherkari ahostun bat erortzerakoan, adibidez: irabazi > iraazi, partidabat partidaat, e.a. Badaude ere bikoitz enfatikoak: eez, bai baa.

1.2. Euskalkiak bereiz arazten dituen isoglosa bat, fonetikari dagokiona, eta "mugan" koka dezakeguna u/o alternantziarena da. Ipar/hegoa ezberdintzen ditu. Dirudienez gertakari hau berrikuntza da,kontestu bakarretan gertatzen den berrikuntza;hots, sudurkari (+kontsonante) -aren aurrean; hala ere zalantzak izango dira: onsa/ unsa, hongi/ hungi, honek/ hunek, undar/ hondatu, azkoin / azkuin, (e/i-en kasuan ere katena Kathina, khino).Honek esan nahi du eremu handi batetan (lapurtera ere hartzen duen eremuan) o/u ez direla guztiz bereizten,eta bien arteko aurkakotasuna apurten dela maiz. Sudurkariaren gainera, sabaikariak,-r ondoan izan ere, hesten du baita "sarmiento", xirmendu. Eta bokalezko alternantziekin jarraituz, oso nabaria den a/e-koa ere aipa dezakegu. Lapurterak, honetan ere,ekialdeko joera betetzen du e bokalea aukeratzean: gerri, zerri, gernu, igerri, elkar; hala ere bestelakoa har dezake, Leiçarragak, alegia, bardindu, atharbe, ikhartze baititu. Beldur handirik gabe esatera ausar gaitezke e > a irekiduran r-ek duela ardura,nahiz eta kontutan hartu behar den ere r ondoan beste konsonante bat datorrela,

eta hau ez dela beti betetzen den legea. Noizean behin -r, -l aurrean i > e irekitzen da: beldur < bildur, baina bestetan ilkhi bezalakoak ditugu ere.

Lapurterak beste fenomeno orokorrean hartzen du parte, i eta u bokale hetsiek aurreko o eta e hetsi egiten dituztenean: biphildu "depilare", ipizpiku, midiku. mugitu, hunkitu, guthizia. Ipar-ekialdeko joera ere da i/u hartzekotan i hobestea, iltze eta ez ultze, esaterako; baina hau ez da beti gertatzen: burho egiten da (beste askotan birao), uhadera, "nutria", (eta ez besteen igabera, B-ko forma ugadera-ren antza hartuz). Asimilazioaren bitartez honelakoak suerta daitezke ere: luluratu, izigarri, ihintz.

Arraroa bada ere e/o nahastea, nahaste hori dugu zoin izen ordean, baina esan dezagun fonologiari dagokion fenomeno hutsa ez dela, zein eta nor arteko topaketa morfologiko batetik sortua baita.

Noiz edo noiz metatesirik gerta daiteke; esate baterako, hedoi hodei. Bestalde, lapurterak urriki nahiago du, forma berriago den erruki baino, hala nola ukitu, ikutu baino.

1.3. Gutxienez lapurterak beste euskalkiak duten diptongo multzo bera du: au, eu, ei, oi, ai. Aspirazioa bitarte dagoen neurrian diptongoak bi silabatan apurtzen dira: ahu, ehi, ehu.. Esate baterako, ahuntz, sehi, ehun. Esan daiteke h-dun formak direla zaharrak; egun, zenbait tokitan aspirazioa galdu arren, bi silaba ebakitzen dira oraindik, eta ez da diptongatzen.

Lapurterak bestek baino au gutxiago omen du, adibidez alkhi, eta ez aulki. Zalantzetan dago askotan, adibidez, iharrausi/inharrosi, errausin/aharrosi, baraur/barur, baina hau fenomeno normala da.

Esan beharra dago, era berean, au diptongoa egonkorrago dela eu baino, beste euskalkietan gertatzen den arauera: euli uli, eta bere txikigarri eltzo. Leiçarragak baditu heuragi "uga

ri" eta euri, lapurtarrek askotan uri egiten dutena.

Badago au/eu arteko alternantzia, zeina lapurtera zaharrerai no hedatzen baita, lauso, aurdiki, ausiki hartzen ditu, eta ez leuso, eurtiki, edo usiki.

Zenbait diptongok lehenengo elementua galtzen du, i bokalea ren ondoren txistukariren bat datorrenean: leizar > lizar, seito> zitu; diptongoa asimilaturik gerta daiteke lehenagoko bokalearen arauera: hogei > hogoi, orkhei > orkhoi. ei hitzaren hasieran topa daiteke noizbait, eihar, adibidez, baina ihar ere topatzen da.

ui diptongoa, nahiko arraroa da, eta lapurteraz agertzekotan, asimilazioren bat izan dela medio, esan daiteke hausin edo osin > hasuin, zauli > zalui.

1.4. Hitz-elkarketan eta eratorpenetan; maiz gertatzen dira hiatuak dekinabidean, aditzari atzizkiak eransten zaizkionean, erdiko bokale bat galtzen denean... Leiçarragak tinbre bereko bi bokale, bat egin ohi du, jenda-alde > iendalde, alabaa> alabá. Batzutan, berriz, bestela gertatzen da: artikulua erantsiz, ateraia dugu (eta ez aterá), agian [j] epentetikoaz bezte funtzio garrantzizkoa beteaz. Hitz-elkarketan, a+i, u topaketetan, bat erortzen da, alda +iri > aldiriak (Leiç), umaunzi > umunzi. Beste topaketaren ondorioa zabala da ere: a+e,o > a,e suertatzen da, den, dela < *da-en, *daela; -ek atzizkia < *a-ek, -en < *a-en. Ekialdean azken lekuko -ae ez da -ai bilakatzen -be baizik: zethabe. Batzutan -ao- > -o- laburtzen da, hama (b) orz > hamorz; azken lekuko -au > -ao bilakatzen da lapurteraz: bakallao, makallao; burhau > burho. Iparreko norma da, bestalde, azkeneko bokalea galdu, eta bidenabar aurreneko kontsonantea ahoskabetzea, berandu > berant.

1.5. Hitz maileguetan leherkari eta herskari(edo alboko) bikotea ezabatzen da bokale anaptiktiko baten bidez: libera, sobera, bereter, erregela, apiriko, aperiko, forogatu, koloka

("clueca"), eta abar. Batzutan, txistukari eta r artean, sinkopa gertatzen da: abrats, andre; baina fenomeno hau hedatuago dago, Zar. eta E.-raino ailegatzen baita indar handiagoz: batre, bedratzi, zra... Orduan ba, r baten ondoan nahiko maiz galtzen da bokale bat, mailegu hauetan ikusten denez: arnegatu, arbuiatu, erloi, ertor < erretor, eta mailagatuetatik aparte: artha arreta.r azken aldean ere galdu egiten da arrats > ats, atsalde.

1.6. Deklinabidean -i temazko hitzek mugatuaren marka hartzekotan [ja] dakartzate silaba bakar batetan ebakirik. /j/ gehienetan afrikaziorik gabe ebakitzen da, B. N.-eraz den bezalaxe. [j] eta [x] arteko muga Irun eta Hendaia-ren arteko dagoen bera dugu; Bera-n eta Goizueta-n [j] ebakitzen bada ere.

2. KONTSONANTEAK

2.1.*Leherkariak, /p, t, k/*ahoskabeak dira; eta hitz hasera eta bokale artean, garbiki ebakitzen dira.*Ahostunak espirantizatzen dira bokale artean, eta izatekotan desagertzera ere irits daitezke. Hasperenduak deitzen ditugu leherkari aspiratuak. Lapurteraz oszilazioa dago leherkari ahoskabe eta hasperendu artean, baina aurkakotasun fonologikorik bete gabe, ate berdin athe. Erabilera bien artean dabil, baina ez dute sekula bi hitz ezberdin bereiziko, salbuespen bat izan ezik. Hasperenduak leku finkoetan agertu ohi dira; hau da, hitzaren haseran eta hitzaren erdian etortzen denean, beti bokale edo diptongo baten ondoan, bai eta /l,r,n/ ondoren ere. Aldaera libreak dira, testuinguruak ez ditu mugatzen. Aldaera estilistikoak ez direla esan nahi du honek: phagoa, khea, thua, zakhurra, arthoa, arthatsu, aphala, gorphutza, barkha, bethatu, bakhar. Hauetariko asko hasperenduak izaten dira beti. Lafonek esaten du kaleko hizkeran hasperenduak, leherkari ahoskabe edo gor bilakatzen direla.

Ahoskabeak eta ahostunak (gorrak eta ozenak,bestela esate-

ko) zenbait lekutan neutralizatu egiten dira. Hau oso garbi gertatzen da txistukarien atzetik. Haatik ozenen aldeko neutralizaziorik ez dago, /n,l/ ondoren alegia, erraz aurki ditzakegu honako bezalako hitzak: kantatu, alki; hala-nola denbora eta jende. Olerkigintzan ba omen da oposizioa: emantu "eman ditu" eta emandu, "eman du".

2.2. Afrikari eta frikarien artean bana ditzakegu txistukariak: frikari /s/ bizkar-albeolare, /ś/ apiko-albeolare eta txetxekari bat /š/ sabakaria, "bustia" ere deitua. Hiru frikari hauek, "z, s, x" idazten dira. Lafonek honako bikoteak topatzen ditu hitz haseran: zori "suerte"/ sori "zilegi"/ xori "txori"; eta hitz amaieran apez/ apex "tximeleta"; haz, "elikatu"/ has. Afrikatuak ez dira normalki hitz haseran etortzen:/c,c,c/ salbuespen bat izan ezik: txar, eta ez zar,arruntago den forma, adiera txarrean markaturik, tzar ere badago. Hitz bukaeran, txikigarritzat har dezakegu /tx/ edo /c/, hotz/ hotx,baita belatx, uli ulutx, zorrotz/ xorrotx. Hitz haseran, frikariak ugariago dira afrikatuak baino; hitz-bukaeran, alderantziz izaten delarik n, l, r/ ondoren neutralizazioa suertatzen da Saran afrikatuaren alde (afrikazio hau ez da zeharo nabaritzen, askotan frikari antzeko soinua entzun ahal izaten baita; oso garbia dena neutralizazioa da). Hau ez da bakarrik hitzaren barruan gertatzen, hitzen artean ere bai askotan, etxean tzaudetenak, etc.

2.3. Lapurtera erdiko euskalki bat da (G. eta NB. diren antzera) eta beste euskalkitan baino bustidura gutiago ezagutzen da bere baitan. Bustidura bi kasu nagusitan jazo daiteke: inguru fonikoak determinatzen duenean, automatikoki gertaturiko fenomeno denean; eta, borondatez sortuak direnean, hiztunen nahiaz sortuak, hipokoristikoak eta haur-izenetan, alegia. Azken moduzkoak dira gehien ezagutzen direnak. Hauetariko bat /t̬/ da: sabaiko leherkari ahoskabetzat ahoskatua hitz-haseran, bokale artean eta kontsonante ondoan; ttipi, gutti (baita xipi), ttirrita ttonttor,ttotta, " aguardiente"; eta ez da beste euskalkitan bezala [č]ebakitzen. Badago dagokion ozena ere: /d̬/ andde reder, harddo; /j/ fonematik gertatzen denarekin, /onjo/ honddo. Sabaiko frikari gisa ebakitzen denean bokale artean [j] ,

ebakitzen da eta sabaiko leherkari gisa, kontsonante ondoan [ḑ] Zalantzan dago, haatik, hitzaren haseran; eta, Bonapartek dioenez, frikaria entzuten zen Donibane Garazin, baina herskaria besteetan. Nolanahi ere "j", [ḑ] edo [j] ahoskatzen da lapurteraz.

/n/ eta /l/ bustiak ikusten ditugunean, ñiñika adibidez, balio adierazkorra dute. Beste euskalki guztietan oso ugari ba dira fonema hauen bustidura, lapurterak zenbait kasutan despalatalizatu ere egiten du. Besteek botella, botilla, ollo, ollar, lloba badituzte, lapurterak berriz botoila, oilo, oilar, iloba. Maileguetan, baxenabarrerak eta aezkerak joera bera dute: ñ , ll > in , il. /i/ bokalearen ondoren, ez bide dago bustidurarik: mila, ileak, burdina, oino, eta abar. Hitz-amaieran ere ez dago. Eta hau guztia lege honen bitartez azal daiteke: "bustidura gutiago, eta handiago beronen balio adierazkorra".

Hala ere, Henri Gavelek dioenez, maileguen bidez sartzen ari dira ñ eta ll mailegu berrietan batik bat. Bustidura oso fenomeno normala da Kostaldean (cf, d'Urte Grammaire) il eta inetarako: oillarra, burdiñak, oiñetakoak, gañean, lehoñaren, egiñak, humillki , milla, illhun, gentillek.

Bai hipokoristikoetan, bai txikigarrietan betekizun nabaria betetzen du bustidurak: uli/ulli, xori/xoriño (+ño), etxe/ etxetto (+tto), gizon/gixon, zilo/ xilo, tulukatu/ ttittulikatu "seducir", llilluratu, llolloa, ñaño, ñiñikoa.

2.4. XIX mende amaieran hainbat tokitan Bonapartek dionez, h ez zen ahoskatzen, alegia, Donibane Lohizunen Ziburun, Urruñan, Behobian, Hendaian, Biriatun.Saran ere, galdu omen da dagoenekoz (edo hitz bakar batzutan gorderik, hiru zenbakian, adibidez). Arrangoitzen, berriz, bizirik dago oraindik. Hala ere, h lehen baxenabarreraz adina ahoskatzen zen orain askoz gutxiago ahoskatzen bada ere. J. Etxeberri Ziburukoak barra-barra sartzen zuen bere obretan. P. Urte-k, XVIII mende haseran, esaten baitzuen: "on le met devant et après les voyelles , et on le prononce toujours avec aspiration". Luchaire-k erakutsi duenez, erdi haroan , Baionako gaskoiek eta Aturri Beherekoek ere, f bitartez idazten zuten beren h, desagerpena nahiko berri dela adi-

erazten digu guzti honek.

/h/ textuinguru konkretutan azaldu ohi da: 1) Hitz-haseran: herri, harri.2) Bokale artean: ahalke, lehoin, ahoa. 3) Diptongo eta bokale aartean: auhen, oihan, oihal. 4) Bokale aurrean, eta n,l,r ondoren: sendar, sinhets, elhe, ilhun, orhe, erhi, urrhe, urrhats.

/h/ fonemak teinkaduraren bat jasotzen du katea mintzatuan; alegia, ez dator erakarpenezko atzizkietan, ez temaren azken kontsonante eta bokalez hasten den hurrengo atzizkiaren artekoan: bat-en, bat-i, ez temaren azken bokalaren ondoren semearen/ seme haren, ez txistukari baten ondoren. Guzti honez gainera, hiru silaba edo gehiago dituen hitz batetan ez da etortzen bigarren silabatik aurrera: edo lehengo eta bigarren artekoan, edo haseran: thu, lothu baina agertu. Bestalde, hitz elkarketan bi h gertatzen badira, atzeranzko disimilazio baten bidez lehenengo, galtzen da hau da: hil+herri > ilherri, ilhargi. Baina leherkari hasperenduen kasuan, lehenagokoa nagusitzen da: pharka, thipil, khako.

2.5. r/rr oposizioa asko aldatu da -desagertu ez den heinean frantses grasseyement dela medio; hau da, ubularizazio gertatu dela. Oposizioari eusten zaio bokale artean. Hitz-haseran ez da aurkitzen, mailegu berrietan ez bada, gehienetan bokale epentetikoa eransten zaio: arruta. Neutralizazioa kontsonante baten aurrean eta ondoan gertatzen da, hitzaren barruan implosibo-lekugunean, artxifonema /rr/ izango dugu.

Pierre d Urte esaten zuenez, r bakunak r anizkoitzaren soinua hartzen zuen ;kontsonante baten aurrean erlea, ardatza, urdea, urtha-bea. /r/ bakunak, hitzaren haseran eta amaieran, r anizkoitzaren soinua hartzen zuen, eta berean kontsonante baten aurrean gertatzen zen bezalaxe. Hitz bukaeran oposizioa neutralizatzen zen, eta eman nahi diogun enfasiaren arauera gehiago edo gutiago dardar arazten diogu.

III.-EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

1. IZENA

Izenak bi deklinabide mota ezagutzen ditu: mugatua eta mugagabea. Mugagabeko deklinabidean, plurala eta singularra bat dira; eta bokalez ala kontsonantez amaitzen den hartu behar dugu kontutan bakarrik: nominatiboa erle, ur; ergatiboa erlek, urek; datiboa erleri, uri; soziatiboa erlerekin, urekin; batzutan -n-ren ordez -la datorke erlerekila; inesiboa erletan, uretan; elatiboa erletarik, uretarik, batzutan ere -an eransten zaio erletarikan; adlatiboa erletarat, uretarat, norbaitek ez du azkeneko -t idazten (L., A., P., Gaz.); adl. bukatuzkoa erletaraino, uretaraino, -i- hori ezaba daiteke (NB. eta Z-eraz den bezala), eta -koan delako bat ezar dakioke ere, finerainokoan, azken hatserainokoan; instrumentala erlez, urez; partitiboa erlerik, urik, batzutan -an atzizki bat hartzen du, maiteagorikan; prolatiboa erletzat, urtzat. Pertsonetan zenbait kasu (inesibo, elatibo, adlatibo eta adlatibo bukatuzkoa) era honetara datoz : baithan, baitharik, baitharat, baitharaino, ganik, ganat, ganaraino.

Mugatuaren deklinabideangauzak ez dira gehiegi aldatzen. Singularrean temari (erle- edo ur-) -ari, honoko atzizkiak eransten zaizkie: nom. -a; er. -ak; da. -ari; soz. -arekin; in. -(e)an; el. -(e)tik; adl. --(e)rat; adl. b. -(e) raino; me. -az. Eta pluralerako nom. -ak; er. -ek; da. -ei (Z., NB-raz-er da datibo plurala, horregatik askotan zenbait autore lapurtarrek -eri erabiltzen du), soz. -ekin; in. -etan; el. -etarik; adl. -etarat; adl. b. -etaraino; ins. -ez. -u-z amaitutako izenak (gau, arau) kontsonantez amaituko balira bezala deklinatzen dira, hau da, parentesi arteko e hartzen dutela, gauean, arauera, eta abar.

Deklinabideak hiru gradu baditu, oso arrunta da -o-z deklinaturikoak topatzea: guziok, beror, arratsaldeon, zahartzeon, egunon, akabatzeon,duzuenoi.

Izen propioetan: nom. Sara, Martin; er. Sarak, Martiñek; da. Sarari, Martini; soz. Sararekin, Martinekin; in. Saran, Martinean; el. Saratik, Martinetik; adl. Sarat, Martinerat; adl.b. Sararaino, Martineraino; ins. Saraz, Martinez. Errege hitza izen propio bezala tratatzen da. Bai eta aitaso, amaso, amabitzi, semebitzi, alabibitzi. Zenbait izen, -ba, -da, -ga, -ka, -la, ma, -pa, -ra, -za, -sa, -ta bukatzen direnak (egia, aita, ama, anaia, arreba, ahizpa, osaba, izeba, etc) izen propioen deklinabide bera dute, Sara kasuarena hain zuzen.

Ttikigarriak sortzen dira -tzo, -tto atzizkiak eranstean. Baina d, l, n, z, s, t, letrak daudenean, bustiduraren bitartez gauzatzen da ttikigarria burddin, ulli, mañdo, xakhur, xagu, ttipi. Gero eta gehiago erabiltzen dira ttikigarriak, askotan beren muntazko balioa galduz: ixur, axeri, baratxuri, gaixto.

2. ADJEKTIBOA

Alde batetik nolakotasunezko adjektiboak ditugu: handi, zuri modukoak, eta izenak zuen erabilpena beradutenak; eta beste tik, eratorrizko adjektiboak, zeinak bi mota nagusitan bana baitaitezke: erlatiboetan eta edutezkoetan.

Erlatibozko adjektiboak -ko atzizkiren bidez sortuak dira: belhauneraino/ belhaunerainoko. Deklinabidezko zazpi kasutan sortzen dira erlatiboak: soziatiboan, inesiboan, elatiboan, adlatiboan, lehenaldiko infinitibo deklinagarrietako. Zenbait gertakari jazotzen dira, eufonia dela medio: soziatiboan -n-ren ordez. -la hautatzen da urarekin/ urareki-la-ko, urekin/ ureki-la-ko (hala ere zenbait idazlek, A., P., ez dute -la markatzen: elkarrekiko, adibidez, eta ez elkarrekilako); inesiboan, singularrezko -an eta pluralezko -n, galtzen dira: urean ureko,uretan, ure-

tako; elatibo eta partitiboetan -a-epentetiko bat gauzaten da: uretatik-a-ko, uretarik-a-ko; eta azkenik, adlatiboetan, -e- bat: urerat-e-ko, uretarat-e-ko.

Edutezko adjektiboak, gaingiroki esanda, ergatiboarekin loturik bezala daude; ergatiboak -k aurretikako letra badaduka, orduan -k-ren ordez -n bat jartzen diogu, Mikelek/ Mikelen, ardiek/ ardien, eta -e-rik ez badaduka orduan -k-ren ordez -ren eransten diogu, Patxik Patxiren, ardiak/ ardiaren , hirik/hiriren. -e- organikoa bada, hitza bigarren atalean sartu beharko genuke, emaztek/ emazteren. Ikus dezagun nola ager daiteken prolatiboa: 1) Nolakotasunezko adjektiboek eta izenek,prolatiboan adiera mugagabe dute, urtzat hartu dut. 2) Erlatibozko adjektiboek, leku-denborazko adiera, urekotzat hartu dut. 3) Eta edutezko adjektiboek interesezko adiera, urarentzat hartu dut. Bigarren kasuan -at (eta baita -tzat) ken daiteke, ezer guti galduz:gizona sortzen da trabailuko, eta hegaztina aireko, trabailukotzat, airekotzat; bethierekotz, gerokotz. Berdin dugu hirugarren kasuan: izanen du bere eta bertzeren, -tzat kenduz (beretzat eta bertzerentzat), noren ari aiz =norentzat... Edutezko kasuan -tzat, -tako-z alda daiteke: gizonarendako, guretako.

3. IZENORDEAK

Hauen deklinabidea ez da izenarenetik erruz alderatzen. Autore batzurengan zuik nom. eta zuek er. bereizten dira, baina ez denetan (L., A., C.). Honela deklinatuko genituzke: nom. hi, zuik; er. hik, zuek; hiri, zuei da.; soz. hirekin, zuekin; in. hitan, zuetan; el. hitarik, zuetarik; adl. hitarat, zuetarat; adl. b. hitaraino, zuetaraino; ins. hitaz, zuetaz. Orain -tzaz Zubereragoa ikusten da, baina lehengoko idazleetan maiz eta maiz dator.

Ezagunak dira ere ene-bitartez erakarriak: eni, enekin, etc Mendebaleko forma ugari mailegatu dutela dirudi; heurea hala nola Neurea, zeurea, geurea (A., C.). Nom. bera/berak; er. berak/ berek. Lehengo autoreek berea zioten eta ez berena (P., D., A.,

C.)

Erakusle diren izenordeak hiru dira: haur, hori, hura; hunek, horrek, harek; ergatibozko formak eta ondorengoak paradigma bera dute. Pluralerako: nom. hauk, hoik, hek eta hauiek, hoiek heiek. Ez dute autore guztiak haur idazten, (-r gabe Gaz., E., Lar.,); harek-ren ordez (L., A., C.) hark eta orobat: hauiek-haukiek, hoik-horiak (L.) horiek (A., C., H.); hoiek-(lehengo idazleak, L., H., C., D.) horiek; hekiek- heiek (D).

Intentsio formak lortzen dira erakuskeak erantsiz (personez ko izenordeei): nihaur, nihaurrek -aldaera mordo bat daude: nerör (A., H.), nerori (D.), nerorrek(A., H., C.)-, hihaur, hihaurrek -eta heuren aldaerak heror (H.) herori (La.) herorrek (H., G., I.),euror (L.), eurorek(L.), herori (Van Eys) eta heronek (Har.); zuhaur, zuhaurek- eta zeror (H.), zerori (A., C.), zerorrek, zeroni, zeronek; guhaur, guhaurek -eta geror (H.), gerori, gerorrek (H., C.), geuror (L.), geurorrek (L.), geroni (Van Eys), geronek (C.); zuihauk, zuihauek- eta zerok (A.), zebok (H., Har.), zeboek (H.), zeurok (L.), zuhorek (H.), zeboni, zebonek (Har.), zuok, zuoek (P.). Nihaur, eta haur-en bitartezko sortuek hi-ren deklinazioa dute; zuihauk, zuik bezala. Hirugarren pertsonak baditu honako formak: beraur, beraurrek -eta beror (A.), berori(P.), berorrek (Lard.); beuror, beurorrek, beroni, beronek-; pluralerako berauk, berauek -eta berok (La., Lard.)-.

Intensio erakusleak erraz sorterazten dira erakuslei bera (ur) iratxikituz: haur bera, hunek berak, eta abar. Badaude zen bait aldaera, alegia: hauiek berek-- hauk berok (L.), huen berarena-hunen beraurrena, hauien berena-hauien berauena.

Izenorde erlatiboak deklinaturik ere izan ditzakegu, zeinzeina-zoina eta zeinak, zeinek.

Izenorde mugagabeak: bata, batak, batzu-batzuk (A.), batzukbatzuek; bertzea, bertzeak, bertzeek; asko; banaka; batere, batre; gehiago; gutiago; sobera, sobra (C., D.); batbedera; frango; guti; oro, dena (azken hau gero eta gehiago erabilia); bakhar; deus; bakhoitz; hainitz, hanhitz (A.,), anhitz (L., A.), hagitz (L.,A.,P., C.), Zentzu mugatu batez erabiltzen baditugu

izenorde mugagabeak orduan izenen deklinabide beraz deklinatzen ditugu: gutia, bakhoitza, bakharra, guziak (pl.). Haina, izenorde mugagabeak izen propioen -bokalez bukatuzkoen- deklinabidea hartzen du.

Galdetzaileak: nor, zein, zer eta bere eratorriak nehor, nihor; noren, nehoren; norbait, norbeit; nor nahi; nor ere; nehor ere. Lehen nor deklinatzen zen bakarrik konposatu hauetan, nori nahi, nori ere; baina nornahik eta holakoak topa daitezke. Nor izan daiteke bera izenordeaz edo berea edutezko adjektiboaz jarraitua. Adjektiboz jarraitua badago, nor da deklinatzen dena: nork bera, nori brea; ez aitzitik izenordeaz segiduaz dagoen kasuan: nori bera etc, Galdetzaileen zerrenda luza daiteke erraz, zeren zein/ezein, zer/ ezer, noiz/nehoiz, non/nehon, nola/nehola baitituzte heuren eratorri franko, nor izenordearen jokabide beraz.

4. ADBERBIOAK

Denborazko adberbioak, noiz eta beronengandik eratorritakoez aparte, asko dira: ja, atzo, behiala, etzi, orai, aspaldi -aspaldion aspaldian, inesibo kasuan- barda, bethi -bethi ere-, etzidamu sarri, aurthen, egun, herenegun, oroztion, bihar, gaur, jaz, lehen.

Lekuzko adberbioak: huna, horra, hara, eta berengandik ateratakoak: horraindia, haraindia, hunaindia. Eta beste hainitz dugu: non, nondik, norat, noreraino; nehon, nehondik, nehorat, nehoraino; nondik nahi, norat nahi, noraino nahi; hemen, hemendik, hunat, huneraino; eta beste bezain beste hor eta han-dik ateratzen ditugunetarako. Inesiboan zenbait adberbio dugu ere: aitzinean, aldean, barrenean -egun gehienek barnean nahiago dute-, beherean, erdian, gibelean, ondoan, azpian, artean, bazterrean, buruan, gainean, hastean, orduan. Hauetarako ere deklinabidea erabil dezakegu eta aitzinetik, aitzinerat (" aurretik" eta "aurrera" esango genuke beste euskalkietan), eta gibeletik, gibelerat ("atzetik", atzera"); batzutan aitzinat eta gibelat

topa daitezke ere.

Moduko adberbioak: nola galdetzaileari erantzuten diotenak, hunela, hula (D.); horrela, horla (C.), hala. Asko dira ere -ki bidez sortzen direnak: emeki, eta abar. Gero ere zenbatasunezkoak daude: hunein; horrein, hoin; hain; hunenbat; huneinbertze eta abar.

ADITZA

Lapurtera, aditzari dagokionez, nahiko plegukarria da. Lau moten arteko diferentziak ez dira oso nabarmenak. Desberdinena Arrangoitzeko mota dela esan behar. Beste hirurak, nahiko berdinak dira.

Bestalde, Uztaritze eta inguruko herrietako adituak lapurtar ñabardura dexentea du. Kontutan hartu hizkera hau NB. gisa hartzen dugula.

1. Hitanoa erabiltzen da, baina zutanoa (begirunezko tratamendua) ez. Azken hau NB. eta Z. erabiltzen da soilik.

2. ADITZ TRINKOAK

Ezaugarri batzu:

- Z-, L- ondoren, modernoek aditz erroaren lehen hizkia al datzen dute, a jarriz. Ad. zeraman zaraman.

- zki pluralgilea aditz erroaren ondoren doa. Zki honen ordez tza ere erabiltzen da. Ad. dakitza (=dakizki).

- Aditz erroa -K, -L, -Z, -S bukatzen bada, bukaeran -A eransten da. Ad.

eduk	daduka
ebil	dabila
ikus	dakusa

2.1. INTRANSITIBOAK

EGON, JOAN, EBIL, ETHOR, JARRAIK, ETZAN ....

NOR-NORI formetan. NORI 3. pertsona singularra ez denean, adizkiak -KI- gabe agertzen dira.

Ad. dagot, doat.....

2.2. TRANSITIBOAK

Gaurregun soilik JAKIN, ERAMAN, ERABIL, EDUK, EKHAR.... aditzen forma sintetikoak erabiltzen dira.

EGIN, EMAN, IKHUS, ERRAN, ENZUN, EZAGUT... aditzak Axular eta Leizarragaren garaian erabiltzen baziren ere, gaurregun aditz perifrastikoa erabiltzen da sintetikoaren ordez.

3. ADITZ PERIFRASTIKOA

3.1. ADITZ NAGUSIA

a) Sustrai infinitiboa

Ondo gordetzen dute; AURTIK, EDUK, JARRAIK, IHARDUK... aditzetan ere.

b) Geroaldiko infinitiboa

Infinitibo hau eratzeko, nahikoa da iraganaldiko infinitiboari -REN eranstea.

Ad.	ase	aseren
	ezarri	ezarriren

Dena den, autore gehienek -KOz eratzen dituzte.
Salbuespena: sustrai infinitiboa eta iraganaldikoa -N bukatzen direnean -EN eransten dute.
Ad. jan janen.

c) Izan da / Ukhan da

Hauen erabilera Axularren eta Leizarragaren garai an bereizten zen, eta egun ere Z. eta NB. bereiz ten da, baina L. nahastu egiten da, IZAN jarriz UKHAN-en ordez.

Ad. izan du ("ukhan du" ordez.)

d) Infinitibo deklinatuak

1. Orainaldiko infinitibo deklinatua.

ADLATIBOA. Aditz batzuk (utzi, joan, etorri, igorri, etab.) eskatzen dute kasu hau.
Ad. etzaitu galtzera utziko.

Oharra: infinitibo deklinatu honen osagarri zu zena bada, genitibo posesiboaren mugatuan jar- tzen da eta osagarria mugagabea bada, nominati bo mugagabean.

Ad. badoa sagarraren biltzera
badoa sagar biltzera

2. Geroaldiko infinitibo deklinatua.

PROLATIBOA: -TZAT. Bi adiera:

1) Helburua, Ad. entzutekotzat.
Prolatiboa ager daiteke ere -AT gabe.

2) "mientras que, hasta que"; "tant que";
Ad. heltzekotz.

3.2. ADITZ LAGUNTZAILEA

A) IZAN

NOR motakoak

1. Infinitibozko orainaldia.

NAIZ, HAIZ, DA, GARE, ZARE, ZARETE, DIRE.

Noski, bariante asko dago. Bestalde, hizkera mintzatuan ga gare, die dire bezalako laburdurak normalak dira.

2. Geroaldi arkaikoa.

NAIZATEKE
HAIZATEKE (autore batzuk -KE gabe)
DATEKE

XVIII. mendearen ondoren DATEKE (eta ZATEKEEN, LI ZATEKE ordez).

NOR-NORI motakoak

1. Indikatibozko orainaldia

3. pertsona pl.: zaie / zaiote

-GU KU : zaiku

-ZU,-ZUE -TZU, -TZUE: zaitzu, zaitzue.

Alokutiboa: ziaiok/n, ziaikuk. Autore modernoek -i- hori gabe: zaiok/n.

B) EDIN

XVI. mendetik aditz infinitiboen laguntzailea da. Batuaren antzeko formak erabiltzen dira. Diferentzia txiki batzu daude. Ad. NOR-NORI ahalezkoa:

DAKIKEO (batuan DAKIOKE)

C) UKHAN

NOR-NORK

1. Indikatibozko lehenaldia

GINUEN
ZINUEN (beste batzuek: GINDUEN
ZINDUEN)

Gauza bera gertatzen da beste modu eta denboretan.

NOR-NORI-NORK

1. Indikatibozko orainaldia

Autore klasikoek:

DERAUKO / DERAUZKIO (bat. DIO / DIZKIO)
DERAUKOT / DERAUZKIOT (bat. DIOT / DIZKIOT)

ERAU ordez ere: ARAU, RAU, ARA, ARO, ERAI, ERO, AU. Egun azken hau (AU) da erabiliena.

Ad. DAUT/DAUZKIT ; DAUKU/DAUZKIGU...

Baina, Ithurryk dionez, XVII. mendearen azkenean gipuzkeratik datozen forma batzu sartu dira lapurteran. Forma hauek NORI 3. pertsona (singularra zein plurala) denean agertzen dira.

Ad. DIO / DIOTZA (DIOZKA)
DIOTE / DIOTZATE (DIOZKATE)

D) EZAN

XVI. mendetik infinitibo erroen laguntzailea da.
NOR-NORK. Batuan bezala, gutxi gorabehera.
NOR-NORI-NORK

1. Subjuntiboa.

a) Orainaldia: DIEZON / DIETZON
DIEZADAN / DIETZADAN
b) Lehenaldia: ZIEZON / ZIETZON
ZIEZADAN / ZIETZADAN

2. Ahalezkoa.

DIEZAKEO / DIETZAKEO
(Batuan NORI-ren marka KE aurretik)
Beste modu eta denboretan berdin gertatzen da.

E) IRO (baxenabarreraz eta zubereraz erabiliago)

Laguntzailea da, eta perifrastiko transitiboa sortzeko balio du. Infinitibo erroekin erabiltzen da. Beraz:

DIRO = DEZAKE

4. ADITZARI LAGUNTZEN DIOTEN PARTIKULA BATZU

AGIAN: desio bat adierazten du.
Ad. agian gibelatuko dire.

BALINBA: desio bat, esperantza. Ad. ez balinba

EIKI: itxura denez, dudarik gabe. Ad. ez, eiki, eztakit.

OXALA: (esp. ojalá). Baldintzarekin.
Ad. oxala hartan bazine.

OTHOI: mesedez. Ad. erradazu, othoi.

5. BEREZIKI LAPURTERAZKOAK DIREN ADIZKI BATZU

Ondoan datozen adizki guztiak indikatibozko orainaldikoak dira. Ia gehienak ZUKAko formak, alokutiboren bat sartzen dugun arren.

5.1. NOR motakoak

1) zu: L- ZARE, ZARA (azken forma hau NG. eta B.ere)
2) zuek: L- ZARETE, ZAIZTE.

5.2. NOR-NORI motakoak

1) Gu hari: L- GAIZKO (NG. gaizkio)
2) Zu hari: L- ZATZAIZKO (G-Tolosa: zatzaizkio)
3) Zuek hari
Zu haiei L- ZATZAIZKOTE
Zuek haiei
4) Haiek haiei: L- ZAIZKOTE (NG. zaizkiote).

5.3. NOR-NORK motakoak

1) Hark ni (alokutiboa): L- naik, niaik.
2) Zuek hura: L- DUZUE

5.4. NOR-NORI-NORK motakoak

1) Hark niri NOR(sing.): NAU; DAUT
Forma zuzena (DAUT) NB osoan erabiltzen da.

Alokutiboa: f. gaiztoa: L- NAIK, NIAIK
f. zuzenak: ZOOTAK, ZATAK, ZAUTAK, DATAK
(azpimarratutako formak L- soilik).

2) Hark hari NOR(pl.): L- DIOZKA, DIOTZA
Alokutiboa: L- ZIOZKAK, ZIOTZAK

3) Haiek hari NOR(pl.)
Hark haiei NOR(pl.) L- DIOTZATE
Haiek haiei NOR(pl.)

4) Zuk haiei NOR(sing.): L- DIOZUTE

5) Zuek haiei NOR(sing.): L- DIOZUETE

6) Zuk hari NOR(pl.): L- DIOTZATZU

7) Hark zuei NOR(sing.): L- DAUZKITZUE

6. GAIZKI ERABILTZEN DIREN FLEXIO BATZU

6.1. Gorago zeharka aipatu dugunez DAUT esan beharrean NAU esatea hizkera gehienetan gertatzen da. Nahaste hau Bo napartek aipatu zuen. 1.920 inguruan Odon de Apraiz-ek ere bai. Eta gaurregun ere horrela jarraitzen du. Nahasketa hau Donibane-Lohizune inguruan dago hedatuen. Beste toki batzutan forma biak erabiltzen dira, zuzena zein gaiztoa.

Yrizarren koadro honek garbi adierazten digu erabilpen gaizto hauen gaurko egoera:

	Hark niri NOR (sing.)		Hark nir NOR(pl)	
	ZU	Alo.mask.	ZU	Alok.mask.
DONIBANE L.	NAU	NAIK	NAUZKI	NAIZKIK
URRUÑA	HAU	NAIK	NAUZKI	NAIZKIK
GETARIA	DAUT	NAIK	NAUZKI	NAIZKIK
AZKAINE	DAUT	NAIK	NAUZKIT	NAIZKIK
ZUGARRAMURDI	NAU	NAIK	NAUZKI	NAIZKIK

6.2. Aditzaren datibozko formak galtzen ari dira. Beraz, in transitiboetan NOR motakoak eta transitiboetan NOR-NORK motakoak nagusitzen ari dira.

Adibide hau, azkenean datorren transkribaketatik hartu dugu:

"... lotuko ZIEN eskolai, frantsesai eta denai..."

IV. SINTAXIA

5.1. IZEN SINTAGMA

5.1.1. DETERMINANTEA.

ZENBATZAILE ZEHAZTUGABEA: zenbatzaile zehaztugabeak izenaren eskubitara doaz. Adjektiboa baldin badago, honen ondoren. Halere, HAINITZ, ASKO, FRANCO, DEUS, ZENBAIT izenaren ezkerretara zein eskubitara joan daitezke.

Ad. bada asko lur mota

- BATERE eta DEUS-ek partitiboa eskatzen dute.

Ad. hunek eztik deus gaizkirik egin.

5.1.2. IZENLAGUNA.

-EN eta -KO atzizkien bidez:

- Izenlaguna, kasu hauetan, izenaren ezkerretara doa.

Ad. Jainkoaren ontasuna; ifernuaren beldurra; zeruko loria; burdinazko ezpata.

- Esaera batzutan, -KO atzizkiaz osatutako izenlagunak izenaren eskubitara doaz.

Ad. aita-familiakoa; oi, Ama zerukoa; ama besoetakoa, aita besoetakoa.

- KO atzizki honek posibilitate handiak ematen ditu, edozein adizlaguni erants baitakioke, izenlagun bihurtuz. Ad.

Ad. Baionarako bidea (hara doana)
Baionatikako bidea (handik datorrena)
Baionako bidea (handik pasatzen dena)
Enekilako denbora luze iruditzen zaitzu.

5.2. ADITZ SINTAGMA

5.2.1. ADITZAREN MULTZOA.

A) NOR Izen Sintagma.

ISnor aditza forma nominalizatuan izan daiteke eta normalki nominatibo singularrean.

Ad. hitz-eman du joaitea.

Behar ukan, nahi ukan aditzekin ISnor-k aditz nagusiak duen sujeto berbera badu, orduan partizipioaren nominatibo mugagabea erabiltzen da (eta ez infinitibo nominala).

Ad. behar dut, nahi dut irakurtu, eta
nahi dut bertzek irakurtzea.

B) NORI Izen Sintagma.

Honako aditz hauek datiboa eskatzen dute: JARREIK, LOT, URRIKAL, OLDAR, OHART, BEHA, EMAN, HAS, ABIA, SEGI, ARI IZAN...

Ad. Izarrei beha darama denbora
Hasi zen bere sailari.

Badaude datiboa eskatzen duten aditz batzu, baina ez beti. Bi mota:

1) Forma aldatuz, zentzua aldatzen ez dutenak.

Ad. segitu nitzaio, segitu dut.
norbaiti lagundu diot, norbait lagundu dut.

2) Forma aldatuz adierazia ere aldatzen dutenak.

Ad. lotu zaio ≠ lotu du
kausitu dio ≠ kausitu du

C) ADIZLAGUNA

I) TOKI ADIERAZLEAK

- INESIBOA, ADLATIBOA, ABLATIBOA bizidunekin:

INESIBOA: izena + baithan

Ad. bada gizona baithan indar bat *arima deitzen duguna;*
ni baithan.

ADLATIBOA: izena (genitibo posesiboan) + baitharat/ganat. Ad. zoazi aitaren ganat; zu ganat.

ABLATIBOA: izena (genitibo posesiboan) + baitharik/ganik. Ad. zure baitharik atera duzu, aitaren ganik heldu da.

- Non zehar pasatzen den adierazteko:

a) Inesiboa + gaindi edo barna

Ad. mendietan gaindi; itsasoan barna

b) Inesiboa, datiboa + gora, goiti, behera, beheiti.

Ad. mendian gora, mendian goiti,
mendiari gora, mendiari goiti.

c) Esaera berezi batzuren bidez:

bururen buru; burutik buru; alderen bertze.

II) DENBORA ADIERAZLEAK

- Data adierazteko

Nahiz gehienetan INESIBOA erabili (euskalki guztietan bezala), SOZIATIBOA ere erabil daiteke.

Ad. igandearekin

- Denboraren aldizkatasuna

ABLATIBOAREN bidez.

Ad. zortzitik (elipsia dago: zortzitik zortzira), ilhabetetik.

- Aurreko edo geroko denbora

a) GABE, BURUAN posposizio bidez.

Ad. hiru urthe gabe; bi urtheren buruan.

b) Esaera hauen bidez: hemendik zortzian; hemendik goiti; egun zortzi.

c) Zenbat denboratarako? galderari honela erantzuten zaio:

Ad. bi egunEN, bi egunENTZAT jina da.

- Ordua adierazteko esaera batzu

Ad. Zer tenore da? Bi orenak(biak) eta laurden. Zer tenoretan? Zonbat orenetan? Hamar orenetan xuxen; hamarrak irian.

Oharra: TENORE: ordua adiera orokorrean adierazten du. OREN: ordua neurtzeko unitatea. (= c. ordu)

5.3. *PERPAUS SUBORDINATUAK*

5.3.1. SUSTANTIBOAK

1) ZEHARGALDERA

Aditzak -EN atzizkia darama.

Ad. ez dakit jinen den.

Baina -ÊN atzizki hòrri -ETZ erants dakioke.
Ad. ez dakit jinen denetz.
Gainera, sarrera partikula bat (ea, eia) har dezake zehargalderak: ez dakit eia jinen denetz.

5.3.2. ADJEKTIBOAK.

1) PERPAUS ERLATIBOA.

Erlatibozko perpaus subordinatu ez "murriztaileak" egiterakoan maiz erabiltzen da:

ZEIN izenordea(deklinatua)..., aditzak BAIT-aurrizkia.
Ad. zeina Aita eta Semea-ganik iraulgitzen baita.

5.3.3. ZERTZELADAZKOAK.

1) MODALAK.

Aipatzekoa da joskera hau:
aditza + -naren (n + a + posesiboa)+ arabera.
Ad. eta azala idortuz dihoakonaren arabera ura ere azpitik gora iganez dihoako.

2) KONPARATIBOAK.

- HAIN...NOLA

NOLA daraman esaldiaren aditzak BAIT aurrizkia hartzen du. Baina, sarritan, aditzaren elipsia egin ohi da.
Ad. Hain harrigarri aurkhitzen dut har bat pinpirin bilhakatzea, nola hil bat berriz phiztea.
Ad. nola bizi, hala hil.

- Beste modu bat, aurrekoaren antzerakoa: HANBAT...NOLA.

- Beste era batzu:

ZENBATENAZ...HANBATENAZ
ZENBAT ERE...ETA
ZENBATEZ ERE...HANBATEZ
etab.

Aurreko kasu hauetan lehen esaldiaren aditzak BAIT aurrizkia hartzen du. Eman dezagun adibide bat:

Zenbatez ere gehiago xukhatzen baita hanbatez gasna hobea izanen da.

B) MODUZKOAK.

-NOLA...HALA

Esaldi subordinatuak (NOLA juntagailua daramanak hain zuzen) aditzaren urretik BAIT aurrizkia darama.

Ad. Nola belhar bustiak hantzen baititu, hala etzauntza bustiak ditu eritzen.

3) FINALAK edo HELBURUZKOAK.

- Aditzak (laguntzaileak zein forma nominalizatuak) -TZAT atzizkia har dezake:

Ad. soineko xuritan ager nadientzat.
lan hori ontsa egitekotzat, ez da gai edozein gizon.

- amoreagatik + subjuntiboa

Ad. amoreagatik zure ikuskari ederra ez dezadan utz alferretan erortzera.

4) KAUSALAK

- BAIT- Ad. eri baitzen, ez da etorri.
Sarrera partikula izan dezake; ZEREN, ZEREN ETA.

Ad. ez dut onhartzen, zeren ez baita fede onekoa.

- ZEREN, ZEREN ETA + -EN

  Ad. zeren libertatea zein eder den.

5) BALDINTZAZKOAK.

- Aditz nagusia + T(Z)EN eta ez -KO.

  Ad. (...) baina nihork ez luke hekietaz axolarik hartuko, baldin bortxaz eginarazten ez balira.

- NON EZ + -EN

  Ad. Hurraren olioa ez da hain ona non ez den argitako.

  Ad. ez dauiat barkatuko non ez haizen urrikitzen.

VI. TRANSKRIBAKETA FONETIKOA

EUSKALKIA: LAPURTERA

MINTZATZAILEA: DELPECH (SARAKOA)

1. guk emem baďuu eśkwaṙƀat.
2. estakit.
3. minco gaa oi̯no ai̯nic.
4. gero gastiak ere sembeite(k) paute.
5. oi̯no gośtua mincaceko.
6. bai̯nan au̯ṙ oi̯tan espalimaďa ikaśtolik.
7. śeg̱uṙ nai̯s amaṙ uṙte g̱aƀe
8. śarako gastiek estute gei̯o eśkwara yakinen.
9. sembat familietam beretan.
10. ara, eṙai̯n docut.
11. nere aďineko ai̯nic gison, baďie
12. geṙla oṙtan alemanian eg̱on diena(k) pṙeśo.
13. ni-re-ƀa
14. guau̯ṙ demboran eśkwara mincosen askaṙki emen.
15. fṙańćeśa, bakisu, guti mincosen.
16. seren eta, ikuśteďusu, baśeṙiak emen uṙun die, aṙaś uṙun.
17. orembat eta biďeƀat beaṙsutela ai̯nic au̯ṙek.
18. goi̯setan saspi orduak saspiak saspik eteṙditan̯ gan.
19. eta soṙci oi̯netan ai̯leacencien eśkolat.

20. eta gai̯šoak au̯ŋgi unatuak.

21. yakincasu

22. eśkolat ai̯leatu eta gootik.

23. beȓicetable eđo gȓamaȓ eta oi̯k aȓceko paȓtes.

24. śeg̱uȓ gatiluƀat šokolateźne bero ƀerua irei̯kosuteŋ gootik.

25. eta eg̱om beaȓƀa oren lau̯ȓđenćuƀat pau̯śaceko.

26. gero ispitua eȓneik lotukosien eśkolai, fȓanćeśai eta denai

27. bai̯nan maluruśki espai̯cen olakoik

28. oȓđwan se geȓtacencen

29. gai̯šoak etoȓcencien unatuak

30. emen, plasa iŋgurin au̯tam basien.

31. eta kaȓikako mutikoak ispitua eȓne suten

32. og̱etik eldu sien.

33. ispitua iđekia suten.

34. bereala gȓamatika eđo fȓanćeśa eđo multiplikasio denetako

35. ta gai̯šoak etoȓcenciem beem baśeȓietaik.

36. eta ilai̯teƀateteȓđi eđo bi ilai̯tei̯m buruan

37. ćaȓcencien eciela on śeg̱iceko baśataȓ mutiko gastek

38. eta oȓđwan sei̯tencuten, geldicencien fȓanćeśai.

39. indaȓi(k) gejo ecuten iten

40. minco suten fȓanćeśa uŋgi eđo gai̯ski

41. oƀeki uŋgi bai̯no

42. eta oȓđwan eštencien fȓanćeśai

43. se geȓtacencen

44. bweno, eldusen śoldađuko ađina

45. basoacin eśkwaldunoi̯k oȓ fȓanciako eta eȓešimendu oi̯tat

46. eta sembei̯tek śofȓicencuten piśkat

47. bai̯no beȓceacuk elkaȓetacencien ta bo.

48. ustencuten aldeƀat.

49. iři itencuten denetas

50. eta fřanćeśek, bacutan, nai̯ suten eśkwaldunes iři in

51. kompřenicen̯su

52. gero, oi̯, uřte ƀaten afera seec

53. eceŋ gau̯sa au̯ŋ́dia.

54. bai̯naŋ ɡero ɡeřla etoři ta alemanirat gaŋ́dielai̯k gai̯šo(k) přeśo

55. balimasien eśkwaldun aŋ́danat elkařekin

56. bai̯nan maluruśki basien ai̯nic

57. eta ƀat eđo ƀi pariśtař, buřdeleś, lioŋgo

58. oi̯k isaten nořteko ɡisonak

59. ei̯ekin śweřtacencien

60. fřanćeśa ɡuţi sakiten

61. alemanik (i)ŋ̌ok ecakiem bate

62. eta seřnai̯ śofřitunte ai̯nic mutikooi̯ek

63. eta eřai̯n docut

64. nik śweřte isatu nitun

65. baɡina ameka eśkwaldun elkařekin

66. eta letřak hiru ilai̯teim buruan aśiɡineŋ gure ƀerien iɡořcen

67. bisi ɡinela ta ɡure familiai̯

68. bweno, eśkwaras ai̯nícek itencitustem beren leřuak beren ečerat

69. eta lenbisiko amaƀořc eɡunem buruko suřik

70. papelaeŋ gai̯nean aśki eśkřiƀatuas suřik

71. eśkwaras mincacia estutela onařcen

72. beřcela fřanćeśes in ica

73. eta letřak beř ciela iđasi fřanćeśes

74. gai̯šoek ai̯nic śofřituute

75. bakisu, sure bar̄neko ƀer̄i er̄ateko nor̄ƀai̯ti non estema šir̄ ƀat ona.

76. lembisian, bakisu, estusu er̄ai̯ŋ gison ace ƀati.

77. ai̯škide ƀati bai̯, bai̯na ace bati, esau̯cen estusum bati

78. estiosu ƀioca iđekiko er̄ateko.

79. iśkr̄iƀatuko điok au̯ nere emasteɡai̯ai̯

80. edo eśkr̄iƀatuko điok au̯ nere andr̄iai̯

81. oi̯ gau̯sa bor̄tica(k) tie

82. ta ai̯nic śofr̄ituute mutikooi̯ek

83. eta sembei̯t alde ƀatetik

84. etor̄i đielai̯k ečeat, er̄atencuten ai̯nicek

85. isatem balimai̯ţiat umeak

86. esituk ni ƀesin aśto isai̯n iskuncaeŋ gaŋ̌ean

87. eta nai̯ isateu̯te au̯r̄ek fr̄anćeśa ikaś desaten

88. eta oŋgi bai̯no oƀeki iteko aur̄tik tikitik aśi dielai̯k au̯ŋ́dicen

89. noŋ́dik icinencioten eśkwaras betiđanik iŋ́ dem besala

90. bereala aśi đie fr̄anćeśes iceɡiten au̯r ţipieri

91. isaŋ́ desaten ţiki ţikitik uśai̯a fr̄anćeśai̯n ikaśteko

92. bai̯nan, se fr̄anćeś

93. se fr̄anćeś mincacencuten

94. gai̯šoek ecakiten uŋgi

95. gu ţikia(k) ginelai̯k eta eśkolat etor̄ceŋ ginelai̯k

96. baɡinum er̄ieŋ́taƀat eta eśkwalduna sen

97. arek er̄atencukun

98. sembei̯tek, bakisu, nolai̯satem bai̯suten fr̄anćeśes

99. eta ƀeren ečetam piśkat mincatu

100. er̄atencioten

101. bea sasue mutikoak, nik er̄ai̯n docuet, gau̯saƀat.

102. ečean minca saiste burasoekin eśkwaras
103. frańćeśa ucasue nerecat
104. nerekin ikaśikousue frańćeśbat ona
105. eta es eta frańćeś baśtartabat
106. ečean aśkok mincatukousuem besala suem buraśoekin
107. gaišoek estakite ungi frańćeśa
108. ordun uci frańćeśa nerecat
109. eta emasue eśkwaras suen ečetan
110. ara, oiše gertatuda gerlatik etoris geos ainic familietan
111. buraśoe(k) berek emateko guśtubat frańćeśari burus aśi die eiekin frańćeśes icegiten.
112. eta pitakapitaka, bakisu se arcen den
113. ikuśteusum besala eldu dire ečeat
114. oai aśia(k) tie radio frango eśkwaras
115. baina oai artio radio gusiak frańćeśes
116. irakurgai gusiak frańćeśes
117. telebisionia dena frańćeśes
118. ordduan eldu da frańćeśa(k) kolpacencuen eśkwara
119. eta aurek askenean ecuten geio eśkwarik iceiten
120. oai, bearik, ikaśtola(k) badie
121. eta nere ečean berean ikuśteut
122. baitut eta hiru śeme
123. eta hiruetai(k) bia espośatu die neśka eśkwaldunekim
124. bainako ingurukoak
125. eta eiek e aancia suten eśkwara
126. ecuten geio minco ta
127. aurak etori dielaik
128. mutikoek, nee mutikoek, eratenioten nik

129. aq̧ian eta au̯r̄ au̯kiei̯ erakuśiko điosue eśkwara

130. eta ƀai, nai̯ nuke ƀa, bei̯ra, nola ic eq̧in, nola ic eq̧in

131. gu minco ƀai̯ q̧a yau̯naṇdria(k) beti fr̄anćeśes.

V. LEXIKOA

Ehundaka dira lapurterazko hitzak. Gehienak teknikoak (nekazaritza, abeltzantza, zoologia, botanika... sailetakoak). Hemen ez ditugu hauek ezarriko, bestelako batzu baizik.

5.1. LAPURTERAZKO HITZ BATZU

ABENIKO (= antolatze)
ABURIN, HABUIN. AHORIN (= apar, hagun)
ADINEKO (= garaikide)
AHAKAR (= hasarraldi)
AKATS (= zikin)
AIERU (= 1) "conjetura conjecture
2) begikeinu)
AIKI (= nonbait)
AINTZE (= ordu)
ALDERANTZIZ
ALIATU (= gorde, izkutatu)
ANGORO (= aurrerantzean)
ARATZ (= eder, distiratsu, garbi)
ARRANO (= SAI ere adierazteko)
ATZAIN (= eskuzabal)
BARNE (= ere)
BEATZ (= atzazal)
BETALASTO (= betile)
BIHOTZARI EGIN (= animatu, adore eman, bihotz eman)
BIHOTZO (= adoretsu)
BILDUMA
BIRUNDA (= bira, jirabira)
BURUFUIN (= garaun, burumuin)
DAITSI (= bota, jaurtiki)
DAITȘI (= eraitsi)

EGARA (= "paraje: parage")
ELDE, HELDE (= 1) izurrite
2) "afluencia: affluence"
3) abentura, zori)
ELHATI (= berritsu)
EMAKOI, EMAKOR (= lizunkoi, andrakoi)
ERAGO (= erosotasun, aisia)
ERRAKUNE (= errefrau, atsotitz)
EZOREN (= ezordu)
EZENEZ (= baino, baizik)
FEREKATU (= laztandu)
FITS (= piskat)
GAINGOITIK (= jadanik)
GAN-ETORRI (= bidaia)
GATASKA (= eztabaida, liskar)
GINARRI (= "membrudo: membru")
GOIETSI (= goretsi)
GORROMIO (= gorroto, aiher)
GOXOGOXO (= pixkanaka)
HAIDOR, HAIDUR (= oso langile)
HEINKAXE (= gutxi gorabehera)
HEITATU (= laguntza eskatu)
HILORI (= umegaltze, abortu)
HOTZARRITU (= izoztu)
JABAL (= koldar, beldurti)
JAIDURA (= joera, grina)
JALAMAN, JARAMAN (= zeken, zikoitz)
IBENI (= ipini)
IDURIKO (= antzeko)
IHAR (= tximist, txinpart)
ILARGI (= kanposantu)
IRAGON (= igaro)
ITSASEGI (= itsasalde)
ITSASOHOIN (= itsaslapur)
KALAKARI (= berritsu)
KERU (= gorroto, arrankura)
KULUNKATU (= "balancear: balancer")
LANDER (= miserable)

LANTINA (= peka)
LEHENGAI (= elementu)
LEKHORE (= kanpo, landa)
LISKAR (= burruka, gatazka)
LIZUNKHOI (= "lascivo: lascif")
MARGO (= kolore)
MUSKER (= berde)
MUXKIN (= triste)
NAHARO (= 1) ugaritasun; 2) ugari)
OHATZ, OHITZA, OHIKUNDE (= ohitura)
OINHAS (= ortozik)
OLDE (= borondate, gustu)
OLHE (= otzan, mantso)
ORKUME (= zakurkume)
ORDEZKARI
ORDULARI (= erloju)
ORKHATZ (= basahuntz)
OSTI(A) (= oihu)
OTAN (= "brújula: boussole")
PINDA, PINDAR, PILDAR (= txinpart)
PINPIRINA (= tximeleta)
PISKUNDE
SAKAN (= okaran)
SOLASTIAR (= solaskide, mintzaide)
SOMA (= arta)
SOSTOR (= gotor, indartsu)
SUHANDI (= "inflamación, úlcera: inflammation ulcére")
SUKOI, SUKOR (= haserrakor, suminkor)
TINTOLA (= "úvula: luette)
UHARTZE (= horizonte)
UHIN (= olatu)
UMO (= zuhur)
URMAEL (= "*estanque: étang*")
XAKUN (= polit)
XAPO (= apur bat, pizka bat)
XINGOR (= zeken)

ZAHATO (= bota)
ZORIAN (= hiltzeko zorian")
ZUZENDARI

5.2. BESTE EUSKALKIEKIKO LEXIKOKIDETASUNAK

5.2.1. ERRONKARIERA ETA LAPURTERAZKO HITZAK

ADARRA SARTU (= norbait engainatu)
ASTOZIRI (= tentel, memelo)
EGIAZKI (= "veraz: véridique)
ENE BAITAN (= neregan)
ERIGOGOR (= sendo, osasuntsu)
MAINKA (= mahuka)
MAMUKA (= "espantajo: epouvantail")
MANUKOR (= obediente)
SOBRA (= sobera, gehiegi)
SUGEKANDERA (= sugalinda)
UDURI (= antzeko)
URT(H)EGIRO (= uzta oneko urtea)
USTEGO (= eritzi)
ZIRRISTATU (= labaindu)
LILI ARROSA (= arrosa)
LURKARA (= lur kolorea duena)

5.2.2. BIZKAIERAZKO ETA LAPURTERAZKO HITZAK

ALDARAZI(L), ALDARAZO(B) (= aldarazi)
AMATAR (= amaren antza duena)
ASTOKO (= astotxo)
EREDU (= modelo)
ESKUARRE (= ahur)
MINGOR (= minberatu)
MOTZ (= kamuts)
MUGALDI (= aro, garai)
ZALEGARRI (= estimagarri)

ZARRAILA (= "cerraja: serruce")
GIZATZA (= jendetza)
JARLEKU (= "trono, asiento: trône, siege")
BARRABAN (= iraintzeko hitza)
Ad. "gizon barrabana"= miserable"
BASABEHI(L), BASABEI(B) (= baso + be(h)i)

5.2.3. ZUBERERAZKO ETA LAPURTERAZKO HITZAK.

ANDOILA (= andoila(odoloste handia))
AHO (= aro(denbora) esateko)
AHOKALDI (= irain)
ARRE (= oztopo)
BIDE-BURU (= bidegurutze)
BIHIKOR (= *emankor*)
BIHOTZ-EIHERA (= taupada)
EGIATI (= "veraz: véridique")
ELIZATXORI (= kurloi)
HELTARI (= "socorredor: sauveteur")
ERASLE (= hizlari)
ESKIERKI (= benetan, egitan)
MAFRUNDITU (= "acatarrarse: s errhumer")
MUZKIN (= "provecho, utilidad: profit, utilité")
OHEZUR (= "catre: chalit")
HORDITZALE(L), HORDIZALE(S) (= hordiputzu, hordizale)
GILIKATU (= kilikatu)
GOGORAPEN (= pentsamendu, gogoeta)
KARI (= zale)
LOPIDE (= helduleku)
BASAJAUN (= gizon erdi basatia)

5.3. ERDERETATIKAKO MAILEBUAK

Lapurterak inguruko hizkuntzetatik(gaztelera, frantsesa, bearnesa, gaskoina...) hartzen ditu hitzak. Batzu bakarrik ipiniko ditugu.

5.3.1. Gazteleratik datozenak

ABAZERA	= erauntsi	(aguacero)
ALIAMALE, ALIMALE	= animalia	(alimaña)
AMINO, ANIMU	= adore	(ánimo)
BARATA	= truke	(barato)
DISIDATU	= mehatxatu	(desidio)
ENKARITU	= ausartu	(encararse)
ETXA	= aldi, txanda	(echar)
MAINA	= 1) joera; 2) begirada; 3) trebetasun	(maña)
PELLEBURU	= arrisku	(peligro)
SALBUESPEN		(salvo)
TAMAINA		(tamaño)

5.3.2. Latinetik datozenak

ESTALBI	= ikuilu	(stabulum)
GONETA	= koinata	(cognata)
GOZAGAILU	= eztigarri	(gaudiare)
HALTOKI	= bildurrik gabe	(altus)
INDEINU	= trebetasun	(ingenium)
LUKU	= baso	(lucum)
PHERZIKA	= muxika	(persicam)
TXOLOMA	= basuso	(columbam)

5.3.3. Frantsesetik datozenak

ADIKATU	= agurtu	(adieu)
DARATELU	= daratulu	(tarauder)
GISAKO	= itxura oneko	(guise)

LAATU	= nekatu	(las)
OBITA	= hiletak	(obit)
ODOLIA	= tristura	(endeuillé)
POXIÑO	= apur	(bossin)

5.3.4. Bearnesetik datozenak

AMI	= "goloso"	(ham)
GOAIT	= "prest, erne"	(goaita)
KAPETA	= tontor, gailur	(capete)
KHUTSADURA	= kontaminazio	(croutza)
MARMALO	= intsektu	(barbalco)
PAIRADURA, PAIRAKUNTZA	= oinaze	(payra)
PITXO	= zakil	(pissot)
TRAKET	= daga, sastiaga	(traque)

BIBLIOGRAFIA

Lan hau prestatzeko, Ithurry apaizaren gramatika jarraitu dugu.

Bereziki: Grammaire Basque - Ithurry (Ed. Hordago)

NAFARRERA BEHEREA

J. A. Aduriz
M. A. Alberdi
K. Bereziartua
M. Etxebeste
I. Plazaola
I. Usabiaga

I. SARRERA SOZIOLINGUISTIKOA

Behauzeko gazte bati jasotako bi istorio llaburren azterketa hau osatzeko asmoz, zenbait ohar egingo ditugu, gehien bat bai geografikoki bai euskalkien sailkapen orokorrean finkatuta gerta dadin. Honetarako Pedro de Irizar-en Contribución a la dialectologia de la lengua vasca, I eta II aleetatik hartu ditugu dato, azalpen eta mapa. (Eskuartean erabili ditugun zenbait textu, FONTES-ekoak, ASFVJU-koak, ea ez bait dira gure lan honetarako baliagarriak izan).

Beraz, ondoren dugun mapan non kokatzen den korpusa adierazten zaigu. NB-ren sailkapenean berriz zein azpieuskalki,barianteta,etabarren artean aurkitzen den.

Hemen ikus daiteke Ekialdeko Nafarrera Beherea zazpi hizkeraz osaturik dugula: Garazi, Amikuze, Bardoze eta Arberoakoak "Cizo-Mixano" azpieuskalkia osatzen dute, Beskoitze eta Urketakoak Aturri azpieuskalkiaren barruan daude eta Zaraitzukoak berak osatzen du hirugarren azpieuskalkia.

Guri interesatzen zaigun hizkera-motari buruz (Amikuze) hauxe dio Pedro de Irizar-ek (296 or.) "En cuanto a la variedad de Mixe, la zona meridional está constituida por la tierra de Ostabaret(...) La línea de separación entre las zonas septentrional y central está determinada por el límite meridional del área en la que se emplea la ü suletina dentro de la variedad de Mixe.

El mixano septentrional comprende por tanto todos los pueblos de esta variedad que usan dicha ü..." Arazo hau dela eta

aipatu beharra da gure lanean dudazko [ü] hau agertzen zaigula; baina, halere, "mixano central" bezala definitu dugu, arrazoi geografikoengatik.

Nafarrera Behereari buruzko sailkapena



Mapako zenbakien argibidea

Zenbakia	Herria	Biztanleak	Euskal hiztunak
1	Donapaleu	2293	1350
2	Jutsue	243	243
3	Bunuze	189	189
4	Bithiriña	400	376
5	Behauze	347	346
6	Arboti	324	300
7	Labetze-Bizkai	226	176



6. Mapa

NAFARRERA (BEHEREA)

1. FONETIKA

1.1. Bokaleak

1.1.1. Euskararen sisteman ohizkoak diren bost bokaleez gain, seigarren bat ere ageri da gure textuan, zubererarekin mugakidea den euskalki honetan normala denez (Ik. Michelena: FHV , 51 or.).

Seigarren bokale bat dela diogu, gure transkribaketan batzutan [ü] eta bestetan [ö] irudikatu dugun arren, kasu bakoitzean entzuten edo entzun uste genuenaren arabera. Zubererazko /ü/ segmentuaren balio fonetikoaz esan izan dena gogora dezakegu hemen, axaleko bikoiztasun honen sakoneko batasunaren azalpen gisa: "En suletino la realización normal de /ü/ es más próxima a fr. /ö/ que a fr. /ü/" (id., ibid., 51-52 or.); ik. halaber Txillardegiren Euskal Fonologia, 30 eta 33 or. eta hur.

Gure textuan, ez daukagu /u/ vs. /ü/ aurkaritzaren berri emango ligukeen inguramendu foniko berdinik bientzat.

Ez du, noski, 6. bokale honekin zerikusirik textuan ageri den [donapalöat] zatiko [ö] soinuak: informatzaileak bestetan [eu̯] ahoskatzen du ingurune berean. Izen berezia da: mintzatzeko abiadurari nahiz frantsesaren eraginari zor dakioke, alegia, soinu hori.

1.1.2. Ez dugu textuan bokale sudurkaririk.

1.1.3. Bokale-topaketei dagokienez, fenomeno hauek seinala daitezke.

1.1.3.1. e → i / - a [sisariak, goisian, batian, betia,....]
baina ez beti: [gurečean, askénean]

1.1.3.2. e → i / a - (-aren) -ain

1.1.3.3. ü → i / - $\left\{\begin{matrix}a\\e\end{matrix}\right\}$ [amíak, oštatian, galdia, ordian, lotía, alčatia vs. alčatö
amien, amiekin
baina ez beti: ámüat, amöaiˆn, amüetan]

1.1.3.4. i → j / - $\left\{\begin{matrix}a\\e\end{matrix}\right\}$ [alčatugintjan, ikušidjat, oštatjan, loRiatjak, ekárigintjelá, pašacencjén, dusjé, sjenaiˆta; lékja
edatuik, bilduik]

1.1.3.5. u → w / - $\left\{\begin{matrix}a\\e\end{matrix}\right\}$ [finitwetá, núngwak]

Azken aipatu den kasu hori bazter utziz gero, 1.1.3.1. puntuan eman den legearekin lotua joan ohi dena ez da gure textuan gertatzen, o → u / - a legea, alegia: [auˆsoek, pikoat, yoan, demboa, yokoan, beauˆsekoa].

Ez da betetzen, ezta, beste hau ere: Ø → $\left\{\begin{matrix}z\\š\\y\end{matrix}\right\}$ / i - a .

Ikus [lodiaiˆn, esaria, anaiˆak, ucia, lehenaldia, bidiak, bíak, goriak].

1.2. Diptongoak

Ohizko diptongo beheranzkoen ondoan -[aiˆ] : [ariˆaiˆnka]; [eiˆ] : [galdeiˆten]; [oiˆ] : [yoiˆten]; [auˆ] : [hauˆr]; [euˆ] : [donapaleuˆko]; [ouˆ] : [soubigaRat], goranzkoak ere baditugu textuan:

[ja] : [oštatjan, luRiatjak
[je] : esgindakjéla, dusjé
[jo] : istorjoát, arakomunjone
[we] : finitweta
[wa] : nungwak]

1.3. Triptongo bakarren bat ere ageri da: [betjai̯đörö]
[betjai̯tenai̯đörö]

1.4. Kontsonanteak

1.4.1. Ohar-pare bat kontsonanteen sistemari buruz:

1.4.1.1. Textuan ikus daitekeenez, badago euskalki honetan /h/ fonema. Ez da, ordea, textuinguru beretan beti ageri; uste dugu, fonema honen pertzepzioak izan dezakeela zerikusirik, hura daraman silaba azentuduna ala -gabea izatearekin; azentudunetan argiago suma daitekeela, alegia:

[háu̯r̄đemboán vs. [au̯r̄ák
behór̄lođib̄at beor̄lođiai̯ŋgán]
hámar̄
hámekag̣ar̄en]

Azentuaren hau ez da, jakina, bitasun guztiak explikatzeko arrazoi nahiko eta bakarra:

[amühar̄ta vs. [goi̯sar̄tán
taán] hán]

1.4.1.2. Dardakari horzkariez gain, [R] belarea ere ageri da inoiz edo behin: [luRíatjak, oRícenisaná]

1.4.1.3. /j-/ fonema [y] ahoskatzen da: [yoi̯ten, yinetá, yendiák]

1.4.1.4. /f/ hiru mailegutan jaso dugu: [finitu, fiteško, falta]

1.4.1.5. Inoiz topatu dugun [ž] ahostuna sintagma mailako elkarketa baten ondorioa da: [beriž̌oi̯ten] (s+y ⇒ ∅ ž̌)

1.4.2. Ingurune fonikoak kontsonanteen gain eragiten dituen ondoriorik nabarmenenak jasoko ditugu ondoko erregelon bitartez, eta beste azalpenik gabe; ez, noski, gure eus-

kalkiaren bereziak direla uste dugulako, mugak non jar asmatu ezinik baizik.

1.4.2.1. $\{b, d, g\} \rightarrow \{\underline{b}, \underline{d}, \underline{g}\}$ / V - V eta $\{\underline{b}, \underline{d}, \underline{g}\} \rightarrow \emptyset$ / V - V

[śobera, lodibat
aidörö, adíneko, edo
ageri, śegurenik, egintian
amüát, píkoát, tipiat
aipatukout, ariúk
niares, galdeiten, bainin]

1.4.2.2. $\{b, d\} \rightarrow \{p, t\}$ / s - [espaicen estut]

1.4.2.3. k → g → Ø / V - V [espidagit] (ezpaitakit)

1.4.2.4. $\{s, ś\} \rightarrow \{c, ć\}$ / n - [ibilcencena, isanenciela, yoancen, ecaukunćekulan]

1.4.2.5. ś → š / i - [ištorio, bištandena, ištampat]

1.4.2.6. r → Ø / V - V [hedaceat, alčaceat, ečeat, ureat, demboa, egünoó; bilduik, edatuik, aitaekin, síste, é (ere), noabaita]
-aren > -aen > ain: [aitain, amöain]
baina ez beti: [aingira, orire, oren, aidörö, ageri, ari]

1.4.2.7. t + s ⇒ Ø c [baicen] (Baina ikus 1.4.3.2.)

1.4.2.8. s + s ⇒ Ø c [ecíen, ecön] (ez zuen)

1.4.2.9. s + y ⇒ Ø $\{y, ž\}$ [beriyoangincön berižoitén]

1.4.3. Inguru fonikoak bestetan eragin dituen aldaketa batzu ez

dira gure corpus-ean ematen. Ez dakigu gertakari honen arrazoia euskalkiaren berezitasuna den, informatzaileak jasaniko interferentzietan bilatu beharko litzatekeen, ala muga-mailaren arauerako fenomenoak diren.

1.4.3.1. *t + b ⇒ Ø p [donapaleurabeás

1.4.3.2. *t + ś ⇒ Ø ć estut śekulan

1.4.3.3. *k + b ⇒ Ø p sisariak bilduik gubesala

1.4.3.4. *k + g ⇒ Ø k beausekoaginéla

1.4.3.4. *s + g ⇒ Ø k esginekjela

1.4.3.6. *c + b ⇒ s p üricbat

1.4.3.7. *k → g / n - araiŋka]

2. MORFOLOGIA

2.1.1. Ergatiboa

Esan daiteke, orohar, ergatibo pluralak -EK amaiera hartzen duela. Hona hemen singular-ergatibo eta plural-ergatiboko adibide batzu:

"Urritz hua etzien ez ANAIAK altxatu ez NIK altxatia ere".
"Eztutuste AUZOEK eta sekulan gu bezala atzeman duten".

Ergatibo pluralean -AK hartzen duten salbuespenak aurkitu ditugu:

"Pasatzen zien YENDIAK galdeiten zakuten".
"Ez dut sekulan antziko zomat niar egindiak bi ANAIAK".

2.1.2. Direktiboa

Euskalki honetan deklinabide atzizki honen bi aldagai ditugu: -RA eta -RAT. Autore askoren iritziz ez legoke desberdintasunik bi atzizki hauen artean, oinarrian -RAT dugularik eta -RA bere bariante edo laburpena.

Halaz ere, beste ikuspuntuetatik begiraturik, -RA eta -RATen artean bermatu izan ohi da bereiztasun morfologiko bat: -RATek joan eta gelditzea adierazten du termino markatu bezala; -RA ez markatua izanik.

Lafittek bere "Grammaire..."n sinisgaitz jotzen du oposaketa hau, alabaina oposaketa aukera honen adibideak ematen dizkigu: "Banoa Pariserat" "sans retour", izanen litzateke; eta "Banoa Parisera", "simple aller et retour".

Hona textuan zehar ageri direnak:

"Yoiten gintzun amien hedatzeat"

"Etxat heldu gintzun eta biamun goizian"
"Aitak lehenaldia ekarri gintiela Donapaleurat"

Horrelako beste bost adibide aurkitu ditugu -RAT atzizkia darabiltenak. -RA berriz bi aldiz besterik ez da ageri:

"Yoan gintzun berriz etxea karrusan".
"Ez genekiela nola etxea joan".

Badirudi bi kasu bakar hauetan "simple aller et retour" ez litzatekeela beteko, edo eta -RAT kasuekin gonbaraturik ez dela bereiztasunik somatzen. Hortaz, agian, bata bestearen aldagarria liteke, adiera berarekin.

2.13. Asoziatiboa

Deklinabide kasu honentzat espero genezake bi atzizki desberdin erabiltzea: -KIN eta -Kila. Lafittek dioenez honela bereiziko lirateke: -KINek adieraziko luke aurrera eramandako batasuna; -KILA berriz erabiltzen da norbaitekin aurkitu edo topo egiteko mugimendua bera adierazteko. Euskeraren gramatikalari gehienek ez dira bereiztasun honetaz arduratzen.

Textuan zehar ez zaigu -KILA atzizkirik ageri, nahiz eta hasera batetan hura azaltzea guk espero izan.

Asoziatibo atzizki hauek ageri zaizkigu:

"Arrainka ibiltzen ginen ordian haurrek gauamiekin"
"Zaldizko karrusan Donapaleuat jin aitaekin"

2.2. ADITZA

2.2.1. Gure textuan ageri diren aditz-forma guztiak jaso nahi ditugu hemen: euskalkiko sistemaren berri aski mugatua eskainiko badigute ere, abiapuntu bezala esanahitsuak izan dai

tezke beren horretan. Erreferentzi punturen bat izan dezaten, Euskaltzaindiak euskara baturako arautu dituen formekin erkatuz doaz:

NAIZ - niz - oriniz...
[egünoó oRícenisaná]

DA - da - [bištándená]
[bištándaná]

duk - [hórduk]
[oštátjan duk]
[yinenduk]
[edatenariúk]

ZARETE - zi(re)zte -[núngwak síste]

ZEN - zen - [ibilcéncená]
[baicen]
[espaicen]
[yoancén]
[yoanaséla]

zün? -[ecön šoberagáiski]
[basúm plasán]

GINEN - ginen -[ibílceginén]
[beáusekoaginéla]

gintzün? (gintuzun?) -[yoitengincún]
[yoitengincön]
[eldugíncön]
[berižoaitén gincön]
[saldís gincún ordíané]

ZIREN - zi(r)en -[isánencielá]
[pašácenjén yendiák]

zitzün? -[basicún baiotosúmbait]

ZATEKEEN - ziteken -[noabaitá yinciteken] - ???

ZITZAIDAN - za(u)tan -[gertátusatán istorjoát]

ZITZAIGUN - zaukun - [ecaukuncekulam berís iculíko]

DUT - dut -[aipátukoút]
[estútusté]
[estút śekulan ahancikó]

diat -[sjenaitá ikusiđját]

DUZUE - düzie? -[serđüsíe níares]
[ser đusjé iséna]

DUTE - dute -[ácemandúten]

ZUEN - --

zien? -[üríc uá ecienesanajakalčató]

GENUEN - gin {t, d} i {a, e} n - [bainín behorlódibat]
[bagintín esariá ámüat/alčatugíntian]
[áita faltagindjelá]
[aita gáldiagindján]

GENITUEN - gint(s)i(a)n - [hámar aingirá acámaníncin]
[ačámaitegíntjan... híru edo láu]
[seniarak egintien]

GINTUEN - gintin -[aiták... ekárigintjelá]
[ekárigintín]

ZIGUTEN - zaguten (zaukuten?) -[galdéitencagutén]

DAKIT - dakit -[espiđagit]

GENEKIEN - ginekien -[esginekjéla]
gindakien -[bei gindakjén]

2.2.2. Formok beren soilean ematean seinalatu ditugun zalantza ugariak azpimarratzeaz gain, adizki alokutiboen erabilera seinalatu behar da hemen. Hitanoa daukagu, batetik: mintzatzailearen ahotsa zuzenean jasotzean ageri da hau (helduak haurrei mintzo). Zutanoa, berriz, kontaketaren beraren barruan erabiltzen da.

Adizki alokutibo hauen erabileraz, ohar pare bat, bukatzeko: 1. Zeharo iluna gertatu zaigu 'gen(it)uen' eta 'gintuen' adierazteko ageri diren formen banaketa: adizki bera dago, batetik, bi balioentzat (gintin: 'genuen', 'genituen', 'gintuen'); eta, bestetik, aldaera ugariak ditu adizki oinarriz berak (ginin, gintin, gintian, gindien, gindian). Ezin antzeman izan diogu noiz den alokutibo eta noiz ez.
2. Espero zitekeenez, menpeko perpausetan ez da adizki alokutiborik ageri, ez-alokutibo edo markagabeak dira beti: da; zena, baitzen, zela; ginela; ziren (erlatiboa), zirela. Perpaus nagusietan bakarrik topa daitezke, beraz, adizki alokutiboak; ez, ordea, perpaus nagusi guztietan, hauetan alokutiboak nahiz ez-alokutiboak ager daitezkeelarik.

3. MORFOSINTASIA

3.1. Aditz izenak

"Ibiltzen ginen ordian haurrak gauamiekin errekan aingiren atzemaiteko"

"Yoiten gintzun amien hedatzeat"

"Biamun goizian amian altxatzeat berriz joiten gintzun"

"Berriz joan gintzun gure amuain ikusteat"

"Joan zen ostaturat baso baten edateat"

Adizki hauek adibide hauetan izen bezala sentitzen dira, eta horregaitik genitiboa har dezakete. Lafittek "Infinitif nominal" deitzen die.

Hortaz, infinitibo hauek aldi berean izen eta aditz izan daitezke, eta adostasun handirik ez dago, ez euskalki honetako idazleen artean, ez eta gramatikalarien artean ere, infinitibo hauei dagozkien ondoko elementu lagungarrien taxua nolakoa izan behar duen erabakitzerakoan. Izen bezala sentitzen badira, onartzen dituzten konplementoak kasu guztietan genitiboan ipin daitezke.

Infinitibo hauek adiztzat hartuz gero, genitiboa horrela erabiltzea ez da zilegi.

Hortaz, "Aitaren ikustera joango gara" ala "Aita ikustera joango gara". Arazoa honetan datza: Bi aukera horien artean ir tenbidea ez da oraindik hautatu. (Euskara baturako ez du Euskaltzaindiak argibiderik eman).

Aditz-izen hauek beste izenen antzera deklinagarri dira.

Hona hemen Aditz-izen hauen artean adibide bitxia:

"Bainin behor lodi at etxen belar itzultzeko ta ibiltzen zena".

Kasu honetan infinitibo honen konplemento-objetoak ez du genitiborik hartu (belar) baizik eta mugagabe bezala ageri da. Ondorioz esan beharrean gaude "belar" eta "itzultzeko"k hitz konposatu baten osakin gisa erabiliko liratekeela, zeren "belar" objetoa ez baitoa mugaturik, infinitiboaren adiztasuna azpimarra dezan.

3.2. Menpeko juntagailuak

A.- *Modu-denborazkoak*

1.- -LA

"Joiten gintzun amien hedatzeat astiria zizariak bilduik eta amiak edatuik"

"Hamar aingira atzamaintzin, ta hamar aingira altxatuik"

"Urritz bati piko at emanik ureat plegatea"

2.- ETA

"Etxeat jin eta, etxeat jin orduko, bagintin ezarria"

"Ta berriz amu harta joan eta, hamakagarren aingira altxatu gintian"

"Partida finitu eta jendiak lekia ustu"

B.- Kausal-esplikatzaileak

1.- -BAIT

"Ta goiz hartan orriniz ene arrakomunione eguna bait zen"

"Berriz joan gintzun gure amuain ikusteat beigindakien gunia aprepes batian nun utzia gintian"

"Ekarri gintin Donapaleurat beaz zaldizko karrusan gure etxean ez pai zen oino otoik"

2.- ZEENTA (zeren + eta) BAIT- gabe ageri dena.

"Gure adineko haurrendako etzun sobera gaizki zeenta atzamaiten gintian zomait aldiz hiru edo lau"

D.- Erlatibozkoak.

1.- -N

"Aipatuko ut haur denboan gertatu zatan historio at"

"Han pasatzen zien jendiak galdeiten zaguten"

Beste zenbait kasutan antezedentea aurrean gelditzen da, erlatibozko menpeko perpausa tartekatzen delarik. Adibidez:

"Bainin behor lodi at etxen belar itzultzeko ta ibiltzen tzena"

"Beste historio ttipi at haur denboakoa hori ere ta egun oo ohitzen nizana"

2.- BAIT- partikulak menpeko perpausak eratzerakoan zenbait balio desberdin har dezake bere kausal-esplikatzaile baliotik at: Denborazkoa eta kausala aldi berean, kontzesiboa, kontsekutiba,...

Balio desberdin hauei beste bat erantsi behar zaie, nahiko bitxia eta textuan kasu batetan ageri zaiguna: Erlatibozkoa.

BAITek erlatibozko perpausak eratzeko balio du euskalki honetan, perpaus moeta bitxi hauetan konstrukzioa aipatzekoa izanik: librea antezedentearekiko erlazioari dagokionez. Hona hemen gure kasua:

"Plaza betia bixtan dena, ta aita ezpidagit egarritia edo joan zen"

"Aita" antezedentea aurretik doa.

E.- Konpletibak.

1.- -LA ("Ezen" edo lagungarri antzekorik ez dute hartzen)

"Eta bistan dena espeantxa beti ainitz aingira lotiak izanen ziela"

"Galdeiten zaguten zer duzie niarrez? aita falta gindiela, aita joana zela, ta ezgenekiela nola etxea joan"

2.- -N

Aurreko perpausa ezezkoa denean gertatzen da:

"Hameka eztut uste auzoek eta sekulan gu bezala atzeman duten"

3.- Zenbait kasu berezi.

"Zomat niar egindian bi anaiak ustezta aita galdia ginian etzaukun sekulan berriz itzuliko"

Bi aditz hauek ez dute konpletiba markarik jasaten nahiz sintasi balioz menpeko konpletibak izan.

F.- Finalak.

Aurrerago aipaturiko "infinitif nominal" edo Aditz-izenekin:

1.- -KO

"Arrainka ibiltze ginen ordian haurrak gauamuekin errekan aingiren atzamaiteko"

"Bainin behor lodi at etxea belar itzultzeko ta ibiltzen zena"

2.- -(R)AT

"Behor lodiaingain joiten gintzun amien hedatzeat"

"Eta biamun goizian amien altxatzeat berriz joiten gintzun"

"Berriz joan gintzun gure amuain ikusteat"

"Joan zen ostaturat baso baten edateat"

4. TRANSKRIBAKETA

[aipátukoút háurdemboán gertátusatán istórjoát aráinka ibílceginén ordjan aurák gáuamiekín eréka aingirénacamaitéko, ta, aingiraká yoitengincún / bainín behorlódibat ecén, belárículcéko ta, ibilcencená tabeorlodiaingán yoitengincön, amién hedaceat, aastiriá, sisáriak bildúik eta, amíakedatúik, ecat éldugíncün, eta biámu goisián amienalcaceát berizoaitén gincön, eta, bistándená espeancá, betí ainíc aingirá lotíak isánencielá amüetan, ta, goisartán orinisenearákomunjone egüna baicen, hámar aingirá acámaníncin, tahámar aingirá alcatúik luRiatják, ecat yinetá, ecéat yinordukó, bagintín esária ámüat úricbat üricbatí píkoát emaník, ureát plégatea ta, üríc uá ecíenesanaiakalcatö esník alcatiá ere, ta, beríyoangincön gure amöainikusteát, bei gindakién güniá, aprepés batián, nún uciagíntian, ta berís, amühartá yoánetá hamakagarén aingirá alcatugíntian, ta hámeka aingirá gure adíneko haú rendakó, ecön śoberagáiski, sé:ntá acámaitegíntján sómait aldís híru edo láu, benahámeka estútusté áusoéketa, śékulan gubesalá ácemandúten]

[béste istorio típibat, háurdémboakoa oriré, ta egünoó oRícenisaná, bisíki únca / aiták lehénaldia ekárigintjelá donapaleurát, ekárigintín donapaleurábeas, sáldisko karúsan, gurecéan espaicén o:notoik basicún baí, otosúmbait banagu móta saárekoak beti saldís gincún ordíané, saldísko karúsan donapalöat yín aitáekin, pilótapartidá háundibat basún plasán, etaplása betía bistándaña, ta áita espídagit, egáritiaédo yoancén oštatürat, basóbaten edateát taán yokoan asiedo, eléketa démboa galdö, partíat finitusú neta partída finítwetá, yéndiák lékjauštö, tagú anájabiak geldítugincön donapaléuko plásan, ta, bibiák donapaléuko plasan ištampát aidörö, órenerdíbat órembat, bétjaidörö bétjaidörö taáita esbáte ageri, níares arigincun bianayák, bíak niáres, ta, hán pasácencjén yendiák, galdéitencagutén serdüsíe níares, a:, áita

faltagindjelá, aita yoanaséla, ta, esginekjéla nóla ečea yóan galdeitencaguten, ba núngwak síste, ta, beáusekoaginéla, ta, seř ďusjé iséna soubigaRat a:, sjenaitá ikuśiďját ikuśiďját hóřďuk, oštátjan duk, eta yinenduk, ba yinenduk yinenduk fitéško edatenariúk oštátian bétjáitenáiďörö estút śekulan ahancikó seniařak egintien aitaibehá, béti aitaibehá askénean noabaitá yinciteken śeguréniké / áita beti iřís úa kolore gořigóřiak, yongincömbeřis ečéa kařúśan, beřís estút śekulan aáncikо sómat niář egintiam bi anayák úštesta aita gáldiaginján, ecaukunćekulam beřís iculíko.]

Z U B E R E R A

E. Agirre
L. Egia
A. Esnaola
M. Fernandez
A. Miner
I. Uria
X. Zubizarreta

I. SARRERA SOZIOLINGUISTIKOA

Eskualde eta hizkuntzen mugak bereiziko ditugu:

ZUBEROAKO MUGAK

Iparraldean : Frantzia

Hegoaldean : Nafarroa

Ekialdean : Frantzia

Mendebaldean : Nafarrera Beherea

ZUBERERAREN MUGAK

Iparraldean : Frantsesa (eta Kaskoina)

Hegoaldean : Gaztelaniera

Ekialdean : Frantsesa (eta biarnera)

Mendebaldean : Euskara eta Frantsesa

Euskara, probintzia osoan ez ezik, administratiboki Zuberoa ez den Eskiula herriskan ere mintzatzen da.

Bonapartek, "Verbe basque" liburuan erronkariera, zuberera euskalkiaren barnean sartu zuen, baina, dakigunez, erronkarierak baditu nahiko ezaugarri berezi bera bakarrik euskalki kontsidera tzeko adinekoak.

Uhaitzandi haranak eta Barkoxe eta Eskiula herriskak, hartzen dute Zuberoa guzia.

Banaketa hau natura eta landaretzaren arauera zatikatua dago; alegia, goimendia, basoa eta harana (erribera):

1) Basbürúa (Ibareskünak eta Ibarrixkerrak osatua)

2) Arbailla (Arbaillą handia eta txikia)

3) Pettarra (Domintxaine, Arüe eta Lahüntz-ek osatua)

Hirugarren honetako lehenbiziko bi "degairie" hauek linguistikoki Ekialdeko Nafarrera Beherea euskalkian sar daitezke (Amikuzeko hizkera deritzana). Aldiz, hirugarrena, hots, Laruntzen soilki zuberera darabilte.

Beste guztian homogeneitatea nabari da, nahiz eta "xiberutarrek" beraien artean zenbait bereizketa nabarmendu.

Txillardegiren hitzez esanda: "Oraindik, adineko pertsonek bederen, ia Zuberoa guztian barrena mintzatua (Pettarrako Ozagaine inguruko herriskak kenduta), baita Biarnoko ertzeko zenbait auzotan ere (eta Eskiulan eta Landan bereziki), zubererak dituen berezitasunak euskal zaleen artean aipatu beharrik ez dago. Zubereta bitxi gertatzen da euskalkien artean batetik; eta xiberutarrek berek arrotz atzeman gaituzte gainerako euskaldunok: "Gü gía üskaldünak; zíek, manéxak".

Ez dakigu azpieuskalkiez hitzegiterik dagoen; baina, zuberotarrek beraiek nabaritzen dituzten diferentzietatik at, esan beharra dago, badaudela hainbat lan horri buruz eginak.

Irizarrek dionez, Etxarriko hizkera, nahiz eta Bonapartek Atharratzeko zubereraren barruan sartu, agian kontsideratu behar litzatekeela Domintxaine- Berrueta-ko euskalkiaren luzapen gisa, hau da, Ekialdeko Nafarrera Beherea euskalkiarena (Amikuzekoa).

Horretarako ematen den arrazoia zera da: Etxarriko eta Atharratzeko hainbat aditzen erak ez fonetikoki, baizik estrukturalki ere, guztiz ezberdin gertatzen direla.

1970 - 72 .an Zuberoak 18.839 bizilagun zituen. Horietatik 11.095-ek euskara bazekiten. Badirudi, jenderia zahartzen ari dela: alde batetik, jaiotzen gutxitzeagatik; eta, bestalde, emigrazioagatik (bertakoek diotenez 20.000 zuberotar bizi dira Zuberoatik kanpo).

Zaharrek, gazteek baino gehiago erabiltzen dute euskara. Hala ere, euskerarekiko zaletasuna gehitzen ari dela esan beharra dago, bereziki ikasleen artean.

Mademoiselle Jaureguiberry-k hau zion: "20-25 urtetik gorago zuberotarrek (Atharratzen eta Maulen ez ezik) bikainki erabiltzen dute euskara. Beraien artean, etxean eta eskola-aurrera 5-6 urtekin joaten direnean seme-alaba guztiek euskara besterik ez dute ezagutzen. Baina epe laburrean haurren joera frantseserat bideratzen da".

Irizar-en arauera hauxe da egoera:

ZUBERERA

Berezko azpi-euskalkia

(Atharratze-ko hizkera)

Herriak	Kantona menduak	Biztanleak G. A	K. B	B. C	Erantzunak	Euskald
ATHARRATZE-SORHOLÜZE	Atharr.	915	743	172	0,25B + 0,90C	34
ALTZAI	"	298	101	197	0,90B + C	29
ALOZE-ZIBAZI-ONIZE G.	"	343	—	343	0,50A	17
GAMERE-ZIHIGA	"	148	54	94	0,95B + C	14
ETXEBAR	"	101	—	101	0,95A	9
HAUZE	"	137	—	137	0,90A	12
LAKARRI	"	233	114	119	0,95A	22
LIGINAGA-ASTÜE	"	217	124	93	0,85B + 0,90C	19
LARRAÑE	"	405	141	264	0,90B + C	39
LEXANTZÜ-ZÜNHARRE	"	107	72	35	0,90B + C	10
LIGI-ATHEREI	"	346	144	202	0,90B + C	33
MUNTORI-BERORIZE	"	502	181	321	0,15B + 0,15C	7
OZAZE-ZÜHARA	"	156	105	51	A	15
SANTA-GRAZI	"	529	—	529	0,95A	50
ZALGIZE-DONEZTEBE	"	236	161	75	0,80B + 0,90C	20
IRURI	"	160	160	—	0,70A	11
MAULE-LEXTARRE	Maule	4.885	4.326	459	0,15B + 0,90C	1.06
AIÑHARBE	"	194	—	194	A	19
ÜRRÜSTOI-LARRABILE	"	144	—	144	0,95A	14
ALTZÜRÜKÜ	"	347	166	181	0,98B + C	34
BARKOXE	"	990	298	702	0,85B + C	95
BERROGAÑE-LAHÜNTZE	"	141	—	141	0,70A	10
SARRIKOTA-PIA	"	301	198	103	0,50B + 0,80C	18
SOHUTA	"	1.047	575	472	0,30B + 0,65C	48
EZPEIZE-ÜNDÜREIÑE	"	460	264	196	0,45B + 0,70C	25
GARINDAÑE	"	475	410	65	0,70B + 0,80C	34
GOTAÑE-IRABARNE	"	441	206	235	0,50B + 0,60C	24
OSPITALE-PIA	"	82	—	82	0,90A	7
IDAUZE-MENDI	"	229	99	130	0,85B + 0,90C	20
MENDIKOTA	"	285	184	101	0,60B + 0,70C	18
MITHIKILE-LARRORI	"	375	164	211	0,80B + 0,90C	32
MUSKILDI	"	295	78	217	0,95B + C	29
URDIÑARBE	"	643	195	448	0,85B + C	61
ARROKIAGA	"	157	—	157	0,90A	14
BILDOZE-ONIZEPIA	"	808	432	376	0,30B + 0,60C	35
ARÜE-ITHORROTZE	Donap.	223	64	159	Véanse las observaciones	11
ETXARRI	"	190	—	190	92	9
LOHITZÜNE-OIHERGI	"	72	11	61	A	7
PHAGOLA	"	317	66	251	316; 65(B) + 251(C)	31
ESKIULA	Oloroe	538	96	442	0,98B + C	53
JERONTZE	"	367	286	81	0,10B + 0,50C	7
		18.839				11.09

Hona hemen zenbait datu sosiolinguistiko

Oharra: Datu hauek Irizar-enetik hartuak izan dira.



6. Mapa

ZUBERERA

II. EZAUGARRI FONOLOGIKO-FONETIKOAK

II.1.- BOKALEAK

Zubereraz sei bokale ditugu, eta ez bost: /i, e, a, o, u, ü/ Badago, hitz batez, "seigarren bokale" bat. Euskaltzaindiak "ü" idatz erazten duena.

Nahiz eta (ü) horrek, balore fonematikorik ez izan.

düzü (= duzu)

düt (= dut)

ükhűzi (= ikuzi)

hür (= hur)

áhül (= ahul)

Zubereraz /o/ eta /u/ fonemetan, berregituraketa berri bat egiten du

O	U	
O	U	Ü

Gure euskalkietatik zuberera pasatzean, beraz, lau kideketa hauek ditugu

O > O
O > U
U > Ű
U > Ü

Adibidez:

ona > húna

uste > úste

urte > úrte

Bokaleen itxidura horretan, sustrato zeltikoaren eragina omen dago.

u / ü kideketa zehazki aztertu dute batzuk. Hots, Mitxelenak, bere "Fonética Histórica Vasca" liburuan (52-53 orr.).

a) Hitz bukaeran -u hertsi egiten da.

Zu > Z. zü

tu > -tü

asmü

üzkü

b) z/ tz ren aurrean ere, hertsi egiten da

ut (i) > Z. ütz(i)

d) rr azkarraren aurrean ere bai:

ezkur > Z. ezkür

e) r lanaren ondoan ez da hersten:

zure > Z. zú(r)e

f) s-ren aurrean ez da hersten:

uste > Z. úste

[ü] horren balio fonetikoaz hau esan daiteke: ez dela frantsesezko "u" delakoarena (lune, vue, tu ...); ezeren antza izatekotan, frantsesezko "eu" (jeu, peu) soinuarena baitu. Hona Mitxelenaren iritzia: "En suletino, la realización normal de /ü/ es más próxima al francés /ö/ que a franc. /ü/". (F.H.V., 52).

II.1.2.- BOKALE SUDURKARIAK.

Erronkarieraz eta bizkaiera zaharrez bezala, zubereraz badaude bokale sudurkariak; adibidez:

ũhũetan (= ohoretan)

šahiã (= garbia)

anhũa (= artzaiak eramaten duen bazkaria)

II.1.3.- DIPTONGOAK

Zubererak baditu, gainerako euskalkiek bezala, bost diptongo beheranzkoak: ai, ei, oi, au, eu.

Adibidez:

ai → [pelotakai̯] , [emai̯ten]

ei → [dei̯tü] , [muneiṉak]

oi → [hoi̯tan]

au → [khau̯teak]

Diptongo hauetatik, batzuek lehenkoiak dira, hala nola,

[emai̯ten] , [muneiṉak] , eta abar

Bestalde, badaude diptongo bigarrenkoiak; bi osakien erdi ko kontsonantea desagertu egin delako,

r → Ø / V -- V hain zuzen, adibidez:

horietan → [hoi̯tan]

txirulari → [čjulai̯] (normalean txülülá(r)i)

Baditu ere, goranzko diptongoak, mendebaldeko euskalkietan ez bezala:

ia	ie	io	ua	ue
[ja]	[je]	[jo]	[wa]	[we]

Adibidez:

ia → [isjaríko]

ie → [süsjén]

io → [sjósün]

ua → [iŋgwaða]

ue → [tawemasték] (= (e)ta gu(r)e emazteek)

Bereizgarri gisa ere, zera aipa dezakegu:

/au/ zubereraz AI egitea

gau → gai

gauza → gaiza

Triptongoak ere aurki ditzakegu:

orain → [wai̯]

txerrero ala... → [čeřewala]

II.2.- KONTSONANTEAK

Aspiraketa zubereraz.

Badago alde batetik /h/ aspiratua, balio fonematikoaz

[hói̯tan]
[húna]
[léhen]
[hék]

Beraz distribuzioa honela gelditzen da, oraingoz (corpusa txikia baita):

Hitz haseran eta bokale artean.

Badaude, bestalde, leherkari aspiratuak ere

ph, th, kh.

[phikaces]
[khau̯teak] [khéśtü]
[galthos]

Era berean, kontsonante ondoko aspirazioak:

lh, nh, rh.

[elheśtátü]
[anhũa]
[ür̄hać]

Hemen badirudi hirugarren distribuzio-gradu bat agertzen dela; alegia, hitz barruan bokale baten aurrean eta h-ren ondoren ezin dezakegula fonema bakartzat "lh", "nh" nahiz "rh",

har; hots, "el-hes-ta-tü" beharko lukeela; eta ez "elh - es - ta - tü". (Aspaldidanik ohar-erazia izan denez).

Bokaleen artean /r/ ren galera nahiko orokorra da zubereraz.

r → Ø / V - V

orai > [oai̯]
hori > [hoi̯]
besterik > [beśteik]
txirulari > [čjulai̯]
ere > [ee]
maskaradako > [maśkaaďako]

Hau horrela baldin bada ere, batzutan /r/ leuna [r̄] ahos katzen dute.

Beraz

oro → [ór̄o]
oro → [óo]

Euskalki honetan asimilazioa ere ematen da

mb → m hots, leherkari ozena dena sudurkariaren eraginez desagertzen da.

zunbait > [sumai̯t]

/j/ fonema, [ž] ahoskatzen da.

Zenbait aldiz, eta bokale artean, z, s, x frikariak, ozen durik entzun daitezke Zuberoan (Nafarrera Behererako zenbait motatan bezala).

II.2.2.- SANDHI BATZU

z + z → tz	ez züzün	>	[ecüsün]
z + b → zp	ez bait dira	>	[espeitía]
z + d → zt	ez dakit	>	[estákit]
z + g → zk	ez gia	>	[eskía]

---

t + d → t	bait dira	>	[beitía]
t + g → k	bait gira	>	[beikía]
z + n → n	ez nakikezü	>	[enakikésü]
n + z → ntz	egin ziküzün	>	[egincikűsün]

II.3.- AZENTUARI BURUZ BI HITZ

Zubererak azentu azkarra du.

Egoera normala nominatiboan, (-2); hots azentua atzetik hasi, eta bigarren silaban.

Oxitonoak badira ere (azentua azkeneko silaban) honako kasu hauetan bakarrik).

(1) diptongoa : zumáit

(2) maileguetan : malerúz̃

(3) lexema$_1$, lexema$_2$: etxahún (= etxe+on)
zamaltzáin

(bigarren lexema silaba bakarra denean)

III. EZAUGARRI MORFOLOGIKOAK

III.1.- IZENA

Izenak bi eratako deklinabidea du: mugatua eta mugagabea. Oso garrantzitsua dugu jakitea erroa zein den, gero hori deklinabideko erlazio hizkiak erantsiz, euskal deklinabidearen kasoak sortzen joan ahal izateko; bai mugagabean, bai mugatuan.

Baita ere, erro hori, gordinik agertzen denean, ea bokalez ala kontsonantez bukatzen den kontutan izan behar dugu; ze orduan, erro horren eta erlazio hizkiaren erdian, loturazko hizkia ezarri beharko baitugu.

Honela, ahal dugun neurrian eta testuari (grabaketari) atxikiz, mugagabea aztertuko dugu.

NOMINATIBOA	besu	zamaltzain
ERGATIBOA	besuk	zamaltzainek
DATIBOA	boneter	aphezer
POSESIBOA	borturen	presunerren
DESTINATIBOA	kabalentako	a(r)hanentako
SOZIATIBOA	alkhatiaki(la)(n)	zamaltzaineki(lan)
ORDEZKOTZAT	besutako	basabazterretako
PARTITIBOA	bortha(r)ik	xarriotik
INESIBOA	besutan	zamaltzainetan
DELIMITATIBOA	besutako	zamaltzaintako
ABLATIBOA	besutaik	zamaltzainetaik
ALATIBOA	besutat	zamaltzainetat
INSTRUMENTALA	besutaz	zamaltzaintzat

Mugagabea alde batera utzirik, sar gaitezen orain izen mugatuaren barnean, eta ikusiko dugunez bide beretsutik doaz forma guztiak. (Geure corpus-aren arauera ari gara, berriz hau azpimarratuz).

NOMINATIBOA	kauxea	a(r)hanak
ERGATIBOA	amák	atabalék
DATIBOA	arrebá(r)i	txiulaiér
POSESIBOA	nagusian	semén
DESTINATIBOA	gazteantako	artuentáko
SOZIATIBOA	jendeaiki(lan)	xorrotxeki(la)
INESIBOA	batian	dantzetan
DELIMITATIBOA	bestaldenko	gaztainetako
ABLATIBOA	herritik	herrieta(r)ik
ALATIBOA	bestaldelat	mendi(la)(ra)t

LEKU-IZENAK	IZEN NAGUSIAK
OTXAGABIA	HAGOLA
Otxagabiak	Hagolak
Otxagabia(r)i	Hagolai
Otxagabian	Hagolan
Otxagabiantako	Hagolantako
----------	Hagolaiki(lan)
Otxagabiantako	Hagolaitako
Otxagabia(r)ik	Hagolarik
Otxagabian	
Otxagabianko	
Otxagabiatik	
Otxagabiala(t)	
Otxagabiaz	

II.2.- ADJEKTIBOA .

Adjektiboa izena bezalaxe deklinatzen da. Beti izenaren es kubitara agertu zaigu, deklinabidearen erlazio hizkia honek bakarrik jasoz.

Atributu gisa azaltzen denean ez du aldaketarik jasaten, ingelesez bezala.

"lagünak jator tützü"

"haik faltatzen dianian ordüan berri txar, hain züzen berri txarra zela, ordüan haik faltátü gaizto zela".

Deklinabide aldetik gauza bitxirik ez dagoenez, esan deza gun adjektiboek graduatzaileak hartzen dituztela:

-ago = konparatiboa

-en = superlatiboa

- egi

III.3.- ERAKUSLEAK

Euskaran hiru erakusle mota ditugu: batetik objektu gertukoa adierazteko, bigarrenik ez hain gertuan dagoen objektua adierazteko; eta, hirugarrenik, urrun dagoena adierazteko. Honela objektuak gerturik urrunera lekutuz eta hirukoiztuz.

Fenomeno hau erakusleen maila guzietara zabaltzen da oso aberatsa eta bitxia gertatzen delarik.

Erakusleek Izen Sintagma mugatu egiten dute, eta beronen eskubi aldera agertzen da determinante gisa.

Erakusleen erabilera euskalki bakoitzean desberdin samarra izanik, hona hemen zubereran atera ahal izan dugun taula sistematikoa:

PASIBOA	háu	hói	hú(r)a
ERGATIBOA	húnek	hórrek	há(r)k
DATIBOA	húni	hórri	há(r)i
POSESIBOA	húnen	hórren	há(r)en
SOZIATIBOA	hunékin(la)	horrékin(la)	ha(r)ékin(la)
DESTINATIBOA	----	----	----
INSTRUMENTALA	húntzaz	hórtzaz	hártzaz
INESIBOA	húntan	hórtan	hártan
ABLATIBOA	huntá(r)ik	hortá(r)ik	hartá(r)ik
ALATIBOA	hunta(r)á(t)	horta(r)á(t)	harta(r)á(t)

INDEFINITUAK

Izen Sintagmaren eskubi, nahiz ezker, aldean ager daitezkeenak ditugu, determinante, pre-determinante gisa. Bakanen bat, gainera, nahiz aurretik, nahiz atzetik, joan daiteke: "jénte há nitx, hánitx jénte".

Indefinitu hauek Izen Sintagma mugagabeak osatzen dituzte.

Maila honetan, aipatzea merezi duen hitz bakarra "ELI BAT" izango litzateke. "ELI" multzoari deitzen diote, nahizeta multzo hori bi osagaiz osatua egon.

Hemendik at, baita ere agertzen zaigu "ZUMAIT", "ZUMAITEK" hitza, baina izenordain bezala jokatuz:

"Bedaxagár eta zunbáit laguntzéa etxerát"

"Hagóla ta Kastillón eta zunbáitek ere..."

IV.3.- ADBERBIOAK

Euskarazko adberbioak izen, adjektibo eta izen-ordain hain batez osatuak datozkigu, gero deklinatzeko ahala dutelarik.

Adberbio hauek denborazko, lekuzko, kantitatezko..... eta abar, izan daitezke.

DENBORAZKOAK	LEKUZKOAK	KANTITATEZKOAK
lehen	han	hánitx
ge(r)o	hemen	
geoztik	hor	
ordin-ordüan	hebenko	
sekülan		
azkenik		
lehenago		
oai		
aldi oro		
aspaldi		

JUNTAGAILUAK

Hauen eginkizuna esaldiak edo sintagmak elkartzea dugu. Elkarketa hau bi mailatakoa izan daiteke:

a) Koordinaketa edo parataktikoa

b) Subordinaketa edo hipotaktikoa

Koordinaketan esaldi-sintagmak maila parekoak ditugu, subordinaketan, aldiz, bata bestearen menpeko izan ohi dira. Gainera, menpekotasuna atzizki-aurrizkien bitartez datorkigu, koordinaketa, berriz, bere eskuko hitzez baliatuz.

Dena dela, sarritan ez da hain erraza koordinaketa eta subordinaketaren arteko mugak non diren jakitea.

Hemen azaltzen zaizkigun esaldiak, koordinatuak ditugu, bat edo beste ezik.

DISJUNTIBA "... lehen erraiten zün olhá edo naban..."

KOPULATIBOA "... egin züzün ogeita bostian eta hek ogeita zortzian."

ADBERSATIBOA: "ziarrizko maskada ederra, bena geoztik izan niz...".

III.4.- ADITZA

Textuari atxikituz esan dezakegu zubereraren aditzen formak ulergaitzak edo zitzaizkigula. Dena den, dugun corpus-etik zenbait ohar atera genezake:

a) zutanoa darabiltela.

b) ez dela aditz trinkorik azaltzen, IZAN-UKAN ezik.

d) forma oso arruntez baliatzen direla, esaldiak egiterakoan.
Batipat Indikatibozko formak darabiltzala; eta, gainera, NOR eta NOR-NORK erakoak.

e) guzti honen arauera, garbi ikusten dela corpus-aren balio urria maila honetan, ezin baitugu ondorio orokor liratekeen batzutara hurbil.

f) halaz ere, ondoren agertzen diren zenbait aditzen zerrenda emango dugu, aurretik aditzaren nolabaiteko sistematizazioa aurkezten dugularik.

NOR		NOR-NORK	
EZPEIKÍ(R)A	(gara)	DIZÜGÜ	(dugu)
NÜZÜ	(naiz)	ZÍZÜN	(zuen)
ZÜTÚZÜN	(ziren)	DÜZÍE	(dute)
DÜZÜ	(da)	DÍZÜ	(du)
DÜTÜZÜ	(dira)	ZITÚ(T)ZÜN	(zenituen)
GÜNTÚZÜN	(ginen)		

NOR - NORI - NORK

NIÓZÜN (nion)

Z. ATHARRATZE

ADITZ FORMA BEREZKOAK

NAI	ZAITZO
NIK	DIOK
NAYE	DITAK- DITADAK
DUT	ZIOK
DEYO	ZITAK-ZITADAK
DEIT	DIE
ZAYO	DIE(DI)TIE
ZAIT	ZI(RA)D(I)E
DEITZO	DE(R)IE
DITZOT	DIEK
ZAYE	

IV. SINTAXIA

IV.1.- IZEN SINTAGMA

Oro har esan genezake, ze, begiratutako adibideetan gero ikusiko dugun baten bat kenduta, Izen Sintagmaren egitura beste euskalkien antzekoa dela:

I.S.- (Izlg) + I + (Adj) + Det.

Hala izanagatik ere, ez da gehiegi nekatu behar zenbait berezgarri ikusteko.

- Determinatzailea aztertuz gero, hona zer ikus daitekeen:

1. Zenbatzaile zehaztugabeetan

"Anitz" Izenaren eskubitan nahiz ezkerretan agertzen dela.

"Jénte hánitx"
"beste hánitx"
"Hánitx gáuzatan góiti..."
"béste hanitxétan behéti"

- Zenbatzeko orduan:

"Mila bederatzirehun eta hirutan
hogei ta hamarrean"

- Izen kolektiboak erabiltzerakoan

ORO, JENDE, ELI, (Honela izendatu ditugu Villasanteren "Estudios de Sintaxis Vasca" izeneko liburuan irakurri bezala.

Beste zenbait gramatikatan ez ditugu aurkitu ere egin).

ORO:

"aldi oro"
"lekü orotan"
"probintziak oro": I + mug. + oro

Ikusten denez, izenak hartzen du mugatzailea, "oro" bere horretan geratzen delarik. Plurala horrela egiten duela dio Villasantek (26. or.), nahiz eta "oro" horrek ergatiboa onartu ahal izan (Orok dugu ardura bat - Villas. 26. orro.).

JENTE

"Jente hanitx"
"480 jente bazuen.."

Mugagabean darabil eta aditza singularrean.

ELI:

"Kauxea handi, eder eli bat" (sic)
"... artzain eli batekin"

Badirudi "eli", multzo adierazle horren ondotik "bat" edo zenbatzaile bat datorrela.

Dena den, lehenengo egitura dugu arraro xamarra. "Multzo eder bat" esango genuke guk, adjektiboa tartean sarturik, eta ez "eder eli bat".

- Ama eta biak etorri gara / Amak eta biok egin dugu.

esango genuke paraje hauetan. Han ordea zera atera zaigu:

"Etxahun eta biok.... egin genituen..."

- Izenlagunak

  - KO, -EN atzizkiak erabiliz jakina denez.

    "Otsagabiako artzain..."

    "Nabarrako...

    "Xorrotzen dantza..."

  - Honaino dena normal. Baina halako batez "iziarrizko ederrak" dio.

    Horren pareko: "iziarri eder da"
    "iziarrizko batzarrea" erabili ditu.

Hemen, eta oso oker ez bagabiltza, Izenaren aurretik erabiltzen da "izugarrizko"; ez ordea adjektibo baten aurrean.

"Izugarrizko gizona" esaten dugu, bainan ez "Izugarrizko polita"; baizik eta "Izugarri polita".

IV.2.- ADITZ SINTAGMA

- J.S. NOR

Daukagun textu urri honetan, nominalizazio bat agertu zaigu:

"...bena ez paikie bortxatu juntuz juitea"

"Hartako behar da trebe izan" dio, eta ez "trebe izan behar da".

"Izigarri eder da". Atributua mugagabean.

"Neskatila iduri-iduri zen".

- I.S. NORI.

Hemen ez da ageri adibiderik; baina Tartasengan, nahiz eta Basabürükoa ez izan, ageri dira Etxahun berberak erabili formak ("Zazpi probintzier" esaterako).

"...eta elger haier, heldü zen bezala, heldü zaukü, guri ere".

Kuriosoa da frase hau, "zen" agertzen da eta ez NOR NORI NORK forma gero bigarrenean bezala.

- ADITZLAGUNA

"...beste gaindilat". NORA

"sekülan, tenoian" NOIZ

"On nintzen artean" NOIZ

"Karrika ttipi hunetan" NON

"Lehen aldikoz" NOIZ

"Hura joan zen Otsagabiako artzain eli batekin"

"Haiekilan"

e.a.

IV.3.- PERPAUSEN ARTEKO LOTURAK

Adibide urri hauetan gehien ageri zaizkigunak "Yuxtapuestas" horietakoak dira koordinatuekin batera. Mendekoak pare bat baino ez dugu.

Honen zergatia corpusaren urrian behatu behar dugu, eta ez beste izen (beti aipatzen diren arrazoi horietan "kultur" gabeko herri eta pertsonek ez dituztela subordinatuak eta erabiltzen).

Kopetean bi behatz dauzkan edozein jabetzen da Garat-ek (beste edozein Xuberotarrek bezala) darabiltzala menpekoak nahiz elkartuak.

Hori frogatu ahal izateko, ARGIA aldizkariren 965. zenbakia begiztatu dugu; non horrelakoak ikusi baititugu, nahiz eta elkarrizketa "batua-Xiberutar" nahasi batean egon, eta ez ukan corpus zuzen baten balioa. Hala eta guztiz ere, antzeman daitekezenbait perpausa Garat-ek esandako moduan sintaxiari gagozkiolarik.

- "Zük nola egiten tützü kanthoiak, ez müsikaik ezagutzen duzü-ta".

- "Alhargün bat ezkontzen bazen beste neskatila batekin bal bat pagatu behar zien gazteei, bestela tütaz hartzen zituzten gazteek".

- Ez baita mekanikarik ezartzen ahal"

- ...eta zenbait ez ziren joaten ahal"

V.- Corpus. TRANSKRIBAKETA

[hagólata batesé: žarðúnakee dežentúnak é:
hagólata kaštilóneta: somáitek é: hék eakúšten djésú
dánca taðánca ....
múštraka bái, múštraka húak hó egínen düsíe bí etahíu
egínen düsíe háši benolehén, šejúrte hášibenolehén
geobeštélan etažátendüsíe žamišél ba: šagár etabíg
čjúlai tatabál
hácöðüsíe mãnetofónà maškaðák osé oró
dancák etakhautéak etašoróčak
báišoročen dánca šajúa
etakheštún dancák etamunéinak eta ...
óro hártüs ücíe húag kažétan
tagéo horí gúkartjan eta müstraka ebilten düsíe hambérjan
gihái žwítja maškáðak háši benolehén
....
üngüáða hánič gaštúk patüsübéna espeikīe borčátü
džjúndažúitea
žüštúta eskötösö šekülan é: geo hói baisógö gaisá àt
...
é:s... hagóla ?askénik uštéicamalcájočé:roisánīk o:
baðüsüoai andénabat bešténa bái isjaríko eðerak éĩ sisjén
hoitasórcjan
húak ɔ: hèben ahánen egincisíen ?oitabóštjan
eta hék oitasórcjan sjarikomaská:ðaeðéra
benagéostik isánis egínem bena....]

[enősö hóitə: sehagóla sősön čerewalasamál canisén
bái maská:da eđérata: šoróčak eđéra citüsjén
.....
otóak serčősön kampóa cősöm beśúata
otójan serčwéstakit peśtébatalamöríag móstüsón
.....
arebá badűsü estákit peśtéik adínes arebá:
beśterík enekökézö hóit nűsü eamanási gintócön
bedašagár etasumáit lagún cea ečéat etamák egín cökősön
haušé ahá:di eđer elíbat
erán józö ʔaśpaldi enialaikʰúśialakaušéa eđérik
léhen é egíten sisié maškaďák aldí ó: gíte süsíen
kaušé hándi đéicen gütűsón tašaldüa sósö
ordín leheneráiten sín olhá haitácen olhá edobeśtélan
nabán eta zéren üngjá ašáme fãcja lehenágo bana...
húa žún cösön ocabíko arcáin éli batekí
navárako: beśtaldéko serbatían ta:eráiten djésö
arhán ohí sér eta:oái sér karíka...
bađá žéntehánič háu eta: ʔábai bái hebénko sék nagušiák eráiten dö
namábi míla yénte etaoráno bastérak... habó honó habó
aháta hán nor düsú alkhatía
beśtj eráites ahán muźde ártho arthúa edonáikos...(?)
háik faltácen djániän ordíam berišar
hain cősem beri čára séla ordían háig faltátö gáišto séla...
... gastanág hór śambesála...
ba:kísú nolaegíten günían gasteđembóan gü gastanák
egóišten gintűsön mašílakí
šallahagá đéicen güsón
ba püntáko söla búška bášta pünta güsie holáše śárcen]

[ordím bílcen gitűsön húak egóišten
tawemasték bilcen sücjén húak
tagüké: finíten dó: tageo šarjó sahařétan esisó
haikúa śei šarjó caříto
kapája ďéicen sütűcün khetásko sér elíbat
hólaxegúa khetáskotohjétan hetatolán kargácen
bilcémoďú besála bikáinařthúa
ordíne: biltén gönjésö pakétha bilcén gastának
ta: borthakúakhéiki lánaštén gintísön
tagiháug žáten kájosopati lánda sidatá gastanéřé ta:
šagařařďúa taeznía ta paśtá ečíki sopotřík eta: goisígářjušái...
...
aicen són dáncan eta: be: andřegájek eta oáiko ə: dzás eta
śonanímäl hojéki ei neškatilá náiko šélükai cenón árřtan...
šéř ďeko šélüka eta a:pétik elheśtacía oai
sonía lehẽ a:péti mincacen sönóis dánca...
alehenéko híc hánič óź eta: gáldeko espeití(e)mplegácen oái
estősö: a: inösö seřcén
oi is čikíbat ói lehén šarkóta bat eďáten sünían
etabö: tjákotřentjáko bota boštéran wisi: l.lúse degonének
hic číki hója is čikí handiška sjáho é
.....
bein etadžöbentösöséilat óřiko: eškjúla sainín ori nósö
arcáin óhin hamáirutan hášita: óiďate éskontínwoé
benahóla: hilabetían aštébete horíncan aldikácen gitinén
oái besála éiten sjénta
géo žöngöntósön ibařembóřďa ta: beštebí:]
...

[hámar sócöm beštáldetik eta: ocagabíko séan aitasémelibat
napařaldéko šibeutářakedo:.. hánořdína
šářcen sötősön süsíehunat fřáncjako aldíra
etaořdúko behargařdaba süsön tahaikšubilácensön]

OHARRA: Arhane-ko Garat atabalaria oso azkar mintzatu zitzaigun. R. Idiart-en laguntzaz argitu dugu haren hitzaldia; nahiz eta puntu batzu oraindik ere ilun egon.

VI. LEXIKOA

Hemen jarri nahi izan ditugu, geure zintetan agertu zaizkigun zenbait zuberotar hitz aipagarri

ZUBERERA	ESAN NAHIA
A(R)HAN	fruitua
ATABAL	atabala
ANDANA	multzoa
ALDIKATZE	txandatzen
ARTHUA	artoa
AZKARRA	fuerte
ANHUA	artzaiak eramaten duen janaria
ASMÜLÜZ	motza (corto mental)
A(R)IZALIAK	aktoreak
AITAMAK	gurasoak
APHÜR	gutxi (gauza)
ALKHATIA	alkatea
ALEGERA	alaitsu
APHEZ	apaiz
BORTHAKUA	etxeko txerria
BONETA	txapela
BASABAZTERRA	kalea
BORTXATÜ	bortxatu
BORTHA	ate

ELIBAT	batzu, koadrila bat
ERRAITEN	esaten
EDERRA	hermoso
EIJERRA	polita
EGOITSI	astindu
ERREPETIZIONE	errepikatze
ELHÜRRA	elurra
ENPLEGATZI	erabili
ELHESTATÜ	mintzatu
EZKUNTÜ	ezkondu
EHORTZI	lurperatu
AINTZINA	aurrera
HANITX	asko
AGITÜ	gertatu
AIZATÜ	barreiatu
ATXIKI	heldu
AHAIDE	doinu
BORTÜ	mendi
BAL	dantza
ELE	hitz
ELKI	irten
FALTATÜ	faltatu
FINITÜ	amaitu
FARRANDOLA	korroa

GANUA	gaitasuna
GANO(R)A	trebe
GAITZ	zail
GÜTI	gutxi (-tasun)
GIBELOI	geldo, motelegi
HAGA	makila luze
HABO(R)O	gehiago
(H)UNTSA	ongi, ondo
HELTÜBADA	beharbada
JAUNTZI	salto, saltaka
KAEZIA	igurtzi
KUSI	lehengusu
KABALA	animalia
KOXELÜKA	ahopetik (ahotik belarrira)
KANTO(R)E	abesti
KAPAIA	kartola
KAUXE(R)A	bazkari mota bat
KARRIKA	eliz ondokoa (centro ciudad)
KHESTÜ	maskaradako pertsonaia
KASETA	"cassette"
KOBLA	bertso
KONPRENITÜ	ulertu
KONTINUO	etengabe

MANEXA	zuberotarra ez dena
MÜRRÜ	muro
MUSTRAKA	Pastorala ber-ematea
MAGNETOFONA	magnetofoia
MEDEZI	sendagile
MUNEINAK	Pastoraleko pertsonaia bat
MUSDE	jaun (aurretik jarria)
NUNEBEITA	seguraski
JIN	etorri
OTOAK	kotxeak
ORDIN	orduan
PELOTAKAI	pelotari
PATTU	etxeko txakurra
PAKETA	mordo bat
PRESUNER	preso
PATAR	malkar
TABALATU	atabala jo
TXÜT	zutik, zuzen
TRUNPATÜ	huts egin
TXI(R)ULA(R)I	txirulari (Z. txülülá(r)i)
TENOIAN	garaiz
TXERRERO	txerri zaintzaile
TXESTATÜ	probatu, dastatu

ÜNGÜ(R)ATZEZ	zerbait zeharka esatea
ÜNGÜ(R)ADA	kurpila
ÜSÜ	maiz
UNTSA	ongi
O(R)O	denak
XORROTXAK	maskaradetako pertsonaia
XAFLAHAGA	arbolak egoizteko makila luzea
XAFLATU	indarrez jo
XARRIOT	gurdi txikia
JUSTÜ	hain zuzen
XAHAKO	zahatoa
ZUNBAIT	zenbait
ZALHE	arin, azkar
ZERRATÜ	itxi
ZIETA	plater
ZIETATA	platerkada

MAILEGUAK

Latinetik datozenak

TABULA	Z. atabal
PORTA	bortha
MONSTRO	mustraka
FORTIS-e	bortxatu

Frantsesetik datozenak

CONTINU-UE	kontinuo
MUR	mürrü
MAGNETOPHONE	mañetofona
AUTOMOBILE	oto
PAQUET	paket
FINIR	finitü
BONNET	boneta
REPETITION	errepetizione
CHARRIOT	xarriot
ASSIETTE	zieta

Gaztelatik datozenak

CERRAR	zerratü
COMPRENDER	konprenitü
EMPLEAR	enplegatü
COPLA	kobla
FALTAR	faltatü

VII. BIBLIOGRAFIA

Pedro de YRIZAR: "Contribución a la dialectología de la lengua vasca". CAP.

F. Mizpiratzeguy: "Grammaire basque".

Villasante, frai,: "Estudiõs de sintaxis vasca". Arantzazu.

Jean Larrasquet: Grammaire B.S.
Dictionnaire B.S.

Ch. Inchauspe: Le Verbe Basque. (ed. Hordago)

Louis Gèze: Grammaire Basque (ed. Hordago)

E R R O N K A R I E R A

J. Gabilondo

0.- SARRERA

Sarrera honetan argi utzi nahi genuke, orain artean barreiaturik zeutzan material eta datuak biltzen eta sistematizatzen saiatu garela; ez da ikerketa-lana (aditzaren morfologia ezik), eta beraz ataletik atalerako alde eta ezberdintasunak material ugaritasun eskasiaren arabera doaz. Bestalde, orrialde kopurua zela medio, aditzaren morfologiari buruz egindako lana (40 orrialde g.g.b.) kanpoan utzi behar izan dugu, bere argitalpena beste abagadune batetarako atzeraturik.

I.- SOZIOLINGUISTIKA

I.1.- ERRONKARIERAREN AUZIA: EUSKALKIA OTE?

I.1.1.- Erronkarieraz ari garenean, haren egoera soziolinguistikoa huts-hutsean eman aurretik, haren egoera dialektologikoaz mintzatzeari beharrezko deritzagu; izan ere egun, gehienek euskal kitzat jo badute ere, ez baita beti hala izan.

Erronkariera jadanik lehena aipatzen (hemendik aurrera joera nagusiari jarraikiz E-z izendatuko dugu) Joannes Etcheberry dugu, nahiz-eta ez helburu dialektologikoz; berak zioenez Nafarroa Behereko edo Zuberoako norbait ezin izango zen Bizkaiko edo Arabako norbaitekin konpondu, ez Otsagiko edo Erronkarikorik Baztan edo Lapurdikorekin[1].

Halere lehen aipamen honetan Erronkari, bidenabar aipatu bazaigu ere bere ezberdintasuna hor dago.

I.1.2.- Halere L.L.Bonaparte printzearekin hartuko du E-ren auziak bere lekua. Egin zituen lau bidaietan, E-z arduratu zen; eta bere azken sailkapena eman ondoren ere, ez zuen arazoa zokoratu, behin eta berriro bere usteak birplanteiatuz.

Lau bidaien buruan, Erronkariko 5 herritatik jaso ahal izan zuen informazioa: Bidankoze, Erronkari, Urzainki, Uztarroze eta Garde. Beraz, Izaba eta Burgi utzi zituen kanpo. Datu-biltze honetatik abiatu zen bere sailkapena egiteko. Bere lau sailkapenen arauera zera ikus genezake:

1861-63	1864-65	1866-68	1869
Z	Z	N-Z	Z
Zuberoakoa edo berezkoa	Zuberoakoa	I. Atharratze	Berezkoa.Atharratze Bidank.
Erronkarikoa	Erronkari	II.Bidankoze/Erronkari/Izaba	Erronkariera Urzain. Uztarr.
Zaraitzukoa	Espainiakoa Zaraitzu	III.Eaurta	Zaraitziera,Zaraitzu
	Nafarroa beherekoa	IV.1 Donibane G.	ENB
		2 Donapaleu.	Garazi--Amikuzekoa D.Garazi Amikuze
		3 Bardoze	Bardoze Donamar.
		4 Donamartiri	
		V.Beskoitze...	Aturrikoa Beskoi. Urketa

Bere lehen bidaia 1865-2-27-an egin zuen; bere laguntzaileak, eta bertako jendea ere, txunditurik utzi zituen, bertako hizkerak ikasteko agertu zuen erraztasunaz[2]. Bidai honetatik aurrerantzean, ez zuen E-ren arazoa inoiz utziko; bere euskalkirik maiteena bide zuen.

Lau sailkapenetan ikus dezakegunez, (ikus hurrengo orrialdeko mapa) E, Z-ren barnean sartu zuen. Lehen sailkapenean ez zigun xehetasun handirik eman; bigarrenean aldiz, Zaraitzieraz (hemendik aurrera Zar. idatziko dugu) baturik bi ataletan banatutako Z-ren barietate espainiartzat jo zuen. Ordurako jadanik E-zko lehen textuak lortu ditu. Hirugarren sailkapenean agertzen zaigun bereiztasuna azpi-sailkapenena da: E "in situ" aztertu ondoren, hiru hizkeratan banatu du: Bidankozekoa, Erronkarikoa (gero Urzainkiko deituko du), eta Izabakoa (gero Uztarroze). Zatiketa hau, egundaino erabili da, eta ez du aldaketarik jasan. Laugarren eta azken sailkapenari dagokionez, berriz, zuzen-zuzenean ez du E-n berrikuntzarik sartu, bakarrik lehen nafar-zuberera zeritzona bitan zatituz, Zar-tik hasita beste euskalki bat ezarri zuen: Ekialdeko Nafarrera beherea. Geroago azalduko dugunez, honek ere badu bere garrantzia. Halere laugarren sailkapen definitibo honetan, Z-ren barietate espainiartzat jo bazuen ere, uztartze honi eusteak, edo-ta gure euskalki honi buruaskitasuna emateak, beti eman zizkion bere buruhausteak.

Hala 1872-an bere "Etudes sur les trois dialectes basques des Vallées d'Aezcoa, de Salazar et de Roncal" argitaratu zuen[3]. Eta Azkuek bere E-ri buruz egindako lanean dioskunez, Printzeak

berriro ere bere duda-muda hori garbi azaldu zuen bere beste lan honetan: "Edutezko atzizki italiar eta uraliarrak erkatuta" bertan hala dio: Europako dialektoak (kaukasokoetatik at) hauei dagozkie: Euskal hizkuntzari, nire aburuz 8 euskalkitan banatua, eta agian 9, E azpi-euskalki huts baino zerbait gehiago baledi..."[4].

I.1.3.- Ondoren, euskalki honi arreta gehien jarri dion euskalaria, nola ez, Azkue dugu, eta honek ere lan berezia eskeini zion: "Particularidades del dialecto roncalés" (ikus bibliografia). Honetatik sortu zen egundaino euskalari gehienek E euskalki berezitzat jotzeko erabakia, bere lanaren izenburuak aitortzen duenez. Azkuek berak zioenez, Campionek idaroki zion E-ren buruaskitasunaren ideia. Eta hain zuzen Campioni Bonaparte Printzeak berak 1880an idatzitako gutunean azaldu zion E ia euskalki berezitzat hartzeko ustea. Prozesua beraz garbi azaltzen da[5]. Azkuek ere euskalki kutun zuen, Mariano Mendigatxa erronkariarrarekin izandako gutunketa luzeak azaltzen duenez[6].

I.1.4.- Ondoren E-z bereziki aritu diren euskalari eta euskaltzaleek ere Azkuek ezarritako erizpideei jarraikiz, euskalki buruaskitzat jo dute hauek: Irigaray[7] (honen eritziz azpieuskalki aragoarrekin elkartuagorik, Z-rekin baino) R.Lafon[8] (nahiz ez behin betiko garbitu auzia) L.Michelena[9], K.Izagirre, K.Artola[10] e.a.

Halere egun, zenbaitzuk (N.Moutard eta P.Irizar-ek) Z-ren barietate espainiartzat jo dute (halere azken honek aitortu du euskalki maila badu ere hilda dagoenez erosotasun hutsagatik Z-ren azpian sailkatu duela)[11] Izan ere haren buruaskitasuna aldarrikatzen dutenen ziurtasun eta tentuak, alde batetik, eta Z-rekiko atxikimenduari eusten diotenen eritziak, bestetik, L.Michelenak aipatu liburuan aurkeztutako arazora garamatza: euskalkien arteko ezberdintasuna ezin dela zehazki finkatu jarrai etengabea baita (isoglosak)[12]. Beraz azken finean, arazoak ez du garrantzi gehi egirik. Geuk, baiezkoari eusten diotenen pisua handiagoa delakoan, eta ezezkoari eusten diotenen artean, desagertuxe dagoelako edo, Z barnean sartzeak dakarren erosotasuna arrazoi bide delarik, euskalki berezitzat hartzea erabaki dugu.

Beraz, lehen sarrera soziolinguistiko honetan, E euskalki buruaskitzat hartzeak ekarritako gorabeherak aztertu ondoren, goazen jadanik bere aurkezpena egitera.

I.2.- GEOGRAFI KOKATZEA

Lehen-lehena beraz gure euskalkia kokatzea dugu (ikus hurrengo orrialdeko mapa). E, Erronkariko ibarrean mintzatzen zen. Ibar hau, Nafarroako ifar-ekialdean dugu, Pireneen magalean, ezkerretarantz eta parekideki Zaraitzu eta Aezkoa dituelarik. Ibar hau Ezka ibaiak zeharkatzen du, bere ibaiadar ezberdinetan Erronkariko 7 herriak kokatzen direlarik. Zazpi herriok hauetxek ditugu, hegotik ifarrerantz: Burgi (burgiar), Garde (gardear), Bidankoze (bidankoztar), Erronkari (erronkariar; hemendik hartu du bailarak izena), Urzainki (urzainkiar), Izaba (izabar), Uztarroze (uztarroztar). Ezka ibai hau Aragon ibaira doa, beste hau, berriz, Ebron isurtzen delarik.

Zazpi herri hauek osatzen duten azaleraz ohar gaitezen, Lafonek damaizkigun luze-zabalak aipa ditzagun:

Bidankoze-Garde (mendebalde-ekialde)..... 7 kilometro
Uztarroze-Burgi (ifar-hego).....20 kilometro
eta
Garralda (aezkeraren mendebaldeko muturra) eta
Garde (erronkarieraren ekialdeko muturra) artean.....34 kilometro

hots, azken neurri honek E-k, Zar-k eta Aezk-k duten luze-laburra ematen digu.[13]

I.3.- ERRONKARIERA: AUZOAK ETA MULTZO BEREKO HIZKERAK

1.3.1.- Beraz, haren kokatze geografikoa ikusi ondoren, azter dezagun nola eratzen den inguru geografiko horretan.

E-ren euskalki lagunak, Z eta Zar. ditugu. Eta izan ere, bi euskalki hauekiko bi paradigmatan sailka genezake:

1) Batetik ifarraldean beren euskalki-ama duten hizkerekin: (baz

tanera), Aezk. eta Zar.

Aurreko orrialdeko bigarren mapa hartuz gero, eta Bonaparteren sailkapenak lekuko, Ahuñemendi ez da ifarraldeko euskalkientzat muga, bakoitzak bere luzadura baitu hegoaldean, halanola:

Lapurterak.....baztanera (?)
Mendebaldeko Nafarrera behereak ...aezkera
Ekialdeko Nafarrera behereak .....zaraitziera
Zubererak.....erronkariera

Baztaneraren kasua zerbait korapilotsuagoa bada ere, eskumako zutabeko hizkerek, ifarraldeko euskalkien luzadura paradigma osatzen dute. Hauetan, E genuke seguru aski, gero aipatuko ditugun arrazoiak direla medio -bazterretako izatea, eragin erromanikoa- euskalki maila iristen duen bakarra, antza.

2) Bestetik, Z-rekin batera, beste paradigma hertsia osatuko luke: bizkaieraren antipodak. Bien arteko homomorfismoa (Z-E) erabatekoa da, ezin-bereiziak eta banatze-duda-mudak lekuko, nahiz lehen esan dugun, eta geroago puntuz-puntu frogatuko, Z-tik saihestuta, euskalki berezi kontsidera dezakegula.

E lekutzen duten bi paradigmok beraz, ekialde-mendebalde (Aezk., Zar, E) eta ifar-hego (Z,E) lirateke.

I.3.2.- Jadanik, haren barnera igaroaz, Bonaparte printzearen eskutik sortutako sailkapena izan da lehena E-ren hizkerak bereizten eta gainera harrez gero errespetatu dena.[14] Aurrean azaldutako bigarren mapa lekuko.

Sailkapen honen arabera hiru hizkera luke E-k, alegia:

Hizkera	Hizkera bakoitzaren herriak
Bidankozekoa	Bidankoze Garde Burdi
Urzainkikoa	Urzainki Erronkari

Hizkera	Hizkera bakoitzaren herriak
Uztarrozekoa	Uztarroze Izaba

lehen aurkezpen honetan ez ditugu elkarren arteko ezberdintasunak ikusiko jadanik, aurrerantzean, puntuz-puntu azalduko bait zaizkigu. Bakarrik esan Michelenaren eritziz,[15] Erronkariko ibarra laburra izan arren, Z bere osotasunean bakunagoa dela, E bere hizkeretan arrunt desberdintzen baita.

I.4.- HISTORIA

Labur-labur, E-ren historia lerro bakar batetan azal daiteke: XVIII. mendean oraindik ibar guztian hitzegiten zen euskalkia, hil egin da. Baina tamalez hala gertatua polikiago ikusi beharko dugu, zenbait xehetasun emanez.[16]

I.4.1.- HASERAKO ZENBAIT DATU

Heriotza dolugarri hau ulertzeko, zenbait datu kontutan hartu behar da. Lehena agian etnografikoa genuke; Erronkarin beste zenbait ibar parekidetan bezalatsu, ekonomi oinarria artzantza izan da. Ez dugu beste zehaztasunik emango, datua bere hutsean nahikoa zaigulako.

Bigarren datua bere kokatze geografikoa da. Haren ekonomiaz bezala, ezer gutxi lortu ahal izan badugu ere, datu bidez gure baieztapena bermatzeko; esan behintzat nahiko ibar apartatua dela eta geografikoki apartatua izateak beste herrietako eragina, eta gizartearena oro har, zaildu egin duela.

Hirugarrena, euskalki-kokatzea. Lehenik esan, mendetan nahiko hertsirik iraun bide duela (lehen esana indargarri), bere homologo zuberotarrak ez bezala. Horrek esplika lezake, alde batetik zergaitik aurki ditzakegun halako barne-desberdintasunak (Z-n ez bezala); eta bestetik, zergaitik azaltzen dituen arkaismoak hain ugari.

Baina kokatze honetan beste euskalkiekiko egoera ez dugu

ahaztu behar.

Lehenik beste euskalkiekiko, nahiko alderaturik azaltzen da; hots, lekune marjinal edo periferikoa du, Euskalerriko ekialdeko muturrean, (eritzi hau Lafonek irmotu zuen, E-k HNG-rekin izandako erlazioak murritzak izan direla dioenean). Haren ustez Irunberri eta Xabierren euskaraz hitzegiten zenean, Zar-ren hegoko muturra luzeagoa izan zen eta ondorioz HNG eta E-ren artean ukipen-fronte zabala galerazi zuen). M.Bartolik e.a. frogatu duten bezala (ertzetako eremuak), ertzetako izate honek guztiz determinatzen du hizkeraren izaera: batetik, beste euskalkien eragina ez da hain nabaria; eta gainera hertsirik iraun badu, erraz da ulertzen lehen aipatutako bi datuak: barne-bilakaera eta -ezberdintze berezia, arkaismoak.

Bigarrenik, XVIII.mendetik honantz E-ri buruz zenbait datu dugunez gero, bere hego eta ekialdean hizkuntza erromanikoekin dago erlaziotan. Eta, noski, beste euskalkien eragina handia izan ez bada ere, erromanikoena ere kontutan hartu beharra dago. Hala, bai sintaxia, bai fonologia ere, kutsu erromaniko honetaz eraginda azaltzen da. Azken datu honek azaltzen digu zergaitik sailka genezakeen Aezk eta Zar-z batera, izan ere eragin erromaniko zuzena jasan baitute NB eta Z-k ez bezala; eta honek bereiz ten baititu hauetatik; E-ren kasuan ezberdintze honi euskalki mailara iritsiz, bere barne bilakaera marjinala ere dela medio. Noski eragin erromaniko honetatik abiaturik ulertu beharko dugu beraz hegotik ifarralderantz hedatu den desagertze- eta erdalduntze-prozesua Erronkarin.

I.4.2.- SUNTSIKUNTZA KOPURUTAN

Kopuruak ematerakoan, berriz ere, Bonaparte Printzearengana jo beharko dugu lehenik. Azkuek ez zuen inoiz zenbaki eta kopurutarako afizio handirik izan; eta hurrengo datu zehatzak Irigarayk eman dizkigu. Harrez gero, Michelena, K.Izagirre eta K.Artola izan dira Erronkarin bertan inkestak egiten,[17] eta bestetik bertakoa M.Estornés Lasa. Hauetan aurkitu ditugun datuez (azkenak, isolatuak eta murritzak) osatuko dugu, beraz, paradigma. Halere, prozesua kopurutan ikusi aurretik, azpian datzan eragile

nagusia bat bakarra dela esan behar, eta hark esplikatzen duela Erronkariko erdalkuntza. Eragile nagusi hau, berriz ere Bonaparte Printzeak agerrerazi zigunez, artzantzarena zen: gizonezkoek -artzaiak gehienak- artaldeak hartuta Bardenen ingurutan (Erribera aldea) igarotzen zuten negua. Han erdara ikasita, ibarrean poliki-poliki sartuz joan ziren.

Bonaparte Printzearen garaian, 7 herrietan hitzegiten zen, baina hegoaldean, Burgin, gutiengo-hizkuntza zen eta jende helduak bakarrik hitzegiten zuen. Erdialdean, hots, Garde, Bidankoze, Erronkari eta Urzainkin, gizonak elkarren artean erdaraz mintzatzen ziren; eta emakumeekin berriz, euskaraz. Goialdean gizonek elkarrekin euskara nahiz erdara zerabilten, emakumeekin euskara, eta hauek beren artean ere euskara. Kutsadura-prozesua hegotik ifarrerantz artzantza zela medio hedatu zen. Hala, emakumeak herrian urte osoan zirautenak, izan ziren euskari eutsi zio tenak.[18] Honen lekuko Michelenak, Izagirrek eta Artolak egindako inkestetan, eta Estornés Lasak emandako berrietan, emakumezkoak gehiengo ziren (Michelenak egindako inkestan adibidez 9 emakumezko eta 3 gizonezko).

Prozesua ikusi dugu beraz, kopuruak eta ehunekoak ematea besterik ez zaigu falta. Ondoenik, Yrizarrek emanak ditu bere lanean,[19] baina urteotako kopuruak zerbait aldatu ditugu, Michelena, Izagirre, Artola eta Estornés Lasak emandako datuen arauera. Yrizarrek 1970erako zeharo suntsitutzat eman zuen E, guk-geuk jakin dugunez bada oraindik egun, E hitzegiten duen andere bat nahiz Erronkaritik kanpo bizi den. Eta oraindik K.Artolak 1975ean Izaban Antonia Anaut-ekin hitzegin zuen, eta 1979an Doroteo de Miguel-engandik eskutitza jaso. Azken honek, adibidez, 85 urte zuen. Ez dakigu hilik diren. Dena den, bertan, hitzegin ez arren zerbait gogoratzen dutenak (esaerak, kantuak, hitz solteak...) ugari dira. Hiztunik ez. Azken finean gure datu berriok Yrizarrek eman duen erabateko suntsitzea zerbait moteldu dute, alabaina amaiera bera da: heriotza.

Datuen interpretazioan lehen bi datu-zutabeak Yrizarren lanetik hartu ditugu, ondorengoak, beste zenbait ikertzaileri hartu dizkiogu. Azken hiru datu-zutabetan izartxoz agertzen diren

kopuruak, ez dute hemiko hiztun kopuru osoa ematen, kopuru hori behintzat badela adierazten baizik.[20]

Tamalez lana egiten ari ginela azken zentsuak lortuko genituen ustea bagenuen ere, azken orduan ezinezkoa zela eta datuok gabe gelditu gara.

Azken bi datu ere lortu ditugu lana amaitua genuela, bata M.Estornés Lasarena, "Los últimos euskaldunes de Izaba (Roncal)" BRSVAP 1981. Bertan dioskunez, Izaban 13 bat hiztun gelditzen ziren. Aldiz, B.Estornés Lasak aipatu artikuluan, 218.orrian hiztun bakarra dagoela dio. Azken datu honi, (aurrekoa kontutan hartuta) susmagarri deritzogu; gehiago bide dira oraindik bizi direnak.

BARIETA	HERRIA	Datu emale	L.L. BONAPARTE			IRIGARAY			MICHELENA			IZAGIRRE			ARTOLA		
		Noiz	1860-1870			1935			1953			1959			1969-1970		
		Zein datu	Bizlg	Hizt	%	Bizlg	Hizt	%	Bizlg	Hizt	%	Bizl	Hizt	%	Bizlg	Hizt	%
BIDANK	Bidankoze		347	310	%90	393	16	%4	-	0	%0	-	0	%0	193	0	%0
	Garde		463	350	%75	506	0	%0	-	0	%0	-	0	%0	290	0	%0
	Burgi		671	87	%12	754	0	%0	-	0	%0	-	0	%0	394	0	%0
	Orotara		1481	747	%50	1653	16	%0'9	-	0	%0	-	0	%0	877	0	%0
URZAIN	Urzainki		285	260	%91	320	13	%4	-	0*	%0*	-	0*	%0*	137	1	%0'8
	Erronkari		498	450	%90	529	21	%4	-	0	%0	-	0	%0	432	0	%0
	Orotara		783	710	%90	850	34	%4	-	0*	%0*	-	0*	%0*	569	1	%0'1
UZTAR	Uztarroze		638	570	%90	774	390	%50	-	5*	-	-	6*	-	421	5	%1
	Izaba		973	880	%90	1011	180	%17	-	14*	-	-	14	-	752	2	%0'3
	Orotara		1611	1450	%90	1785	570	%31	-	19*	-	-	20*	-	1146	7	%0'6
OROTARA			3830	2907	%75	4288	620	%14	-	19*	-	-	20*	-	2592	16	%0'6



ERRONKARIERA

7. Mapa

II.- FONOLOGIA-FONETIKA-PROSODIA

Atal hau aztertzeko hiru zatitan banatuko dugu lan hau: 1--bokalismoa; 2-kontsonantismoa; eta 3-azentua (prosodia).

Sail honetan Michelenak egin du azterketarik sakonena, aurre koenak (Uhlenbeck, Azkue...) barneratu eta bereaz osatuz.[21]

Garbi ikusiko dugu lanean zehar lehen aipatutako bi paradig mekiko erreferentzia bidez 1- Aezk-Zar-E, 2- Z-E) definituko ditu gula ezaugarri gehienak, euskalki honen buruaskitasuna non datzan frogatuz. Azkenik esan, Bidankoze, Izaba eta Uztarrozeko hizkerez baliaturik egin dela lana; Urzainki, Garde, Erronkari eta Burgikoei buruz ez baita nahikoa.

II.1.- BOKALISMOA

II.1.1.- BOKALE AHOKARIAK

E-k 5 bokale ahokari du /i,e,a,o,u/ beraz ez du Z-ren [ü] . Eta Aezk eta Zar-ren pareko da honetan.

II.1.2.- BOKAL GAUZATZEA

1/a - /i/ bokale moduan kasuotan gauzatzen da:
- kontsonante artean: ixiki = izeki, sutan
- etenaldi + kontsonante artean, edo alderantziz: [iši ki dur] = = izeki dut
- bokale aurrean azentuztaturik: Izb.Uzt: [eri bíaca] = erpuru, hatz

b - /i/ gorantz eta beherarzko diptongoetan: [j] eta [i̯] bihurtzenda Izb.Uzt. [bjaĩri] = belarri [gai̯] = gau

d - /i/ kontsonante moduan hots [y] , kasuotan:
- hasera lekugunean [yi] = hi [yincen] = hintzen
- bokal artean barne-lekugunean [gaya] = gaua

2/a - /u/ banaketa ere pareko da bokale moduan:
- kontsonante artean [búru] Izb. Uzt.
- bokale aurrean azentuaturik [šúa] Izb.

b - gorantz eta beheranzko diptongoetan [w] eta [u̯] **hala** nola [swan] = joan [gau̯r] = gaur

d - diptongoaren bigarren elementu bezala, atzizki baten bokalean hertsiki lotuz gero, [b] moduan ahoskatzen da [sau̯] > [sa bei̯] = zaio, zaie.

3/ - E-z kasu batzutan gertatzen den [u] > [ü] ez da E-z gertatzen, eta horregatik E [u] : Z [u,ü].

- Z-z kasu ugaritan, nola gertatzen den garbi ez badago ere, gertatutako [o] > [u], hala nola Z gízun E gizon; Z hún E on; Z úndar E ondar E-ren góre, zóre... edutezkoak, dagozkien forma intentsiboetatik bide datoz. Salbuespenik bada edu ki-ren erroa+ke dóke, dózke, ginokezu.

4/a- zenbait hitzetako bokal-ezpainkaritzea aurrez doan ezpainkariaren eraginez esplika daiteke:

E zerbutxu, Z zerbütxü, Zar C zerbitzu; E eburni, C infernu

b- E-ren "bedratzu" at utzirik, arkaikoa /u/tik /i/tik baino gertuago zegoenez, E /i/:/u/ fenomenua ere gertatzen da, hala nola:

E errin C errun, erron; E -ikaldi C ukaldi; Uzt kikiso C kukuso, armaila honetan Z -tik, Aezk eta Zar-tik baino gertuago dago.

5/a- Z-z ondorengo silaban [ü] izanez /i/ > [ü] gertatzen da (atzerantzko asimilazioa, baina /u/ ez da aldatzen. E-z asimilazio hau oro har gertatzen da, hala nola:

E	tzuntzur	unguru	urun	utzuli
Z	züntzür	üngürü	ürün	ützüli
C	zintzur=eztarri	inguru	irun=eho	itzuli

- *edun aditz laguntzaileaz ere gauza bera gertatzen da

E gutu	Z gütü	Aezk-Zar gitu	C gaitu	
E bagunu	Z bagünü	Aezk bagindu	Zar baginu	C bagenu

- /e/>/u/ badirudi /e/>/i/>/u/ litzatekeela, hots:

E garraztulu	E gaztulu	E aing(u)ru
C arraztelu	C gaztelu	C aingeru

b- Z-z aurreko silaban [ü] izanez /i/ ez da aldatzen -aurrerantzko asimilazioa- E-z usuagoa dugu, alegia:

E burruña	unude	urrutx	utzu
Z bürdüña	ünhüde	ürrütx	ützi
C burdina	inude	urritz	utzi

- kontutan hartu behar da Izb eta Uzt-en /i/-z eta /u/-z amaitzen diren enborrek bokalez hasitako atzizkia hartzean /i/ bihurtzen direla, nahasketak sortzeko aukera izanez.
- /u...i/>/i...i/ ere gertatzen da ezpainkariren baten eraginez:

E mitil	zibi
C mutil	zubi

E eta Z-z gertatzen diren asimilazio hauek, B-z ere gertatzen dira; badirudi forma erkideak (ez asimilatuak) baino berriagoak direla, K.Artolak urur=hiru forma ere jaso du.[22]

- /-u/ </-o/ beste euskalki gehienek dagitena hitz amaieran alegia, maileguetan garbi azaltzen denez, E-z ez da gertatzen:

E pulpito	soldado	komento	tejado
C pulpitu	soldadu	komentu	teilatu[23]

II.1.3.- BOKALE SUDURKARIAK

1) Bost bokale sudurkari du E-k /ĩ,ẽ,ã,õ,ũ/, dagozkien ahokariekin oposizioan, nahiz sarritasun txikikoak izan: súa/sũa=sua,suhia; ar/ãr=har,ar; átze/ãtze=atze,ahanzte bereiztasun hau Z-k eta NB-ren zenbait hizkerak gordetzen du (B).
2) Hizkera guztiek ez dute kopuru bera: Bid>Uzt>Izb adibidez: Uzt kĩo=usai (txar); zĩ=ezkur; aĩzpa; aĩzto=ganibet; gãzta; ũr=ur>urritz e.a. Izb-n hartu ditu hiru lehenak Michelenak ikus gainera II24/4.
3) Gainera /aĩ/,/oĩ/+bokale > [aỹ] , [oỹ] +bokale

II.1.4.- BOKALE KANTITATEAK

- Bokal-kantitatezko aurkaritza fonologikorik ez da. Z-k/-h-/-z bereizirik tinbre bereko bi bokal -sudurkari ala ahokari- ager tzen duenetan, E-k iraupen normaleko bokaleak azaltzen ditu.

Z	mĩhĩ	lẽhẽr	mãhãin
E	mĩ,mi	ler	mai

- honetan Aezk, Zar eta E bat datoz; Z-rekin ez
- halere K.Artolak bokale luzeak antzeman omen ditu, nahiz ez duen esaten balio fonologikoz ala ez, hala nola: gōxo. Bokaleok lehen mailako intentsitate-azentua dute.

II.1.5.- BOKALE MULTZOAK

1/a - beheranzko diptongo ahokariak [au̯,eu̯,ai̯,ei̯,oi̯] dira
- [-i̯-] > [-y-] bilakatzen da ondoren bokalerik badarama: [gai̯] >[gaya] =gau
- [-u̯-] > [-w-] bilakatzen da ondoren bokalerik badarama: [au̯] >[awa] =aho

b - [au̯] >[ai̯] Z-z bezala, baina beti ez, [au̯] oraindik dugunetan:
- [au̯] zaharra dugu /r,ŕ,ś/ aurrean: aur, aurten, aurpegi, kaur=hau
- /a/+/o/ baturatik, berria antza: zaude<-go-, zau=za(i)o, dau=dio

d - [eu̯] diptongoa ez da hain ugaria baina:
- /r,ŕ,ś/ aurrean, badirau: deus = ezer, euri, neurri, arreu li = arrubio

d - [ai̯] >[ei̯] erraz igarotzen da, eta [i]-raino ere sudurkari edo sabaikari aurrean, beste batzutan ere adierazle gramatikal huts izanik:

E beino, bino Izb beizik Izb bizien Izb belein Izb -reino
C baino baizik baitzuen belaun -raino

- [ai̯] <[au̯] etor daiteke, -[ai̯] zaharraz gainera-[r,ŕ,ś,ć,l] ez den kontsonanteren aurrean agertzen denean:

E aiz(a)- aiznar gai irain gaiza daik daizu nor-nori-nork adi tzak
C auza- ausnar gau iraun gauza *dauk *dauzu =dik,dizu

- [ai̯] <[ahu] Z-tik ere, E aintz, S ahüntz

- /y-/ aurrean ere Izb, Uzt [-xei̯n], [-xin] = jaun

e - [ei̯] < [*eu̯] ere badugu E ein=ehun; Bid eitzi Z eutzi = utzi
[ei̯] < [oi̯] beste honetan Izb Bid jangeikua; Uzt juangeikua

f - [oi̯] ere bada [-doi̯] arridoi=legarreta; lerdoi=pinadi;otoi; oi=ohe zoin=zein, nor-en eraginez<*zer-en

g - [aũ̯, eũ̯, aĩ̯, oĩ̯] dira diptongo sudurkariak:
- [aũ̯] adibidez Izb, Uzt ardaũ<*ardaõ
- [aĩ̯] [-anu] gehienetan: [šaĩ]<lat, sanu; [eśkribaĩ]=eskribau, kristiaĩ=kristau
- [oi] <[one] gehienetan: arrazoĩ; xipoĩ=jipoi,gorontz; morroĩ; eskoĩ<*esku-on-e=eskuma, eskuin; askoĩ=azkon

2/a - <u>bokal murrizketa</u> beste euskalkien aldean usua da, monopton gazioa barne:

b - [au̯]>[a]: Uzt gargeroz<gaur-geroz;Bid daka,zakan C da(d)uka, za(d)ukan; anitx NG aunitz; E jangéikua (Uzt juangéikua)

d - [au̯]>[u]: Aezk.Zar.E. barur Uzt nu,yu urtiki
C barau(r) nau,hau aurt(h)iki←NG NB L

e - [eu̯]>[e]: E ellu eltzu
C euli (Zar) eultzi
- [eu̯]>/u/ Izb Uzt utzu; Bid eitzi; Zar eutzi

f - [ai̯], [ei̯]>/i/: E gitzak gitzazu gitu erin
C gaitzak gaitzazu gaitu erein
- [ai̯]+k.sabaikari>/a/ E axko(r)a gaxto agian naz yaz ere
C aizkora gaizto naiz haiz

3/ - <u>bokaleak hiatusean</u> <u>d</u>,<u>f</u> eta <u>g</u> apartatuetan azaltzen zaigunez, E-z beste euskalki gehienetan ez bezala, goranzko <u>dip</u>tongoak badira, eta are, triptongoak ere, hala nola: [ja, je,jo,wa,we,*wo] eta [jau̯,wai̯][24] hitzotan adibidez: zerria, ziek, balio, eguart, eguerdi, diauzu, ziaur. Ikus II 12/1,2

a - tinbre bereko bi bokalen laburbilketak, tinbre bereko eta iraupen normaldun bokala ematen du, hala nola:
- [e]+[e]>[e] Izb gazték emaztéki gáztenà ginoken
C gazteek emazteekin gazteena gindukeen
- /-a/+galderazko /-a/ morfoa [eya], [ia] Bid deya, dia?=da?

b - /a/+bok.:/a/+/e/>[e] E améka apez amék aiten grelarik
B/amaeka C(zahar) apaez amék aiten garelarik
/a/+/o/>[au̯] ikus II 15/1b.

d - /e/+/a/>[ja] Izb,uzt sémia biár biárri
Z semía béhar behárri
Zar semea (Aezk) bear bearri

- azentuduna denean, ez du aldaketarik jasaten: Izb méa = = mehea Uzt aréa = arrasto
- /e/+/o/>[eu] rentzat ikus II15/1e.

e - /i/+bok. silaba erdigunea da: Izb, Uzt mía; Izb bíar, ez silabiko ikus II12/1b.

f - /o/+bok.>[w]+bok. Bid berua dagua yuá (beti 2 si laba)
Aezk,Zar beroa Zar dagoa Z húa
C beroa (al)dago hoá

- /o/+/e/> oi rentzat ikus II15/1f
- /o/+/e/> we Bid artikuluez Zar artikuloez Aezk artikuloes

g - /u/+/a/>-[-jwa] Bid: ainguriuak guziuak
-[-joa] Gar: burioa guzioak
-[-ja] Izb Uzt: ainguriak guziak
Urz: ingriak guziak
-[-ía] Z : aingü(r)i(a)k
-[-wa] Zar: aingruak

- forma guzti hauetan /uya/ liteke sorburua (Detchepare=NB, eta Leizarraga=Z)
- /u/+/e/>[-jwe-], [-je-] Bid guziuen, ainguriuer
Z -ien -ier
aditzean alabaina, erroa /-du/ edo eta /-zu/ morfemaz /u/+ +/e/>[*je] [-ei] : du>dei
- erlatiboa /-en/,/-an/,/-n/, du adizkiaz lotzean:
Bid du+n>dion lehenaldia zion <*[wen] <[wan]
Izb Uzt du+n dien zien
- Bid-ko zau=zaio eta dau=dio-tik zabei=zaie eta dabei=die lortzen dira.

II.1.6.- BOKAL-ERORTZEAK

- Bokale-erortzeak, hitz barnean batez ere, Zar-z batera E-k agertzen duen ezaugarri bere-berea du (nahiz hark ugariago), urkari alboan batez ere:

1/- herskari- -r:

Urz, Zar aingru arrastri E,Aezk,Zar bedratzu-tzi E-tra -truk
Z aingü(r)ü arrásti(r)i bederátzü Zar -tra -tzra -trik
C aingeru arrastiri bederatzi Aezk E -tera -tzera -tu(r)ik

2/- herskari- -1:
ñabla=aizto, ganibet; tupla=tipula, kipula

3/- r- -herskari:
E, Zar erden(+metatesia) E euki
Z edi(r)en Z egü(r)ük

4/- r,rr- -txis,n:
E, Zar burña -arna -garna
Z bürdüña Aezk -aina
C burdin -arena -garrena

5/- Txis- -hers:
Bid amestan nestate E errestitu
C ametsetan Aezk Zar nezesidade C erresistitu

6/- aditz laguntzaileetan:
E,Zar gra zren zte ztei tzu dutzu
Z gía zién zíte zitíe dűzü tűzü
C gara ziren zaitez zaitezte duzu dituzu

7/- haserako lekugunean: Izb, Uzt mázte=emazte

II.2.- KONTSONANTISMOA

E-ren kontsonantezko fonemak zerok ditugu:

/p,b,t,d,ṭ,k,g/,/s,ś,š,c,ć,č/,f,y,(ỹ),j/,/m,n,ṇ/,/l,ḷ/,/r,r̃/.

II.2.1.- HERSKARIAK

1/- Herskariek, Z-z ez bezala, E-z ez dute egoki hasperendurik

2/- Haserako herskariak haserako lekugunean herskari gor eta ozen arteko banaketak E-z ez du aparteko bereiztasunik, ba-

tzutan halere beste euskalkietatik ezberdina izanik: gor: parkatu, tenpra=denbora, korpiz; ozen: biztu, galte=kalte.

3/- Amaierako herskariak. Beste euskalkitan bezalatsu, herskari gorrak onartzen ditu bakarrik amaieran.
- halere, datibo eta ergatibozko singularreko 1. pertsonan ozena agertzen da.
- Azkuek zioenez /-d/ Izb eta Bid[25]
  /-r/ Uzt
- /-d/ badirudi euskararen oso aintzinako egoeraren aztarren dela, egun ez baitu holakorik onartzen[26]
- /-r/ aldaketa hutsa dirudi, izan ere laxaturik /-d/≃/-r/[27]
- ikus r/r̄

4/- /k-/. erakusleek protesi bat izatea da Aezk, Zar eta E-k elkarren artean duten bigarren ezaugarri komun nagusia.
- E-k, Zar-k bezala, herskari belare gorra du protesi, Aezk-k aitzitik ozena, hala nola:

E	kaur	kori	kura	kében	kémen	kor	kan	kála
Zar	kau	kori	kura	kemen		kor	kan	kala
Aezk	gau	gori	gura	gen gemen		gor	gan	
Z	háu	hó(r)i	húra	hében		hór	hán	hála

halere inoiz determinatzaile (erakusle) eta beti izenordain diren bi hitz ditugu Aezk, Zar eta E-z; eta hauek berriz /k-/ gabeak; esplikazioa zera dirudi: /k-/ hori forma autonomoek (izenordain) galdu egin zutela eta autonomo ez zirenek, (+determinatzaile) /k-/ horri eutsi egin ziotela. (ikus NG, Lizarraga-ren hizkera).
- Michelenaren lehen hipotesi hau gehiago taiutu zuen Lafonek, bai baitira /k-/ dun forma autonomoak: garen begiak, karen begiak. /k-/ gabeko forma, forma autonomo behar du izan, baina gainera balio anaforikoduna:

karen begiak = honen, horren, haren begiak (forma autonomo erakuslea)

aren begiak = bere begiak (forma autonomo anaforikoa)

bestela esanda /k-/ gabeek autonomo eta ez erakusle (anafo riko) behar dute izan.[28]

II.2.2.- TXISTUKARIAK

1/- E-z sei txistukari dugu: hiru frikari /s,ś,š/ eta hiru afrikatu /c,ć,č/. Ez da Z-z bezala txistukari ozenik. /s/ fonema [θ] ere ahoskatzen zen. (Batez ere akustikaren aldetik. Ik. Amado Alonso, III COngr. Eusk. Ikask., 1922)

2/- Afrikatuak. Hiru afrikatuak azaltzen dira hasieran:
- /ć/ badirudi euskal eremu guztian, E-ren Uzt-ko hizkeran azaltzen dela bakarrik, eta hitz bakarrean gainera, ikus II23/3 (tsats = zabor,zikinkeria).
- /c/ eta /č/ hasierako lekugunean hitz gutxi batzutan ager dakizkiguke, balio adierazkor edo expresiboz: Izb,Uzt tzun tzur=eztarri; Uzt tzintz=muki; trapast=txipristin;tzupust= =kolpe, talka; txestatu=dastatu; txukatu=xurgatu.
- garbi agertzen da E-ren joera zaharra hitz amaieran txistukariak frikari gisa ebakitzeko salbuespenak, beste hizkeretan baino ugariagoak dira:
  E korpiz C gorputz; Uzt opus lat. opus=lan, ahalegin
- /č/, /n,l,r/ atzeko ebakerantzat ikus II25/2a.

3/- Frikariak; /y/, /š/.
- /y-/-ren islada eskuharki /š-/ dugu:
  E xan xakin xarri xatxi xei
  Z jan jakin jarri jatxi jei
- bi ezaugarri dute komunean Aezk, Zar eta E-k. Bata ikusi dugu: adjektibo, izenorde erakusle eta adberbio erakusleen haserako herskari belarea. Bestea hauxe da: haserako /y-/ hori, /š-/ bihurtzea; gainera hiru hizkera hauetatik kanpo, HNG bakarrik azaltzen da (Oñatin ere bai, baina zeriku sirik gabeko salbuespena da, noski).[29]
- hitanozko adizkietan /y-/ agertzen zaigu, yaz=haiz, yintzen=hintzen, yabila=habil, yago=hago, yai=yu=hau (era berean Oiartzun-Errenteriako ING-n ere gordetzen da, arrazoiak ez daude garbi). Halere yi=hi forma E-z bakarrik azaltzen dela esan beharra dago. (ik. Lafon h=y honi buruz).

- /x/ berriz jein, jin=jaun; jangeikua=jaungoikoa (j espainiarra) eta beste zenbait hitz gutxitan. B-z ere hitzokin gauza bera gertatzen da. (Zenbait bizkaiera motatan, hobe esateko).
- /-y-/>/-š-/ hitz barnean, Zar-z galdu egiten delarik:

E	batixatu	exartu	lexo	nexar
Zar	bateatu	eartu	leo	near
Z	bathejatü	eihártü	léiho	nigar
C	betaiatu	ei(h)artu	lei(h)o	negar

- /i/ eta bokalez hasitako morfema artean ez da aldaketarik:

E	ayezka	deyez	gaya
C	aiezka, oihuka	deituz	gaua

II.2.3.- SABAIKARIAK

Balio adierazgarri dutenekin batera, beste arrazoiz sortutako bustidurak ere badira, hauetan bustitze hori [´] markatu dugu, eta haietan /ˬ/, nahiz eta agian erizpidea nahiko arbitrarioa izan; maila diakronikoan bustidura finkatu egin denean -bustigabea galduz- /ˬ/ ezarri dugu, besteetan aitzitik [´]; zenbait adibidetan eztabaidagarria da.

Sabaikariek, beste zenbait euskalkitan adina ez bada ere, E-z ere badute-adierazkortasuna dela medio-, aurkakotasun-ahalmena, pertinentzia alegia, hauxek ditugu aurkakotasunok, t/ṭ, d/y, c,ć/č, s,ś/š, n/ṇ, l,r,ŕ/ḷ defektiboa dugu beraz sabaikari saila.

1/- [t´] ez sarriegia, bere sorreran behintzat balio adierazgarriduna
beretťer=sakristau kotťa=azpiko gona ñótt=txikitxoa

2/- [d´], Z-z bezalatsu /y/-z nahasten da
oyolko, ǫdol=odolki, odoleste; peyo =Periko-ren txikigarri

3/- [c´] ≈ /č/ beste zenbait euskalkitan bezala, balio adierazgarririk gabe azaltzen da:
E txakur txar txerri akabantxa atxeiru tsats
Z zakur tzar zerri akabantza altzáiru B sats=zabor,zikinkeria

- bok+/ic/>bok+/č/: atxur=aitzur gatx=gaitz bakotx=bakoitz

4/- [s'] kasuotan:
- */y-/ eta */-y-/-ren islada bezala ikus II22/3.
- /s/-ren forma adierazgarri bezala: xar=zahar, xuri=zuri, xuxen=zuzen.
- /š/ jadanik finkatua besteotan:
  xaĩ=garbi xatz=arantza
- mailegutan: kexu; maxela=masaila; merexi=merezi
- /si/+bok kasuan: E xek Izb,Uzt goxan semexun
  Z ziek goizí(a)n E*seme+izun
- [aiṇs]+konts.>[aiṇš]: axkora=aizkora, gaxto=gaizto; baina, halere, aĩzpa, aĩzter, aĩ̃zto, e.a.

5/- [l'] kontsonantea beti /l/ bustiari dagokio:
  llerko=pinu txiki(<ler); llaburtu; Uzt ellu=euli;ello=ero; E pollit
- /i/ bokale denean, atzeko /l/ ez da busti: ile, makila, e.a.

6/a- /n/ iraun duenean, /i/-ren atzean ez da busti, Zar eta Z-z bai

E	soin	zeinatu
Zar	soñegi	zeñatu
Z	suñ	zeñhatu

b- [n'] beraz kasuotan gertatzen da:
- /n/-ren forma adierazgarri: astaña=asteme, ñabar, ño=txiki
- */in/,/ĩ/>[(i)n'] ikus II24/4b.
- /ṇ/ mailegu erromanikoetan: E, Zar, Aezk señale, entrañak
- */ni/-tik: Bid: ñaur=ñeu (<*niaur); ñok (<*niagok); ñore (<*niaure).

II.2.4.- BESTE ZENBAIT KONTSONANTE

1/- /f/, [*jw]>/f/:
  Bid (Zar) fan=joan; Uzt, Izb xuan; mailegu berritan, usu da.
- halere bada /f-/ dun zaharrik fungo=onddoa.

2/- /h/

- E-k ia hegoaldeko euskalki gehienetan bezala,ez du /h/-rik
- bere korrospondentzia Ø izan ohi da, honek asko itxuraldatu ditu hitzak:

E	au	Aezk, Zar	ago	Z	áho	
	oi	Zar	ogatze		óhe	

- batzutan dena den /g,r/ izaten da, nahiz berrikuntza zein iraupen

E	águr	aigári	uzt bigótz
Z	áhür=ahur	aihá(r)i=afari	bihotz

3/- /r,ŕ/

a- E-z, r/ŕ aurkakotasuna ez da neutraltzen amaieran, Izb eta Uzt-en ez behintzat; bertan gaxur=gatzur, erli hitzaren amaierako /r/ eta aŕ=harri hitzarenak ezberdinak dira.

- dena den oharreraztekoa da, zur, nor hitzei buruz, Azkuek egindako bereizketa; alegia, hitzotako azken /r/ leuna izanik, ondoren bokalea badarraio bakarrik ahozkatzen dugula leun bezala; kontsonante aurrean, berriz, dardarkari azkar, edo gogorragoa. E-z, aitzitik, /r/ leun hauek beti ebakitzen ziren leun, eta beraz /galtruk denetra/; eta ez, guk egiten dugunez, /galtŕuk denetŕa/, ez guztiz gogorra, tarte koa, ez guztiz leuna ere. IkusII21/3.

b- /ŕ-/ adibideak ez dira falta E-z

Bid Zar	reino	reina	rape
Aezk.	erreinu	erreina	errape

- halere salbuespen zahar eta berriak ugari dira: arroitu=hots, soinu; errede=sare

d- beste euskalkitan /r...ŕ/ formak ekidinez disimilaziora jotzen den bitartean, B-ren zenbait hizkera eta E-n disimilazio joera hori ez hain irmoki ematen hala:

E	burar, budar	zirar, zidar
B	bular	zirar, zidar
C	bular	zilar

4/- sudurkaritzeak

E-ren bokale eta diptongo sudurkariek, beste euskalkiei komun zaien sorrera bera dute, bokalarteko /-n-/-ren galera. Baina ez da beti hala izaten.

a- bi bokale berdinen arteko sudurkaria ezabatuz, tinbre bereko bokale bera ematen du:

E	ãtze	xẽ	zũr	lũ	zĩ
Z	ãhãtze	xẽ́hẽ	zṹhũr		zĩ́ho
C	ahanzte	xehe	zuhur	liho	= mindu

nahiz eta batzutan bokale ezberdinetatik etorri, (azken bi kasuetan).

b- /i-/ atzetik, eta bokale aurrean batzutan, /-n-/ hori galdu egin bada ere, iraun egin duela edo berrezarri egin dela dirudi, alabaina bustiduraz, /-i-/ sabaikariak asimilaturik, hots /ĩ/>/iṇ/>/ṇ/ hitz hasieran batez ere

Bid	iñastura	Uzt	ñardetsi	ñola	ñor	ñora
Z	iñhasi		ihardetsi	ĩhũlẽ́	ĩhṹẽ	ĩhũaté
C	=tximista		=erantzun	inola	inor	inora

d- sudurkaria berrezarri egin da kontsonante aurrean, /r/ batez ere:

Uzt	ũr	E	ũrzo	belainzu
C	ur = urrintz		uso	*bilo-(h)u(t)s

e- metatesia:

E ãre< arena gãzta< *gaztane

badirudi azentuaz baduela zerikusirik, sudurkaritzea izen eta aditz-izen azentudunetan ematen baita gehienetan, hortik *árẽ eta gáztã-ren sudurakaritze-aldaketak esplika ditzakegu.

II.2.5.- KONTSONANTE MULTZOAK.

Bokale sinkopak (II.1.6) direla eta E-z beste euskalkietan ez diren kontsonante multzoak sortu dira: /dr,gr,tr,sr,sdr,sgr, str/, e.a.

1/- <u>sudurkari eta /l/ atzean, herskari gor/ozen</u> aurkakotasuna euskalki guztietan neutraldu egiten da, nahiz hitz berritan sarri ez (Aezk eta Zar barne). E eta Z-z, beti kontserbatzaileago, neutraltze hori ez da egin, batez ere E-z, beti kanpoko eraginei hertsiago, hala kontsonante multzo hauek aurki ditzakegu:

a- /lt/ taldea

E alte altare galtegin -tu → galtu eltu bordaltu
Z álthe altháre galthátü gáldü héltü ezkhüntü
C(Aezk,Zar)alde aldare galdetu galdu heldu ezkondu

b- /lk/ multzoa: E ãlke Z ãhãlke C ahalge = lotsati

d- /np/ multzoa E tenpra Zar tenbra C (Z,Aezk) denbo(r)a

e- /nt/ multzoa:

E abentu borontate gente -mentu -tu → gentu nontik
Z abéntü borontháte yénte -méntü -tü khéntü núnti
C abendu borondate y-,jende -mendu -du kendu nondik

f- /nk/ taldea:

E mainka zanko -ki → onki -ko → kebenko erronkari
Z mãhãnka zánkho (untsa) hebenko
C mahuka zango -gi ongi,-do -go hemengo

g- /nb,nd,ng/ taldeak ere badira:

E aldi Iz andere E mendi baina askotan laburtu egiten dira:
E blimadu < *balin-ba-du, zomait < zonbait.

2/- /n,l,r/+txistukari taldeak zenbait arazo agertzen du:

a- /n,l/+frikaria > /n,l/+afrikatua beste euskalkietan bezala: entzun, mintzo, nintzen, altzo=magal Uzt eltzar ≈ ar.
- baina mailegu berritan ez da aldaketarik izan:
E manso Zar, Aezk mantzo; E pensa Aezk, Zar pentsa

b- /rs/, /rc/ desberdin atxikitzen ditu E-k:
/rc/ amaiera-lekugunean /r/ ondoren, beste edozein fonema bezala, afrikatu ebakitzen da:
E artz, ortz; baina Bid õrzi eta hemendik Izb orz
- barne-lekugunean ere bada: zortzi, mertxede; nahiz sabaikari izan, afrikatu azaltzen da C mesede
- /rs/ beste euskalkitan /ś/ eman duena (rs> *rś>ś), E eta Z-z atxikitzen da; eta orobat /r/+txistukari frikari multzoa:

E Zar tarzun Bid ersi E ũrxo
Z tárzün hérzi úrxo
C tasun G,B itxi C uso, uxo

- halere zenbait bakundura ere bada: E usaĩ Z ürsáñ=dominist ku.
- alabaina bada korrespondentzia berezia Uzt, Bid /rs/: Izb, Z(G,B) /št/

Uzt,Bid borz, berze búrzegi orzegun
Izb,Z(G,B) bost(Uzt) beste(Izb) bústegi Z bürüzági ostegun

badirudi konposaketa dela medio *-r(t)s-/ > /-rzt-/>/-śt-/ litzatekeela prozedura.

3/- herskari + herskari beste euskalkien emaitza:
- bapanak < *bat-banak
- bait+/d/ > duda-muda, batzutan /t/ bestetan /d/: Bid baitu, baidu
- bait+/g/ > bai+/g/ ez du ozentasuna galtzen: Bid bigintion

4/- herskari apikari + txistukari > txistukari afrikatu:
- E tzu (duzu); dutzu (dituzu) /i/>/u/ asimilatu eta erroa sinkopatuz
- alabaina bait+/s/, ez: Bid baizen=baitzen Izb bízien=baitzuen

5/- /es/ + txistukari frikari > txistukari frikari:

Bid	ezen (ez+zen)	ezabei (ez+zabei)	baina	Izb etxakin (ez+xakin)
C (B ez)	etzen	etzaie		etzekien

- halere askotan txistukari taldeak ez dira sinplifikatzen: Bid autzsko=lastotxo Izb ebaszale=lapur, ohoin (kontutan har B-z ere antzera gertatzen dela).

6/- /es/ + herskari ozen > /es/ + herskari ozen, beraz ozen dirau: Bid ezdigula=ez dugula; ezdoke=ez duke, ez dezake; ezbaidrokegu=ez baitezakegu (bizkaieraren antzera).

II.2.6.- LABURPEN GISA

N. Moutard-i jarraikiz (ikus bibliografia) hau litzateke E-ren kontsonante-sistema taulatan:

HASERAKO

		Ezp.	Horzk.	Apiko-alb.	bizkar-alb.	Sabai-aurr.	Sabaik.	Belare
Hersk.	gor	p	t	ć	c	č̬	t̬	k
	ozen	b	d					g
Sudurk.		m	n				n̬	
Frikari(+alb)		f	l,(θ)	ś		s̬	l̬	x
Dardark.								r

BOKALARTEKO

		Ezp.	Horzk.	Apiko-alb.	Bizkar-alb.	Sabai-aurr.	Sabaik.	Belare
Hersk.	gor	p	t	ć	c	v c	t v	k
	ozen	b	d					g
Sudurk.		m	n				n v	
Frikar.(+alb)		f	l,(θ)	ś		v s	l v	x
Dardark.								r~ŕ

AMAIERAKO

Hersk.	gor		t	ć	c	v c		k
	ozen		d					
Sudurk.			n					
Frikar.(+alb)			(θ)	s´		v s		
								l,r~ŕ

Lau ohar:

1.- Afrikatuak herskarien barnean sartu ditu.
2.- Albeolare/Bizkar-alb ebaketa-lekuguneen ordena irauli egin du.
3.- Amaierako lekugunean r eta ŕ arteko oposizioaz ikus II24/3a.
4.- amaierako-d geuk ezarri dugu.

II.3.- AZENTUA

II.3.1.- Lehenik esan, Bonaparte Printzeak ez ziola jaramon handirik egin, eta Azkuek, aurriritzi jakinez, E-ren azentua erdalduntzat gaitzetsi zuela. Michelena da lehena arazo hau zerbait garbitzen, eta orain artean bezala berari gatxezkio.

II.3.2.- Orokorki E-ren azentuak intentsitatezkoa dirudi, gaztelanieraren antzekoa.

- Zenbait hitz-multzok: izen+adjekt., aditz n.+aditz l., azentu nagusi bakarra dute. K.Artolak azentu nagusi horrez gain, azentu sekundarioa ere bereizten du. Hala, azentu nagusia bigarren hitzak eramaten du eta sekundarioa, lehenengo hitzak aurrez zuena (nagusia orduan) bihurtzen da, hala nola:
  kántatu + niézun kàntatu niézun
  xúntatan + gindénian xùntatan gindénian[30]
- Bestelako hitzetan, adberbioak kasu, perpausaren barneko hitza

ren lekuneak eraginda edo, ezpaia agertzen da.

- Michelenak berak beste lan batetan dioskunez, azentuak badu balio bereizlea -nahiz egun oposizio hauei buruz zenbait ezpai eta eztabaida izan- halere ez da material gehiegi E-ri buruz (Z-z ez bezala); eta, beraz, kontu handiz hartu behar dira baieztapen hauek.

II.3.3.- Azentua oxitono, paroxitono edo proparoxitono izan daiteke:

1/- aditz-erro eta partizipioetan ebakera usua proparoxitono da:
Izb árgudi=hitzegin, ézkapa=ihes, tústatu=ustel, xátetu=garbitu.

2/- hitz elkartuetan bigarren elementuak hartzen du:
Izb aitayéina, amándria, etzidámu Uzt erenégun, etxekuándria

3/- bestela Izb, Uzt eta Z artean bada desakordiorik:

Izb	ardáu	gázta	burár	ezúr	áxuri	bústegià
Uzt	ardáu	gắzta	búdar	ézur	áxuru	búrzegià
Z	ardű	gaznắ	búlhar	ézür	axú(r)i	

II.3.4.- DEKLINABIDEA.

1/- Deklinabidean garbi azaltzen da, nahiz material gabeziak osatzen ez utzi, Z-rekin dituen antzekotasun eta ezberdintasunak:

a- Z-z mugatzailea ezartzeak azentua aurreratzen badu, E-z azentuak bere lekugunean dirau:
E mítil → mítila; zánko → zánkua
Z míthil → mithíla; sóho → sohúa
- bestetik E-z: sémia, sémiaren, sémiareki...

b- Z-z azentuaren arauera izen-enborrak oxitono eta paroxitono ditugu, E-z berriz oxitono/ez oxitono dirudi aurkakotasun sailkapena.
- oxitonoetan zenbait mailegu izango dugu:
biarnés=béarnais, repatán=artzai, (arag. repatán; gazt. rabadán)
- halaber zenbait hitz elkartu, bigarrena silababakar izan

edo azentu oxitono hartzeko aukera duenean:
ollár< oilo+ar, izabár=Izabakoa

- amaieran ere, laburbilketazko diptongoa dukegunean:
idói=aintzira, padura, egitái=igitai,k iséi=izei (pinu)[31]

c- Z-z bezala /-a/-z amaitutako hitzetan, /-a/ horrek mugatzai leaz bat egiten du, azentua bereganatuz
E, Z aitá (< aita+a) amá (< ama+a)

2/- /-a/ temadunak

	mugagabea	m. singularra	m. plurala
abs	pezéta	gaizá	festák
erg		arropák	amék
gen		aitáren	
soz		aziendáreki	perléki
instr.	pérlaz	makináz	
ines.		ermitán	amerikétan
gen	izábako		
alat		aziendará	maltétra
abla.		follátik	
part.	gáizarik		

3/- Beste temadunak

	mugagabea	m. singularra
abs	arrái, bézino, morrói	arráya, bézinua, morróya
erg		gásuak< (gáxo) morróyak
dat		áurrari (<áur)
gen		txákurrari(erg.txákurrak),morróyari
des		negiáren
soz	(bi) morróireki	mayorálarentàko (<mayorála)
ins	karróiez	éskiaz (<ésku)
ines	mauliónen, gáztetan	ártian (<árte)
alat		lúrriara (<lúr)
abl	idóietik	ménditik (<méndi)
part	juíziorik	

m. plurala

abs	gizonak, gúziak (<gúzu)
erg	gizonék, emazték, biék<(bí)
soz	artzayéki, emaztéki, (<artzái)
ines	zazpiétan (<zázpi)

III.- MORFOLOGIA

Morfologiaren atal honetan batez ere hiru gauza aztertuko ditugu; deklinabidea, aditza eta lehen aipatutako determinatzaile eta izenorde erakusleen /k-/ protetiko hori. Izan ere, oro har, aditza eta deklinabideak betetzen eta osatzen dute morfologia lehen hurbilketa batetan. Baina bestetik, hirugarren elementu horri, E-k hain berea izanik, kapitulu berezia eskeini diogu. Lehenik beraz /k-/ hori aztertu dugu, bera baita kapitulurik motzena, eta ondoren morfologia ororen bi zatiak; Izen sintagma (eta hemen guk deklinabidea aztertu dugu bereziki) eta Aditz sintagma (eta hemen berriz aditza).

III.1.- DETERMINATZAILE ETA IZENORDE ERAKUSLEEN /k-/ PROTETIKOA

III.1.1.- Lehen ere herskariez aritu garenean (II21/4) protesi honetaz, hain zuzen /k-/z, aritu gara. Badirudi, Azkueren hitzetan, euskalki hau aztertu ez dutenek berari buruz ezagutzen duten ezaugarri bakarra dela.

III.1.2.- Baina ez da erakusleetan bakarrik azaltzen, zenbait adberbiotan ere. Hona zerrenda osoagoa:

E	Zar	Aezk	Ekiald.Euskal.	Mendeb.Eusk.
kaur	kau	gau	hau	au
kori	kori	gori	hori	ori
kura	kura	gura	hura	ura, a
keben,kemen	kemen	gen,gemen	heben,hemen	emen,amen
kor	kor	gor	hor	or
kan	kan	gan	han	an
kala	kala	gala	hala	ala
kain	kain	gein	hain	ain
kainbat	kainberze	geinberze	hainbertze	ainbat,beste
bikain,bikin	bezain	bezein	bezain,bikain	bezain (G)
bikala	bezala	bezela	bezala,bikala	bezela,legez

III.1.3.- Arazo honetaz lehen arduratua gure Boraparte printzea izan zen,[32] baina honen ustez E, Zar, Aezk, Ekialdeko euskalkiak eta Mendebaldekoek azaltzen zituzten aukeren ordena kronologi-

koa, zera zatekeen:

/k-/>/g-/>/h-/>/ø/. Hitz elkartuetan forma zaharrak hobe gordetzen zirela juzkatuz, "emakume"ren adibidea jartzen zuen "kume" forma eta ez "hume" edo "ume" zaharrena zela frogatzeko. Noski, Azkuek kritika zorrotza egin zion, beste euskalkitan azaltzen diren /k-/ eta /g-/ protetiko guztietan (gune, goatze, guren, gurin, kokots, kupela) bat bera ere E-z agertzen ez dela eta.[33]

III.1.4.- Badirudi Lafonek eta Michelenak[34] eman diotela esplikazio zehatzagoa, lehenak bigarrenak baino zehazkiago; hots, protesidun formez gainera E-k beste protesigabeko bi forma azaltzen ditu: ura=hura eta ori=berorri.

Lehen bereizketa garbia da: protesigabeko formak, inoiz ez dira adjektibo bezala erabiltzen; beti izenorde bezala, hots autonomo.

lafonen eritziz autonomo gisako protesidun eta protesigabeko formen arteko ezberdintasuna, anaforiko ala ez anaforiko izatean datza.

Eta, bera, forma autonomo gisako izenorde anaforikotan (eta ez erakusle alegia: lat. is-ea-id) /k-/ protesi hori ez zaigu azalduko, beste guztietan bai; izan ere besteetan /k-/ protesi hori ez zaigu azalduko, beste guztietan bai; izan ere besteetan /k-/ horrek, forma jakin bati lotuta azaltzen den erakuslearen, eta aipatu forma horren artean, erakusleari atxikirik protesi funtzioa betetzen du. Adberbioak -eta hau jadanik guk diogu- beste esplikazio ezean, aurrekoak balio ez duenez, badirudi analogia bidez esplikatu beharko liratekeela edo hizkuntzaren estudio oso arkaikoetara jo. Adibidez, karen/garen:

gizon (k-)garen begiak--determinatzaile erakusle (ez autonomo)
gizon honen, horren, haren begiak
(k-)garen begiak--izenorde erakusle (autonomo) honen, horren, haren begiak

aren begiak--izenorde ez erakusle, anaforiko (autonomo) bere begiak

Amaitzeko esan, Lafonen eritziz /k-/ horrek horregatik garairen batean erakusle balioa izan zuela.

III.2.- DEKLINABIDEA

Deklinabideari arreta zertxobait, K.Izagirrek jarri dio, eta berak egin du deklinabide-bilketa bakarra (Estornés Lasa-rena ere ahantzi gabe): bere abantaila, azentuz horniturik izatea; bere akatsa, beste bi hizkeretakoak (Urzainki eta Bidankoze) ez ematea (ezin! inolaz). Lehen ikerketa hau, gainera J.Estornés Lasarenarekin osatu dugu.[35] Halere ez dago lan sakonik eginik, eta horregatik zenbait berrikuntza guk-geuk egin dugu.

III.2.1.- BOKALEZ AMAITUTAKO HITZEN DEKLINABIDEA

Aurrera jarraitu baino lehen esan beharra dago, batuago egi tekotan beti "mendi" hitza erabili dugula. Hala, zenbaitetan beste bokalez amaitutako hitzik bagenuen, hitz hori "mendi" hitzaz ordezkatu dugu. Forma frogatuetan, azentua parentesi artean azaltzen denean, geuk berreraiki dugula adierazi nahi du. Hain zuzen, beste hitzak hauek ditugu; mugagabean: anáxe, áitak, amák, anaxéri, anáxeren, alábareki, néskaz, gízonez, mézatra, étsetra, íditra, etsetarik, ogirik. Singularrean: sémeak, sémeari, sémearen, semeareki. Pluralean: etséngatik, zienganik.

BOKALEZ AMAITUTAKO HITZEN DEKLINABIDEA

	Mugagabea	M.Singularra	M.Plurala
NOR	méndi	mẽndia	méndiak
NORK	méndik	méndiak	mendiék
NORI	mẽndiri	méndiari	mendiér
NOREN	méndiren	méndiaren	mẽndien
NORENTZAT	méndiren	méndiaren	mẽndien
NORENGATIK	*méndirengatik	mẽndiarengatik	mendiéngatik
NOREKIN	méndireki	méndiareki	mendiéki
NORTAZ	méndiz	mẽndiaz	*mendiẽz

	Mugagabea	M.Singularra	M.Plurala
NON	*ménditan	méndian	mendiétan
NONGO	*ménditako	méndiko	mendiétako
NORA	méndítra	méndiara	mendiétra
NORAINO	*ménditraino	méndiaradráino	mendietraíno (?)
NORANTZ	ménditarat	méndiarat	mendiétarat
NONDIK	ménditarik	ménditik/-rik	mendiétatik/-tarik
Partitiboa NORTZAT	méndirik		
bizidunak			
NON			
NORA		sémearengana semeagana	seméngana
NORAINO			
NORANTZ			
NONDIK		séméagandik	seménganik

III.2.2.- KONTSONANTEZ AMAITUTAKO HITZEN DEKLINABIDEA

Hemen ere ez, ez dugu inon kontsonantez amaitutako hitzen deklinabide osoa aurkitu; eta, beraz, gur-geuk berreraiki dugu, gehienik, dena den NOREKIN kasua arte (soziatiboa) "gizon" hitzetik abiatuta atera dugu (Estornés Lasak hitz honekin jasoa baitu). Honez gain, non eta nora kasuak, lekuzkoetan garrantzitsuenak, testifikatutako hitzetatik hartu ditugu: maigeinean, alteskérrean, álurreko, maiatziarat.

	Mugagabea	M.Singularra	M.Plurala
NOR	*álur	<álurra	<álurrak
NORK	*álurrek	<álurrak	alurrék
NORI	*álurri	<álurrari	alurrér
NOREN	*álurren	álurraren	álurren
NORENTZAT	*álurren	álurraren	álurren
NORENGATIK	*álurrengatik	alurrárengatik	alurréngatik
NOREKIN	*álurreki	álurrareki	alurréki
NORTAZ	*álurrez	*álurraz	*alurréz
NON	*álurretan	álurrean	*alurrétan
NONGO	*álurretako	álurreko	*alurrétako
NORA	*álurretra	<álurreara	*alurrétra
NORAINO	*álurretraino	*álurrearadráino	*alurrétraino
NORANTZ	*álurretarat	*álurrearat	*alurrétarat
NONDIK	*álurretatik/-rik	<álurretik/-rik	*alurrétatik/-rik
Partitiboa NORTZAT	*álurrik		

bizidunak		
NON		
NORA	gizonagana	gizonéngana
NORAINO		
NORANTZ		
NONDIK	gizonarénganik	gizonénganik

III.2.3.- /-a/ BOKALEZ AMAITUTAKO HITZEN DEKLINABIDEA

Berriz ere kasu guztietan "eliza" hitza ezarri dugu, askotan beste /-a/ organikodun hitzetatik abiaturik, hauetxek dira; mugagabean: amák, alabér, anaxéri, alábareki, néskaz, mézatra, gaizarik. Singularrean: aitá, amák , alabáren, anaxáreki, makináz, ermitán, anaxárengana, follatik (azken hitzok anaxa ezik Michelenari hartu dizkiogu). Pluralean: aiták, aiték, alabér, alabén, alabéki, maltétra, alabéngana.

	Mugagabea	M.Singularra	M.Plurala
NOR	*elíza	elizá	elizák
NORK	elízák	elizák	elizék
NORI	elízari	*elizári	elizér
NOREN	*elízaren	elizáren	elizén
NORENTZAT	*elízaren	*elizáren	*elizén
NORENGATIK	*elízarengatik	*elizárengatik	*elizéngatik
NOREKIN	elízareki	elizáreki	elizéki
NORTAZ	elízaz	elizáz	*elizéz
NON	*elízatan	elizán	elizétan
NONGO	*elízatako	elizáko	elizétako
NORA	elízatra	elizára	elizétra
NORAINO	*elízatraino	*elizáradráino	elizétraino
NORANTZ	*elízatarat	*elizárat	elizétarat
NONDIK	*elízatatik/-rik	elizátik/*rik	elizétatik/-rik
Partitiboa NORTZAT	elízarik		

bizidunak			
NON			
NORA		alabágana	alabéngana
NORAINO			
NORANTZ			
NONDIK		*alabánganik	alabénganik

III.2.4.- ONDORIOAK

Orain jadanik atera dezakegu zenbait ondorio:

1/- zenbait kasu oso berezi agertzen zaigu:

a- norentzat. Kasu honi dagokionez badirudi, izenetan genitibo (noren) zaharra, hutsik erabiltzen dela, (arkaismo garbia, beraz) autore zaharretan ere ikus daitekeenez; eta izenor deetan, aitzitik, bi formen alternantzia dagoela. Halere Estornés Lasak ez du inoiz genitiboa erabiltzen, destinatiboa+ko baizik = -tako:

- ésketu nun anáxaren (anaiarentzat eskatu dut, berez eskatu naiz hika)
  ésketu nun neskáxearen (neskatxarentzat eskatu dut, berez

eskatu naiz hika)
ésketu nun semén (semeentzat eskatu dut, berez eskatu naiz hika)
- ésketu nun éne, enetáko (niretzat eskatu dut, berez eskatu naiz hika)
- beste forma hauek ere jaso ditugu: ñáuren, ñaurentako (neuretzat); yire, yiretáko (hiretzat); giáuren,, giaurentáko (geuretzat); ziéntako (zuentzat); kuéntako, koriéntako, kéntako (hauentzat, horientzat, haientzat) beréntako (berentzat) eta gainera: zértako, déustako, gaiza guziétako.

b- Estornés Lasak gainera beste bi kasu, inon beste inork ez aipatuak, ezartzen dizkigu:
- mendiarétikas, mendiétikas. Eta adibide bat: mendiarétikas etxeara da ordu bat. Kasu hau "desde" bezala itzultzen du, baina ez dakar beste argibiderik.
- mendiárako, mendiétarako. Bere itzulketa "para" ematen digu nez, badirudi beste zenbait euskalkitan gertatzen den fenomenu bera dela, baina ez dela berez kasu aparta. (Azkenean Euskaltzaindiak adlatibo destinatibo bezala onartua). Aipatu, azkenik, bi kasuok ez direla bizidunetan agertzen.

d- bestelakoan beste euskalkien kasu-kopuru bera da, Nortzat kasua (prolatiboa) halere behin ere ez zaigu azaldu.
- bizidunetan argi dago bi kasu besterik ez direla erabiltzen. Izan ere beste kasuen erabilera-sarritasuna nahiko murritza da. Horregatik ez dugu zegozkien formak berreraiki nahi izan.

2/- Kasuetako desinentzia-bereiztasunak banan-banan aztertuz:
- nork. Gure sarrera soziolinguistikoa egiterakoan E bi para digmarekiko sailkatu eta erkatu behar zela genion; bata (Baztan)-Aezk-Zar-E. Eta izan ere, lau azpi-euskalki edo hizkera hauek (E euskalki) azaltzen dute bakarrik HNG-z batera, mendebaldeko euskalkietan ergatibozko pluralaren marka /-ek/. Honek ere elkarren artean batzen ditu, eta ekialdekoetara hurbiltzen eta lotzen.
- nori. Pluralean /-er/ forma azaltzen zaigu, marka hau Z-z ere aurkitzen dugu.
- norekin. Izb eta Uzt-en /-ki/ azaltzen da, Bid /-kin/
- nora. Jadanik Azkuek oharrerazi zuen, Z-z bezalatsu E-z

ere alatibo kasua "artikuluz" [mugatzaile, -erakusle, -plural] deklinatzen zela. Azkuek /-a-/ horri "artikulu" zela bazion ere, bada beste eritzirik,[36] eta badirudi pisu gehiagokoa dela; izan ere "artikulua" berriz ere alatibo mugatzaile (noraino) eta direktiboan (norantz) agertzen baita. Eta ere, lekuzko izen nagusietan, ez da /-a-/ hori azaltzen:

méndiara	méndiaradraino
Uztarrozera	Garderadraino

hots, ez zaigu ez *Uztarrozeara ez eta *Gardearadraino azaltzen, honek De Rijk-en teoria irmotzen du.[37] Halere, beste leku-izen askotan /-a-/ hori azaltzen zaigu; baina hauetan ez dakigu zein den enborra, eta bestetik hitzon zahartasuna. Hain zuzen /-a-/ horren jarrera zaharra bada, lekuzko izen nagusi zaharretan (herrienak) bereizketa egingo da; baina berriak izanik, analogiaz /-a-/ sartuko zaie, eta beraz ezin berezi: Zábaleara, Lápiteara, Landalóngara, Astégiara eta Surgitziara, baina Iribarnera eta Palpátera.

- norantz. Kasu honetan ere Z-ri hurbiltzen zaio.
- noraino. Esan beharra dago guztiz bitxia dela, izan ere mugagabean-*(e)traino dugu, mugatu pluralean ere -etraino; mugatu singularrean aldiz -(e)aradraino. /-a-/ hori /-ga-/ tik[38] datorrela pentsatuz ere, nahiko esplikagaitza gertatzen da singularreko desinentzia. Agian alatibo fosildu baten gainean alatibo mugatzailearen beraren desinentzia gainezarri zela pentsatzea dirudi bidezkoena. Pluralean, forma erregularra sinkopaturik azaltzen da: -etraino <-etaraino.
- nondik. Uzt-en eskuharki /-tik/ da, Izb-n /-rik/ (B-z ere -rik, jakina).

3/- enbor eta desinentzien arteko loturan, bi erregela berezi

- /-a/+/-a-/>/-á-/. Berez ikusi dugu azentuaz hitzegitean (II34/1c)
- /-e/+/-e-/>/-é-/. Hain zuzen III21 deklinabidean, bizidunen kasuetan azaltzen da, gainera beste hauetan ere betetzen da: semér, semén, seméki, etxétan, seméngana, seméngatik. Halere "neskaxe" hitzak ez darraio lege honi, hain zuzen, berez < *neskatxa bada ere, ez du ez "anaxe" hitzak bezala

jokatzen anaia, ez "eliza" forma bezala, hala nola.

anaxék, semék, neskaxiék

anaxér, semér, neskaxiér

anaxéki, seméki, neskaxiéki

ez dago garbi zergatik -i- hori tartekatzen den.

III.2.5.- IZENORDAIN ETA ERAKUSLEEN DEKLINABIDEAK

Izenordain eta adjektibo erakusleen deklinabidea hau genuke:

	Mugatu Singularra			Mugatu Plurala		
NOR	káur	kóri	kúra	*kuék	*kóriek	*kék
NORK	*konek	*korrek	*karek	*kuek	*koriek	*kek
NORI	kóni	kórri	kári	kuér	koriér	kér
NOREN	kónen	kórren	káren	kuén	korién	kén
NORENTZAT	kónentako	kórrentako	kárentako	kuéntako	koriéntako	kéntako
NORENGATIK	kónengatik	kórrengatik	kárengatik	kuéngatik	koriéngatik	kéngatik
NOREKIN	kóneki	kórreki	káreki	*kuéki	*koriéki	*kéki
NORTAZ	*kón(e)-taz	*kór(re)-taz	*kár(e)-taz	*kuétaz	*koriétaz	*kétaz
NON	*kóntan	*kórtan	*kártan	kuéntan	koriétan	kétan
NONGO	kóntako	kórtako	kártako	kuéntako	koriéntako	kéntako
NORA	kóntra	kórtra	kártra	kuéntra	koriétra	kétra
NORAINO	--	--	--	*kuéntrai-no	*koriétaraino	*kétraino
NORANTZ	*kóntarat	*kórtarat	*kártarat	*kuéntarat	*korietarat	*kétarat
NONDIK	kóntarik	kórtarik	kártarik	kuéntarik	koriétarik	kétarik
NORTZAT	--					
bizidunak						
NON						
NORA	kónengana	kórrengana	kárengana	kuéngana	koriéngana	kéngana
NORAINO						
NORANTZ						
NONDIK	kónengatik	kórrengatik	kárengatik	kuéngatik	koriéngatik	kéngatik

ez dute irazkin apartarik merezi, /k-/ epentetiko horretaz lehen ere mintzatu gara (III1). Enborrei dagokienez, "kuek" eta "kek" dira formarik interesgarrienak:

kuek< *kauek (II15/2b)
kek <*keiek< *kaiek seguru aski (ikus II15/1d eta /2f)

III.2.6.- SOLEZISMOAK.[39]

Solezismoak, erderatikako kutsu nabarmendun hitz eta erabilerak, oso era berezian azaltzen dira E-z.

1/- Gaztelaniazko "a" *preposizioaren eraginez*, leku-denbora balioa duenean, euskaraz beharko zukeen kasuaren ordez, datiboa (nori) azaltzen zaigu, "a" horren balio eskuharraren (datibozkoa: a Pedro) eraginez.

Adibidea:

Uzt.	atzoko orduari bazkaltu	comer a la hora de ayer	atzoko orduan bazkaltu
	etseari abaño	junto a la casa	etsearen abaño
	eguerdiari	al mediodía	eguerdian
	burtzegiaren ilteari	a la muerte del amo	burtzegiaren iltean
	mayatziarat eltiari	al llegar el mes de mayo	maiatziarat eltean
	xaxteari	al bajar	xaxtean
Bid.	A.Farinetari bordalaraztu	hacer casa a la Sra.F.	A.Farineta bordalaraztu

Zerbait ezberdina -ra kasua, alatiboa, gauza bera azken finean:

pelotara xokatu jugar a la pelota pelotan xokatu

Azken bi kasuok, geure artean ezagunak dira; lehena zuzentzen ari bada ere, bigarrena barra-barra erabiltzen da.

2/- Bizidunak, bizigabe deklinatzea. Azken joera hau solezismo den ez dago batere garbi, eta arkaiko izan daiteke, adibidez
- Aurretik eta erotik egia (ahurrarengandik eta eroarengandik egia). Puntu honetan, beste euskalkiek ere ustegabea franko eman dezakete.

III.3.- ADITZA

III.3.1.- ZENBAIT OHAR.

1/- Aditzari buruz Bonaparte Printzeak egin du, jasoketa serio bakarra[40] eta hain zuzen lan horretaz baliatu gara. Tamalez berriemaile paregabea erabili bazuen ere, (Mariano Mendigatxa, gero Azkuek erabiliko zuen bera; ikus bibliografian haren eskutitzak), Bid-ko hizkerakoa jaso zuen bakarrik. Beraz hizkera hau izango da gure lanaren abiapuntu, noizbehinka beste zenbait oharrez hornituz; baina aditzari buruzko lan sistematiko bakarra hau dugunez, berari heldu gatzaizkio aditza bere osotasunean azaldu nahirik. Beste hizkeretako hutsuneak direla ta, Bidankozeko aditzaren osotasunera ezer berririk ez zekartelakoan utzi egin ditugu, aldaketa- eta kasuistika- luze eta gogaikarri bihurtuko zatekeelakoan.

2/- Beraz, lehenik, aditz laguntzailea aztertu dugu: paradigmak ezarri (III32); eta ondoren zenbait irazkin egin dugu (III33).

- Paradigma edo taulak honela jarri ditugu:
  NOR
  NOR-NORI
  NOR-NORK
  NOR-NORI-NORK
- Eta denborak berriz (nomenklatura Euskaltzaindiaren "Aditza" liburutik aterea da).
  1.- indikatibozko orainaldia
  2.- indikatibozko lehenaldia
  3.- baldintza
  4.- ondorioa I (nintzateke)
  5.- ondorioa II (nintzatekeen)
  6.- ahalezkoa I (naiteke)
  7.- ahalezkoa II (ninteke)
  8.- ahalezkoa III (nintekeen)
  9.- subjuntibozko orainaldia
  10.- subjuntibozko lehenaldia
  11.- agintaldia
  12.- ahalezko baldintza urruna, II (banendi)

  Askotan denboren izen osoak erabili beharrean, zenbakiez ba-

liatu gara. Esan beharra dago 11. eta 12. denboren artean beste bat sar genezakeela: ahalezko baldintza gertua (banadi, banakio, badezat, badiezaiot) baina Bonapartek berak (bere lanari baikarraizkio xuxen-xuxen) ez dakar; "suppositif-présent" (banintz) eta "supposittif futur" (banendi) bereizten ditu. Ez dugu jakin ahal izan zera honen zioa: Bonaparteren beraren banaketa okerra delako, ala euskalki honek agertzen ez duelako. Azken arrazoiak ez dirudi oso bidezko, dena den.

- Azkenik esan, aditz-jokoen irregulartasuna dela medio, ezkerretara aditz-joko bakoitzaren adizkiak jarri ditugula, eta eskubitara taula edo paradigma ahalik eta erregularrena.

3/- Azken-azkenean aditz laguntzailea aztertu ondoren, aditz sintetikoaz aritzea zen gure asmoa (III34) eta hitanoari buruz zenbait ohar ezartzea baina tamalez, azken bi zati hauek (sintetikoa, hitanoa) eta aditzaren morfologiari buruzko irazkinak (III33),lan honetatik kanpo utzi behar izan ditugu, eta beraz taulak huts-hutsean irazkinik gabe eman; izan ere, bestela, beste 40.orrialdetan luzatuko zatekeen lana. Lantxo hori egina dugunez, beste nonbait argitaratzeko agindua ematen dugu.

III.3.2.- ADITZ LAGUNTZAILEA

1	2	
naz	nintzen	
yaz	yintzen	
da	zen	
gra	gintzen	
zra	zintzen	
zrei	zintzein	
dra	zren	

3	4	5
banintz	naiteke	naitekian
bayintz	yaiteke	yaitekian
balitz	laiteke	zaitekian
bagintz	ginaizteke	ginaiztekian
bazintz	zinaizteke	zinaiztekian
bazintzei	zinaiztekei	zinaiztekiein
balidra	laizteke	zaiztekian

6	7	8
naiteke	naiteke	naitekian
yaiteke	yaiteke	yaitekian
daiteke	laiteke	zaitekian
gaizteke	ginaizteke	ginaiztekian
zaizteke	zinaizteke	zinaiztekian
zaiztekei	zinaiztekei	zinaiztekiein
daizteke	laizteke	zaiztekian

9	10	12
nein	nindian	banendi
yain	yindian	bayendi
dein	ledin	baleti
gitian	gintian	baginte
ztian	zintian	bazinte
ztein	zinztein	bazintei
tian	litian	balite

11
adi
bedi
zte
ztei
bite

	ni	hi	hura	gu	zu	zuek	haiek
1	yaitad/n	zaitad		zaitazud	zaitezeid	zaiztad	
	naik/n		zaik/n	gaizkuk/n			zaizkuk/n
	—	—	zau	—	—	—	—
		yaikugu	zaiku		zaizkuguzu	zaizkuguzei	zaizkugu
	naizu		zaizu	gaizkuzu			zaizkuzu
	naizei		zaizei	gaizkuzei			zaizkuzei
	—	—	zabei	—	—	—	zazkabei



2	yitzaikidan	zitzaidan		zitzaizkidan	zitzaizkidein	zitzaizkidan
nitzaya		zitzaya	gitzaya			zitzaizkia
nitzaun	yitzaun	zitzaun	gitzazkaun	zitzazkaun	zitzazkabein	zitzazkaun
	yitzaikigun	zitzaikun		zitzaizkigun	zitzaizkigein	zitzaizkigun
nitzaizun		zitzaizun	gitzaizun			zitzaizkizun
nitzaizein		zitzaizein	gitzaizein			zitzaizkizein
nitzabein	yitzabein	zitzabein	gitzazkabein	zitzazkabein	zitzazkabein	zitzazkabein



3	bayitzaikida	balitzaida		bazitzaizkida	bazitzaizkidei	balitzaizkida
banitzaik/n		balitzaik/n	bagitzaik/n			balitzaizkik/n
banitzau	bayitzau	balitzau	bagitzazka	bazitzazka	bazitzazkei	balitzazka
	bayitzaiku	balitzaiku		bazitzaizkigu	bazitzaizkigei	balitzaizku
banitzaizu		balitzaizu	bagitzaizu			balitzaizkizu
banitzaizei		balitzaizei	bagitzaizei			balitzaizkizei
banitzabei	bayitzabei	balitzabei	bagitzazkei	bazitzazkei	bazitzazkei	balitzazkei



4	yaikidake	laikidake		zinaizkidake	zinaizkidakei	laizkidake
naitekek/n		laitekek/n	ginaiztekek/n			laiztekek/n
naitekio	yaikioke	laikioke	ginaiztekio	zinaizkioke	zinaizkiokei	laizkioke
	yaikiguke	laikiguke		zinaizkiguke	zinaizkigukei	laizkiguke
naitekezu		laitekezu	ginaiztekezu			laiztekezu
naitekezei		laitekezei	ginaiztekezei			laiztekezei
naitekie	yaikieke	laikieke	ginaiztekie	zinaizkieke	zinaizkiekei	laizkieke



1 datibozko 2.p.denetan

NOR-NORI

5 ONDORIOA II = ONDORIOA I+n datibozko 3.p.k aldatzen dira.

hura	haiek					
zaikidakian	zaizkidakian		ki	da	ke	
zaitekia	zaiztekia		teke	a	—	—
zaikiokian	zaizkiokian	za(k)i	ki	o	ke	n
zaikigukian	zaizkigukian		ki	gu	ke	n
zaitekezun	zaiztekezun		teke	zu	—	n
zaitekezein	zaiztekezein		teke	zei	—	n
zaikiekian	zaizkiekian	za(k)iz	ki	e	ke	n

ni	hi	hura	gu	zu	zuek	haiek
6	yaikeda	daikeda		zaizkeda	zaizkedei	daizkeda
naikek/n		daikek/n	gaizkek/n			daizkek/n
nayoke	yaikioke	dayoke	gaizkioke	zaizkioke	zaizkiokei	daizkioke
	yaikegu	daikegu		zaizkegu	zaizkegei	daizkegu
naikezu		daikezu	gaizkezu			daizkezu
naikezei		daikezei	gaizkezei			daizkezei
nayeke	yaikieke	dayoke	gaizkieke	zaizkieke	zaizkiekei	daizkieke



-7=4

-8=5

ni	hi	hura	gu	zu	zuek	haiek
9	akidan	dakidan		zaizkidan	zaizkidein	dakizkidan
—		—	gazkian			dazkian
nakion	akion	dakion	gaizkion	zaizkion	zaizkiein	dazkion
	akigun	dakigun		zaizkigun	zaizkigein	dakizkigun
—		—	gazkizun			dazkizun
—		—	*gazkizein*			*dazkizein*
nakien	akien	dakien	gaizkien	zaizkien	zaizkiein	dazkien



10	yitzaikidan	lakidan		zitzaizkidan	zitzaizkidein	lazkidan
nitzayan		lakian	gitzayan			lazkian
nitzayon	yitzaikion	lakion	gitzaizkion	zitzaizkion	zitzaizkiein	lazkion
	yitzaikigun	lakigun		zitzaizkigun	zitzaizkigein	lazkigun
nitzaizun		lakizun	gitzaizun			lazkizun
nitzaizein		lakizein	gitzaizein			lazkizein
nitzayen	*yitzaikien*	*lakien*	*gitzaizkien*	*zitzaizkien*	*zitzaizkiein*	*lazkien*



11	akida	bekida		zaizkida	zaizkidei	bekizkida
=		—	=			—
=	akio	bekio	=	zaizkio	zaizkiei	bekizkio
	akigu	bekigu		zaizkigu	zaizkigei	bekizkigu
=		—	=			—
=		—	=			—
=	akie	bekie	=	zaizkie	zaizkiei	bekizkie



12	bayitzaikida	balakida		bazitzaizkida	bazitzaizkidei	balazkida
banitzaik/n		balakik/n	bagitzaik/n			balazkik/n
banitzayo	bayitzaikio	balakio	bagitzaizkio	bazitzaizkio	bazitzaizkiei	balazkio
	bayitzaikigu	balakigu		bazitzaizkigu	bazitzaizkigei	balazkigu
banitzaizu		balakizu	bagitzaizu			balazkizu
banitzaizei		balakizei	bagitzaizei			balazkizei
banitzaye	bayitzaikie	balakie	bagitzaizkie	bazitzaizkie	bazitzaizkiei	balazkie



NOR-NORK

ni	hi	hura	gu	zu	zuek	haiek
1	yaid	dud		ztud	zteid	tud
nuk/n		duk/n	gutuk/n			tuk/n
nu	yai	du	gutu	ztu	ztei	tu
	yaigu	digu		ztugu	zteigu	tugu
nuzu		tzu	gutzu			dutzu
nuzei		tzei	gutzei			dutzei
nei	yei	dei	gutei	ztei	ztei	tei



2						
	yindudan	nion		zuntudan	zuntudein	nition
nundiua		yon	guntiua			yition
nindion	yindion	zion	gintion	zuntion	zuntein	ztion
	yindugun	ginion		zuntugun	zuntugein	gintion
nuntzun		zunion	guntzun			zuntion
nuntzein		zinein	guntzein			zintein
nindein	yindein	zein	gintein	zuntein	zuntein	ztein



3						
	bayindud	banu		bazuntud	bazunteid	banuntu
banundiua		bayu	baguntiua			bayuntu
banundu	bayindu	balu	baguntu	bazuntu	bazuntei	balutu
	bayindugu	bagunu		bazuntugu	bazuntugei	baguntu
banuntzu		bazunu	baguntzu			bazuntu
banuntzei		bazinei	baguntzei			bazuntei
banundei	bayindei	balei	baguntei	bazuntei	bazuntei	balitei



4						
	yoked	noke		zinozked	zinozkeid	nozke
nindokek/n		yoke	gindokek/n			yozke
nindoke	yoke	loke	gindoke	zinozke	zinozkei	lozke
	yokegu	ginoke		zinozkegu	zinozkegei	ginozke
nindokezu		zinoke	gindokezu			zinozke
nindokezei		zinokei	gindokezei			zinozkei
nindokei	yokei	lokei	gindokei	zinozkei	zinozkei	lozkei



5= ONDORIOA II = ONDORIOA I + n absolutibozko 3.p-ei dagozkien adizkietan, ergatibozko 3.p-en desinentziak aldatzen dira.

hura	haiek	desinentziak		
nokian	nozkian	ke+n	kian	n
yokian	yozkian	kek+n	kia	y
zokian	zozkian	ken+n	kia	z
ginokian	ginozkian	kei+n	kiein	gin
zinokian	zinozkian	gei+n	gein	zin
zinokiein	zinozkiein	d+n	dan	zin
				z

o ke } n
. ei }
o z ke }

ni	hi	hura	gu	zu	zuek	haiek
6	yoked	droked		zrozked	zrozkeid	drozked
nrokek/n		drokek/n	gitzakek/n			drozkek/n
nroke	yoke	droke	gitzake	zrozke	zrozkei	drozke
	yokegu	drokegu		zrozkegu	zrozkegei	drozkegu
nrokezu		drokezu	gitzakezu			drozkezu
nrokezei		drokezei	gitzakezei			drozkezei
nrokei	yokei	drokei	gitzakei	zrozkei	zrozkei	drozkei



ni	hi	hura	gu	zu	zuek	haiek
9	yitzadan	tzadan		zitzadan	zitzaidein	tzadan
naztayan		tzayan	gitzayan			tzayan
naztan	yitzan	tzan	gitzan	zitzan	zitzein	tzan
	yitzagun	tzagun		zitzagun	zitzaigein	tzagun
naztazun		tzazun	gitzazun			tzazun
naztazein		tzazein	gitzazein			tzazein
naztein	yitzaten	tzein	gitzein	zitzaten	zitzein	tzein

10	yintzadan	nezan		zintzadan	zintzadein	netzan
nintzayan		yezan	gintzayan			yetzan
nintzan	yintzan	lezan	gintzan	zintzan	zintzein	letzan
	yintzagun	ginezan		zintzagun	zintzagein	ginetzan
nintzazun		zinezan	gintzazun			zinetzan
nintzazein		zinezein	gintzazein			zinetzein
nintzein	yintzein	lezein	gintzein	zintzein	zintzein	letzein

11						
naztak/n		zak/n	gitzak/n			tzak/n
benazta		beza	begitza			betza
naztazu		zazu	gitzazu			tzazu
naztazei		zazei	gitzazei			tzazei
benaztei		bezei	begitzei			betzei

12	bayintzada	baneza		bazintzada	bazintzadei	banetza
banintzak/n		bayeza	bagintzak/n			bayetza
banintza	bayintza	baleza	bagintza	bazintza	bazintzei	baletza
	bayintzagu	bagineza		bazintzagu	bazintzagei	baginetza
banintzazu		bazineza	bagintzazu			bazinetza
banintzazei		bazinezei	bagintzazei			bazinetzei
banintzei	bayintzei	balezei	bagintzei	bazintzei	bazintzei	baletzei









NOR-NORI-NORK*

niri	hiri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
1	dadak/n dadazk/-danz	daud dazkad		izud itzud	daizeid daitzeid	dabeid dazkabeid
daitadak/n daiztadak/n		dauk/n dazkak/n	daikuguk/n daizkuguk/n			dabeik/n dazkabeik/n
daitad daiztad	daik/n daizk/inz	dau dazka	daikugu daizkugu	daizu daitzu	daizei daitzei	dabei dazkabei
	daiguk/n daizkuk/n	dagu dazkagu		daizugu daitzugu	daiguzei daigutzei	daguei dazkaguei
daitazud daiztazud		dauzu dazkazu	daikuguzu daizkuguzu			dauzei dazkauzei
daitazeid daiztazeid		dauzei dazkazei	daikuguzei daizkuguzei			dauzei dazkauzei
daiteid daizteid	dayeik/n dayeizk/-inz	dabei dazkabei	daikuguei daizkuguei	daizei daitzei	daizei daitzei	dabei dazkabei

2	naya nayaz	naun nazkaun		naizun naitzun	naizein naitzein	nabein nazkabein
yaitan yaiztan		yaun yazkaun	yaikun yaizkun			yabein yazkabein
zaitan zaiztan	zaya zayaz	zaun zazkaun	zaikun zaizkun	zaizun zaitzun	zaizein zaitzein	zabein zazkabein
	ginaya ginayaz	ginaun ginazkaun		*ginaizun* ginaitzun	*ginaizein* ginaitzein	*ginabein* ginazkabein
zinaitan zinaiztan		zinaun zinazkaun	zinaikun zinaizkun			zinabein zinazkabein
zinaitein zinaiztein		zinabein zinazkabein	zinaikiuein zinaizkiuein			zinabein zinazkabein
zinaitein zinaiztein	zayei zayeiz	zabein zazkabein	zaikiuein zaizkiuein	zaizein zaitzein	zaizein zaitzein	zabein zazkabein

3	banaya banainz	banau banazka		banaizu banaitzu	banaizei banaitzei	banabei banazkei
bayade bayaizta		bayau bayazka	bayaiku bayaizku			bayabei bayazkei
balade balaizta	balaya balainz	balau balazka	balaiku balaizku	balaizu balaitzu	balaizei balaitzei	balabei balazkei
	baginaya baginainz	baginau baginazka		baginaizu baginaitzu	baginaizei baginaitzei	baginabei baginazkei
bazindade bazinaizta		bazinau bazinazka	bazinaiku bazinaizku			bazinabei bazinazkei
bazindadate bazinaiztei		bazinabei bazinazkei	bazinaikiuei bazinazkiuei			bazinabei bazinazkei
baladate balaiztei	balayei balayeinz	balabei balazkei	balaikiuei balaizkiuei	balaizei balaitzei	balaizei balaitzei	balabei balazkei

4						

da d
k/n (z)k/n
(ki) o —
da(k)i(z) kugu gu
zu zu
zei zei
(ki) au ei ei

n da
y a (z)
z (ki) o
gin a(k)i(z) gu[1] n
zin zu
zin zei ei
z (ki) auei ei

[1] *ku+ei> kiuei*

ba
- n da
- y a (nz)
- l (ki) o
- gin a(k)i(z) gu
- zin zu
- zin zei ei
- l (ki) auei ei

*- () artean doazen partikulek absolutibozko pluraleko pertsona dutenean bakarrik, azaltzen den pluraltzailea azaldu nahi dute. Bestetik erroa berreraiki nahiez, beti -i- azaltzen bada ere, -ki- dela adierazteko, *(k)i jarri dugu.*

*- E-k ez ditu ez ondorioak ez eta ahalezkoak (4,5,6,7,8).

niri	hiri	hari	guri	zuri	zuei	haiei
9	dazayadan dazadainz	dazaudan dazkadan		dazaizudan dazaitzudan	dazaizeidan dazaitzeidan	dazabeidan dazkeidan
daztayan dazkidayan		dazayan dazkayan	dazaiguyan dazkiguyan			dazabeyan dazkeyan
daztan dazkidan	dazayan dazainz	dazaun dazkaun	dazaigun dazkigun	dazaizun dazaitzun	dazaizein dazaitzein	dazabein dazkabein
	dazayagun dazayagunz	dazagun dazkagun		dazaizugun dazaitzugun	dazaizeigun dazaitzeigun	dazaguein dazkaguein
daztazun dazkidazun		dazazun dazkazun	dazaiguzun dazkiguzun			dazauzein dazkazein
daztazein dazkidazein		dazazein dazkazein	dazaiguzein dazkiguzein			dazauzein dazkazein
daztein dazkidein	dazayein dazayeinz	dazabein dazkabein	dazaiguein dazkiguein	dazaizein dazaitzein	dazaizein dazaitzein	dazabein dazkabein



10	nayan nayanz	nezaun nezkaun		naizun naitzun	naizein naitzein	nezabein nezkabein
yaiztan yeztadan		yezaun yezkaun	yaizkun yaitzkun			yezabein yezkabein
laiztan leztadan	layan layanz	lezaun lezkaun	laizkun laitzkun	laizun laitzun	laizein laitzein	lezabein lezkabein
	ginayan ginayanz	ginezaun ginezkaun		ginaizun ginaitzun	ginaizein ginaitzein	ginezabein ginezkabein
zinaiztan zinztadan		zinezaun zinezkaun	zinaizkun zinaitzkun			zinezabein zinezkabein
zinaiztein zinztadein		zinezabein zinezkabein	zinaizkiuein zinaitzkiuein			zinezabein zinezkabein
laiztein leztadein	layein layeinz	lezabein lezkabein	laizkiuein laitzkiuein	laizein laitzein	laizein laitzein	lezabein lezkabein



1.- eza(z)kio

2.- eza(z)kiauei

11	—	—		—	—	—
daztak/n dazkidak/n		dazak/n dazkak/n	dazaiguk/n dazkiguk/n			dazeik/n dazkeik/n
beztad bezkidad	——	bezau bezkau	bezaigu bezkigu	—	—	bezabei bezkabei
	—	—		—	—	—
daztazud dazkidazud		dazazu dazkazu	dazaiguzu dazkiguzu			dazauzei dazkazei
daztazeid dazkidazeid		dazazei dazkazei	dazaiguzei dazkiguzei			dazauzei dazkazei
bezteid bezkideid	—	bezabei bezkabei	bezaiguei bezkiguei	—	—	bezabei bezkabei



12	banaya banainz	banezau banezkau		banaizu banaitzu	banaizei banaitzei	banezabei banezkabei
bayaizta bayeztada		bayezau bayezkau	bayaizku bayaitzku			bayezabei bayezkabei
balaizta baleztada	balaya balainz	balezau balezkau	balaizku balaitzku	balaizu balaitzu	balaizei balaitzei	balezabei balezkabei
	beginaya baginainz	baginezau baginezkau		baginaizu baginaitzu	baginaizei baginaitzei	baginezabei baginezkabei
bazinaizta bazinztada		bazinezau bazinezkau	bazinaizku bazinaitzku			bazinezabei bazinezkabei
bazinaztei bazinztadei		bazinezabei bazinezkabei	bazinaizkiuei bazinaitzkiuei			bazinezabei bazinezkabei
balaiztei baleztadei	balayei balayeinz	balezabei balezkabei	balaizkiuei balaitzkiuei	balaizei balaitzei	balaizei balaitzei	balezabei balezkabei



1.- eza(z)kio

2.- eza(z)kiauei

IV.- SINTAXIA

IV.1.- Sarreran genionez, lan honetan ez dugu ikerketa entseiurik egin nahi izan, nahiz aditzaren morfologia gure kabuz zerbait aztertu. Gure lehen nahia han-hemenka barreiaturik zeuden materialak batzea zen; eta, oro har, xede honi jarraiki gatzaizkio.

Horregatik sintaxira ailegatu garenean, besomotz gelditu gara, izan ere E-k duen premiarik handiena sintaxi-ikerketarena delako. Beraz, tamalez, zati hau izango da lan honetan motzena. Geroko azterketen zai (agian geureak, besterenak ere gogoz igurikiko ditugu) gautza. Jaso diren hiruzpalau ezaugarriak hemen landatzea besterik ez zaigu geratzen.

IV.2.- IKUSPEGI OROKORRA

Azaleko lehen begiratutik, badirudi E-k ez duela morfologian azaltzen zuen bereiztasun markatu hori bera, sintaxi mailan. Azterketa serioagoen zai garelarik, lehenengo zantzua hau da: Zenbait bereiztasun badu baina hauek, gehienetan, jasan dituen erdarakaden ondorio lirateke, berezkoak baino (nahiz erderatikako ezaugarri hauek bereganatuak dituen jadanik, eta beraz, berezkoak izan).

IV.3.- DEKLINABIDEAREN KOMUNZTADURA

Badirudi mugagabeak komunztadura singularrean egiten duela aditzean, hala nola:

ñok ere ez doke zerbutxa bi nausi (H.M.) (ez dezake/bi nagusi)
bi deuri-denario emon zinaitadan (H.M.) (bi deuri-denario/zenidan)

IV.3.1.- GALDERAZKOAK

-Baiezko edo ezezko galderak, ekialdeko euskalkietan aditz laguntzaileari eransten zaion -a-z egiten dira. R-z ere gisa

bereko joera dago

aita jageiko dia? - (aita jangoikoa al da?)
irur jangeiko dria? - (hiru jainko al dira?)

-a honek aditz laguntzaileaz batzean sortzen dituen aldaketa fonetikoentzat ikus II15/3b.

-baina, eta hau E-z bakarrik gertatzen da, -a hori aditz gabe ere azaltzen da, hala nola:[41]

nika? (nik-a)	ni al naiz?
kemena?	hemen? (bai ala ez)
baia?	bai? (bai al...?)
eza?	ez? (ez al...?)

IV.4.- KONPARATZAILEAK[42]

-Perpaus hauek jaso ditugu:

IV.4.1.- NOLAKOTASUNEZKOAK

1/ berdintasuna

a- Izb- gú bikin ón (gu bezain on)
b- Uzt- ni nézu kain ón nola zú (ni zu bezain on naiz)
Izb- kain ón nola gú (gu bezain on)
Uzt- kain ón tzu báta nola béstia (bata bestea bezain on da)
d- Uzt- ber gaiza tzu beste areki (hura bezalakoa da)

2/ ezberdintasuna

a- Uzt- ni bino zarrago (ni baino zaharrago)
Uzt- zu bino obe nazu (sic) (zu baino hobe naiz)
b- Uzt- zarrago ezi ni (ni baino zaharrago)
Uzt- obiago ezi bestia (bestea baino hobe)
Uzt- ardau kori obe tzu ezi bestia (ardo hori bestea baino hobe da)
Uzt- ardau kori gaiztuago tzu ezi bestia (ardo hori bestea baino txarrago da)
d- Uzt- orai obro kastellano ezik euskaldun (orain euskaldun baino gaztelauago)

IV.4.2.- NOLATASUNEZKOAK

a- Izb- gore gisa, gu gisa (gu bezala, legez)
b- Izb- gu bik(a)la (gu bezala)
Uzt- ni bikala (ni bezala)
Uzt- ziek bikala ez (zuek bezala ez)

IV.4.3.- Perpaus osoago bat: (Izb) eta baten átzian beste bat, eta andi balimada léina, bigarna andiágua; eta balin leinak kïatan badu, bigarnák obró. (eta baten atzean beste bat, eta handi baldin bada lehena, bigarrena handiagoa; eta lehenak kirasten badu, bigarrenak gehiago).

IV.4.4.- ZENBAIT OHAR

-ohar gutxi behar da dakusagunez:

1/ nolakotasunezkoak 1-a eta 2-a joera erkideari darraizkio. (bikin E-zko bezain-n ordaina dugu, /k-/ protetiko (orain epentetiko) eta guzti

2/ 1-b eta 1-d erdaratik mailegaturik dirudite, kain-nola erabiltzen dira konjuntzio moduan:

kain ón nola gú ber gaiz tzu beste areki
tan bueno como nosotros es la misma cosa que aquello

3/ 2-b eta 2-d ere erdaratiko dirudite, konjuntzioa -ezikda.
- zarrago ezi ni
más viejo que yo
-orai obro kastellano ezik euskaldun (da)
ahora (es) más castellano que euskaldun

4/ nolatasunezkoak
- bikala-ren -k- ere /k-/ protetikoa da

5/ adjektibo konparatzailea beti mugatzaile gabe azaltzen da; hots, sintagma atributibo arkaiko gisa, alegia"zarragoØ ezi ni", eta ez "zarragua ezi ni". Behin bakarrik "andiagua"

IV.5.- ERLATIBOA

K.Artolak antzeman dioenez, erlatiboak joera bitxia du; erlatibo normalaren ondoan, beste hau ere azaltzen baita (batez ere Bid-n erabiltzen zen antza, Mariano Mendigatxari har tutakoak dira adibide hauek) eta beste erabilera hau erdaratikakoa dirudi, nahiz B-z ere (Peru Abarka)[43] erabilera parekoa agertu, hain zuzen hau dugu:[44]

Uzt/Izb(?) etse... amaño ziena (hurbil zuen etxea)
Bid Txakur inzlari aztan dagonaren (hazten dagoen txakur ehiztariaren)
Bid oren igartan drenak (pasatzen diren orduak)

V.- LEXIKOA

E-ren hitzegirik zabal eta joriena Azkuek egina du, bere "Particularidades..."-en amaieran 70 orrialdetan hiztegia dakar, lan hau (1931) bere hiztegia (1905-1906) baino zaharragoa bada ere, aspaldi jasoak zituen anotazio eta datuen birmoldaketa da, eta eskuharki lan honetako hitz gehienak jadanik hiztegiak bazekartzan (badira zenbait hitz hitzegian sartugabeak, eta hala doaz lanean, sarturik diren ala ez oharrarekin).

Beraz, ez dugu hiztegian edo 1931-ko lanean agertzen ez den hitzik, (gero irakurketa xeheagoa eginik, baietz konturatu gara). Ondorioz ez dugu huts-hutsean lan horretatik zenbait hitz landatzea nahi izan hona. Beste aberastasun bat lortu nahirik, 140 hitzez osatutako hiztegi murritza hautatu dugu, baina zerbait berria agertu nahiz, hitz bakoitza hirutan eman dugu, E-ren hizkera bakoitzak nola erabiltzen duen agertuz. Hala 140 x 3 = 420 hitz jaso ditugu. Beti adierazgarriagoa delarik, E ez osotasun trinkoa bezala agertzea, hizkera ezberdinez osatuako multzo edo talde gisa baizik, bere aberastasuna noraino iristen den erakutsi nahiz, eta nola hizkera bakoitza besteetatik ezberdintzen den azalduz. Izan ere, lanean zehar zenbait hizkera bazterturik utzi dugunez, azken zati honetan saiatu gara denei justizia egiten.

Honetarako Bonaparteren eskuizkribu batetara jo dugu. Gonzalez Echegaray-k egina duen "Catálogo de los manuscritos lingüísticos de la colección Bonaparte que se conservan en las bibliotecas de Bilbao, Pamplona y San Sebastián" lanera jo dugu; katalogoak sailkatuta duenez Nafarroako Diputazioaren Iruiñeko liburutegian honako lan hau dagoela dio: "265-LOUIS LUCIEN BONAPARTE" Palabras bascongadas, dialectos de Vidangoz, Urzainqui, Uztarroz etc..." 11 hojas + 3 hojas 8º procedencia DNA m/s B-114 y 114 bis". Gu lan honetaz baliatu gara, eta Azkuek erabili bazuen ere bere lanerako (nahiz osorik ez), dagoen-dagoenetan oraindik argitatatu ez denez, geuk hartu dugu. Hiru zutabetan eratuta dago (aurrez lehen hitza frantsesez doa,

eta bere itzulpena hiru barietateetara ondorengo hiru zutabee tan) lehen zutabea Bid-ko itzulpena da, bigarrena Urzainkikoa, eta Uztarrozekoa azkena. Guk lehen zutabearekiko lerrotu ditugu alfabetikoki hiru zutabeetako hitzak, ondoren euskara batuaz erabiltzen den hitz batez itzulpena ezarriz, eta azkenik Bonapartek aurrean jarri zuen hitz frantsesa errespetatzeagatik, frantses hitza jarri dugu gibelean (zegokion zenbakiaz).

Gainera abantaila aparta du; hitzak gramatikalki sailkatuak izatea, ordena honetan: Izen, Adjk, Iznd, Aditz, Adb, Prep, Konj eta Intejk. Hona beraz:

IZENA

Bid.	Urz.	Uzt.	Batua	Fr.
1.- aingra	aingra	angila	aingira	2-anguille
2.- ainguru	aingru	ainguru	aingeru	1-ange
3.- altaka,ondo	altaka	alteka,ondo	albo,ondo	86-voisinage
4.- andorratx	andorratx	andorratx ixkilima	jostorratz	28-épingle
5.- antzar	antzara	antzara	antzar	56-oie
6.- anko	alko	adalko	mordo,sorta	37-grappe
7.- añabarbarin	añaberba	añamerna	armiarma	3-araignée
8.- añari	añari	mañari	sorbeltz(txoria)	47-martinet
9.- apatzar	apotzar	apotzar	apo	20-crapaud
10.- asterle	baserle	baserle	liztor	38-guèpe
11.- ãria	ãria	area	hondar,harea	73-sable
12.- arreklan	arreklan	arraklan	eskopio(luhartz)	77-scorpion
13.- atorra	nasai	mantar	atorra	11-chemise def.
14.- axpil	axpil	mixpira	mizpira	50-nèfle
15.- azeituna	azeituna	azeituna oliba	oliba	58-olive
16.- baba	baba	aba	baba	30-fève
17.- bedatse	bedatsa	bedatse	udaberri	68-printemps
18.- beor	beur	beur	behor	40-jument
19.- bizarnabaja	bizarñabla	bizarñabla	bizar labaina	69-rasoir
20.- burña	burña	burruña	burdina	29-fer
21.- burgostar	burgostar	burgoseko	burgostar	5-Burgos(de)
22.- buitre	buitre	bultre	putre,sai	84-vautour
23.- diabru	diabru	debru	deabru	22-diable
24.- erbi	lleproĩ	lleproĩ	erbi	45-lièvre
25.- erroi	erroñ	erroĩ	(bele handi)erroi	14-corbeau
26.- esne	esne	ezne	esne	41-lait
27.- exurko	exurko	koxko	hezur(fruituena) hazi	53-noyau
28.- fungo	fongo	fongo	onddo	8-champignon
29.- gaiañari	gaiañari	gainañari	saguzar	10-chauve--souris
30.- gañabeta	aĩsto	aĩsto	aizto,ganibet	18-couteau
31.- garrando	garrondo	garrondo	garondo,garaite	55-nuque
32.- gaxur	gaxur	xirikota	gazur,erli	64-petit--lait
33.- gergezko	gergezko	zaragoll	galtzak,prakak	21-culotte
34.- giltzurrin	beltzurrun	beltzurrin	giltzurdin	70-rein

35.- goiko	goiko	argizagi	ilargi	46-lune
36.- iburni	eburni	eburni	infernu	26-enfer
37.- iguzki	eguzki	eguzki	eguzki	78-soleil
38.- illurri	iñurri	iñurri	arantze(≃elorri)	27-épine
39.- ingla	ingla	gerezi	gerezi	7-cérise
40.- inze	ainze	einze	ehize	9-chasse
41.- iñaztura	relanpago	iñaztura	oinaztargi	25.- éclair
42.- iñurri	eñurri	eñurri	xingurri,inurri	32-fourmi
43.- irurgarnen	irurgarren	irorgarren	hirugarren	81-tiers
44.- iturri	uturri	uturri	iturri	31-fontaine
45.- itzagur	itzagor	etzagor	intxaur	51-noix
46.- jangeiko	juangeiko	jangoiko	jangoiko	23-dieu
47.- jiba	jiba	xiba	konkor	7-bosse
48.- junko	xunke	xunke	ihi	39-jonc
49.- kei	ke	ke	ke	35-fumée
50.- kodo	kodo	besainke	ukalondo	15-coude
51.- kuxala	kuxala	kuxalena	lengusina	17-cousine
52.- leinabentu	leinabentu	lenabentu	azaroa	52-novembre
53.- lokune	logune	lokun	loki	79-tempe
54.- mandre	mise	mise	maindire	24-drap(de lit)
55.- margu	margu	marzuza	marrubi	33-fraise
56.- marzuza	marzuza	margi	masuzta	49-mûre
57.- mingotx	ozpinbelar	oxpin	usta(belar)	60-oseille
58.- ——	mugurde	mugurde	magurdi, errege--masusta	34-framboise
59.- muxkito	muxkito	eltxu	eltxo	16-cousin (insct)
60.- nabaja	ñabla	ñabla	labain	19-c.qui se ferme
61.- naranja	naranja	laranja	laranja	59-orange
62.- odei	odei	odoi	hodei	54-nuage
63.- odei	odei	odoi	trumoi	82-tonnerre
64.- orantz	etsigoixtako	etsigoixtako	legami	43-levain
65.- ——	——	orkatz	orkatz	13-chevreuil
66.- perraxil	perrexil	perrexil	perrexil	63-persil
67.- planta	planta	lantare	landare	66-plante
68.- potro	potro	putxe	moxal,pottoka	67-poulain
69.- ramu	ramu	errami	erramu	42-laurier
70.- sarnasarnafuera	mariposa	mariposa	mitxeleta	62-papillon

71.-	sugendilla	sugendilla	sugekandra	sugandila	44-lézard
72.-	trempa	trempa	tempra	denbora	80-temps
73.-	tyortyola*	tortola	turtula	usapal	83-tourte-relle
74.-	tipula	tipla	tupla	tipula	57-oignon
75.-	txapar,aretx	txaparro,aretx	aretx	haritz	12-chêne
76.-	tximiko	tximiko	tzimiko	ximiko	65-pincer (action de)
77.-	txintx	txintx	tzintz	muki	48-morve
78.-	txintxurri	txuntxurri	tzuntzurre	eztarri,zintzur	36-gosier
79.-	ugalte	ugatxa	eguatxa	ibai	71-rivière
80.-	uriña	uriña	uruña	Iruñea	61-Pampelune
81.-	xauxtikalari	xauxtikalari	xauzkari	matxinsalto	75-sauterelle
82.-	xerrero	xerrero	idixko	idi,idisko	85-veau( )
83.-	(s)xirrinapantika	sirrinapantika	xauzkari berde	oti(intsektua)	76-sauterelle (la grosse)
84.-	zaitziuar	zaitziar	zaitziar	zaraitziar	74-Salazar de
85.-	ziza	zuza	xixa	ziza(perretxiku)	6-cep
86.-	zorronka	sorronka	surrunka	zurrunga	72-ronflement

ADJEKTIBOAK

87.-	amairur	amairur	amairor	hamairu	9-treize
88.-	berze	berze	beste	beste	1-autre
89.-	bigarnen	bigarren	bigarren	bigarren	16-second
90.-	irur	irur	iror	hiru	10-trois
91.-	irurein	irurein	irorein	hirurehun	11-trois cents
92.-	irurgarnen	irurgarren	irorgarren	hirugarren	12-troisième
93.-	irurogei	irurogei	irorogei	hirurogei	7-soixante
94.-	itxusi	utxusi	utxusi	itsusi,zatar	4-laid
95.-	jiboso	xiboso	xiboso	konkortu	2-bossu
96.-	lein	lein	len	lehen-engo	15-premier
97.-	maite	moite	moite	maite	3-cher
98.-	ogeitairur	ogeitairur	ogeitairor	ogeitahiru	13-ving-trois
99.-	ñore	ene,ñore	ñore	nire	5-mon
100.-	sor	gor	sor	gor	8-sourd
101.-	xien	xien	zien	zuen(zuek)	14-votre
102.-	txiker	ño	ño	txiki	6-petit

*ty = tt dirudi, dena den bere ortografia errespetatu dugu

IZENORDEAK

103.-	ñior,ñiorere	ñeur,ñeurere	eur,eurere	inor (ez)	2-personne
104.-	ñore	ene,nore	ñore	nire	1-mien
105.-	xiaur	xiaur	ziaur	zeu	3-toi-même
106.-	xiauriek	xiauriek	ziauriek	zeuek	6-vous-mêmes
107.-	xiek	xiek	ziek	zuek	5-vous
108.-	xien	xien	zien	zuen	4-vôtre

ADITZAK

109.-	antzetu	ãtzetu,antzekun	atzetu	ahantzi	12-oublier
110.-	atxiki	atxiki	xo	jo,eraüntsi	4-battre
111.-	bainatu	igirikatu	anadatu	igeri egin	11-nager
112.-	edoki,eroki	uduku	uduku	eduki	17-tenir
113.-	eran	eran	edan	edan	5-boire
114.-	erki,oiltu	erki,oiltu	oiltu	ehizatu	6-chasser
115.-	orraixtatu	irainxi	ereinxi	orraztu	13-peigner
116.-	(hutsegitea)				
117.-	eskatu	esketu	esketu	eskatu	7-demander
118.-	fan,juan	xuan	xuan	joan	2-aller
119.-	frixitu,fritu	firitu	firitu	frijitu	9-frire
120.-	guartu	guartu	ogartu	gogoratu	16-souvenir(se)
121.-	il	lotu	lotu	itzali,iraungi	8-éteindre
122.-	igari	iretsi	iretsi	irentsi	3-avaler
123.-	leitu	leatu	leatu	letu,irakurri	10-lire
124.-	maitekun	moitekun	moitekun	maitatu	1-aimer
125-	tximikatu tximiko egin	tximiko egin	tzimiko egin	zimiko egin txatxamurka egin	15-pincer
126.-	zilatu	xilatu	xilatu	zulatu	14-percer

ADBERBIOAK

127.-	anix anixko,anixki	anix anixko	anix anixko	asko,anitz	2-beaucoup
128.-	"	"	"	oso	10-très
129.-	baijina	baijina,baijeina	baijina,baijeina	bai, jauna	8-oui monsieur
130.-	baindria	baindria,-dra	baindria,-dra	bai,anderea	7-oui madame
131.-	——	——	etziasteago	(ez dago)	3-cinq(dans) jours
132.-	etzidamuago	etzidamuago	etziaste	etzidamu	9-quatre "
133.-	kantxe	kantxe	kan berian	hantxe,han bertan	6-là même

134.-	kemen,keben	keben	keben	hemen	4-ici
135.-	lein leinago	lein leinago	len lenago	lehen(gero) lehenago	1-avant
136.-	sekula beinere noizere egundaino	sekula beinere noizere egundaino	beinere	inoiz ez,sekula	5-jamais

"PREPOSIZIOAK"

137.-	abaño altakan onduan xunto	amaño altakan xunto	amano altekan onduan	gertu,ondoan	2-près-au-près
138.-	lein -ago	lein, -ago	len, -ago	lehen, -ago	1-avant

KONJUNTZIOAK

139.-	kainbat	kainberze	kainbeste	hainbat,hainbeste	1-tant

INTERJEKZIOAK

140.-	ara kan!	ara kan!	ara kan!	hara han	1-voilà

VI.- TRANSKRIBAKETAK

Transkribaketetarako, bi herritatik bakarrik jaso ahal izan denez ahozko materiala,alegia,Uztarroze eta Izaba,bi herri hauetatik hautatu ditugu transkribaketak.Beste herrietatik idatzizko textuak bakarrik kontserbatzen dira.

Textuak bi iturri hauetatik atera ditugu

- Izabako textua MICHELENA eta.Contribución.... 510.o.
- Uztarrozeko I.textua: MICHELENA eta. Contribución... 526-527.o.

  II.Textua: ARTOLA Erronkariko uskararen... 57.o.

Zoritxarrez ez dira transkribaketa fonetiko oso zehatzak (ia fonologikoak) eta geuk nahi baino zehaztasun gutxiagoz utzi behar izan ditugu textuak, zenbait fenomeno arrunt ere badaezpada, anotatu gabe, hala nola bokalarteko zenbait herskari ozenen frikatzea.

UZTARROZE

[máste baték lépwa ebáki sjósun | eta mia gentu sjósun áutik | eta folára šārtu || eta gero esesein nai šíneći ´ mastjak il sjéla gísona || eta gison batek erraiten* sjesun arek il sjéla || eta gero mástjak konteštatu sjésun ´ šwan litjála miratra gíson ari áwa | eta erden ses(e)in mia falta séla || eta mástjiak erkin sjésun folátik mía | eta erakući sjésun | eta gúnjan šíneći sésein arek íl sjéla]

[érak ´ o: | ékuši dú gòre béyak ´ígar kébenti || bai || eta nóra šwàn dú || o: ´bíškar kortí || ékušu dú gòre bèya | mutùra bélcarèki | bère cincer sár bàterekíla kébenti || bai || í eta nónti šwán dú | bíškar kotí ´ šwán dú | àrankóikora || i eta dagó àniš témpra ìgar kébenti || bái ´ bái | egítan dú ániš témpra || pweš ´ somát témpra èkitan dú || egítan dú bóš ilabéte || ordíen | ès sé nirjak kúrak]

* sic

Itzulpenak

1.- (erronkariarrek erandako errege mairu baten istorioa bide da,lehena)

emakume batek lepoa moztu zion(zuen) eta mihia kendu zion (zuen) ahotik eta sakelera sartu.Eta gero ez zuten nahi sinetsi emakumeak hil zuela gizona.Eta gizon batek esaten zuen hark hil zuela.Eta gero emakumeak erantzun zuen joan zitezela ikustera gizon hari ahoa,eta konturatu ziren mihia falta zela.Eta emakumeak atera zuen sakeletik mihia eta erakutsi zuen eta orduan sinetsi zuten hark hil zuela.

2.- -esan ezak,ooo! ikusi duk(?) gure behiak pasatzen hemendik?
-bai!
-eta nora joan duk(?)
-o! lepo horretatik
-ikusi duk gure behia,mutur beltzarekin,bere zintzarri zahar batez hemendik?

-bai!
-eta nondik joan duk?
-lepo horretatik,joan duk,amildegitik gora
-eta denbora asko da hemendik pasa dela?
-bai,bai,benetan denbora asko da!
-bada,zenbat denbora?
-badira,bost hilabete
-orduan ez ziren nireak haiek

Uztarrozeko aditza aztertu ez badugu ere,"du" horien atzean edo eta <tu< ditu bilakaera dago,eta beraz "berorrika" ariko lirateke(Lehen adizkia hika(errak) fosilizazioa izanik) edo hika arituz azken -k hori galduta lukete,garbi esan ez dakigu.Urtetan hitzegingabe hiztuna egoteak asko zailtzen du ulerkuntza.

IZABA

[konek ||| nora y(w)á ´ mor̄óya || čor̄ta čér̄ka | mayoralak óiltu đitan || ar̄en šin áđi đesegíđo ´ b(j)ar đjár téśtatu nìk | šìtan yasénjan ´ bar đjár téśtatu nik ||| šwàn sjá ´ eta || orái keƀe(n) njáu(n) | eđeik àr̄en ||| eđan sjá eta èr̄an sayá moróyari || er̄an sán | nois b(j)ar đjén er̄an áśki | gúnjan úcuren djár ||| bayá er̄áitan sjésun mor̄óyak | áśki ´ áśki ´ áśki | bayà sekula ecwita(n) ústan || konke šá ucu sjésun eta || seren ez nján er̄áitan || er̄àita(n) njá || á | eđátan | es djár encutàn | es djár encutàn eđátan || eđan sák ´ ík | eta ekuśiren dúk ||| konke mor̄óyak éđan ´ ta gisonak egítan sa yósun | áśki | kláro | bayà mor̄óyak es encutan deuś eré | és ente legatàn | ecjá argitan bósa || konke ùcu sjá ´ eta || nula ecjá er̄aitan || er̄aita(n) njá ´ bayà eđótan es dun naƀarità || eta ƀjen ártjan šakwa úśtu]

Itzulpena:

Honek (agure batek):-nora hoa morroia? -edateko bila, maizterrak bidali zidak. -Arren etor hadi ondoren,dastatu behar diat nik,etortzen haizenean dastatu behar diat nik.

Joan huan(zen) eta: -Orain hemen niagok,edan ezak(?) arren.Edan zian(zuen) eta esan zioan(zion) morroiari: -esan ezak noiz behar duen(?) esan "nahikoa" orduan utziko diat.Baina esaten zion(zuka) morroiak:-nahikoa,nahikoa,nahikoa,baina ez zuen(?) uzten.Hala,jadanik utzi zuen,(zuka) eta:-zergaitik ez hidan(?) esaten? -esaten nian! - A! edaten ez diat entzuten..., ez diat entzuten edaten,edan ezak,heuk,eta ikusiko duk.

Hala,morroiak edan eta gizonak egiten zion(zuka):-nahikoa Noski,baina morroiak ez zuen entzuten ezer ere,ez zuen ulertzen ez zian(zuen) entzuten (ulertzen) boza.Hala utzi zian(zuen) eta: -nola ez hidan esaten? -esaten nian baina ez duk aditzen. Eta bien artean zahatoa hustu zuten.

Aditzean zenbait hutsegite bide da: Agureak morroia,hika tratatzen du(gizonezko) baina batzutan emakumezko ere; "erran zan,ez dun nabaritan".Berriemailea emakumezkoa zen.Bestalde hitanoa eta zutanoa nahasten ditu.

BIBLIOGRAFIA

ARANZADI T.,ESTORNES LASA B. "Nombres de plantas en euskera" RIEV 1930 XXI 449-451.oo.

ARTOLA K. "Erronkariko uskararen azken hatsak eino´re" FLV 1977-25, ,75-108.oo. eta titulu beraz 1980-34,49-86.oo.

AZKUE R.M. "Particularidades del dialecto roncalés" Euskera 1931
Diccionario Vasco-Español-Francés Bilbo La Gran Enciclopedia Vasca 1969.
Morfología vasca Bilbo La Gran Enciclopedia Vasca 1969
Cancionero popular vasco 2 liburuki Bartzelona

BERGMANN W. Studien zur volkstumblichen Kultur im Grenzgebiet von Hocharagon und Navarra Hamburg 1934 (kultura-material hiztegia)

BONAPARTE L.L. Etudes sur les trois dialectes basques des vallées d'Aezcoa,de Salazar et de Roncal London 1872
"Rectificaciones hechas por el P.Bonaparte en las erratas deslizadas en la traducción roncalesa de Orreaga" Euskara II,1879,114-116.oo.
Le cantique des trois Jeunes gens dans la fournaise,dans les dialectes basques d´Aezcoa,de Salazar et de Roncal. London 1968
Le petit catéchisme espagnol du P.Astete,traduit en trois dialectes basques:1 Aezcoan 2 Salazarais 3 Roncalais... London 1869
Bere eskuizkribuak egun R-ri buruz dagoen materialik jorienetakoa dira,eskuizkribuok eskuratzeko ikus:
GONZALEZ ECHEGARAY Catálogo de los manuscritos lingüísticos de la colección Bonaparte que se conserva en las bibliotecas de Bilbao San Sebastián y Pamplona Madrid 1979

CARO BAROJA J."Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina" Acta salmanticensia Filosofía y letras 1.liburukia 3.zbk Salamancako Unibertsitatea 1946

ELIZONDO M.,SAMPER P.J.,MENDIGACHA M. El salmo quincuagésimo traducido al vascuence aezcoano,salacenco y roncalés de la versión castellana del padre Felipe Scio... London 1869

ESTORNES LASA J. Erronkariko uskara Donostia Auñamendi 1968
"Ezta ilen Erronkari-n uskara" Príncipe de Viana 26.zbk. 1968,3.o.
"Erronkariko uskaraz elestak.Fraseología roncalesa" F.L.V. 1982.40

ESTORNES LASA B. "Notas sobre el euskera roncalés" J.M.ARRATIA--ren Cancionero popular vasco Donostia 1968,I,37-41.oo.
Cuentos roncaleses,poemas y otras cosas navarras Donostia 1980
El Cantar de Roncesvalles y otros poemas navarros Donostia 1979 "El dialecto roncalés en la muga de Aragón y Bearne" Iker-2 Euskaltzaindia Bilbo 1983,215-218.oo.
eta Mariano Recuerdos de Erronkari Donostia 1960 eta 1966

GARDE M. "Erronkari txoriño" Eusko-Gogoa 1954,75.o.(poesia)

GOENAGA P. Gramatika bideetan Donostia Erein 1980

HUALDE MAYO "Ebanjelio Saintiua" FLV 19 -39

IRIGARAY F. "Erronkariko uskaraz" A.IRIGARAY-ren Prosistas navarros-en Iruiñea 1958,177.o.

IRIGARAY A. Noticias y viejos textos de la "Lingua e Navarrorum" Donostia 1971 103-113.oo.

IRIGOYEN A. "Cartas de Mariano Mendigacha a don Resurrección María de Azkue" Euskera 1957,II,119-170.oo.

IZAGIRRE K. "Erronkariko euskal-ondakin batzuk" BRSVAP 1959, 279-314.oo. eta titulu beraz: "...(1)" 1961

LAFON R. Sur la place de l'aezcoan,du salazarais et du roncalais dans la clasification des dialectes Pirineos 1955, XI,109-133.oo.

MENDIGACHA M. "Orreaga" Euskara 1878-I 74-75.oo.

MICHELENA L. "Contribución al conocimiento del dialecto roncalés BRSVAP 1953 499-536.oo.
"La posición fonética del dialecto vasco del Roncal" Via Domitia Tolosa(Frantzia) 1964
"Unas observaciones al último número de Euskera" Euskera 1958-III,5-10

"El último roncalés", BRSVAP 1953-IX, 469-470.oo.
"Un vocabulario salacenco, aezcoano y roncalés preparado por el príncipe Bonaparte" BRSVAP-XIV, 335-364.oo.

RIJK R. DE "Euskal morlofogiaren zenbait gorabehera. Euskal linguistika eta literatura bide berriak Bilbo 1981, 83--102.oo.

SAN MARTIN J. "Fragmentos de canciones populares roncalesas" BRSVAP 1966-III-IV 375 eta 388.oo.
"Fragmentos de canciones del uskara roncalés "Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra Iruñea 1976-22,3--21.oo.

SANCHEZ CARRION J.M. El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra Iruñea 1972

SATRUSTEGI J.M. "Naparroko bizitza. Erronkariko Uskara" Príncipe de Viana 1968-261.o

URQUIJO J. El refranero vasco. Los refranes de Garibay. Donostia 1919, XXI.o.

YRIZAR P. Contribución a la dialectologia de la lengua vasca I,II Donostia GAK 1981

OHARRAK

1- YRIZAR Contribución a la dialectología de la lengua vasca I Donostia GAK 1981, 98.o.

2- YRIZAR Ibid. 103.o.

3- BONAPARTE Etudes sur les trois dialectes del vallées d´Aezcoa, de Salazar et de Roncal Londres 1872

4- AZKUE R.M. "Particularidades del dialecto roncalés" Euskera 1931, 207.o.

5- AZKUE R.M. Diccionario Vasco-Español-Francés Bilbo La Gran Enciclopedia Vasca 1969 XXVI.o. Baita ere LAFON R. "Sur la place de l´aezcoan du salazarais et du roncalais dans la classification des dialectes" Pirineos 1955, 111.o.

6- Ikus bibliografia

7- CARO BAROJA J. "Materiales para una historia de la lengua vasca en su relación con la latina" Acta Salmanticensia. Filosofía y letras 1. liburukia 3.zbkia Salamancako Unibertsitatea 1946, 21-22.oo

8- LAFON R. Ibid. 119.o.

9- MICHELENA L. Sobre el pasado de la lengua vasca Auñamendi 1964, 46.o.

10- ikus azken biontzat bibliografian aipatuak

11- YRIZAR P. "los dialectos y variedades..." BRSVAP 1973, 71.o Baita ere "Contribución.I" 216.o.

12- MICHELENA L. "la posición fonética del dialecto vasco del Roncal" Via Domitia Tolosa (Frantzia) 1964, 109.o.

13- LAFON R. Ibid. 109.o.

14- YRIZAR P. Ibid 126-127.oo. arteko mapa

15- MICHELENA L. Sobre el pasado... 46.o.

16- lan hau burutu ondoren beste lan baten berri izan dugu, bertan zenbait xehetasun historiko berri jasotzen dira: ESTORNES LASA. "El dialecto roncalés en la muga de Aragón y Bearne" Iker-2 Euskaltzaindia. Bilbo 1983. 215-218.oo.

17- Ikus bibliografia

18- MICHELENA L. "Contribución al conocimiento del dialecto roncalés" BRSVAP 1953, 506.o. eta hurrengoak

19- YRIZAR Contribución... 255.o.

20- Ikuspegi soziologikoagotik eta Nafarroako Pirene ifarraldeko prozesua bere osotasunean ulertu, eta barnean E-k beste prozesuekiko dituen bereiztasunak zehazteko, ikus SANCHEZ CARRION J.M. El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra Príncipe de Viana Iruñea 1972, 170-173 eta 180--182.oo., erdalduntze prozesu orokorrarentzat, 199-207.oo.

21- MICHELENA "La posición..."

22- ARTOLA K. Erronkariko uskararen azken hatsak eino´re" (1) FLV 1977-25, 105.o.

23- AZKUE R.M. "Particularidades.." 215-216.oo.

24- bokal-talde adibide ugari, gehien IZAGIRRE K.-kdakar bere "Erronkariko euskal ondakin batzuk" BRSVAP 1959, 281-282.oo.

25- AZKUE R.M. Ibid 217-220.oo. eta MICHELENA L. "Contribución." 503.o. honen eritziz ez da desberdintasunik neutraldu egiten direlarik /r/ eta /ŕ/

26- MICHELENA L. Fonética Histórica Vasca. Donostia 1977, 235--236. eta 249.oo.

27- arazoa bere osotasunean ikusteko, jo YRIZAR P. Ibid 354--356.oo.

28- LAFON R. Ibid 124.o. Lizarraga-ren N6, autonomoak Ø-3 hasten dira; lorturik doazenak, ez.

29- Ibid 123.o.

30- ARTOLA K. Ibid, 77-78.oo.

31- MICHELENA L. FHV 394-398.oo.

32- BONAPARTE L.L. Le verbe basque en tableaux... Lonreres 1872 XI.o.

33- AZKUE R.M. Ibid. 222-223.oo.

34- MICHELENA "La posición...", 143.o. bertan zerrenda guztia agertzen da eta LAFON Ibid 124.o.-an esplikazioa

35- Deklinabideari buruzko guztia bi iturritatik atera dugu eta izenak aipatzen ditugunean bi lan hauetaz ariko gara. ESTORNES LASA Erronkariko uskara Donostia 1968 Auñamendi IZAGIRRE K. Ibid (1) BRSVAP 1961 397-399.oo., 406-407.oo.

36- RIJK DE R. "Euskal morfologiaren zenbait gorabehera" Euskal literatura eta linguistika bide berriak Bilbo 1981, 89--94.oo.

37- RIJK DE R. Ibid 94.o. Bizkaiera zaharreko "zerureanik" (zerurenganik: Barrutia) = zeruetatik bezalako formek indartzen dute.

38- Ibid

39- AZKUE-rengandik jaso ditugu Ibid 226-227.oo.

40- BONAPARTE L.L. Estudes sur.

41- AZKUE R.M. Morfología... 251.o.

42- MICHELENA "Contribución..." 513-514 eta 527-528.oo.-etatik hartuak

43- GOENAGA P. Gramatika bideetan Erein 1980 Donostia. 218.o.

44- ARTOLA K. "Erronkariko.." 106.o.